# ERDALDUNEN EUSKARAREKIKO AURREIRITZIAK ETA JARRERAK

**Esti Amorrortu, Ane Ortega,**
**Itziar Idiazabal, Andoni Barreña**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

unesco etxea
centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

**http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka**

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2009ko apirila |
| Ale-kopurua: | 700 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra<br>Kultura Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Azala: | Antton Olariaga |
| Diseinua: | Junkal Motxaile |
| Maketazioa: | Concetta Probanza |
| Inprimatzailea: | RGM, S.A.<br>Polígono Igeltzera Pab.A1 bis – 48610 Urduliz-Bizkaia |
| ISBN | 978-84-457-2945-8 |
| Lege Gordailua | BI-1308-09 |

# HITZAURREA

**_Patxi Baztarrika_**

**_Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea_**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararen bizi-indarra eta bilakaera gertutik jarraitzeko hainbat ikerketa eta lan burutu ditu 2005-2009 legealdian, xedea izanik errealitatea kontuan hartzen duen, adostasunean eta herritarren atxikimenduan elikatzen den, eta bideragarria den hizkuntza politika garatzea. Azterketa kuantitatiboak izan dira ikerketa horietako hainbat, elebidunak zenbat garen, euskara noiz, zertarako eta zein eremutan baliatzen dugun, euskarazko produktuen kontsumoa zertan den, eta abar aztertzen dutenak. Beste azterketa batzuk, aldiz, kualitatiboak izan dira, hala nola, euskaraz sorturiko hainbat produkturi buruz zein iritzi dugun, zeren falta nabaritzen dugun eta abar berariaz aztertuz.

Horiek horrela, azken multzo horretakoa da eskuartean duzun argitalpen hau, ikerketa kualitatiboa baita, hain zuzen ere. Izan ere, Euskadiko biztanleriak dituen ezaugarri soziodemografikoak aztertzetik haratago, erdaldunek euskararekiko dituzten aurreiritziak eta jarrerak aztertzeko asmoz, Unesco Etxearekin lankidetzan hiru urtez luzatu den ikerketa-proiektu baten emaitzak jasotzen baititu.

Zergatik eta zertarako aztertu erdaldunen euskararekiko jarrerak eta aurreiritziak?, galdetuko du norbaitek.

Galdera horri erantzun bat emateko asmoz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 legealdirako finkatutako jardunbideetara jo behar dugu ezinbestean. Izan ere, 3. jardunbideak zioen “erdal komunitatearen inplikazioa bilatzea bai euskararen normalkuntzaren bidean, baita euskal munduari buruzko komunikazioa bideratzeko ahaleginean ere”. Egin-eginean ere, lagun hurkoaren aldekotasuna eta inplikazioa lortzeko peskizan dituen usteetara eta arrazoietara hurreratzeko ahalegina egin beharko da derrigorrez, besteak beste, beren jarreretan eta aurreiritzietan sakonduz.

Ikerketa-proiektu honek bi xede izan ditu: batetik, euskarari buruzko aurreiritzi eta jarreren diagnostikoa egitea, euskararen normalkuntzan, bai erdaldunak euskarara hurbiltzeko eta, baita ere, euskaldunek euskara erabil dezaten aldeko jarreretan zein diren eragile mesedegarriak edo oztopatzaileak identifikatzeko; bestetik, orain arte elebidun bihurtu ez den gizataldearen euskararekiko jarrerak modu zehatzagoan arakatzea, gizatalde horretako azpitalde desberdinen jarrera-mota bakoitza aztertuz. Horrela, esku hartzea zein taldetan den beharrezkoagoa eta zein taldetan izango litzatekeen eragingarriagoa antzemateko modua izango dugu.

Berriki, Euskararen Aholku Batzordearen eskutik, Euskara 21 izenburuaz azken urteotan hizkuntza politikari buruz burutu dugun gizarte-eztabaida zabalena arrakastaz burutu dugularik, prozesu horren ostean, Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak, 2009ko otsailaren 9an, aho batez onartutako *Itun berritu baterantz* dokumentuan zera jasotzen da: “Ezin da erdararen eta euskararen munduen arteko dibortzioa betikotu: herritar guztiei (baita euskaratik urrun daudenei ere) dagokie hizkuntza politika itxuratzea, adostea, mamitzea. Ez baitago “euskararen auzia”, euskal herritarron hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baizik. Ez dezala inork, beraz, langintza horretatik inor baztertu. Gizarte eleaniztun baten barnean euskara biziberritzea gizarte osoaren helburu kolektiboa da, eta, beraz, herritar guztiona, zeinahi delarik ere norberaren ideologia edo jarrera politikoa”.

Finean, euskararena kolore guztietako euskal herritarrona, euskal hiztunena bezala oraindik euskaraz ez dakitenena, egiazki guztiona den proiektu nazional izan dadin lortzen dugun neurrian izango du arrakasta euskara biziberritzeko prozesuak. Prozesu horretako zutoin nagusia, oinarrizkoena eta erabakigarriena, herritarren atxikimendua dela uste dugu; atxikimendu hori elika dezakeen borondatea sendotu eta areagotuko bada, ezinbestekoa dugu herritarren jarrerak ezagutzea, benetako jarrerak ohiko topikoetatik harantzago. Noranzko horretan, euskararen indarberritzea eta gure gizartean horren beharrezkoa dugun bizikidetza eta kohesioa areagotuko dituzten ahaleginak errealitatetik abiatu daitezen ekarpena izan nahi du argitarapen honek. Hala izan dadin desio nuke nik, bene-benetan.

2009ko apirila

# AURKIBIDEA

**SARRERA** 15

**IKERKETA KUALITATIBOA**

**1. KAPITULUA:** 21

1.1. IKERKETA KUALITATIBOAREN HELBURUAK 21

1.2. IKERKETA KUALITATIBOAREN METODOLOGIA 22

1.2.1. Datuak biltzeko metodoa: *eztabaida-taldea* 23

1.2.2. Solaskideak 25

1.2.3. Datuak aztertzeko metodoa: *Edukien azterketa* eta kodifikazioa 27

1.2.4. Metodologiaren ebaluazioa 29

1.3. LIBURUA IRAKURTZEKO ARGIBIDEAK 30

**2. KAPITULUA: EUSKARAREKIKO JARREREN IZAERA** 33

2.1. EUSKARAREN BALIO INSTRUMENTALA 38

2.1.1. Euskararen balio instrumentalari buruzko iritziak 38

2.1.2. Antza, euskararen balio instrumentala handiagoa da lanbide eta esparru jakin batzuetan 42

2.1.3. Euskara berreskuratzeko balio instrumentalaren garrantzia eta mugak 44

2.2. BALIO INTEGRATZAILEA 46

2.2.1. Euskararen balioa norbanakoaren eta gizartearen nortasuna eraikitzeko 46

2.2.2. Euskararen garrantzia euskal gizartean integratzeko 49

2.2.2.1. Euskara jakin gabe ere euskal lurralde osoan bizi daiteke 49
2.2.2.2. *Bi mundu* egoera 50
2.3. IDEOLOGIAREN EGITEKOA 58
2.3.1. Euskararen politizazioa 58
2.3.1.1. Euskararen eta jarrera politikoaren arteko loturak 58
2.3.1.2. Euskararen politizazioaren arrazoiak 61
2.3.1.3. Euskara politikarekin lotzeari buruzko balorazioa 62
2.3.1.4. Nola gaindi daiteke euskararen politizazio-egoera? 63
2.3.2. Hizkuntzaren eta kulturaren kontzientzia izatearen edo haien aldeko militante edo ekintzaile izatearen garrantzia 65

**3. KAPITULUA: EUSKARAREKIKO JARRERAK LAU ARLO EZBERDINETAN** 69
3.1. NORMALTZE-PROZESUA BURUZKO PERTZEPZIOAK 69
3.1.1. Euskararen prestigioa hobetu da baina... 70
3.1.2. Zertan aurreratu den 75
3.1.2.1. Aurreratu da 75
3.1.2.2. Aurrerapenaren balorazioa 78
3.1.3. Euskara modu naturalean bizi duten ala ez 79
3.1.4. Noren erantzukizuna izan behar den euskararen aldeko lana egitea 82
3.1.5. Hizkuntza-plangintza instituzionalaren ebaluazioa 85
3.1.5.1. Erakunde publikoen esku-hartzea eta babesa beharrezkoak dira 86
3.1.5.2. Hizkuntza-plangintza adostuta egin behar da 89
3.1.5.3. Inposaketaren pertzepzioa 91
3.1.5.4. Helburuak berrikusi eta zehaztu behar dira 94
3.1.6. Euskararen etorkizuna 95
3.2. ERABILERA 101
3.2.1. Erabilera orokorrean 101
3.2.2. Euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko arrazoiak 102
3.2.3. Ume eta gazteen erabilera 108

3.2.3.1. Gazteek euskara ez erabiltzeko arrazoiak 109

3.3. EUSKARAREN IKAS-IRAKASKUNTZA 113

3.3.1. Euskararen irakaskuntzaren antolaketa eta metodoa 114

3.3.1.1 Heldu askok ezin dute egungo helduen ikaskuntza-sistemak eskatzen duen ahalegina egin eta ikasteari ezin diote eskatzen duen denbora eman 114

3.3.1.2. Kritikak ebaluazio-sistemari eta EGA tituluari 118

3.3.1.3. Euskara bigarren hizkuntza gisa irakasteko metodologia 121

3.3.2. Inplikazio pertsonalaren maila eta hizkuntza ikasteko ezintasunak sortutako sentimenduak 123

3.3.3. Euskara ikasteko motibazioak 126

3.3.3.1. Barneko motibazioak 128

3.3.3.2. Kanpoko motibazioak 130

3.4. EUSKARAREKIKO JARRERAK ENPRESA-MUNDUAN 133

3.4.1. Euskararen erabilera enpresa pribatuan 134

3.4.2. Euskararen balio integratzailea eta instrumentala enpresa pribatuan 138

3.4.3. Enpresa pribatuan euskararen garapenak dituen zailtasunak eta normalizazio-politiken mugak 143

3.4.3.1. Enpresa pribatuan euskararen normalizaziorako zailtasunak 143

3.4.4. Azken hausnarketa: Babes ekonomiko eta instituzionalaren eta hizkuntzarekiko konpromisoaren garrantzia 153

**4. KAPITULUA: AURREIRITZI MESEDEGARRI ETA OZTOPATZAILEAK** 155

4.1. EUSKARARI BURUZKO USTE EDO AURREIRITZI OROKORTUAK 156

4.2. JABEKUNTZA ETA IKASKUNTZARI BURUZKO USTE OROKORTUAK 168

4.3. ELEBITASUNARI BURUZKO AURREIRITZIAK 176

**5. KAPITULUA: BAI-BAINAKOEN AZTERKETA** 185

5.1. *BAI-BAINAKO*EN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK 186

5.1. *BAI-BAINAKO*EN MODURA DEFINITURIKOEN ELEMENTU KOMUNAK EDO ERREPIKATUAK 187

5.2.1. Euskararekiko kokapena 187

5.2.2. *Bi mundu bereiziak*: euskarari uztartutako mundua, mundu ezezaguna 188

5.2.3. Euskarari eta hizkuntza-politikari ematen zaion babesari mugak 189

5.2.4. Euskara ikasteko edo euskaraz mintzatzeko motibazioak 194

5.2.5. Seme-alaben hezkuntza-eredua aukeratzeko norberaren edo besteen arrazoiak 196

5.2.6. *Bai-Bainako*en euskara ikastea 198

5.2.7. Aurreiritziak, usteak eta balorazio orokortuak 203

5.2.8. Euskararen moduko hizkuntza gutxituen ahulezia gutxiesten duten arinkeriak eta *naïvité*ak 208

IKERKETA KUANTITATIBOA

**6. KAPITULUA: AZTERKETA KUANTITATIBOA** 217

6.1. HELBURUAK 217

6.2. GALDESORTA 218

6.3. DATU BILKETA ETA LAGINA 221

6.4. JARREREN MAIZTASUNA 225

6.4.1. Euskararekiko Kokapena 225

6.4.2. Bi mundu 231

6.4.3. Euskara ikasten saiatu diren pertsonak 235

6.4.4. Euskarara hurbiltzeko ahaleginak: zer egiteko daude prest? 239

6.4.5. Euskara ikasteko motibazioak eta ez ikasteko arrazoiak 241

6.4.5.1. Euskara ikasteko motibazioak 241

6.4.5.2. Zein baldintzatan ikasiko luketen euskara 242

6.4.5.3. Euskara ez ikasteko arrazoiak 245

6.4.6. Aurreiritziak eta arinkeriak 246

6.4.6.1. Euskarari buruzko aurreiritziak 247

6.4.6.2. Jabekuntza eta ikaskuntzari buruzko uste orokortuak 250

6.4.6.3. Elebitasunari buruzko aurreiritziak 253

6.5.1. kluster azterketa 258

6.5.2. erantzuleen tipologia 265
6.5.2.1. Klusterren ezaugarri soziodemografiakoak 265
6.5.2.2. Zer egiteko prest daude 271
6.5.2.3. Aurreiritzi eta arinkeriak hiru klusterretan 276
6.5.2.4. Klusterren ezaugarriak laburbilduta 277

AMAIERA

**7 KAPITULUA: Sintesia eta azken hausnarketa** 281

7.1. Euskararekiko jarrerak aztertzeari dagokionez ikerketa honek egindako ekarpena baloratzeko giltzarriak 282
7.2. Ikerketaren helburuak 283
7.3. Emaitzei buruzko zenbait hausnarketa 286
7.3.1. Jarreren jatorria: euskararen hainbat balio 286
7.3.2. Bi munduko egoeran bizitzea: integrazioaren ideiari buruzko eztabaida 289
7.3.3. Euskararen etorkizuna, erakundeen babesa eta konpromisoa 291
7.3.4. Euskara ikasteko zailtasunak 294
7.3.5. Adostasuna eta esanahi bikoitzeko beste ideia batzuk 299
7.4. Beste ikerkuntza-bide batzuk 303
7.4.1. Gazteen jarrerak edota gazteen erabilera 303
7.4.2. Euskaldunek euskararekiko dituzten jarrerak 304
7.4.2. Ezkutuko jarreren azterketan sakontzea 305

**ERANSKINAK** 307

JARREREN DIAGRAMA 309
IKERKETA KUANTITATIBORAKO ERABILITAKO GALDESORTA 315

**ERREFERENTZIAK** 329

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Laginaren neurria 221

2. taula: EAEko eskualdeak 222

3. taula: EAEko biztanleria eskualde-motaren arabera 222

4. taula: Inkesta-kopurua eskualde euskaldunagoetan eta udalerriak 223

5. taula: Inkesta-kopurua eskualde erdaldunagoetan eta udalerriak 224

6. taula: Lagineko elkarrizketak lurralde historikoen arabera 224

7. taula: Euskara ikasten saiatu direnak (%) 235

8. taula: Euskara ikasten ari direnak (%) 235

9. taula: Euskara ikastea gustatuko litzaieke (%) 235

10. taula: Euskara ikasteko ahalegina egiteko erabakia hartzerakoan lehen eta bigarren arrazoi garrantzitsuenak 242

11. taula: Umeekiko jarduerekin lotuta euskara ikasi identitate-sentimenduaren arabera 244

12. taula: Kluster azterketa egiteko aldagaiak 259

13. taula: Klusterrak ikasketa-mailaren arabera (%) 270

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia: Euskararekiko kokapena 226

2. irudia: Euskararekiko kokapena euskararen presentziaren arabera 227

3. irudia: Euskararekiko kokapena ideologia politikoaren arabera 228

4. irudia: Euskararekiko kokapena ideologia abertzalearen arabera 229

5. irudia: Euskararekiko kokapena identitate-sentimenduaren arabera 230

6. irudia: Erantzuleen euskararekiko hurbiltasuna 231

7. irudia: Bi mundu eskualde-motaren arabera 232

8. irudia: Bi mundu ideologia abertzalearen arabera 233

9. irudia: Bi mundu identitate-sentimenduaren arabera 234

10. irudia: Euskara ikasten inoiz saiatu direnen ehunekoa ideologia politikoa kontuan hartuta 236

11. irudia: Euskara ikasten saiatu direnen ehunekoa ideologia abertzalearen arabera 237

12. irudia: Inoiz euskara ikasten saiatu direnen ehunekoa identitate-sentimendua kontuan hartuta 238

13. irudia: Euskararen aldeko ahalegina egiteko batez besteko prestutasuna (1etik 4ra) 239

14. irudia: Euskarara hurbiltzeko ahaleginak ideologia abertzalearen arabera 240

15. irudia: Euskarara hurbiltzeko ahaleginak identitate-sentimenduaren arabera 240

16. irudia: Euskara ikasteko baldintzak 243

17. irudia: Euskara ez ikasteko arrazoiak 245

18. irudia: *Euskara hizkuntza ederra da* aurreiritzia 247

19. irudia: *Euskara baserritarren hizkuntza da* aurreiritzia 248

20. irudia: *Euskara zaila da* aurreiritzia identitate-sentimenduaren arabera 249

21. irudia: Ezinezkoa da euskara heldutan ikastea aurreiritzia 250

22. irudia: *Hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk* aurreiritzia 251

23. irudia: *Ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko* aurreiritzia 252

24. irudia: *Hobe hizkuntza bakarra* aurreiritzia 253

25. irudia: *Euskara galtzea ez da arazoa* aurreiritzia 254

26. irudia: *Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz hitz egitea* aurreiritzia 255

27. irudia: *Euskaraz norberaren aurrean egitea* 255

28. irudia: *Arrosa koloreko etorkizuna* aurreiritzia 256

29. irudia: *Euskara enpresentzat zama* da aurreiritzia 257

30. irudia: Klusterren item bakoitzaren batez bestekoa 262

31. irudia: Klusterrak euskararekiko kokapenaren arabera 266

32. irudia: Klusterrak eskualde-motaren arabera 267

33. irudia: Klusterrak euskararen presentziaren arabera 267

34. irudia: Klusterrak identitate-sentimenduaren arabera 268

35. irudia: Klusterrak adin-taldeen arabera 269

36. irudia: Klusterrak seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegina itemaren arabera 271

37. irudia: Klusterrak seme-alabei euskal mundua hurbiltzeko prestutasunaren arabera 272

38. irudia: Klusterrak euskararen aldeko jarreren transmisioaren arabera 273

39. irudia: Klusterrak euskara ondo ikasteko ahalegina itemaren arabera 274

40. irudia: Klusterrak euskara pixka bat ikasteko ahalegina itemaren arabera 275

41. irudia: Aurreiritzi eta arinkeriak kluster bakoitzean 276

# SARRERA

Txosten honetan euskararekiko jarrera eta aurreiritziak aztertzen dira. Gizarte eleanitzean gaudela kontuan hartuz eta jarrera linguistikoen gaia fenomeno oso konplexua dela jakinik, batez ere arrakastaz euskaldundu ez diren euskal herritarren jarrerak dira aztergai direnak.

Euskararen normalizazioari begira esku-hartze eraginkorra izan dadin, eragin nahi den taldea nolakoa den, eta bereziki gizartearen hizkuntza-egoera nola bizi duen jakin behar da aurretiaz. Badaude zantzuak pentsarazten dutenak euskararen inguruan garatu diren aurreiritzi eta jarrera oker edo kontrajarriek oztopatzen dutela talde batzuen euskarara hurbiltzea. Horregatik lan honen helburua zera da: batez ere arrakastaz euskaldundu ez diren euskal herritarren jarrerak zeintzuk diren eta elebitasunerako mesedegarri eta oztopatzaile diren aurreiritziak arakatzea, batetik, eta jarrerotan zein faktore sozialek eragiten duten antzematea, bestetik. Zehazki, zera jakin nahi da: zein giza talde egon daitezkeen prest euskarara hurbiltzeko eta zer egiteko prest dauden.

Amarauna ikerketa-taldea aspalditik ari da hizkuntza eta gizartearen arteko harremanez ikerketa sakonak egiten. Jadanik 1997an UNESCO Etxeak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako Munduko Hizkuntzei buruzko txostena egiteari ekin zion, lau helburu nagusirekin (Martí eta beste 2005): munduko hizkuntzen hiztunei harrotasuna, autoestimua eta prestigioa emateko, beren ondare linguistikoa babesten jarrai dezaten; beste komunitate batzuetan emaitza onak izan dituzten esku-hartze, sentsibilizazio eta sustapen-ereduak eskaintzeko; hizkuntzen gaineko mehatxuak salatzeko eta haien kinka larriaz

ohartarazteko; eta hizkuntzen homogeneizatze prozesua geratzeko eta alderantzizko joera har zezan ardura eta ahalmena dutenek egitasmo horretan ardura har zezaten. Lan hartan, munduko hizkuntza-ondasunari begira, bai norberaren bai besteen hizkuntzekiko jarrerek hiztunen portaeran zer-nolako garrantzia duten argi azaldu zen, baita saihestu beharreko jarrerak eta aurreiritziak zeintzuk ziren ere.

Harrez geroztik beste lan ugari burutu du UNESCO Etxeko Amarauna taldeak soziolinguistika arloan, munduko ondarea (Amorrortu eta beste 2004, Martì eta beste 2005, Barreña eta beste 2005, Barreña eta beste 2006, Barreña eta beste 2007) zein Euskal Herriko egoera (Uranga eta beste 2008) kontuan harturik. Orain arteko ibilbide luze horrek ikuspegi aberatsa eta askotarikoa eman dio taldeari hizkuntza-aniztasuna eta hiztunek zein irudi, sentipen, eta bizipen dituzten hizkuntzekiko aztertu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuorde Patxi Baztarrika jaunak Amarauna ikertaldeari euskararekiko jarrerak aztertzeko eskatu zion 2006an, eta, euskararen aldeko edo kontrako jarrera garbiak dituztenetara mugatu ordez, jarrera konplexua, kontraesankorra edota epela izan dezaketenetan sakontzeko eskaera egin zuen. Liburu hau azken hiru urtean burutu den ikerketa horren emaitza da.

Aipatu den helburua betetzeko osagarriak diren bi metodologia nagusi erabili dira. Batetik, ahalik eta jarrera gehien atera nahirik, *eztabaida-taldetan* oinarritutako metodo kualitatiboa erabili da. Jarrerak konplexuak direnez, eta aberastasun hori aztertu eta baliatu asmoz, jarrera eta gaien tipologia itxi batetik abiatu ordez, partaideek eurek eman dituzte jarrerak eta gai garrantzitsuak, modu librean eta euren berbalizatzeko moduan adieraziz. Ideia horiek guztiak aztertuta egin da hemen aurkezten den jarrera-tipologia.

Bestetik, ikerketa kualitatiboaren partaideek emandako ideietan oinarrituta, modu kuantitatiboan aztertzeko galdesorta diseinatu da. Berriro ere, hizkuntza-jarrerak neurtzeko eginda dagoen galdesorta erabili edo literaturan klasikoak diren galdera-motak egin ordez, ikerketa kualitatiboko emaitzetan oinarritutako galdesorta berria sortu eta erabili da, eztabaidetan ageri diren ideiak Euskadiko biztanlerian nagusi diren ala ez antzemateko, batetik, eta, zein giza-taldetan ageri diren maizago argitzeko, bestetik.

Liburua zazpi kapituluk osatzen dute. Lehen bostek ikerketa kualitatiboa biltzen dute eta seigarrenak ikerketa kualitatiboa. Azkenik, zazpigarren kapituluak liburu osoaren ondorioak biltzen ditu eta hausnarketarako proposamen bat eskaintzen.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu lana egiten lagundu diguten guztiei: lehendabizi partaideei, galde-sorta erantzun dutenei eta, bereziki, mahai-inguruetan parte hartu duten solaskideei. Horrezaz gain, ikerketaren diseinuan, datu bilketan eta trataeran bide errazagoa egiten lagundu diguten Nerea Basterretxea, Olga Andueza, Esti Eizagirre, Asier Barrena, Maider Maraña, Txema Olabeaga, Iratxe Aristegi, Lander Intxausti eta Belen Urangari. Azkena agertzen bada ere, Belen Urangaren izena lan honekin ezinbestean lotu beharrekoa da. Belen, UNESCO Etxeko Amarauna taldearen bihotza izan da eta bihotz horretatik abiatuz eta edanez egin ahal izan da lan hau.

# IKERKETA KUALITATIBOA

## 1. KAPITULUA:
# IKERKETA KUALITATIBOAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Kapitulu honek zera dakar: azterketa kualitatiboaren helburuak; bai datuak biltzeko bai aztertzeko erabilitako metodologia; lagineko partaideen berri; metodologia-markoaren eraginkortasuna; eta liburua irakurtzeko argibideak.

### 1.1. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketa kualitatiboko helburuak honako hauek dira:

H1: Hizkuntza-jarreren literaturan ohikoak diren hiru dimentsioak (tresna balioa, balio integratzailea eta ideologia) euskararekiko jarreretan aztertzea; hau da, hiru kategoria hauek abiapuntu hartuta, euskararen kasuan zein balio zehatz ageri diren arakatzea.

H2: Partaideen diskurtsoa kontuan izanik eta jarreren aniztasun eta konplexutasunaren berri emateko asmoz, zein dimentsio berri ager daitekeen antzematea.

H3: Euskararekiko jarreren tipologia bat egitea; beste hizkuntzetarako erabili diren tipologiak erabili beharrean azterketaren ondorioz lortutako euskararako propioa den tipologia egitea.

H4: Euskararen kontra ez egonik ere erabat alde ez daudenen jarrerak aztertzea eta horrela jarrera tarteko, konplexu, kontraesankorrak dituzten lagunak identifikatzea, baita lagun horiek adierazten dituzten gai komunak ere.

## 1.2. METODOLOGIA

Ugari dira euskararekiko jarrerak aztertu dituzten lanak. Hizkuntza minorizatuen kasuan eta bigarren hizkuntzaren eskurapenaren arloan jarrerek jokabide linguistikoan, hau da erabileran, eragin zuzena dutela suposatzen da: termino orokorretan esanda eta salbuespenak salbuespen, jarrera ona izanda, bigarren hizkuntzaren ikasleak errazago eskuratu eta erabiliko du hizkuntza hori eta lehen-hizkuntza duenak ere erraz eutsiko dio.

Euskara eta erdarekiko hizkuntza-jarrerak neurtzeko erabili diren metodoak gehienbat zuzenak dira (Baxok eta beste 2006, Azurmendi 1986, 1998; Argüeso 1988; Eusko Jaurlaritza 1995, Martínez de Luna 1995; Ramírez 1991, besteak beste). Herritarrei zuzenean galdetu zaie zein iritzi duten euskararen aldeko plangintza dela eta: ea ezinbestekoa den haur guztiek euskara ikas dezaten, ea Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiek programa gehiago izan beharko lituzketen euskaraz eta ea Euskal Herriko administrazio publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzatekeen euskara jakitea, kasurako. Sarri ikusi da lekukoa elebiduna ala elebakarra izan eragina duela emango dituen hizkuntza-jarreretan; ez da harritzekoa euskaldunek erdaldunek baino euskararekiko jarrera hobea izatea.

Jarrera aitortuak ezagututa, hau da, norbanakoei galdera zuzenak eginda, pentsatu ohi da erabilera sustatzeko ekimenen arrakasta aurreikusi daitekeela; aldeko jarrera aitortuek erabilera ziurtatuko dutela neurri batean. Baina berariaz egindako ikerketek erakutsi dutenez, hizkuntza baten aldeko jarrera aitortua eta interesa egonik ere erabilera ez da ziurtatzen. Jarreren gaineko galderen erantzuna norbanakoak benetan irizten diona baino, une horretan modan zer dagoen, politikoki egokia zer den (norberaren ideologia politikoa kontuan hartuta) edota ikerlariak jaso nahi duenaren ustearen araberakoa izan ohi da. Horrelako aurre-planteamenduek baldintzatuta jasotako jarrerek

jokabide linguistikoetan izango duten eragina murriztuko da. Izan ere, hizkuntza minorizatuaren kasuan, eta batez ere taldekideen artean galera estrukturalaren kontzientzia dagoenean, esandako jarrera askotan ekintzazko jarrera baino baikorragoa izaten da (Dorian 1980 Eskoziako Gaelikorako eta Silva-Corvalán (1994) Kaliforniako espainierarako, besteak beste).

Kasu honetan, euskarak azken urteetan paisaia linguistikoan, hezkuntza--sisteman, administrazio publikoan eta komunikabideetan irabazi duen presentzia dela eta, euskararen aldeko hain jarrera ona ez dutenek, edo jarrera nahikoa epela dutenek kontzienteki euskararen aldeko erantzunak eman ditzakete, zuzenean haien euskararekiko jarrera zein den galdetuta. Hala ere, jarrera askoz konplexuagoak, ezkutukoak, edo, agerian aldekoak izanik ere inkontzienki kontrakoak izan daitezke. Are gehiago, identitate eta arrazoi politikoak direla medio, azken urteetan euskara berreskuratzeko eta normaltzeko egin diren ahaleginen kontra dagoen pertsona egin den plangintzaren kontra aritu daiteke, zuzenean galdetuta, eta ez genuke izango aukerarik jarrera konplexu, kontraesan eta uste okerrak azalarazteko.

Hizkuntza-jarrerak neurtzeko zeharkako metodo ezberdinak daude, besteak beste taldekako eztabaidak eta bakarkako elkarrizketak (ikus baita Tejerina 1992 eta Baxok eta beste 2006).

### 1.2.1. Datuak biltzeko metodoa: *eztabaida-taldea*

*Eztabaida-taldea*, ingelesez *Focus Group*, jarrerak biltzeko zeharkako metodo kualitatiboa da, arestian esan bezala. Helburu nagusia gai bati buruz aukeratutako lagun taldekideek dituzten uste, jarrera eta sentipenei buruz, eta gai horien inguruan izan duten esperientziari buruz informazioa eman dezaten aukera sortzea da, horretarako berariaz antolaturiko elkarrizketa edo eztabaidaren bitartez. Metodo hau oso egokia da gai baten ikuspegi anitza azaleratzeko eta arrakastatsua izango da, besteak beste, eztabaidaren moderatzaileak bere lana modu egokian egiten badu. Teknika hau merkatu-ikerketetan aspaldidanik erabiltzen da eta beste arlo batzuetan oso ohikoa da, hala nola osasun-langile eta gaixoen arteko komunikazioari buruzko ikerketetan eta mota guztietako jarreren ikerketetan.

Lehen esan bezala, moderatzailearen lana oso garrantzitsua da, malgua izan behar du baina eztabaida aukeratu den gaitik gehiegi ez aldentzeko ahaleginak egin behar ditu. Horretarako, gaitegi bat eraman ohi du ekitaldietara. Solaskideak eroso sentitu behar dira taldeari bere sentipen eta iritziak adierazteko, plazaratzen diren gaiei buruz hausnarketa egiteko, eta beste kideek ematen dituzten ikuspegi ezberdinak ere aintzakotzat hartzeko. Helburu horiek bete daitezen, ezinbestekoa da giro egoki eta erlaxatua egotea, solaskideak eroso sentitzea.

Bestalde, hasieratik eztabaida-gaia zelan plazaratzen den oso garrantzitsua da. Metodo zuzenek dituzten mugak sahiesteko, ez da komeni zuzenean partaideei ikerketaren helburuak argitzea. Horretarako, euskararekiko jarrerak, uste eta aurreiritziak aztertu nahi zela esan ordez, euskararen inguruan azken berrogei urtean egindako lana zelan baloratzen zuten, zelan bizi zuten aztertu nahi zela esan zitzaien. Modu horretara norberaren esperientzia eta bizipenetatik abiatzea lortzen zen, komunikabideetan eta batez ere diskurtso politikoan hain sarri ageri diren aurreiritzi eta jakineko jokamoldeak saihestuz.

Lau lagun ibili dira moderatzaile eztabaida-saioetan (beti bi aldi berean[1]) eta irizpide bateratuak izateko protokolo bat ezarri zen: horren arabera, mahai-inguruan bertan eztabaidaren gaia lagunarteko moduan ematen zen, arestian azaldu bezala; saioa grabatzeko baimena eskatzen zen; eta eztabaidari ekiteko euskararekin zein nolako esperientzia zuten galdetzen zen.

Moderatzaileek euskararen inguruko gai eta galdera zerrenda bat zeramaten, momenturen batean gaia agortuz gero beste bat mahairatzeko, edo interesekoa zen ideia edo ikuspegiren batetik tiratzeko. Gainera, informazioa biltzeko, kontrako iritziak jasotzeko, gaia sakontzeko eta abarrerako, diskurtso-estrategia landuak ere bazituzten moderatzaileek eztabaida bideratzeko lana errazteko.

Mahai-ingurua amaitutakoan partaide denek beren datu soziodemografikoez osatutako fitxa osatu zuten, eta moderatzaileek ohar etnografikoak

1 Kasu bitan agenda-arazoak direla eta, ezinezko egin zitzaigun eztabaida-taldea antolatzea eta horren ordez bakarkako eztabaida bi egin genituen (Enp2 eta Enp3); elkarrizketa ikerlari bakar batek bideratu zuen bi kasu horietan.

hartu zituzten. Halaber, partaide bakoitzari klabe bana eman zitzaion, aurrerantzean, konfidentzialtasuna gordetzea bermatzeko. Azkenik saio osoak transkribatu ziren edukien azterketa egiteko.

Saio guzti-guztietan giro atsegin, lagunkoi eta aberatsa sortu zela azpimarratu behar da. Bai moderatzaileak bai partaideak oso gustura sentitu zirela agerikoa zen, eta hala aitortu zuten amaieran bete zuten datu soziodemografikoen fitxan. Giro eroso horren erakusle partaideek oso modu kolaboratiboan eman zutela haien iritzia eta, sarri, saioak uste baino gehiago luzatu zirela (ordubete ingurukoak izatea espero bazen ere batzuk ordu bikoak izan ziren). Guztira ia 20 orduko transkripzioak dira ustiatu direnak.

### 1.2.2. Solaskideak

Berrogeita zazpi lagunek hartu dute parte ikerketa honetan. Partaideak bilatzeko erabili den lehen irizpidea inguru soziolinguistikoa izan da: mahai-inguru batzuk inguru erdaldunagoan eta beste batzuk inguru euskaldunagoan egitea erabaki da, beti ere hiriburuak ondo ordezkatuta daudela ziurtatuz. Horrela, Bilbo, Barakaldo, Gasteiz, Iruñea (talde bi) eta Donostian, batetik, eta Durango eta Zarautzen, bestetik, burutu dira mahai-inguruak. Mahai-inguruetan lanbide askoko partaideak egon badira ere (irakasleak, enpresariak, medikuak, etxeko andreak eta abar) talde sozial jakin batzuen uste eta jarreretan aparteko interesa egon da eta haiekin osatutako saioak ere antolatu dira: enpresariekin 3 saio (Soraluze, Eibar eta Bilbon) eta kazetariek osatutako beste talde bat Bilbon. Kasu guztietan partaideak saioa burutu den hiri edo herriko eskualdekoak dira eta eskualde berean bizi eta egiten dute lan.

Eibarren izan ezik, saio guztietan erdaraz egin dira eztabaidak, partaide batzuek ez dakitelako euskaraz. Gainera, eztabaida-talde guztietan mota ezberdineko partaideak batu daitezen ahaleginak egin dira: talde guztietan euskaldunak, kuasieuskaldunak eta erdaldunak egon dira, emakume eta gizonak, adin ezberdinetakoak, lanbide eta ideologia ezberdinetakoak. Eztabaida piztu eta jarrera konplexuak batu nahi izan direnez, askotariko partaideak behar izan dira eztabaida aberatsagoak izateko. Helburua batez ere euskal-

dundu ez direnen jarrerak aztertzea izan da. Baina, eztabaidak aberatsagoak izateko iritzi-emaile euskaldunen jarrerak ere baliatu dira.

Ikerketarako burututako hamar saioetako lagina deskribatzen hasita 47 partaideetatik 21 emakumezkoak eta 26 gizonezkoak direla esan behar da. Gaur guztiak bizilekua EAE edota Nafarroan izan arren, partaideetako 32 Euskal Autonomi Erkidegokoak dira jatorriz, 9 nafarrak, 1 Iparraldekoa eta 5 Estatu espainiarrekoak. Adinari dagokionez, 28 partaide 26-45 urte bitartekoak dira eta beste 19ak 46-60 urte bitartekoak. Ikasketa-maila kontuan hartuta, 34 pertsonak goi-mailako ikasketak dituzte, 10 partaidek erdi-mailakoak eta 3k, berriz, oinarrizko ikasketak. Partaide bakoitzaren diru-sarrera ere galdetu zaie, non 7k 1200€ baino gutxiago irabazten duten, 19k 1201-2000€ bitartean, 9 partaidek 2001-3000€ bitartean eta azkenik, 4 pertsonak 3001€ baino gehiago irabazten duten, 8 partaidek berriz, ez diote galdera horri erantzun. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, umetan ikasitako hizkuntzak kontuan hartu dira, 4 partaidek euskara ikasi dutela erantzun dute, beste 10ek euskara eta gaztelania, 31ak gaztelania soilik eta partaide bakar batek bestelako hizkuntza bat ikasi duela esan du (partaide batek ez du informazio hori eman). Gaur egungo hizkuntza-gaitasunari erreparatuz baina, euskaraz mintzatzeko gaitasuna ere kontuan izan da: 15 partaideek ondo edo oso ondo hitz egiten dute, 4 partaidek nahiko, 15ek ez oso ondo eta 5ek batere ez (8k ez zuten erantzun). Azkenik, ideologia politikoari dagokionez, partaideetatik 5ek Aralar, 3k EA, 7k EAJ/PNV, 2 partaidek Ezker Batua, 7k HB-Batasuna, 3k PSE eta 6k bestelako partiduei ematen diela botoa adierazi dute (14 partaidek ez dute adierazi zein partiduri ematen dioten botoa).

Bistan denez, ezin esan daiteke lagina Hego Euskal Herriko gizartearen lagin estatistikoki ordezkatzailea denik baina, bai, euskal gizartean dauden sentsibilitate asko agertu direla eta eman diren iritzi eta jarrerak askotarikoak direla, batzuk partaideenak eurenak, beste batzuk partaideek besteei buruz taldean azaldutakoak. Nolanahi ere, azterketa kualitatiboaren helburua ez zen laginak biztanleria ordezkatzea baizik eta batez ere arrakastaz euskaldundu ez direnen jarrerak eta aurreiritziak batzea, euskaldunen ekarpenak ere kontuan harturik. Beraz, zalantza barik esan daiteke laginak jarritako helburuak bete dituela.

### 1.2.3. Datuak aztertzeko metodoa: *Edukien azterketa* eta kodifikazioa

*Edukien azterketa kualitatiboa* aspaldian erabiltzen da; funtsean testuen interpretazioaren azterketa sistematikoa egiteko teknika da, elkarrizketa eta talde-eztabaidetan sortutako testuen transkripzioak arakatzeko oso baliagarria. Metodo honek testuan ageri diren gai edo ideia nagusiak modu sistematikoan eta ageri diren testuingurua aintzakotzat hartuta aztertzeko balio du eta honelako azterketa enpirikoetarako oso egokia da. Induktiboki sortzen dira kategoriak (edukiak edo gaiak), urratsez urrats (Mayring 2000): hasieran behin-behineko definizio bat proposatzen da kategoria edo eduki baterako eta urratsez urrats egindako analisiaren ondorioz, transkripzioak aztertuta, kategoriak sortzen dira. Kategoriak errebisatu ahala aldaketak egiten dira, behin-behineko kategoriak kategoria nagusietan bilduz edo kategoria berriak eginez. Azkenik, kategoria bakoitzaren fidagarritasuna segurtatzeko bakoitza berraztertzen da. Horiexek dira jarraitutako pausuak:

- Lehen urratsean gaika sailkatu dira transkripzioetako ideiak, azter-unitatea hitz-txanda izanik. Berba-hartzea edo hitz-txanda oso luzea denean ideia nagusien arabera zatitu dira. Kodetutako edukiak mota ezberdinetakoak dira: jarreren osagaiak, jarrerak zein arlori buruzkoak diren, jarrera ezkutu edo epela den, zein estrategia erabiltzen den jarrera bat adierazteko eta abar. Ideia-kategoria bakoitzari izen bana eta behin-behineko definizioa eman zaie. Modu horretara kategorien lehen maila lortu da.
- Bigarren urratsean, ideia horietako batzuen kodifikazioa aldatu egin da; konplexuak edo alderdi askotariko ideia edo kategoriak azpi gaitan edo gai ezberdinetan sailkatu dira, eta, horrela, analisiaren bigarren maila lortu da. Kodifikazio-lana beti aztertzaile bik egin dute bakoitzak bere aldetik, *Diskurtsoaren Azterketaren* printzipioak aplikatuta. Ondoren taldean aztertu eta adostu da, interpretazioan subjektibotasuna saihesteko eta balizko interpretaziorik ez galtzeko.
- Hirugarren urratsean, kategoriak lau multzo nagusietan sailkatu dira, maila ezberdinetakoak baitira: ideia batzuk jarreren izaerari buruzkoak dira

(balio instrumental, balio integratzaile eta ideologiaren ingurukoak); beste batzuk jarrerak zein arlo edo esparruri buruzkoak diren (normalizazioa, ikas-irakaskuntza, erabilera, enpresa); beste batzuk jarrera ezkutu edo epelak dira; eta beste ideia batzuk jarrerak adierazteko baliabide diskurtsiboak (aurreiritziak, irudiak, han-hemen teknika, *lehen-orain* teknika).

- Laugarren urratsean, behin korpus osoa aztertuta, kategoria bakoitza aztertu da, berriro aztertzaile bik bakoitzak bere kabuz, eta ondoren taldean, kategoria bakoitzaren fidagarritasuna segurtatzeko, hau da, seguru egoteko kategoriako ideia guztiak kategoria horretakoak direla eta ez beste batekoak. Azterketaren laugarren urrats honen ondorioz beharrezko aldaketak egin dira kodifikazioan eta, zenbait kasutan, 4. mailako kodifikazioa ere egin da. Azken analisi horren emaitza da eranskinak dakarren jarreren diagrama.

Esan behar da, berba-hartze edo hitz-txanda bakoitza kategoria baten baino gehiagotan egon daitekeela kodetuta; batetik, ideia bat baino gehiago izan dezakeelako, eta bestetik aipatu diren lau kategoria nagusi horietako batean baino gehiagotan ager daitekeelako. Esate baterako, txanda bateko solaskide batentzat euskarak balio integratzailerik ez duela ageri bada, txanda hori jarreren izaeraren barruan balio integratzailean kodetuko da baina, testuinguru osoa kontuan hartuta, partaidea nor eta nolakoa den eta, batez ere, bere diskurtso osoa aztertuta, txanda hori jarrera epel edo ezkutu moduan ere agertzea erabaki zitekeen, hala badagokio. Asmoa beti izan da jarreren inguruko datu-base dinamikoa izatea eta gai horrekin zerikusia duen guztia agerian jartzea.

### 1.2.4. Metodologiaren ebaluazioa

Erabilitako metodologia oso baliagarria izan da helburuak betetzeko. Lehen eta behin sarritan, euskararen gaia aspergarria bezala agertzen bada ere, mahai-inguruaren teknikarekin solaskideak oso gustura sentitu direla azpimarratu behar da; partaideentzat gaia benetan erakargarria izan da eta irrikan egon dira beren sentipen, esperientzia eta iritziak erakusteko. Gainera, metodo zuzenekin baino gusturago sentitu dira askatasun osoa izan dutelako nahi zutena nahi bezala adierazteko.

Solaskideak gustura, konfiantza osoarekin eta aske sentituta lortutako datuak oso aberatsak izan dira. Askotariko ideiak agertu dira, ikuspegi ezberdinetatik eztabaidatzeko, eta xehetasun handiz norberaren uste eta iritziak azaltzeko aukera izan dute partaideek mahai-inguruetan. Hori oso onuragarria izan da egoeraren eta jarreren konplexutasunaz jabetzeko.

Izan ere, eztabaidetan zehar agerian jarritako ideiak ez dira solaskide bakoitzak bakarka iritzitakoak soilik, eztabaida metodologiak berak, ideiak taldeka lantzera bultzatzen duenez, norbere iritzia eraldatzeko bidea eman dezake. Saioaren ondorioz ideia konplexuagoak eta landuagoak antzematen dira, aberatsagoak horrenbestez. Gainera, aurretiaz itxitako sailkapen batetik ez abiatzeak, aurreikusten ez diren hainbat ideia aurkitzeko aukera ere eman du, eta horrek aberastasun itzela ekarri dio analisiari.

Horrez gain, politikoki egokiak diren ideia eta iritziak ez eze, hain maiz edo erraz agertzen ez diren beste batzuk ere aurkitu dira: aurreiritzi eta uste oker zein zuzenetan oinarritutako hainbat, eta, batez ere, politizazioaren inguruan agertzen direnak. Azken batez, euskararen inguruan egon daitezkeen sentsibilitate, iritzi eta jarreren tipologia egiteko aukera eman du erabilitako metodologiak.

Oso espektro zabala lortu bada ere, lagina eta helburuak kontuan hartuta euskal gizartean dauden sentsibilitateak ez daude neurri berean jasota, adibidez, euskaldun zaharren jarrerak ez dira hain sarri jaso. Bestetik, euskararen kontrako jarrera ageri eta argirik ez da agertu, beste metodologia batzuk erabilita gertatzen den bezala. Interneteko foroetan sortutako eztabaidetan edo zuzenean egindako galdesortetan ez da harritzekoa euskararen kontrako

jarrerak aurkitzea. Ikerketa honetan berriz, muturreko jarrerarik ez da ageri, arrazoi bi direla eta:

- Batetik, argi dago euskarak prestigioa irabazi duela azken hamarkadetan eta horren erakusgarri da euskararen kontrako ageriko jarrerak ez direla politikoki zuzenak. Holako jarrera muturrekoak aipatutako foroetan agertzea askoz errazagoa da, ematen dituenaren identitatea erraz ostondu daitekeelako eta azken batez foroko partaideek ez dutelako elkar ikusten.
- Bestetik, eztabaida konstruktiboa talde-eztabaidaren funtsean dagoelako; foroetan askotan ez bezala, partaideek ahaleginak egiten dituzte besteak ez mintzeko eta eztabaida modu kolaboratzailean aurrera eramateko. Horregatik ez da ohikoa muturreko, aldeko nahiz kontrako iritzirik jasotzea.

Edozein kasutan ere, helburua ez da izan euskal gizartean, gutxitan bada ere, egon daitezkeen muturreko euskararen kontrako jarrerak batzea, baizik jarrera konplexuak eta *epelak* aztertzea. Horiek arretaz arakatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute datuak biltzeko *talde-eztabaida* teknikak eta datuak aztertzeko *edukien analisiak*. Nolanahi ere, euskararen kontrako jarrerak agertu dira, ez agerian baina bai zeharka edo ezkutuan, elkarrizketa-estrategia jakin batzuen bidez, liburuan zehar erakutsiko denez. Jarrera ezkutuak eta epelak, testuinguru osoan ideien edukia aztertuaz aparte, *diskurtsoaren azterketa* eginez aurkitu dira, arestian esan bezala.

### 1.3. LIBURUA IRAKURTZEKO ARGIBIDEAK

Liburu honetan datu-bilketaren ondorioz agertu diren ideiak ahalik eta modurik argienean –haien konplexutasun saihestu gabe, halere– aurkezten dira. Azterketa kualitatiboa denez, eta bere helburua aipatu den taldearen ahalik eta jarrera gehien biltzea denez, liburuak talde horren euskararekiko jarreren aniztasuna ere erakutsi nahi du. Horregatik, sarri agertu diren eta hain sarri agertu ez diren ideiak jasotzen dira eta irakurleak kontuan izan behar du datu hori, euskal gizateriaren jarrera-unibertsoan ideia bakoitzak zein pisu duen

erabakitzeko okerreko ondoriorik atera ez dezan. Gainera, gehiago ageri dira liburuan kontrako kritika edo hobetu daitezkeen auziak, aldeko iritziak baino. Halere, horrek ez du adierazten partaideek euskararen egoerari buruzko balorazio orokor ezkorrik: oraindik hobetu daitekeena edo hobetu ez dena ondo ikusten da; hain zuzen, eztabaidetan gehien agertu eta sakontzen dena.

Atal honetan zehar ageri diren partaideen aipuak klabe edo gako baten bidez daude emanda, haien konfidentzialtasuna gordetzeko. Klabearen lehen bi letrek taldea identifikatzen dute (BA-Barakaldo, BI-Bilbo, KA-Kazetariak eta abar) eta ondorengoek solaskidea; zenbakiek aipu bakoitza zein berba-hartzetan dagoen adierazten dute.

Aipu gehien-gehienak gaztelaniaz daude saio gehienak hizkuntza horretan egin direlako. Gainera, berbalizazio zehatzak ematen dira partaideek eurek esan bezala. Horregatik, aipuek ahozko hizkuntzaren ezaugarriak erakusten dituzte.

Testuan zehar lauki batzuetan bildu dira zenbait ideia nagusi eta batez ere hizkuntza-plangintzari begira garrantzitsuak diren ideiak azpimarratu nahi izan dira.

Atal honek bost kapitulu ditu: lehen kapituluan ikerketaren nondik norakoak azaldu dira: helburuak eta datuak batzeko eta aztertzeko metodologia; bigarren kapituluan, euskararekiko jarreren izaerari buruzko pertzepzioen berri emango da: euskararen balio instrumental, balio integratzaile eta ideologiari buruzkoak; hirugarren kapituluan lau esparru jakinei buruzko jarreren berri emango da: normalkuntza, erabilera, ikas-irakaskuntza eta enpresa-arloetan euskararekiko jarreren berri, hain zuzen; laugarren kapituluan euskararako mesedegarri eta oztopatzaile izan daitezkeen aurreiritziak aurkeztuko dira eta bosgarren kapituluan, partaide *bai-bainakoak* aztertuko dira.

Atalak elkarren ondoan irakurtzea komeni bada ere, bakoitza independenteki ere irakur daiteke eta horregatik, eta beharrezkoa delako, batzuetan ideia bat, eta adibide bat ere, atal batean baino gehiagotan ager daiteke.

## 2. KAPITULUA:
# EUSKARAREKIKO JARREREN IZAERA

Kapitulu honetan jarreren osagaiak aurkeztuko dira. Abiapuntua hizkuntza-jarreren azterketetan tradizionala den ikuspegia izango da, bai *soziolinguistika bariazionistaren* baitan, baita *psikologia sozialaren* eremuan ere, testuinguru sozialean hizkuntzak duen dimentsio biko ikuspegitik abiatuz.

*Interakzio sozialaren* azterketaz arduratzen diren hainbat diziplinatan bi dimentsio bereizi ohi dira hizkuntzaren alderdi soziala azaltzeko: batetik, hizkuntza edo aldaera jakin bateko hiztunek duten estatusa –edo gaitasun kognitibo eta profesionala– azpimarratzen duen dimentsioa, eta, bestetik, hiztunen arteko elkartasuna biltzen duen dimentsioa. Kontuan hartu behar da, hizkuntza-identitate sozialaren (talde sozial, linguistiko, etniko edo besteren) ezaugarri adierazkorrena dela dioen premisari jarraituz, hizkuntza jakin batenganako jarrerek, izatez, bere hiztunekiko jarrerak islatzen dituztela.

*Estatusaren dimentsioa* ezaugarri objektibo, hautemangarri eta egiaztagarrien bitartez zehazten da. Ezaugarri horiek, hizkuntza jakin bateko hiztunei uztartzen zaien eragite-ahalmena, boterea eta kontrola dira, besteak beste. Hori dela eta, estatusaren dimentsioari erreparatuz gero, balorazio positibodun hizkuntza bateko hiztunak pertsona argi, harro, arduratsu eta benetako profesional gisa hautematen dira. Era berean, eurek hitz egiten dutena goi-mailako funtzioetarako ezinbesteko hizkuntza garrantzizkotzat hartzen da; profesionalki zein sozialki mailaz igotzeko beharrezkoa, eta bidaiatzeko zein merkataritza-akordioetarako baliagarria.

*Elkartasunaren dimentsioa*, bestalde, hiztunen zintzotasun eta erakarpen sozialarekin loturik dauden alderdi afektiboek xedatzen dute. Horren arabera, elkartasun-mailan estimu positiboa erakusten duten hiztunak zintzoak, adeitsuak eta eskuzabalak antzematen dira, eta euren hizkuntza giza-harremanetarako eta taldeko integraziorako egokitzat hartzen da.

Dimentsio bi horien arteko banaketa ez da hutsalkeria hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrerak aztertzerakoan; izan ere, hizkuntza gutxituen kasuan, sarri, hiztunek ospe txikiko hizkuntza modura hautematen dute eurena, estatusaren aldetik, baina ospe handikoa elkartasun-mailan. Eta elkartasun-mailan aitortzen zaion balio handia da, hain zuzen, estatusarekin lotuta dauden funtzioetarako balio txikia duten hizkuntzak bizirauteko arrazoia; taldeko balio afektibo handiak ahalbidetzen du sozialki mailaz igotzeko asmoarekin hizkuntza ez baztertzea.

Peter Trudgill (1972) soziolinguistak zentzu horretan bereizi zituen *ezkutuko prestigioa* (*covert prestige*) eta *ageriko prestigioa* edo prestigio ofiziala (*overt prestige*). Haren esanetan *ezkutuko ospea* (edo kontzientziapeko ospea) afektibitateari, banakako identitateari, identitate sozialari eta integrazioari lotzen zaion ospea da; *ageriko ospea*, aldiz, estatus sozioekonomikoari, erabilera praktikoari eta botereari lotzen zaio.

*Kortesiaren azterketan* egiten den trataera-moduen azterketek ere hizkuntzaren ikuspegi dimentsio bikoa erabili ohi dute, *boterearen eta elkartasunaren semantika*ren ildoa deiturikoa, hain zuzen (Brown eta Gilman, 1960). Ikuspegi hori euskararen trataera-moduen azterketetan ere baliatu izan da (De Rijk, R. P. 1998, Alberdi, J 1996, baita Echeverria 2000). Esate baterako, botere-maila ezberdineko pertsonek norabide bakarreko harreman hierarkikoak ezartzen dituzte. Botere-maila handiagoa dutenek (guraso, irakasle, zuzendariek) *T forma* edo *forma intimoa* erabiltzen dute maila txikiagoa dutenekin hitz egiteko (euskaraz “hika”, gazteleraz “tú”). Alderantziz, botere-maila txikiagoa duten pertsonek (seme-alaba, ikasle, langileek) *V forma* edo *forma jasoa* erabiltzen dute botere handiagoa dutenei zuzentzen zaizkienean (euskaraz “zuka”, gazteleraz “usted”). Hala ere, kontuan izan behar da, bai T zein V formek erlazio simetrikoa izan dezaketela, botere-maila bereko pertsonen

arteko harremanetan (senar-emazteak elkarri V forma, edo anaiek elkarri T forma erabiltzea, esate baterako).

Aipatutako hizkuntzaren dimentsio biko ikuspegia *interakzio sozialaren* esparruan beste hainbat azpi-diziplinatan ere erabili izan da. Ikerketa honetan, ordea, bereziki baliagarri izan dena bigarren hizkuntzen ikaskuntzarako motibazio integratzailearen eta instrumentalaren inguruko hausnarketa izan da (Lambert 1967, Gardner and Lambert 1972:14). Hizkuntza bat ikasteko motibazio bi horien arteko ezberdintasuna, eta estatus- eta elkartasun-dimentsioen artekoa, funtsean, berdinak dira: hizkuntza bat ikasteko *motibazio instrumentala* izan ohi da hizkuntza horrek estatus hobea, ospe handiagoa eta izaera praktikoa baldin badu; hots, sozialki mailaz igotzea, lanpostua lortzea edota seme-alabei ikasketetan laguntzea ahalbidetzen badu. Hizkuntza ikasteko *motibazioa,* aldiz, *integratzailea* izaten du, hizkuntza-talde jakin bateko parte izatea helburu duen pertsonak, hau da, hizkuntza horrek pertsona eta taldearen identitatearentzat garrantzi handia duenean.

Arestian esan bezala, ikerketa hau arlo akademikoan tradizionalki erabili ohi den dimentsio biko ikuspegi horretatik abiatu da. Baina ikerketak berak eraginda, beste dikotomia-ardatz bat ezarri da, *barnekoa* eta *kanpokoa* biltzen dituena. Dimentsio berri hori erantsi zaio, ikerketaren hasieran aurkitutako hainbat jarrera azaltzeko dikotomia tradizionalak erakutsi dituen ezintasunak eraginda. Maiz, esku artean egon diren datuak ez dira behar bezala azalduta geratzen aipaturiko balio instrumentalaren (baliagarritasuna, praktikotasuna eta onurarekin lotura duena) eta balio integratzailearen (elkartasuna, nortasuna, “bihotzetik hurbil dagoena”) parametro tradizionalak erabiliz. Izan ere, ez dirudi *barnekoa* eta *integratzailea* erabat bat datozenik, ezta *kanpokoa* eta *instrumentala* ere. Azaldu moduan, beraz, hizkuntza bat balioetsi eta erabiltzeko orduan *barneko* eta *kanpoko* motibazioak kontuan hartzen dituen ardatz berri bat erabili da, balio *instrumental* eta *integratzailearekin* gurutzatuz. Ardatz bi horien gurutzaketak euskarari atxikitako balioak sakonki azaltzea ahalbidetu du.

*Barnekoa* edo *barne-motibazioak*, izenak berak adierazten duenez, norbanakoaren barnean sortzen direnak dira, norbere uste, afektu eta nahietatik sorturikoak. Ideologia, identitate eta afektibitate gisako ezaugarriekin lotura

zuzena dute, pertsonak berak libreki onartuta daudenean. Barruko motibazioak bultzatzen du gizakia erabakiak hartzera eta ekitera, "hala nahi duelako" edo "hala ateratzen zaiolako".

Ardatzaren beste muturra *kanpokoa* edo *kanpoko motibazioak* dira, norberarengandik at dagoen presioa dela eta heltzen direnak, alegia. Kasu horretan, erabakiek norbanakoari ezartzen zaion errealitateari erantzuten diote –presio hori gabe hartuko ez liratekeen erabakiak, hain zuzen–. Eta, hala, presio hori desagertzearekin batera ekimena ere desager daiteke. Kanpo-presioa maila sozialekoa izan daiteke (esate baterako, talde-girotik kanpo ez geratzeko euskara ikastera behartua sentitzea, motibazio integratzailea, beraz), edo hizkuntza-politikaren esku-hartzeak eragindakoa (irakaskuntza--lanpostuetarako azterketetarako esate baterako, motibazio instrumental garbia, beraz).

*Barnekoa* hainbat modutan adierazten da: "que la gente lo sienta" (GA-D, 73); "el calorcito que tiene el euskera, ¿no?" (KA-A, 165); "algo que vaya al interior de las personas"; "algo interno, (...) que no sea como de papel; que lo hagas tuyo" (DO-A, 96, 98, 100); "orgullo" (BI-F, 233); "una raíz cultural", "desde lo más hondo, o sea, que sea algo que salga, no impuesto" (ZA-B, 55), "un sentimiento" (BA-E, 165).

*Kanpokoa*, aldiz, beste moduotan berbalizatuta jaso da: "la política" (GA-D, 73; KA-A, 165); "lo legal" (DU-B, 392); "una obligación" (BA-D, 71; GA-D, 51); "imposición", "algo impuesto" (ZA-B, 55); "enfoque coercitivo" (DU-B, 292); "necesario para trabajar", "motivación laboral", "para insertarse en el mundo laboral" (BI-A, 252; DU-B, 129, 135; GA-D, 51; ZA-C, 182).

Barneko motibazioak balio integratzailea eta instrumentala izan ditzakeen modu berean, kanpokoak ere berdintsu izan ditzake aipatutako balio bi horiek. Halere, garbi esan daiteke barne-motibazioa balio integratzailetik hurbilago dagoela, eta balio instrumentala kanpoko motibazioarentzat eragile indartsua dela. Baina, kontuan izan behar da, presio sozialak eragindako integrazio-nahia libreki eta modu adeitsuan gertatzen ez denean, kanpo-motibazioa izan daitekeela, balio integratzailea eduki arren.

Komeni da zehaztea ezin dela beti jakin hiztun bakar edo hiztun-taldearengan balio jakin bat *kanpokoa* den, edota, jada, barneratua eta onartua

izanik, *barrukoa* den. Hainbat kasutan, kanpoko presioak eragindakoak barneko izaera har dezake. Aldaketa horren berri emateko modu bakarra kanpo--presioak eragindako jokabidea, presio hori desagertuz gero, aldatzen den aztertzea litzateke. Baina hori, ikerketa honen mugetatik kanpo geratzen da. Hala ere, datu hau garrantzizkoa da. Partaideek beraiek esan bezala, hizkuntzarekiko konpromisoa egon dadin eta jendeak euskararen alde eragin dezan "barnetik ateratzea" edo "barnean sinestea" beharrezkoa da. Zalantzarik gabe, beraz, hizkuntza-politikaren xedeetariko bat izan behar luke barne-motibazioak, eta barnekoan oinarrituriko jarrerak, suspertzeko neurriak hartzea.

Ikerketaren 2.1. atalean eremu ezberdinetan euskarak duen balio instrumentalaren inguruko ekarpenak aurkeztu eta aztertzen dira, eta baita berreskuratze-prozesurako balio horren garrantzia eta mugak ere. Ondorengo 2.2. atala euskararen balio integratzaileari lotzen zaio: identitatearen eraikuntzan euskal gizartean integratzeko duen balioa (hemen kontzeptu berri bat sortu da: *bi mundu bereiziko* egoera), *balio integratzailea* eta *barnekoaren* arteko lotura, eta *balio integratzailearen* inguruko pertzepzio xehatuak.

Azkenik, atal honek ideologiarekin harremanetan dauden jarrerak biltzen ditu; izan ere, ideologiak jarrerak baldintzatzen ditu. Hizkuntzaren pertzepzioan ideologiak duen eragina ere aztertzen da. Ildo beretik 2.3. atalak giltzarri diren bi gai dakartza: batetik, euskararen politizazioa, hau da, pertsonen ideologia politikoaren eta pertsona horiek egiten duten euskara eta euskal politikaren arteko lotura estua (era berean, euskararen politizazioaren inguruan ematen dituzten arrazoiak, politizazio horren balorazioa eta gainditzeko iradokitzen dituzten moduak) eta bestetik, hizkuntza-kontzientzia edo hizkuntza-militantzia eta euskararekiko konpromisoaren auzia ere biltzen da.

Euskararen politizazioari buruzko ideien ugaritasuna euskara eta ideologia politikoaren loturaren erakusgarri da, eta, ildo horretan, hizkuntzak identitate kolektiboaren eraikuntzan duen garrantziaren isla. Ikerketa ugari egin da gai mamitsu honetaz. Aipagarria da, besteak beste, Benjamin Tejerinak (1992) egindakoa, ikerketa honetan erabilitako antzeko metodologia jarraituz egina, hain zuzen. Lan horretan euskarak euskal identitatearen eraikuntzan duen garrantzia aztertzen da, XIX. mendeko nazionalismoaren sorreratik euskara berreskuratzeko lehen ahaleginetako garaira bitartean, XX. mendeko 60.

hamarkadan. Aipatzekoa, baita ere, Baxok eta al (2006): euskal populazioaren identitate-sentimenduen inguruko azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa.

Ondoren, beraz, hiru dimentsioetako (balio instrumentala, integratzailea eta ideologia) azterketaren deskripzioa eta analisia erakutsiko da.

## 2.1. EUSKARAREN BALIO INSTRUMENTALA

Lehenik, euskararen balio instrumentalari buruz azaleratu diren ideien berri emango da atal honetan, jendeak hizkuntzari egozten dion balioari buruzko iritzien isla baitira, eta euskararen erabilera zein esparrutan jotzen den beharrezkotzat azalduko da.

### 2.1.1. Euskararen balio instrumentalari buruzko iritziak

Ikerketan agertu diren iritzien artean honakoak daude:

(a) Oro har, euskarak ez du berezko balio instrumentalik; hau da, parte-hartzaileek ez dute jotzen beharrezkoa denik lan egiteko edo egunerokoan bizitzeko.

> *(1) Lo que pasa es que es un tema de rentabilidad. Yo sé que en francés, inglés o alemán... Yo soy director de una empresa yo sé que la gente la necesito que hable ese idioma; yo necesito gente que hable ese idioma. A mí si habla euskera no me aporta nada más que satisfacción. (BI-B, 38)*
>
> *(2) Ataunen ez duzu behar, nahi ez baduzu euskera bizi gaur egun. Zu bizi zaitezke euskararik gabe edozein tokitan, o sea, hori nabarmena da. (ENP1-C, 49)*
>
> *(3) Niretzat, komunikatzeko ez dugu behar euskara, bezeroekin hitz egiteko, komunikatzeko ez dugu behar, hornitzaileekin ezta, orduan tresna moduan, niretzako da tresna bat, gauza askotarako, baino nagoen tokian ez dut ikusten euskara tresna bat modura. (ENP1-B, 14)*

(b) Maiz, baieztapen hori egiteko, aho batez balio instrumentala dutela onartzen den hizkuntzekin alderatzen da euskara; batez ere, ingelesarekin

konparatzen da eta, bereziki, enpresa-arloan erabili da estrategia hori, baita beste alor batzuetan ere.

(4) *Sí, pero es paradójico que muchas veces decimos: "Bueno, es que a mí me exigen inglés en la empresa..." Y vemos con mejores ojos aprender inglés que aprender euskera, es paradójico. (BA-B, 82)*
*– Es más útil, entre comillas, o más global, aprender igual primero inglés que, en el caso mío que tienes que igual aprender el idioma. (BA-D, 83)*

Balio instrumentalean oinarrituta, euskara eta ingelesa aurrez aurre jartzen badira, BA-B eta D lekukoek egin duten bezala, argi dago euskara gertatuko dela galtzaile. Baina agerian dago, baita ere, hizkuntza baten eta bestearen balio instrumentalek ez dutela zerikusirik.

Alabaina, bada uste duenik egun Euskal Herrian garrantzitsuagoa dela euskara jakitea ingelesa jakitea baino.

(5) *– ¿Y creéis que saber euskera abre más puertas, por ejemplo en el mundo laboral o…? (DU-M1, 28)*
*– Aquí, por supuesto. (DU-C, 29)*
*– Aquí crees que sí. (DU-M1, 30)*
*– Por supuesto. (DU-C, 31)*
*– ¿Y más que el inglés? (DU-M1, 32)*
*– Aquí sí. Por supuesto. (DU-C, 33)*
*– ¿Crees entonces que es más importante aprender euskera que aprender inglés? (DU-M1, 34)*
*– Sí, claro. (DU-C, 35)*
*– Hombre, siendo… (DU-B, 36)*
*– Si quieres trabajar aquí, sí. (DU-C, 37)*
*– Si quieres trabajar aquí en la función pública o en la enseñanza obviamente sí. Si no, sin saber euskera aquí se puede trabajar tranquilamente. De hecho, en el sector privado y en muchísimas empresas y en muchísimos sectores económicos, se puede. (DU-B, 38)*

Alde horretatik, bi gauza nabarmendu behar da. Batetik, euskara ingelesarekin alderatzeak solaskideentzat hizkuntzen “berezko” balio instrumentala zer den erakusten du: hizkuntzek leku edo funtzionaltasun jakin eta onartua dute berez. Bestetik, deigarria da euskara eta ingelesa konparatzea; izan ere, garbi dago funtzio ezberdinak dituztela eta esparru ezberdinetan direla baliagarri. Nolanahi ere, aipu-kopuru handi bat, batetik, euskararen eta, bestetik, ingelesaren eta beste hizkuntza “erabilgarri” batzuen (hala nola, frantsesaren eta alemanaren) arteko lehiari buruzkoak dira.

Hainbat hizkuntzaren arteko lehiaren oinarrian elebitasunari buruzko aurreiritziak eta uste okerrak daude, eta desegitea komeniko litzateke:

- Begien bistakoa da auzia ez dela “euskara **ala** ingelesa” hautatu behar izatea baizik eta “euskara **eta** ingelesa” biak ikastea; izan ere, funtzio ezberdinak dituzte bi hizkuntzek eta esparru ezberdinetan erabiltzen dira bata eta bestea.
- Mendebaldeko elebakarren artean oso zabal dabilen beste uste oker bat ere desegin behar da, litekeena baita hiztun askok izatea. Hain zuzen ere, baliteke hiztun askok uste izatea hizkuntza bat ikasteak beste bati zerbait ”kentzea” esan nahi duela; alabaina, bi edo hiru hizkuntza edo gehiago ere ikas daitezke, eta horrek ez du zertan esan nahi, gehiago izate hutsagatik, okerrago ikasten direnik. Egungo hizkuntzalaritzaren inguruko ikerkuntzak argi utzi du hizkuntzak ikastea gizakiari eta gizarteari zerbait eranstea dela beti.

(c) Hala ere, beste partaide batzuek euskara lana aurkitzeko beharrezkoa dela adierazten dute, edo euskara jakitea lagungarri dela, bai puntuak ematen dituztelako euskara jakiteagatik, bai hainbat lanpostu betetzeko baldintza delako euskara jakitea, euskararen gero eta normalizazio handiagoaren esparruan.

(6) *Entonces, hay una..., ¿cuál es la...? Y aquí en Euskadi hay una percepción de que el euskera es necesario para currar, para integrarte. Es un cálculo utilitarista pero responde al deseo de integrarse. (KA-B, 169)*

(7) *Evidentemente, una persona que sabe euskera tiene más facilidades para muchos de los medios que una que no lo sabe. Bilingüe, y si es trilingüe, ni te cuento y si es cuatrilingüe pues es la órdiga. (KA-C, 75)*

(d) Seme-alabak hizkuntza-eredu elebidunetan eskolatzea erabakitzen duten guraso askoren arrazoi nagusia euskararen balio instrumentala da, eta, horietan askorena, baita bakarra ere. Izan ere, haien ustez, seme-alabek euskara jakitea abantaila izango da, edo, hobeto esanda, litekeena da ez jakitea desabantaila izatea.

(8) *Nosotros vemos, al cabo del año vemos cientos de personas, de parejas o que han tenido hijos, o que los quieren tener, que te cuentan, el modelo tal, y la mayor parte de la gente les mete en el modelo en el que meten euskera. Pero, ¿por qué? Porque el día de mañana lo van a tener más fácil, si no... (GA-B, 56)*

(9) *Pero ahora hay una percepción por eso.. Yo creo que les escolarizan mucho en modelos en euskera porque hay una percepción de que es necesario el euskera para..., cosa que igual hace años no había o la había mucho menos. (KA-B, 175)*

(e) Aurreko aipuetatik ondorioztatzen denez [ikus (9) aipua], oro har, parte-hartzaileek uste dute euskarak balio instrumental handiagoa duela egun lehen baino.

Euskarak azken hiru hamarkadetan tresna-balioa irabazi duelako pertzepzioa egoteak badu garrantzia. Arestian esan bezala, hizkuntza bati tresna-balioa antzematea erabat lotuta dago prestigioarekin, *ageriko prestigioa*rekin hain zuzen. Euskara normaltzeko hizkuntza-plangintza hasi zenean egoera zein zen kontuan hartuta, aurrerapen bezala ikusi behar da datu hori.

### 2.1.2. Antza, euskararen balio instrumentala handiagoa da lanbide eta esparru jakin batzuetan

Oro har, partaideak euskararen balio instrumentalaz ari direnean, oso lanbide jakinez ari dira.

(a) Euskararen balio instrumentala irakaskuntzan da argia.

(10) *Yo también tenía una fuerte motivación por ser... insertarme en el mundo laboral y para mí era necesario por mi profesión la utilización del euskera, el dominio del euskera, por lo tanto, eso para mí también fue fundamental, no solo se puede decir ahora. (BI-A, 252)*

(11) *Si quieres trabajar aquí en la función pública o en la enseñanza, obviamente sí; si no, sin saber euskera aquí se puede trabajar tranquilamente. De hecho, en el sector privado y en muchísimas empresas y en muchísimos sectores económicos se puede. (DU-B, 38)*

(b) Irakaskuntzan ez ezik, parte-hartzaileek iritzi diote administrazio publikoan ere ezinbestekoa dela euskara jakitea, edo, bederen, oso lagungarria.

(12) *Ahora lo que se está premiando es el saber euskera. O sea, si te metes en cualquier empleo público, si no tienes euskera, lo tienes muy difícil. (GA-B, 44)*

Partaideek uste dute aipatutako bi alor horietan dela beharrezkoa euskara jakitea, baina ñabardura bat egin behar da. Euskararen balio instrumentala berezkoa da irakaskuntzan, euskara lanpostu askotarako baldintza baita eta erabili egiten baita. Administrazio publikoan, berriz, sarri, eskakizun bat da euskara, puntuak ematen ditu euskara jakiteak, baina ez da euskaraz egiten; hau da, balio instrumental “artifiziala” edo kanpotik ezarritakoa da nonbait [ikus (13) aipua].

(13) *Veo muchas incoherencias. A mí, por ejemplo, en trabajos para el ayuntamiento se me exigía hablar en euskera, actividad en euskera y demás, pero luego la memoria de esa actividad yo la tenía que hacer en castellano, porque ni los técnicos, ni nadie conocía el euskera. (GA-D, 13)*

(c) Jendaurreko hainbat saltokitan eta lanbidetan (tabernatan, dendatan, lehen mailako osasun-zerbitzutan…) lan egiteko, euskara jakitea abantaila omen da, baina pentsa liteke ingurune soziolinguistikoaren araberakoa dela euskara jakitearen behar edo abantaila zenbateraino sumatzen den: zenbat eta ingurune euskaldunagoan egon, orduan eta gehiago hautemate da euskara abantaila dela [ikus (15) aipua].

*(14) Yo tengo un local público, es decir, para mí es importante, la persona. Ahora hay mucho turista que viene de fuera, y es importante que hables inglés. Gracias a Dios yo hablo inglés y cojo un montón de clientes por el inglés, pero también cojo un montón de clientes por el euskera. Para mí es importante, pero veo que a veces no se utiliza excesivamente ¿no? (BI-E, 48)*

*(15) Y luego, en el ámbito laboral, pues a mí me toca estar con mucha gente hablando y demás, pues intentas utilizar el idioma que crees que les resulta más cercano. Yo soy médico, entonces, esa relación tiene que ser más fluida, y muchas veces para unos es más cómodo el euskera que el castellano. (ZA-F, 13)*

(d) Komunikabideetan beharrezkoa da euskara, baina hizkuntza horretan egiten duten komunikabideetan bakarrik. Dena dela, nagusiki gaztelaniaz aritzen den komunikabide batean lan egiteko ere, litekeena da euskara jakitea abantaila izatea, euskara sustatzeko politika dela medio; alegia, arrazoia ez da lanean bertan behar izatea euskara.

*(16) El único medio que resultaría imprescindible ser euskaldun sería un medio que fueses a desarrollar tu labor en euskera. Si fueses a desarrollarla en castellano, pues bueno, puedes elegir porque por política de empresa, por lo que sea, dice, bueno, pues que preferimos que sea euskaldun para determinar (¿), para poder... Bueno. Pero evidentemente si coges para Bizkaia Irratia, que tiene que hablar en euskera todos los días a la mañana, evidentemente tienes que coger euskaldun, no hay más historia. (KA-C, 75)*

(e) Lehen esan bezala, euskarak balio instrumental eskasa du enpresa pribatuan. Hala ere, euskara babesteko politikak direla medio (bai enpresek beraiek abian jartzen dituztenak, bai Eusko Jaurlaritzarenak), euskara zenbait lanpostu betetzeko baldintza bihurtzen ari da, edo, gutxienez, aintzakotzat hartzen dute *curriculum vitae* aztertzerakoan.

(17) *Lo que sí estoy notando que cada vez están..., vamos, es un argumento que cada vez se está introduciendo con mayor fuerza en las empresas, es decir, la formación del euskera y tal. Pues veo, veo empresas, no solamente de nuestro sector, ¿eh? sino fuera del sector de la máquina herramienta, pues que ya están demandando puestos de trabajo con nivel de euskera, que también están elaborando planes de euskera, que ya a la hora de transmitir o de enviar cartas, etc., pues ya lo hacen en bilingüe. Se está notando poco a poco que están haciendo. (ENP2-A, 69)*

Euskarak enpresa pribatuan duen balioari buruzko iritziak 3.4. atalean eztabaidatuko dira.

### 2.1.3. Euskara berreskuratzeko balio instrumentalaren garrantzia eta mugak

Solaskideen zenbait ekarpen euskararen balio instrumentalaren balioespenari buruzkoak dira: beharrezkoa den euskarak balio instrumentala izatea, nahikoa den eta zer-nolako garrantzia duen balio integratzailearen aldean. Alde horretatik, hauek dira agertu diren ideia nagusiak:

(a) Beharrezkoa da euskarak balio instrumentala izatea, eta parte-hartzaileek ondo ikusten dute azken hamarkadetan balioa handitu izana.

(b) Balio instrumental hutsa ez da nahikoa, baina. Aitzitik, bi balioak (instrumentala eta integratzailea) dira beharrezkoak, baina baten eta bestearen garrantziari buruzko iritziak ezberdinak dira; are gehiago, bada uste duenik balio instrumentalari garrantzia emateak eta beste balioak alde batera uzteak kalte egiten diola euskarari. Parte-hartzaileek hainbat gogoeta egin dituzte gaiari buruz:

(18) *Hay mucha gente, hay mucha gente de Álava, y de Vitoria, de toda la vida, que le gustaría [aprender euskera]. Otra cosa es que estén dispuestos a hacer un esfuerzo, como dices tú, que digan, bueno, bien, esto ¿por qué, por puro sentimentalismo, o como dice XXX [GA-A], ¿pues por amor a la cultura?, "Bueno, pues no estoy por la labor, me cuesta demasiado trabajo". Entonces, el único incentivo que hay, ¿cuál es?, el de decir, "Bueno, coño,*

*si me vale para encontrar un currelo, pues entonces sí". Y eso creo que es perjudicial para el euskera. (GA-E, 49)*

(19) *Yo ahí veo difícil dónde pones los límites, ¿verdad? Porque por un lado, está claro que si quieres prestigiar un idioma, pues tienes que conseguir cierto… por lo menos durante algunos años cierto… enfoque, no sé, coercitivo. Por lo menos en el sentido de que, ¡coño!, hay que saber ese idioma y si no lo sé, tengo que dominarlo. La gente tiene que sentirse un poco obligada. Pero luego, por otro lado, veo que eso sí es necesario, lo legal y tal, pero veo que, luego, hay otro campo importante, que es el tema de la motivación, de lo afectivo, del prestigio ya social, social digo de relación, ¿no? de… entonces hay que jugar con las dos ¿eh? Eso no puedes dejar, ni una ni la otra y creo que esa, la segunda todavía está muy poco trabajada. (DU-B, 392)*

Azken urteetan euskarak hartu duen tresna-balioa kanpoko presioak eragindakoa izan daitekeela pentsa daiteke. Hartara, hizkuntza-politikaren hasiera bateko esparruak (nagusiki, irakaskuntza, komunikabide publikoak eta administrazio publikoa) zabaldu egin dira, eta, besteak beste, enpresa pribatuan eta osasun-zerbitzuetan ere euskara erabiltzea sustatzen da gaur.

Euskal erakundeek euskararen balio instrumentala handitzeko sortzen dituzten ekimenak kanpo-eragiletzat jo behar dira. DU-Bren eta beste zenbait partaideek esan dutenez [ikus (19) aipua], beharrezkoa da halakoak izatea; ezin eztabaidatuzkoa da kanpotik esku-hartzea beharrezkoa dela, ezta hizkuntza batek balio instrumentala behar izatea. Alabaina, euskara berreskuratzeko eta normalizatzeko euskararen balio instrumentala handitzeko kanpo-laguntza nahikoa eraginkorra den zalantzazkoa da, "beste zerbait" behintzat ez badago. Alegia, beharrezkoa da kanpo-presioa barneratzea, norberarena egitea; bestela, desagertu egiten bada, ez da burutuko euskararen aldeko benetako ekintzarik: hots, euskara ikastea, mintzatzea, transmititzea, gero eta esparru gehiagotan erabiltzea. Azken batean, "zerbait gehiago" izatea ziurtatu behar da, eta, horretarako, kanpo-motibazioak eta barne-motibazioak, aldi berean eta bete-betean, landu behar dira.

Kanpo-motibazio edo kanpo-presioari buruzko eztabaidetan dilema hau aipatu da askotan: pixka bat behartzen ez bada, nolabaiteko kanpo-presiorik ez badago, jendeak ez du ahaleginik egiten bere kasa, edo, behinik behin, ez du hainbesteko ahalegina egiten euskara ordezkatzeko prozesua zuzentzeko. Biztanleriaren hainbat sektorek, ordea, inposaketa modura hartzen dute kanpo-presioa (ikusi 3.1. atala). Neurri batean, kontua da non kokatzen den norbera: kanpo-presioa inposaketa den pertzepzioa, hein handi batean, euskararen balio instrumentala funtsean kanpo-motibazioekin lotzearen ondorio da. Hortaz, parte-hartzaileek beraiek nabarmendu dutenez, "zerbait gehiago" behar da, balio integratzaile edota barne-balioa hain zuzen ere.

## 2.2. BALIO INTEGRATZAILEA

Solaskideek euskarak norbanakoaren eta taldearen nortasuna taxutzeko duen balioari buruz, euskarak gizarteratzeko duen garrantziari buruz eta alderdi afektiboarekin duen loturari buruz egin dituzten ekarpenak azalduko dira atal honetan.

### 2.2.1. Euskararen balioa norbanakoaren eta gizartearen nortasuna eraikitzeko

Parte-hartzaileek euskal nortasunaren elementutzat dute euskara, eta termino hauek erabili dituzte hura definitzeko: "orgullo" (BI-F, 233), "signo de identidad de este país", "en las esencias" (KA-A, 20); "una segunda carta de naturaleza" (KA-A, 35); "raíz cultural" (ZA-B, 55); "un aspecto troncal, básico", "es la

propia esencia” (ENP1-A, 80); “lo más importante para el país es el idioma, sin el idioma no creo que nos diferenciaríamos de otra comunidad” (ZA-C, 8); “identifica un país, que tiene una lengua” (ZA-A, 67).

Nolanahi ere, iritzi ezberdinak daude euskarak euskal nortasunaren osaeran duen garrantziari buruz, baita beste nortasun-elementu batzuekiko duen garrantziari buruz eta gaztelaniarekiko zein frantsesarekiko duen harremanari buruz ere. Hori dela eta, eztabaida piztu da gai horien inguruan, eta iritzi hauek nagusitu dira funtsean:

(a) Euskal nortasuna taxutzeko elementu nagusia da euskara, *herri bakoitzak bere hizkuntza* duen aldetik. Alde horretatik, gaztelania euskal nortasunetik kanpo dago, ala ez. Euskara galtzea traumatikoa litzateke, euskal nortasunaren muina galtzea bezalakoa bailitzateke.

*(20) Que el euskera es una lengua, que es una lengua, y que además es la nuestra, y que no es ni más pequeña ni más grande que otras, y que no es la lengua de los niños, ni la de los aldeanos, ni la de los incultos..., no, porque es una lengua normal. (GA-E, 14)*

*(21) Hombre, yo creo que aquí hay una..., por lo menos uno de los primeros, vamos a decir, aspectos motivacionales de cuando se empezó a hablar de estos temas de implantar los planes de euskera y tal, estaba claro claro inicialmente que era porque se corría y se corre serio riesgo de perder..., hombre, no ya la identidad sino el propio idioma y la propia lengua. O sea, eso sea un aspecto, vamos a decir, troncal, básico. (ENP2-A, 80)*

(b) Euskara euskal nortasuna taxutzeko hizkuntzetako bat da, ez hizkuntza bakarra; aitzitik, gaztelania ere euskal herritarren hizkuntza da.

*(22) Bueno, yo no hablo [euskera], hablo dos de las tres lenguas nacionales vascas, francés y castellano, el euskera no lo hablo, pero estoy orgulloso de hablar muchos idiomas. (...) Pero como no hemos resuelto el tema de la identidad y de cuáles son las lenguas nacionales de los vascos y qué es la nación vasca o la comunidad vasca... Entonces, yo siempre he entendido que el castellano y el euskera son las dos lenguas nacionales vascas, pero las dos por igual, digamos. (KA-B, 29)*

(c) Erabat bazter utz daitekeen elementua da euskara, ez baita beharrezkoa euskal herritar izateko eta euskal herritar sentitzeko.

Hurrengo aipuak iritzi kontrajarria erakusten du:

*(23) Hay gente que no acepta el castellano como lengua vasca y hay gente que como ciudadanos de Euskadi no quieren saber nada del euskera. (KA-B, 150)*

Beste hainbatek adierazi dutenez (jende gutxixeagok, baina inolaz ere ez gutxik) euskara “un lastre”, “un corsé”, “que puede asfixiar” izan daitekeela uste dute, garrantzi handiegia ematen baitzaio eta pertsonen gainean presio handiegia egiten baitu.

*(24) Yo he tenido que pegarme con muchos tópicos que he tenido que beber del nacionalismo vasco, y me he tenido que liberar de ellos para poder vivir el euskera porque me da la gana y cuando me da la gana, y no obligarme ni obligar a nadie a hacerlo. (...) Seguimos teniendo esta pelea ideológica que a muchos nos hace sentir culpables, o porque no hemos aprendido el euskera, o porque no me lo sé. (...) Yo creo que hemos pasado muchas etapas de culpabilizarnos todos un poco, unos a otros, no unos a unos mismos, porque ese es el ejercicio más difícil. (BA-F, 103)*

Azkenik, parte-hartzaile batek euskal abertzaletasunak erabiltzen dituen nortasun-elementuen esparruan kokatu du nortasunari buruzko eztabaida, eta adierazi du, bere ustez, beste nazionalismo batzuen aldean, euskal abertzaletasuna *oso abertzaletasun linguistikoa* dela; hau da, euskaran oso oinarrituta dagoela, nortasunaren funtsezko elementutzat hartzen duen aldetik.

*(25) Porque, ¿qué es la lengua, es identidad o es un vehículo para..., o es un instrumento? El peso del elemento identitario a veces asfixia a los idiomas, que son una herramienta de comunicación. Pero que también son un elemento identitario sobre todo. Y aquí yo siempre veo el tema político... pero tenemos un nacionalismo además muy lingüístico, hay otros nacionalismos que no son tan lingüísticos. Eso creo que es un elemento también de cómo hemos percibido la lengua y cómo hemos elaborado en torno a los idiomas. Hay nacionalismos que eligen otros elementos de... (KA-B, 200)*

### 2.2.2. Euskararen garrantzia euskal gizartean integratzeko

Atal honetan euskarak euskal gizartean integratzeko duen garrantzia aztertuko da. *Bi mundu* kontzeptuaren bitartez, gizarteratze-modu eta maila desberdinen arteko diferentziaz hausnarketa egingo da, eta ikusiko, horietako zeinetan den garrantzizkoa euskara.

#### *2.2.2.1. Euskara jakin gabe ere euskal lurralde osoan bizi daiteke*

Partaideei galdetu zaienean ea euskara beharrezkoa den integratzeko erantzuna ezezkoa izan da, alegia, inor ez da marjinatua sentitzen euskara ez jakiteagatik, ezta ingurune soziolinguistiko euskaldunetan ere, hala nola, Ataunen eta Zarautzen.

(26) *Yo no hablo. Y la verdad es que vivo en un mundo bastante euskaldun tanto en el trabajo como en la familia. Mi hija va al ikastola, acaba ahora. Empieza el año que viene en la universidad. Pero por una parte nunca lo he necesitado. / Yo no me siento marginado aquí ni en ningún sitio, no en Bilbao, yo voy a Donosti y tampoco. (BI-B, 13/160)*

(27) *¿Necesitas? No, a no ser por laboral o así. Porque para con la cuadrilla, con tal, no hay problema, si quieren hablar en euskera, vas a entender, y si quieres, seguramente van a hablar castellano, seguro. (ZA-C, 182)*

Ingurune soziolinguistiko oso euskaldunetan, baina, badirudi argia dela haurrak euskararen bidez integratzeko balioa, eta litekeena da guraso askok seme-alabak D ereduan eskolatzea erabakitzeko arrazoia izatea hori.

(28) *Sí, la sociedad de Zarauz es como comentabas. En realidad, salvo que quieras ser un apestado, en el sentido, si vas al modelo de castellano, es que va a estar solo en clase. (ZA-F, 24)*

(29) *Bueno, aquí en Zarauz ¿qué modelo le puedes llevar? Yo encantado, pero es que, ¿qué va a ir, solo a clase?, ¿o con quién va a ir?, ¿a qué clase va a ir?, si no hay igual sólo modelo de castellano. Imagínate que a mí me gustaría que fuese a castellano, que no es así, pero digo, ¿a dónde va a ir? Irá donde van sus amigos. Y sus amigos, ¿dónde van? Al modelo de euskera, eso está claro, eso está claro. (ZA-C, 21)*

Argudio hori ulertzeko, lehenik eta behin, *Bi mundu* kategorian (bi mundu bereizien egoeran bizitzeari buruzko atalean) sailkatu diren aipuak aztertzea komeni da, eta horixe egingo da jarraian.

Argi gera bedi integrazioa aipatzen denean gizartean bazterketarik gabe bizitzeko gaitasunari egiten zaiola erreferentzia. Horrenbestez, komeni da integrazioaren kontzeptu zabalagoa eta mailakatuari buruzko sakontze-lanak egitea.

### 2.2.2.2. Bi mundu egoera

Lehenengo elkarrizketetatik agerian geratu da partaide batzuentzat euskarari loturiko guztia oso urrun geratzen dela. Nolabait esateko, beste mundu bat dela. Horregatik, *bi mundu* izendatu den kategoria bat sortu da. Kategoria horietan batu dira euskarak biltzen duen munduari buruzko ideiak, *besteekin* edo *nirea ez denarekin* aurrez aurre jartzen direnean. Esan daiteke kategoria horietako pertsonak honako egoeretan kokatzen direla:

- Bi mundu egoeran bizi dira, eta ez dira horretaz ohartzen, ez baitira ohartzen *beste mundu bat* (euskararekin lotutakoa) dagoenik ere. (Ikus ondoko a)

- Bi mundu egoeran bizi dira eta *beste mundu bat* (euskararekin lotutakoa) dagoela ohartzen dira.

  Bigarren egoeran daudenen artean, ez dakite beste munduak zer esan nahi duen, zer ematen duen edo, berez, zer duen. Horien artean bi multzo bereiz daitezke:

  - Euskararekin lotutako munduaren gaineko irudi on eta gozoa dutenak. (Ikus ondoko b, c)

  - Mundu horrekiko ezjakintasuna prebentzio-, beldur- edo arbuio-jarrerak sorrarazten dituzten aurreiritziz eta asoziazio negatiboz betetzen dutenak. (Ikus ondoko d)

### (a) Bi mundu egoeran bizitzea eta horretaz ez ohartzea

Termino hauek erabili dituzte partaideek bi munduko egoeran bizi eta euskararekin lotutako munduaz tutik ere ez jakiteko egoera definitzeko: “no ser consciente” (de que existe otro mundo), “no ver” (“no verlo”, “no verse”), “lo ajeno”, “distancia”, “separación”.

Oro har, horrelako hausnarketak besteen berri eman dutenean egin dituzte, edo, euskararen mundua aurkitu aurretik, zer egoeratan zeuden azaldu dutenean.

> *(30) Pero un euskaldun zaharra yo nunca había visto; ni tus amigos, ni tu familia, ni tus vecinos, ni la familia de tus amigos, nadie habla euskera. (BI-F, 62)*

> *(31) Y resulta que hay otro mundo y no lo ves. Tú estás en tu burbuja y lo tienes ahí pero no lo ves. (BI-D, 237)*

> *(32) Y resulta que tenemos una comida y entre ellos hablan en euskera. Yo no era consciente de ese mundo. (BI-C, 236)*

Donostiako 35 urteko parte-hartzaile batek ere egin du. Etorkinen seme da hura, baina EAEn jaio zen, eta euskarazko gelak eta gaztelaniazko gelak zeuden institutu batean ikasi zuen.

> *(33) Tú no eras muy consciente de que había otra gente. (...) Yo viví esa historia un poco de guetos, pero sin darnos cuenta. O sea, no creo que eran ghetos ni siquiera... (...) Al final te tiendes a relacionar con un tipo de gente sin que tú te des cuenta. (DO-A, 3)*

Urteen buruan, institutuko ikaskide ohiekin elkartu zen, baina *beste mundukoak* ziren.

> *(34) Es que no sabía quién era, es que no le había visto, (...) no nos veíamos, pero ni para mal ni para bien. O sea, porque es que ya no era ni para insultar, es que, peor, porque no te ves. (DO-A, 56)*

Ekarpen horien alderik interesgarriena norbere integrazio pertzepzioa eta integrazioari berari buruzko hausnarketek erakusten dutena da. DO-A partaidearen kasua, esaterako, "integratu gabe" dagoela sentitu ez eta, halere, guztiz integratu gabe egon daitekeen pertsonaren adierazgarri argia litzateke. *Bi munduko* egoeran bizitzeak banakoak guztiz gizarteratzeko aukerak mugatzen ditu. Alde horretatik, beste mundu bat dagoela ohartu eta hartan sartu ezin edo nahi ez dutenek badakite gizarteratze-maila bat galtzen ari direla; baina askok sumatu ere ez dute egiten, beste mundua existitzen dela guztiz ohartzen ez direnak alegia.

Hori dela eta, beharrezkoa dirudi ahaleginak egitea, lehenik, euskararekin lotutako mundua "ikusarazteko" eta, bigarrenik, interesa dutenei mundu horretan sartzen laguntzeko. Ildo horretatik, zalantza barik etorkinei euskal mundua ikustarazteko ahaleginak egin behar dira.

Ezin da orokortu, baina badirudi egoera hauetan gertatzen dela *bi munduko* egoera:

- Euskarak tradizioz oso presentzia urria izan duen ingurune soziolinguistikoetan (Ezkerraldean, Arabako Lautadan) eta, hiri handietan (Bilbon, Gasteizen, Donostian); horixe adierazi da Bilbon, Barakaldon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean egindako mahai-inguruetan.
- Kanpotik etorri diren edo etorri ziren pertsonen artean, hartu dituen kulturan sakon gizarteratzeko urratsa egin ez duten etorkin-familien artean.

### (b) Euskararekin lotutako mundu bat dagoela ohartzea eta ontzat ematea

Beste mundu bat dagoela ohartzen diren pertsonak, halaber, konturatzen dira ezin direla hartan sartu (edo, behinik behin, ezin direla guztiz sartu) euskaraz ez dakitelako. Hala ere, ondo ikusten dute mundu hori, eta sartzea gustatuko litzaieke.

(35) *– Intenté dar clases de euskera pero como estaba siempre de viaje pues lo acabé dejando. Y es que en mi vida normal no lo he necesitado. (...) Y luego, igual en un pueblo como Elantxobe, que es dónde voy yo muy a menudo... Yo sé que hay una parte de la historia que me pierdo por no saber euskera. (BI-B, 13)*
*– Eso te iba a decir yo: que estás cojo. (BI-D, 14)*
*– Y sé que me pierdo una parte de la historia. (BI-B, 15)*

Argi dago euskal kulturaren munduak ere gaztelania duela bide. Hori dela eta, ezin esan daiteke euskal kultura erabiltzeko aukera euskararekin bakarrik lotuta dagoenik. Areago, euskaldunak ez diren euskal herritar askok oso lotura estua sentitzen dute euskal kulturarekin, hizkuntza jakin ez arren. Kontua da kultura horren alor oso batek euskara duela bide, eta euskaldun ez direnek ez dutela hura gozatzerik.

### (c) Euskal munduan sartzeari buruzko iritzia, aurkikuntza eta aberaste aldetik

Oro har, bi mundu egoeran bizi izan diren parte-hartzaileek oso iritzi ona dute egoera hori gainditu eta beste mundu horretako “atea ireki” edo beste mundu bat “aurkitu” dutelako.

(36) *Guri etorri zaigu, niri etorri zait pertsonalmente kurtsiloan esanez, eskerrak ematan tipoa, baina erdi negarrez, esanez, “Jo, es que para mí esto ha sido, es que se me ha abierto el cielo”. (ENP1-C, 51)*

(37) *Porque yo he descubierto más cosas…. Es que a mí el euskera me ha dado, me ha dado mogollón de cosas de verdad, ¿eh? El entender las letras [de las canciones], otro tipo de cultura. Es que me ha dado mogollón, todo positivo. (BI-D, 22)*

Alde horretatik, garbi dago zer-nolako eginkizuna izan duen euskara ikasteak *bi mundu*ko egoera gainditzeko. Alabaina, bada pentsatzen duenik euskara ikastea ez dela nahikoa egoera hori gainditzeko. Adibidez, GA-D Gasteizen bizi den euskaldun berriak –*bai-bainakotzat* hartu dena (ikusi 5. kapitulua)– euskararekin lotutako munduarekin bat ez datozen jarrerak dituelako. Gehiago aztertu behar litzateke egoera hori, baina, aurrera daiteke litekeena dela mundu horretan benetan ez sartzea, euskara ikasteko arrazoiak kanpo-arrazoiak (instrumentalak, edo, areago, integratzaileak ere) bakarrik direnean eta, batez ere, euskaldun berria oso ingurune soziolinguistiko erdaldunetan bizi denean eta inguruan euskararen presentzia urria duenean; hau da, litekeena da euskararen ikaskuntza linguistikoa bakarrik izatea, eta kulturan sartzeko ate ez bihurtzea inoiz.

> Hizkuntzak komunikazio-sistemak izanagatik, beste kulturako ateak zabaltzeko duten balioa ere garrantzitsua da. Beste hizkuntza baten komunikatu ahal izateak asebetetzen du ikaslea baina baita beste kultura bateko partaide izateak ere. Bi dimentsio horiek zaindu behar dira aldi berean; ezin da euskararen irakaskuntza- eta erabilera-dimentsio komunikatibora soilik murriztu.

**(d) Beste mundu bat dagoela ohartzea baina urduritasunez eta, areago, gaitzespenez begiratzea eta txartzat hartzea**

Datuek agerian uzten dutenez, bi munduko egoeran bizi diren hainbat pertsonak euskarari buruzko iritzi eta jarrera negatibo eta oztopatzaileak izateko joera dute. Ondorioa da jarrera horiek bi faktoreren konbinazioaren emaitza direla. Batetik, euskararekin lotutako munduari buruzko ezjakintasuna. Arestian esan denez, ezjakintasun hori euskal kulturari eta hizkuntzari buruzko aurreiritziz betetzen dute batzuek. Bestalde, ukipen egoeran dauden hizkuntzei ere eragiten dien gizartearen politizazioa, hots, euskararen aldeko edo kontrako ideologia, euskararen politizazioa. (ikus 2.3. atala).

Ez da aurkitu ikerketa honetan euskarari buruzko kontrako jarrera nabarmenki adierazten duen aipamenik, aukeratu den metodologia-mota dela eta ezbairik gabe: oso litekeena da halako jarrerak politikoki ez-zuzentzat hartzea eta, hortaz, elkarrizketa batean horrelakorik ez aipatzea. Aitzitik, beste estrategia batzuen bidez azaleratu dira jarrera horiek: nork bere hitzak besteren ahotan jarriz, nork berari gertatutakoa beste inon gertatu balitz bezala kontatuz eta ezkutuko jarrerak adierazten dituzten hizkuntza-formak erabiliz.

Beste mundu bat arduraz ohartzen dutenengan euskararen kontrako jarrerak edo jarrera oztopatzaileak hiru multzotan bildu dira:

- Egoera “euskal herritarren eta espainiarren” (edo, aurrerago ikusiko denez, Nafarroan, “euskal herritarren eta nafarren”) arteko gatazkatzat hautematea eta alderdi politikoen adierazletzat euskara eta gaztelania erabiltzea.
- Euskarari uko egitea, beste gauza batzuk (hala nola, ezker abertzalea eta euskal abertzaletasuna) sinbolizatzen dituelako edo haiekin lotuta dagoelako.
- Euskararen kontrako aurreiritziak izatea eta asoziazioak egitea; hala nola, ezinezkoa dela guztiz elebiduna izatea edo oso zaila dela euskara ikastea (ikus. 4. kapitulua).

Ondorengo aipu honetan ikus daiteke euskararen mundua ez ezagutzeak nola eragin dezakeen haren kontra aurreiritziak eraginez

(38) *Y una cosa que nos pasó es, en las primeras reflexiones salía eso del... pues igual entrar en euskera, empezar a ir a los sitios, a la gente, a los comercios, y decir la primera frase, estos eslóganes que se han usado tantos años de, “Hemen euskaraz egiten dugu”, este tipo de cosas. Y dijimos, bueno, pues podemos hacer una especie de listado de lugares en los que en Sestao se puede hablar euskera, poner unos cartelitos de Labeitz allí diciendo, pues aquí puedes hablar euskera si quieres, o lo que sea, y ofrecérselo a la gente. Bueno, no veas qué complicado fue acercarte a un comercio en Sestao y preguntar si sabían euskera sin que a todo el mundo se le pusieran los pelos como escarpias, porque la gente tenía miedo de por qué se lo preguntas. Yo intencionadamente iba siempre de traje y corbata para que no..., porque si vas con forro polar, automáticamente la gente se cagaba por*

*las patas. Claro, y eso lo vivimos aquí todos los días. / Y no sabes lo que nos ha costado, por ejemplo, despolitizar el día del euskera. Era imposible despolitizarlo. O sea, siempre aparecía por allí carteles, los presos, no sé qué... Era imposible que aquello sólo fuera un día para celebrar una lengua, y que algunos nos gusta hablar en ella y que en Sestao se puede hablar si se quiere. Pues no había manera, no había manera. Hasta que ya en un tercer año dijimos, "bueno", si no se consigue, conseguimos juntar a todas las partes sin que, siempre querían politizar aquello, si seguimos así, pues los que organizamos esto dejamos de organizarlo, porque no queremos hacer política, queremos usar la lengua, y ya está. Eso nos costó, pues bastante. Entonces, han estado tan unidos una cosa y la otra que las emociones que provocan que te pidan el euskera, que te pregunten si lo sabes, una cosa tan tonta como esa, pues ya no es tan tonta. Todavía falta tiempo, y tienen que calmarse cosas para que eso de verdad sea lo que es. Y es que te diga un día, "¿Y no sabes euskera?", "Ah, pues no", "Oye, ¿y tú sabes checo?", "Pues no, no sé checo". ¿Sabes euskera? Y ya uno se siente un poco mal. O que te digan por la calle "Aupa, egun on, ¿me dice la hora?", o que te pregunten la hora en euskera, por ejemplo, "Zer ordu da?, ordurik badaukazu?", en Sestao, entonces te miran diciendo, "Ya me está éste que seguro que me quiere tocar los cojones o, si no, ¿para qué me pregunta en euskera, si estoy en Sestao?" (BA-F, 148/156)*

Solaskide batzuen arabera, halako jarrerak ohikoagoak dira Euskal Herrira kanpotik etorri den biztanleriaren artean; izan ere, pentsatzekoa da herritar horiek dakitela gutxien euskal errealitateari buruz, *beste munduari* buruz.

*(39) Yo creo que la gente que de alguna manera coge aversión, tiene que ver con gente que es de fuera, del resto del estado, y han venido aquí. Y eso yo lo tengo clarísimo, por eso, porque además pertenezco a una familia así, y me he movido mucho por ese entorno, y sé que ahí sí se puede generar un rechazo. Pero es un rechazo por... Que si expusiéramos aquí el análisis, a saber qué están rechazando. Quiero decir, que se rechaza el idioma en última instancia, pero se está rechazando mogollón de cosas de la historia de los padres y de tal. (DO-A, 186)*

Nafarroan, gatazka *euskal herritarren eta nafarren artekoa* da:

*(40) Aquí hay gente que se siente navarra y no quiere que se le asocie para nada con lo que es lo vasco. Claro, yo en ese sentido para mí va estrechamente*

*unido. Es decir, yo me siento vasca y hablo euskera y ya está, ¿no?, para mí... Pero yo entiendo que esa gente es como... lo entienden como algo políti..., muy politizado, muy... Y en ese sentido lo quieren apartar totalmente y lo rechazan frontalmente, ¿no? (...) Aquí como hay diversas sensibilidades eso se traduce también a la hora de utilizar el euskera y hay muchas más filias y fobias. Pienso. (IR2-D, 132)*

*(41) Los partidos políticos han identificado el navarro que habla euskera como de izquierdas radical batasuno, no sé qué, tal, tal, follonero, tal, tal. Y claro, eso ha calado en parte de la sociedad. (IR2-A, 218)*

Nolanahi ere, badirudi euskara ezker abertzalearekin lotzeko joera eta euskal herritarren eta nafarren arteko gatazka gainbehera datozela eta normaltasun handiagoa dagoela, lekukoen iritzian.

*(42) – Somos gente normal, que no atacamos a nadie, ni nada. Piensan que, "bueno, ésta es vasca, pero es gente normal, parece maja". (IR1-C, 126)*
*– Sí, porque antes te atacaban mucho, antes te atacaban mucho, cualquier cosa que dijeras en euskera, "Jo, de la ETA", no sé qué... Y bueno, yo creo que poco a poco eso se va eliminando. (IR1-B, 127)*

*Bi mundu* egoeran bizitzearen ondoriozko ezjakintasunak eta euskal mundua jarrera politiko abertzaleekin lotzeak jarrera oztopatzaileak eta sustapen-ekintzak blokeatzeko joera eragiten dituzte ideologia euskal nazionalistarekin kritikoen agertzen direnen artean; gainera, baliteke ezjakintasun horrek euskal hizkuntzari eta kulturari buruzko aurreiritzi okerrak sortzeari bide ematea.

Hori dela eta, argi eta garbi dago gizarte osoak bi mundu egoera gainditzeko edozein neurri edo ekimen ona izango litzatekeela euskararen garapen normalizaturako. Azterketa honen bidez ikusitakoaren karietara, lehenik, euskal mundua denei helarazi behar zaie, jakin dezaten zertan datzan, guztiz hartan bizi daitezkeen ala ez gorabehera; bigarrenik, euskararen kontrako asoziazio, topiko eta aurreiritzi oztopatzaileak desegin beharko lirateke.

## 2.3. IDEOLOGIAREN EGITEKOA

Euskararen politizazioaz eta hizkuntza berreskuratzeko kontzientzia hartzearen eta aktibismoaren garrantziaz emango dira azalpenak atal honetan.

### 2.3.1. Euskararen politizazioa

"Euskararen politizazioa" deituriko kategoriaren ideia nagusia da euskara oso politizatuta egon ei dela eta hala izaten jarraitzen duela. Adostasun handia dago iritzi horren inguruan, sarritan ageri da (43 aldiz baino gehiagotan) eta modu zuzenean.

Euskararen eta zenbait elementu politikoren arteko "loturaren" bidez adierazi dute ideia hori parte-hartzaileek, eta adieraz modu hauek erabili dituzte horretarako: "ligado a", "unido a", "se asocia a/con", "se identifica con", "lo relacionan con", "muy pegado a". Euskaraz mintzatzen direnei buruz, berriz termino hauek erabiltzen dituzte: "te clasifican", "te catalogan como".

#### *2.3.1.1. Euskararen eta jarrera politikoaren arteko loturak*

**Euskara eta politika.** Partaide gehienentzat euskara aukera politiko edo ideologiko jakin batzuekin lotuta dago.

> *(43) Yo creo que lo que hacen muchas veces es..., han utilizado el euskera para hacer enfrentamientos. / Yo no creo que hayan politizado ningún idioma tanto como han politizado el euskera, tanto unos en forma de arma arrojadiza, y otros en forma de "Me estás excluyendo, ¿qué pasa, que no puedo estar aquí?". (BA-C, 40/138)*

**(a) Euskara eta abertzaletasuna.** Euskara aukera abertzaleekin lotuta dagoela zehaztu dute partaide batzuek.

> *(44) Pero aquí el euskera es un hecho diferencial, yo soy nacionalista, yo no soy nacionalista. Está politizado y es así. (BI-B, 312)*

Ildo horretan, gogoan izan behar da euskal abertzaletasuna "oso abertzaletasun linguistikoa" delako ustea.

(45) *Porque, ¿qué es la lengua, es identidad o es un vehículo para..., o es un instrumento? Pues volver de aquí el peso del elemento identitario a veces asfixia a los idiomas, que son una herramienta de comunicación. Pero que también son un elemento identitario sobre todo. Y aquí yo siempre veo el tema político pero tenemos un nacionalismo además muy lingüístico, hay otros nacionalismos que no son tan lingüísticos. Eso creo que es un elemento también de cómo hemos percibido la lengua y cómo hemos elaborado en torno a los idiomas. Hay nacionalismos que eligen otros elementos de [identidad?]. (KA-B, 200)*

**(b)** **Euskara eta ezker abertzalea.** Berariazko aipamenak egin dituzte parte-hartzaileek lotura horri buruz, eta bereziki kaltegarri edo txartzat hartu dute.

(46) *Por ejemplo, el tema de la kale borroka..., pues para mucha gente mucho entorno, para los chavales el que hablaba en euskera, "Jo, es de la kale borroka". Siempre ha habido una asociación a un tipo de actividades. (DO-B, 173)*

(47) *Bueno, pues ese debate estaba el otro día presente ahí. Había alguien que también vino a decir lo mismo, que el euskera, los que hablan el euskera pues son batasunos, son los ilegales, son los que matan y tal. Entonces, asistes a todo eso y dices: "Dios mío, que desgarradura para este país, qué dolor, qué drama". (KA-A, 49)*

**(c)** Aurrekoaren ildo berean, batzuetan **euskara beste alderdi politiko batzuekin ez da lotzen eta hori ere kaltegarri ikusten da**; hau da, parte-hartzaileen esanetan, alderdi ez-abertzaleek ez dute onartzen euskara edo ez dute hartzen euskararekiko konpromisorik.

(48) *Un tío del PP no va a mandar a los hijos a una ikastola. (BA-E, 159)*

(49) *Sí, pero hoy por hoy los partidos políticos, los que no son nacionalistas no utilizan el euskera jamás en un acto político ni para decir "Ongi etorri denori". Tú vas a un mitin del PSOE y dicen "Agur", y dicen "Gora Euskadi", no dicen más, y el resto es castellano. Tú vas a un mitin del PP y el euskera no se utiliza para nada, ni para decir "Agur", porque parece ofensivo para los que están escuchando. (BA-B, 163)*

(50) *Lo que pasa es que... la realidad es que desde la derecha nunca se ha apoyado. Entonces, claro, está claro que esta politizada porque es que la misma derecha ya te lo ha politizado, es que no le está dando valor, es que ése es el tema. (IR1-A, 70)*

Ikusten denez, ez da axolagabekeria hutsa, arbuioa eta, areago, batzuentzat "euskararen gorrotoa" ere bada:

(51) *Pero yo creo que ése es el grave problema de esta sociedad con el euskera, que siempre ha sido instrumento político y siempre ha ido acompañado de mucha ideología. Entonces, ahí está el tema. Para mí saber euskera puede ser muy prestigioso en determinado contexto, y en otro, pues no tan prestigioso. Y yo creo que ahí es el tema. Es el tema de amar la cultura porque es la cultura, no porque... Para mí saber euskera en determinado contexto es "Tú piensas de esta manera, o yo odio el euskera", yo he oído a gente decir, "Yo odio el euskera", pues porque es una persona con determinada tendencia política y para esa persona el euskera es, bueno, otra inclinación política totalmente contraria a la que ella piensa. Y eso lo opina esa persona y un montón de gente como ella. Y a mí me parece que ése el tema, que al final está muy…, es un instrumento ideológico. (GA-C, 100)*

Hona euskararen eta politikaren arteko loturari buruz ideologia politikoek euskarari atxikitzeari edo hartatik aldentzeari buruzko beste zenbait ideia:

- Euskara "arma política", "arma arrojadiza" bezala erabili izan da eta erabiltzen da (ikus BA-C 40, 131 eta 138; DO-B 173; DU-B 6 eta 304; eta KA-A 20 eta 52).

- Zenbaiten ustez, *euskarari buruz* mintzatzea *politikaz* hitz egitea da, eta *euskaraz* hitz egitea, *politika egitea* (ikus ENP2-A, 76 eta 82).

(52) *Entonces, ése es uno [un amigo de la cuadrilla], pero hay otros tres que cuando hablas de algo de euskera rehuyen. Bueno, partiendo de que nosotros temas de política nunca, ¿no? Así nos llevamos durante muchos años y afortunadamente sólo discutimos de fútbol pero cuando alguien comenta, "Oye, pues no sé qué, ha habido esto o aquél ha dicho lo otro...", se les ve, se les ve que no están a gusto con ese tema, se les ve que no están a gusto, pero nunca lo manifiestan claramente. Pero de vez en cuando sueltan algo. Y yo creo que en las empresas ocurre un poco lo mismo. Hay gente que se*

*siente incómoda porque entiende, un poco lo que antes decía, ¿no?, que hablar de temas de euskera es hablar de política y de un tipo determinado de política, con lo cual ellos no están de acuerdo y punto, así que aquí están. (ENP2-A, 76)*

- Beste iritzi-emaile batzuen ustez, euskara ez da kulturarekin lotzen beste herrietan gertatzen den bezala, gurean hizkuntza-politikarekin lotzea delako. Eta hori kaltegarria izan daiteke.

(53) *"Han utilizado una lengua, que es un patrimonio y una cultura, como un arma política, por las dos partes. Entonces al final hay crispación." (BA-C, 138)*

(54) *"Pero por ejemplo, hace unos años, aun no se identifica la lengua como un aspecto cultural sino como un aspecto político, o sea, todavía se sigue interpretando así." (IR2-F, 126)*

- Are gehiago, bada euskarari errua ere botatzen dion iritzi-emaile bakanik ere, eta uste dute euskarak euskal gizartean gatazkak sorrarazten dituela: "los conflictos que aquí en esta sociedad está originando el euskera" eta "la problemática que genera el euskera" (GA-D 221, 223).

### 2.3.1.2. Euskararen politizazioaren arrazoiak

Historian zehar euskara kausa abertzalearekin lotu izan da. Euskal abertzaleen aldarrikapenetako bat euskararen babesa izan da betidanik, eta horregatik lotzen dute batzuek euskara kausa horrekin, eta haren inguruko aldarrikapenekin.

(55) *Reivindicabas muchas cosas, y entonces el euskera era una más. (DO-B, 46)*

Alde horretatik, iritzi-emaileentzat euskararen politizazioa bi faktoreren ondorio da: euskal abertzaleek aldarrikapen nagusitzat bere egin izanarena eta ez-abertzaleek hizkuntzarekiko konpromisoa hartzeari uko egin izanarena.

Ildo horretan, oro har, partaideek uste dute iraganeko eta egungo "saltsa politikoak" kalte egin diola eta kalte egiten diola euskarari.

### *2.3.1.3. Euskara politikarekin lotzeari buruzko balorazioa*

Askotan ageri da euskara politikarekin lotzea kaltegarria dela.

- "Saltsa politikoan" sartuta egoteak kalte handia egin dio euskarari; euskara politikarekin lotzea oso kaltegarria izan da, eta askoren gaitzespena sorrarazi du.

- Politika-kontuetatik kanpo egon izan balitz, litekeena da gehiago aurreratu izana euskara normalizatzeko bidean [ikus (56) aipua]. Baina, alderantzizko ustea ere azaleratu da. Hain zuzen ere, KA-Ak [ikus (57) aipua] dilema bat dagoela uste du. Izan ere, euskarak ez omen du egon behar politizatuta, baina aukera politiko batek bere egin ez balu, euskara politizatu ez balitz, zer gertatuko zatekeen? Ideia interesgarria da hori: politizazioak konpromisoak ekarri ditu, baina baita kalteak ere. Bestela gertatu ote zitekeen? Hainbatek kulturarekiko lotura proposatu dute irtenbide modura.

(56) *Pero todavía el euskera se utiliza políticamente y los medios de comunicación lo están utilizando y según qué intereses y qué ideología... Pues sin ninguna duda, ¿eh? Y yo creo que eso hay; eso le ha hecho mucho daño al idioma, el clima político que hemos tenido, que tenemos, el enfrentamiento político. Todo eso creo que ha sido bastante perjudicial para el idioma, estos treinta años han sido de mucha convulsión, mucho conflicto y no sé, en otra situación, en otro ámbito, en otro clima igual un poco más apaciguado, más integrador, más de consenso, igual el euskera sí que habría avanzado todavía más, después de estos veinticinco o treinta años que veo. (DU-B, 304)*

(57) *Por un lado sabes que gracias a la lucha política, y esto es cierto, vemos, yo por lo menos así lo reconozco, el euskera está en el nivel que está de... Parece que siempre se plantea la cuestión de: ¿desaparecerá el euskera?, estamos entre la esperanza y la desesperanza. Yo creo que ocurre en distintas facetas de la vida pero hoy estamos hablando de una lengua minorizada que está en situación de diglosia con respecto al castellano aquí en esta Comunidad Autónoma de Euskadi. Pero si por un lado la política ha hecho que el euskera recupere y se recupere, por otro lado, esa especie de lucha banderiza de unos y de arma arrojadiza de otros, hace que el euskera esté vapuleado. Entonces yo creo, por lo menos he escuchado a líderes*

*políticos decir que el euskera debe quedar fuera de la lucha electoral, debe dejarse a un lado y por tanto debe cuidársela y tal. (KA-A, 49)*

- Euskara denon ondarea da, kultura da, eta ondorioz, politika-kontuetatik kanpo egon beharko lukeela adierazi dute.

(58) *A mí me entristece mucho, insisto, un poco vuelvo a la militancia que se utiliza, en el sentido que el euskera, digamos, se asocie en algunos ámbitos a un tipo de espectro político, y que no sea un tema cultural, puro y duro. A mí me entristece un montón. Es decir, todo lo que sea apoyo al euskera, se hace una autorización muy partidista pues en un ámbito concreto, y a mí me aterra eso. Porque al final eso sí que identifica, no es una cultura general, es una cultura parcelada.. A mí me pone frenético, a mí me pone muy malo. (ZA-F, 40)*

#### 2.3.1.4. Nola gaindi daiteke euskararen politizazio-egoera?

Hainbat ikuspegi eman dituzte parte-hartzaileek euskara despolitizatzeko bidean aurrera egiteko.

- Erabateko euskalduntzea, denok besterik gabe euskaraz hitz egitea, euskararen erabilera normalizatuta egotea.

(59) *Los chavales aprenden euskera, lo ven como algo normal, no creo que van a pensar en política cuando piensen en el euskera, como igual le pasa a gente mayor. (BA-C 198)*

- Ideologia abertzalea ez duten alderdiek eta pertsonek euskararekiko konpromisoa hartzea; batetik, euskaraz mintzatzea eta, bestetik, seme-alabak eredu elebidunetan eskolatzea.

(60) *El día que Patxi López [dirigente del PSE-EE] y no sé quién hablen en euskera es que eso cambia todo. Cambia todo, igual en la generación de nuestros hijos, que ya para ellos el euskera no es una cosa anormal, ni ha estado ensuciado con ideas ni nada, pues probablemente cambie pero desde luego en estos momentos no creo. (BI-B, 312)*

(61) *Sí, pero a sus hijos los manda a un modelo B y D, y eso es importante como dato, claro es importante que gente que ideológicamente no es nacionalista ni nada por el estilo, mande a sus hijos... (BA-F, 188)*

(62) *Además, si queremos que se normalice el euskera todos tendremos que hablar; en Cataluña hablará el guardia civil, el cirujano y el arquitecto y en Galicia lo mismo. Y aquí, si queremos que se normalice pues tenemos que hablar todos, lo que pasa que yo creo que está politizado. (BI-D, 273)*

- Egoera politikoa normalizatzea.

(63) *Nosotros tenemos un tinte, quizás hemos vivido en nuestra generación. Yo me considero que hemos estado teñidos de un barniz político terrible, pero las cosas cambian, entonces ojalá el euskera sea una cosa moderna. (BI-E, 354)*

- Euskara nagusiki kulturarekin lotzea [ikus (58) aipua].

(64) *Mientras no se separe cultura y lengua de intereses políticos, es muy difícil conseguir un 100 por cien, y conseguir un abanico total, y un abanico real, y un abanico total y un abanico real. (BA-B, 163)*

(65) *Hombre, afortunadamente ahora hay una apoyo institucional evidente, la gente ha dejado de ser miope a la hora de utilizar el euskera, ya no es una adscripción política, sino es una forma de entender la cultura. Y eso tiene que tener sus connotaciones positivas. (ZA-F, 114)*

Ukipen-egoerako hizkuntzen kasuetan –hizkuntza bat gehiengoarena eta bestea gutxitua izanda–, ezin daiteke hizkuntza minorizatuaren politizazioari buruz jardun gehiengoaren hizkuntzak rol neutroa izango balu bezala. Hizkuntzen arteko harremanak beti daude politizatuta.

Hizkuntza batek gizarte osoaren babesa jasotzen ez duenean argi dago berori defendatzen duten talde sozial eta politikoen pentzuan dagoela. Baina hori ez litzateke gertatuko gizarte osoak bere egingo balu. Hizkuntza ahularen alde sustatzen diren neurriak ezin dira sekula har gehiengoaren hizkuntzaren kontrako bezala, hizkuntza honek ez baitu sustapen-neurri berezirik etorkizuna bermatua izan dezan.

### 2.3.2. Hizkuntzaren eta kulturaren kontzientzia izatearen edo haien aldeko militante edo ekintzaile izatearen garrantzia

Norbera euskararen alde egiteko prest dagoena har daiteke konpromisotzat. Partaideek, berriz, termino hauek erabili dituzte, besteak beste, hori adierazteko: “conciencia lingüística o cultural”, “militancia cultural” (ez politikoa) (ZA-E, 43); “activismo”, “compromiso.

Bi uste azaleratu dira behin eta berriz euskararekiko konpromisoaren inguruan.

(a) Hizkuntzarekiko konpromisoa beharrezkoa da hura normalizatzeko.

> (66) *Creo que hay mucha gente que sabe euskera que no lo utiliza. / Creo que aprende euskera porque lo necesita para, por ejemplo, para un puesto en la administración, eso es, y luego no lo usa. Yo creo que para usarlo hace falta más militancia. (ZA-E, 26/28)*

(b) Konpromisoa txikiagoa da gaur egun. Oro har, solaskideek uste dute konpromisoa lehen handiagoa zela, eta egoera soziopolitikoaren aldaketa izango litzateke aldaketa horren arrazoia, baita belaunaldien aldaketa ere: egungo gazteek konpromiso txikiagoa omen dute hizkuntzarekiko; nolanahi ere, egungo gazteen konpromisorik eza ez da euskararekiko konpromisorik eza bakarrik, konpromisorik eza orokorra dela dirudi.

(67) *En el fondo de todo es un poco lo que antes he dicho, un poco la falta de compromiso. Han cambiado los valores y lo mismo en el compromiso por el idioma, por la lengua, por el trabajo..., han cambiado. (ENP2-A, 32)*

Euskal herritarrek euskararekiko konpromiso orain txikiagoa dutela esaten denean honelako arrazoiak agertu dira:

- Egoera soziopolitikoaren aldaketa

Trantsizio-garaiko egoera soziopolitikoaren ondorioz, euskararekiko konpromisoa erregimenari aurre egiteko moduaren adierazle nagusi bihurtu zen hainbaten ikuspegitik. Gaur egun, berriz, konpromiso politiko eta soziala eta euskararekiko konpromisoa ez da hain beharrezko ikusten.

- Erakundeen babesaren eragina

Zenbait aipuk susmarazten dutenez, litekeena da erakundeen babesak berak ere ekartzea euskararekiko konpromisoaren beherakada. Izan ere, eta hizkuntza-politika, baliabideak, eta euskararen aldeko ekimenak bultzatzen dira. Beraz, baliteke, Eusko Jaurlaritzak hizkuntzarekiko konpromisoa hartu duenez, herritarrek sumatzea ez dela beharrezkoa hainbeste egitea: seme-alabak eredu elebidunetan eskolatzera, txikiak direnean haiekin euskaraz egitera edo/eta euskarazko produktuak erostera mugatzen dira; hots, txikiei hizkuntza transmititzera mugatzen dira, baina, umeak handitu ahala, ez dira saiatzen haiekin batera euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egiten.

Bestalde, badirudi babes-neurriak izateak *euskara desagertzeko arriskuan dagoen*aren aurreiritzia apaldu duela neurri batean; kontuan izan behar da konpromiso-iturri esanguratsua izan dela hori tradizioz (ikus 4. kapitulua). Gaur egun, badirudi txanponaren ifrentzua ikusten ari garela, eta euskara arriskuan ez dagoenaren uste okerra ari dela zabaltzen, bereziki erakundeek hizkuntzari ematen dioten babesa nahikoa dela uste baitu askok.

Erakundeen babesa bi ahoko ezpata izan daiteke eta, ondorioz, euskararekiko konpromisoa hartzea beharrezkoa denaren mezua jendeari helaraztea komenigarria eta beharrezkoa dirudi, izan ere, euskara erabiltzeko konpromisoa norberak hartu behar du.

Legeek eta kanpo-babesak euskara erabiltzeko aukera eman eta erabilera sustatu ere egin dezakete; hala ere, ez da nahikoa izango herritarrek neurri horiek bereak egiten ez badituzte. Horrez gain, herritarrek parte hartzeko guneak sortu beharko lirateke, hizkuntza instituzionalizatuegia edo arautuegia ez dagoela ikus dezaten. Modu horretan, konpromisoa hartzen dutenek beren neurrira egokitutako bideak izan ditzakete.

- Nolanahi ere parte-hartzaileek ez dute uste erakundeen babesa kaltegarria denik, ezta gutxiago ere. Haientzat nabarmena da erakundeen babesa garrantzitsua dela hizkuntza gutxitu bat garatzeko, eta, hala azpimarratu dute euskara despolitizatzeko eta balio kulturalen (ez-politikoen) ikuspegitik garatzeko prozesuan ere erakundeen babesak baduela garrantzia.

(68) *Hombre, afortunadamente ahora hay una apoyo institucional evidente. La gente ha dejado de ser miope a la hora de utilizar el euskera, ya no es una adscripción política, sino es una forma de entender la cultura. Y eso tiene que tener sus connotaciones positivas. (ZA-F, 114)*

- Azkenik, euskara mehatxatuta dagoela sumatzen denean, konpromisoa handiagoa dela antzeman dute partaide batzuek, baita gazteen artean ere:

(69) *Pero por la defensa por ese idioma que sienten suyo, en momentos determinados también te inquieta pero lo entiendes, porque tú has estado también en otras luchas, ¿no? Que de repente cierran Egunkaria, y entonces mi hijo, que no había estado en ninguna movida política, coge en Getxo y es el pri-*

*mero que se presenta, le llama, me pide el teléfono de Martxelo Otamendi, le llama y le dice: "En Getxo ya tenemos un grupo de gente que va a luchar por Egunkaria. Pondremos camisetas, recogeremos firmas y tal..." Es decir, siente que de repente el euskera en un medio de comunicación privado como era Egunkaria, está siendo precisamente machacado por eso, pero por otras connotaciones pero fundamentalmente por el tema del euskera y que desaparece un medio o puede desaparecer, y entonces entra en esa batalla. (KA-A, 93)*

Mota honetako aipamenei buruz gogoeta egitea baliagarria da. Zer esan nahi da konpromisoa esaterakoan? Hau da, konpromisoa garai bateko modukoa ez dela esatean, egoera soziopolitiko zehatz hartan militantzia politikoarekin lotuta zegoen konpromisoaren modukoa ez dela esatean, zer esan nahi da? Gizarteak jada ez duela euskararekiko konpromisorik? Hezkuntza-politikak izan duen babesa, bai irakasleek bai gurasoek eredu elebidunen alde egin duten apustua, ez al da konpromisoa? Konpromiso adierazpenak egoeraren araberakoak dira.

## 3. KAPITULUA:
# EUSKARAREKIKO JARRERAK LAU ARLO EZBERDINETAN

Bigarren kapituluan euskararen balioak aztertuta, hirugarren honetan euskararekiko jarreren ikuspegi anitza emateko asmoarekin, ikerketan parte hartu dutenen euskararekiko uste eta jarrerak aztertuko dira esparru ezberdinetan kokatuta. Hasteko, euskararen normaltze-prozesua zelan bizi izan den, zertan aurreratu den eta zer-nolako etorkizuna aitortzen zaion euskarari; ondoren, euskararen erabilera, batez ere umeek eta gazteek egiten dutena, zelan hautematen den; gero, euskara ikasteko orduan zein zailtasun ikusten duten eta zein motibazio ezberdin izan dezaketen. Amaitzeko, enpresa-munduan euskara normaltzeko plangintza-neurriak hartzearen egokitasuna eta zailtasunak aztertuko dira, beti ere, solaskideen iritziak, uste eta jarrerak aintzakotzat hartuta.

### 3.1. NORMALTZE-PROZESUARI BURUZKO PERTZEPZIOAK

Euskararen normaltze-prozesua modu oso ezberdinean bizi izan da hainbat faktoreren arabera: norbera euskararekiko kokatzen den moduaren arabera, ikasteko edota erabiltzeko barneko motibazioa duen ala ez, zein inguru soziolinguistikotan bizi den, bi mundu bereizien egoeran bizi den edota inposaketa moduan sentitzen duen ala ez, ondoren ikusiko denez.

Euskara normaltzea dela eta, nahikoa aldeko jarrerak agertu dira baina ñabardurekin, zehaztapenekin. Normaltze-prozesuaren kontrako jarrerak, ageriko eta zuzenekoak, gutxi dira, eta beti besteek esanda bezala agertu dira.

Sei gai nagusiren inguruko ideia eta pertzepzio ezberdinak agertu dira gai honen inguruan:

- euskararen prestigioa: hobetu denentz (3.1.1. azpiatala),
- horrekin lotuta, zertan aurreratu den euskararen egoera (3.1.2. azpiatala),
- naturaltasuna: euskara "modu naturalean" bizi duten ala ez (3.1.3. azpiatala),
- erantzukizuna: euskara normaltzeko ardura nork hartu behar duen (3.1.4. azpiatala),
- plangintzaren ebaluazioa: erakunde publikoek hartutako hizkuntza-plangintza-neurrien ebaluazioa (3.1.5. azpiatala),
- zer falta den euskara normaltzeko eta etorkizuna zelan hautematen den (3.1.6. azpiatala).

### 3.1.1. Euskararen prestigioa hobetu da baina...

Euskararekiko pertzepzio ona, hizkuntza prestigiotsua dela, sarri esan da, gehienetan *lehen-orain* estrategiaz baliatuta, hau da, iraganarekin konparatuta, euskarak prestigio handiagoa dauka gaur, gaitzespen eta lotsa-sentimenduak gainditu dira eta:

> *(70) Yo creo que la gente tiene voluntad, aprecia la importancia de conocer el euskera. Yo creo que en eso se han dado pasos muy importantes, que la valoración que se hace de la lengua, del euskera, hoy en día es mucho mejor que la que se podía hacer en otras épocas que era incluso de desprecio en ocasiones. (BI-A, 258)*

Nafarroan egindako saioetan, kasu askotan, belaunaldi bateko euskaldunek sentitzen zuten lotsa hurrengo belaunaldian, euskaraz badakite eta, harrotasun bihurtu dela aipatu da:

(71) *Mi tío, por ejemplo, cuando se fue a vivir a Larrainzar le daba vergüenza incluso que supieran que sabía euskera. Y no les ha enseñado ni a los hijos euskera. Y ella, el matrimonio todavía siguen hablando en euskera, ya casi 80 años, 72 y 75, mejor dicho, y todavía entre el matrimonio hablan euskera. Y sin embargo a los hijos, nunca les han enseñado. Ellos se han encargado de aprenderlo, incluso los hijos están ahora, son cinco hermanos y todos los hijos les han llevado a la ikastola, están yendo ahora a la ikastola, etcétera, pero los padres a los hijos no les enseñaron, y eso era por vergüenza. (IR1-C, 34)*

Euskarak prestigioa irabazi duenaren seinale, ez dakienarentzat elebiduna izatea desiragarria izatea da, nahiz eta kanpoko motibazioarengatik baino ez izan, oposizioetara aurkeztu ahal izateko, esate baterako:

(72) *A mí me parece más prestigioso en cuanto a mérito, en cuanto a mérito, que me parece muy meritorio alguien que habla euskera. Yo cuando escucho a alguien que habla bien euskera, digo, “Jo, ¡qué suerte!, qué suerte o cómo se lo ha currado, o qué suerte ha tenido.” (GA-B, 39)*

Bai euskararen prestigioa bai egoera hobetu direla onartuta ere, batzuek euskal hizkuntza eta kultura gutxiegi balioesten direla uste dute, atzerrikoak, hizkuntza eta kultura handiak, hobesten direla benetan, nahiz eta itxuraz bertokoari lehentasuna onartu:

(73) *A mí me parece, en ese aspecto me parece que somos un poco fariseos: “El euskera te va a valer para poco, hijo. Bueno, apréndelo porque, total, como estás aquí, apréndelo, pero yo no te voy a mandar a Navarra a un ikastaro de un mes para que aprendas euskera y perfecciones, y tengas ese dominio, esa facilidad; no, te voy a mandar a Londres y que aprendas inglés, que igual te vale para el día de mañana. En ese aspecto yo creo que somos fariseos. Y que luego la cultura vasca no se valora, porque es eso, nacionalismo yanqui es bueno, y nacionalismo vasco es malo. (BA-B, 147)*

Umeen aurrean askotan izaten diren jokabide horiek [ikus (73) aipua] euskararen prestigio eza zabaltzen dute haiengan. Izan ere, askotan heldu euskaldunen euskararekiko ezkutuko prestigio ezaren adierazle ere izan daitezke jokabideok, GA-E partaideak adierazi bezala:

(74) *Creo que tiene que haber un mensaje de prestigio. Tiene que haber un mensaje de prestigio. (...) Yo trabajo en Arrasate. Y creo que hay un problema de prestigio. Y además, incluso los padres lanzan, sin querer, un mensaje de desprestigio del euskera. O sea, yo conozco muchos padres que a los niños les hablan en euskera, entre ellos hablan en castellano, y el niño coge el mensaje de que el euskera es una lengua para niños. (GA-E, 14)*

Euskararen aldeko jarrera nagusi bada ere, gizartean kontrako jarrerak badaudela esan dute partaideek, gutxi eta beti ere beste inoren ahotan ipinita. 1. kapituluan esan bezala, ageriko kontrako jarrerarik ez agertzea euskarak prestigioa irabazi duenaren seinalea da; gaur ez da, beste garai batean bezala, politikoki egokia bete-betean euskararen kontra jotzea. Oraindik kontrakoak daudela jakina da, batetik, zuzenean norberarenak direla inork ez badu esaten ere, gizartean egon badaudela esaten delako sarri, eta bestetik, ezkutuan bada ere agertu egiten direlako.

Kontrako jarrera izateko arrazoien artean hauexek aipatu dira: euskararekiko barne-motibaziorik ez duten batzuk euskara inposaketa bezala sentitzen dute; beste zenbaitek onartzen ez duten abertzaletasunarekin lotzen dutelako, edota bi mundu bereizien egoeran bizi izan direlako gaitzesten dute euskara; eta beste batzuk, euskara gaitzesteko, irakaskuntza arautuan euskara irakasgaiarekin izandako esperientzia eskasa gogoan dute.

Batzuek euskararekiko barne-motibaziorik ez dute eta, beraz, euskarak bost axola die:

(75) *Al final esto es un sentimiento. ¿Tú, por qué quieres, por qué te gustaría saber euskera?, ¿por qué tú quieres que tus hijos hablen euskera? Porque estás viviendo en un sitio, que tengan esa cultura, esas raíces, y seguir con ellas. Pero sin embargo hay una gente que no opina así ni por el forro, entonces que le da exactamente igual todo eso. Es más, todo lo contrario, no querrán que sus hijos hablen euskera. (BA-E, 165)*

Beste batzuek inposaketa moduan hautematen dute, eta ikastera derrigortuta sentitzen direnen artean sarri gaitzespen sentimenduak daude:

(76) *Y luego hay gente que tiene rechazo. Esa vagancia esa pereza de aprender algo nuevo lo convierte en rechazo, algunos por obligación y otros porque*

*sí./ Yo creo en los vagos y en los que se les impone. Los dos tipos de rechazo. Yo me incluyo en los primeros pero... (BI-B, 75/126)*

(77) *Hay mucha gente que no quiere, simplemente, o que lo estudia porque lo necesita para el trabajo, o por obligación, o por lo que sea. Y mucha gente porque no parte del sentir mayoritario de la población en Vitoria o en Álava, surge algo que yo sí que veo en la calle, que es un poco el rechazo o el sentir que te lo están imponiendo. Pero es un poco ambiguo. (GA-D, 51) (Ikus baita 4.3. atalan inposaketaren pertzepzioa.)*

Abertzaletasunarekin lotu eta gaitzesten da, nazionalismo espainola bitarteko edota Jaurlaritzaren politikari boikota egiteko:

(78) *[Gaur egun seme-alabak A ereduan matrikulatzen dituztenek] No querrá que aprenda. / Pues probablemente por historia más que nada, por militancia española. (BI-B, 85/264).*

(79) *Mi jefe que tiene 38 años, manda al hijo al colegio francés y dice que es porque no quiere depender del Gobierno Vasco, y te lo dice así. / Por boicotear la política lingüística. (BI-C, 266/268).*

Bi mundu bereizien egoeran egoteagatik (euskararen mundutik erabat aldenduta egoteagatik), estatuko lehengo etorkinen seme-alaben kasuan, gaitzespen-sentimendu irrazionalak eta inkontzienteak egon daitezke, DO-Aren iritzian:

(80) *Pero si tú no te distancias de eso, o te quedas con yo no sé qué cosa y qué pedradas que se queda la gente de que eso es una cosa que te impide trabajar, y que te impide no sé qué, y qué pedrada tienen estos, y no sé qué, que es mucha gente de hijos de inmigrantes, que lo tienen, porque tienen la pedrada de sus padres, de que no fueron acogidos, yo qué sé, lo que fuera. Y entonces eso se transmite de generación en generación y ahora pueden estar sintiendo un odio o una cosa mala de un idioma, y ni siquiera saben por qué lo tienen, pero lo tienen, pero yo estoy seguro que lo tienen. / Lo que... la gente que le ha cogido generalmente es de que siempre se es heredado de la situación que vivieron sus padres. Por eso digo que, vosotros, no lo he oído pero me imagino que será la misma situación, o sea, gente de aquí que no ha aprendido euskera por las situaciones políticas, o sea, por la situación de aquel momento, pero que sus padres eran de aquí. Y yo creo que la gente que de alguna manera coge aversión, tiene que ver*

*con gente que es de fuera, del resto del estado, y han venido aquí. Y eso yo lo tengo clarísimo, por eso, porque además pertenezco a una familia así, y me he movido mucho por ese entorno, y sé que ahí sí se puede generar un rechazo. Pero es un rechazo por... que si expusiéramos aquí el análisis, a saber qué están rechazando. Quiero decir, que se rechaza el idioma en última instancia, pero se está rechazando mogollón de cosas de la historia de los padres y de tal. (DO-A, 168/186)*

Eskola munduari lotuta, irakasgaiaren irudiarekin lotuta, euskara ikasterakoan edukitako esperientzia txarragatik, askotan modu desatseginean, ez--esanguratsuan ikasi behar izan dutelako:

*(81) Yo en mi caso coincido con lo que estáis diciendo. Yo en mi caso. Yo soy de la margen izquierda, he nacido allí y vivo allí. Y quizá la realidad social y lingüística de esa zona es muy característica y quizá especial. Entonces al igual que dice él yo nunca he necesitado hablar en euskera y nunca he oído hablar en euskera, y para mí el euskera era como si me enseñaran inglés en el colegio. / Yo por ejemplo el recuerdo que tengo yo y muchas veces cuando te reúnes para contar las batallitas con antiguos amigos tuyos del colegio era el horror que suponía aprender euskera. Concretamente ese profesor, pero dices, a mí me tocó el profesor X pero los que tenían el profesor Y era lo mismo. O sea, pero si te hubiera tocado uno malo en informática pues odiaríamos la informática. (BI-F, 60/169)*

Nafarroan, arestian esan bezala, euskalduna izateagatik harrotasun-sentimendu handiak daude baina era berean, euskararen kontrako jarrerak ere bai. Mutur biak alegia:

*(82) Aquí lo que veo que hay muchísima que estaba en contra del euskera ahí a tope y otros pues muy a favor también. Entonces, pero el gobierno está en contra del euskera y tampoco se pueden hacer grandes cosas. / Es que además también tienen un círculo vicioso ya, claro, es que no saben, entonces si no sé, claro, igual tampoco me interesa que los demás sepan, se ponen en plan egoísta también. Y así, egoísta, egoísta, egoísta, pues nada, y son muchos, muchos, muchos, y te hunden. Porque cualquier cosa que hables, cualquier cosa que..., nada, siempre, y tú, no sé qué, ya te clasifican, en cuanto hablas en euskera, pues ya te han clasificado. (IR1-B, 15/111)*

### 3.1.2. Zertan aurreratu den

Euskara normaltzeko prozesuan, azken berrogei urtean lortutakoaren balorazioa egin dute partaide askok. Emandako ideiak bi multzotan sailka daitezke: aurreratu da eta aurrerapena baloratu egiten da.

#### *3.1.2.1. Aurreratu da*

Euskararen gaian *aurreratu* delako ideia zabal dago. Baina zein neurritan aurreratu den azaltzeko orduan aldeak daude inguru soziodemografikoaren arabera eta bi mundu bereiziko egoeran egon ala ez; batzuetan xehetasunak eman dira, zertan, zein erabilera-eremutan aurreratu den zehazteko. Zalantzarik gabe, euskara askok jakin arren askoz gutxiagok erabiltzen dutela anitzen ahotan dago. Ondoko hauek dira partaideek azpimarratu dituzten ideiak:

- Gehiago erabiltzen da lehen baino eta gainera “modu naturalean” (ikus 3.1.3. atala):

  *(83) El nivel de utilización y de empleo del euskera en Durango está subiendo con respecto a nuestra época. / No se hablaba euskera y ahora se habla euskera. (DU-B, 155/210)*

  *(84) Los mayores… ya es diferente. Pero como eso va de abajo arriba yo pienso que tiene que ser así. Yo antes, en la vida había oído hablar a nadie a ningún chaval en euskera en la calle, nunca, y sin embargo ahora oigo todos los días. (DU-C, 443)*

  *(85) Desde unos años atrás de forma natural la ola del euskera se está imponiendo, pero de forma natural, no impuesta. (ZA-F, 35)*

- Aurrerapena batez ere gazteen artean ikusten da; gehienek badakite euskaraz:

  *(86) Bueno se ha hecho un buen trabajo, o sea comparando con hace años, que la gente joven sale de estudiar las carreras, salen hablando [sabiendo hablar] otra cosa es que lo usen más o menos pero el trabajo que se ha hecho es increíble. (BI-E, 304)*

(87) *La base la tenemos, porque yo creo que las instituciones han hecho una labor decente, antes lo he dicho. Y los chavales los tenemos preparados para hablar en euskera. Yo quitaría a cuatro hablando en castellano, porque hemos mencionado los que están en modelo castellano pero yo creo que se han convertido en una minoría, yo creo que una gran mayoría de jóvenes en el País Vasco tienen la lengua como un útil que podrían utilizar, potencial. (BI-A, 326)*

- Inguru soziolinguistiko elebakarretan, Bizkaiko ezkerraldean, aurrerapen handi bezala antzematen da euskararen erabilera sinboliko edo enblematikoa, jarrera-aldaketa handia delako seinale:

(88) *Pero sí es que verdad que desde años a esta parte sí que se oye hablar euskera, no de una forma esto… pero por ejemplo, los críos pequeños al menos como mínimo decir "aita", "ama", eso no se decía, ni "agur", ni "kaixo" ni nada parecido. Ahora por lo menos la gente se saluda simplemente y al menos es un principio, puede ser, no hablas en euskera pero como mínimo vas adoptando unas mínimas expresiones. Y muchas veces, he dicho que también los niños muy pequeños sí que hablan en euskera, o le dicen a su madre o a su padre, pues hoy hemos aprendido tuttutu, y le canta la canción, le dice no sé qué cosa, ahí un poco sí que va cambiado. (BI-F, 70)*

- Bestetik, Gasteizen, euskararen erabilera dela eta, pertzepzio ezberdinak egon daitezke, seguruenik mundu bereizi biren egoeran egon ala ez. Batzuek asko aurreratu dela sumatzen dute eta beste batzuek sekula ez dela erabiltzen kalean:

(89) *En Vitoria se pueden apreciar cambios sustantivos muy importantes en materia de euskera, o sea, pero muy significativos. Yo conocí muy bien Vitoria, desde chaval, cómo era Vitoria antes y cómo es ahora, el cambio es abismal. Inclusive yo me sorprendo, o sea, me sorprendo. Y va a haber avances muy importantes. (GA-A, 86)*

(90) *Yo he nacido aquí. Mis padres no son de aquí, son de Salamanca, no hablan euskera, pero yo sí hablo euskera en casa con mi hija y con algunos amigos. Soy euskaldun berri. Cuando hablaba GA-A que él veía que había habido un avance muy importante en el dominio, en el conocimiento o en la utilización*

*del euskera, a mí me suena un poco raro. Sí noto que a un nivel oficial, administración, colegios, Gobierno Vasco y demás, ha habido un fuerte trabajo en ese sentido. Los números cantan, la mayoría de los alumnos se matriculan en ikastola o modelo D. Pero yo, en mi entorno, el euskera no está muy presente. No sabría cómo decirlo, si poco o casi nada. (GA-D, 13)*

- Asko aurreratu den arren, oraindik asko dago egiteko; hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan aurreratu bada ere, beste ermuetan ez da egin neurri berean leku eta esparru guztietan, eta euskara oraindik ere hizkuntza minorizatua da:

*(91) Yo en principio creo que en los últimos 20 años sí que se ha avanzado, bastante. (...) Yo no soy un experto en el tema, lo que sí veo es que todavía el euskera sigue siendo una lengua minorizada vamos. Yo creo que el euskera, todavía aquí en Euskadi, todavía estamos muy lejos de una situación bilingüe total y todavía veo que hay muchísimo por hacer, muchísimo por hacer. (DU-B, 6)*

Euskararen normalkuntzan aurreratu den ala ez esateko orduan kontu handiarekin ibili behar da, pertzepzioetan alde handiak baitaude: batetik, norberaren bizipen edo esperientzien araberakoa izan daiteke pertzepzioa; bestetik, *bi mundu*ko egoeran bizi ala ez ere oso eraginkorra izan daiteke. Orokorrean, *bi mundu* egoeran bizi direnek euskararen egoera gehiago hobetu dela uste dute, euskararen munduarekin harreman zuzena dutenek baino.

### *3.1.2.2. Aurrerapenaren balorazioa*

Euskararen egoeran aurreratu dela onartuta, batzuek aurrerapen hori *baloratu* ere egin dute: hainbatentzat aurrerapena arrakastatsua da, nahiz eta abertzalea gizartearen zati bat baino ez den. Era berean, irakaskuntza arautuan euskararen erabilera dela eta, adostasun politiko handia dagoela iradoki du ondoko partaide honek:

*(92) Bueno, modelo bilingüe B y D. Quiero decir que esto en 20 años a mí me parece un éxito. Porque el 90 por ciento en Vizcaya no es nacionalista, vamos, eso está claro. (BA-F, 186)*

Beste partaide batzuek, berriz, kontrakoa azpimarratzen dute: egin diren ahaleginak eta ipini diren baliabideak kontuan hartuta, emaitzak ez dira izan behar bestekoak edo espero zitezkeenak.

*(93) [Euskara maila neurtzeko testa dela eta] Si miras atrás 25 años dices: hemos avanzado la ostra, se ha hecho mucho, pero si te fijas en esos datos y en la situación actual ¡Joe! el esfuerzo que se ha hecho y todo el dinero que se ha gastado, porque se ha gastado presupuestariamente y tal, se han destinado fondos, todo el esfuerzo que se ha hecho colectivo, social, que eso también supongo con el tiempo irá creando un desgaste ¿verdad? Y los resultados son... pues preocupantes, eran preocupantes. (DU-B, 59)*

Orain hamarkada gutxi batzuetako euskararen egoera kontuan izanik, ez da harritzekoa garai hartan itxaropenez beterik zeuden zenbait sektorek ez dela behar bezain beste aurreratu pentsatzea. Hala ere, aurrerapen ugari izan dela argi dago. Behar beste ez dela aurreratu esaten dutenek, oraindik egiteko asko dagoela uste dute; gabezia indartu nahi dute, duda barik asko falta baita egiteko.

### 3.1.3. Euskara modu *naturalean* bizi duten ala ez

Solaskideek sarri erabili dute *naturaltasuna* terminoa euskarak erdarak dituen funtzio berak eta guztiak dituen kasuetarako, egunerokotasuna eta normalizazioa adierazteko, eta *naturaltasun falta* terminoa hala gertatzen ez denean, hala nola, euskara erabiltzeko aukerarik ez dagoenean, hiztunak oso ondo ez dakienean edo egoera baterako bakarrik erabiltzen denean.

Euskara modu *naturalean* ala ez bizi denari buruzko pertzepzio oso ezberdinak daude, batez ere inguru soziolinguistikoaren arabera: inguru euskaldunetan, Zarautzen esate baterako, euskara naturaltasun osoz bizi dutenez, euskararen inguruan inolako gatazka sozialik ez dela sortzen uste badute ere [ikus (94) aipua], inguru erdaldunetan euskararen presentzia eskasak modu *naturalean* bizitzea ezinezko egiten du [ikus (95) aipua].

(94) *Pero el euskera yo siempre lo he vivido como algo natural. También es verdad, insisto, que yo desde pequeño hasta la adolescencia he hablado en euskera en ikastola y demás. Desconozco la realidad, pero la que me ha tocado a mí vivir, ésa. Y lo que sí es verdad es que aquí sí que yo lo veo como algo más habitual. (ZA-F, 24)*

Esan bezala, erdara nagusi den lekuetan, ezin da euskara modu “naturalean” bizi:

(95) *Igual que me ha pasado darme cuenta de hasta dónde los niños que aprenden euskera, en Sestao por ejemplo, pues como no encuentran dónde usar el euskera, lo tienen un poco descolocado. A pesar de que, sí, saben, se les cuenta, porque una cosa es que te cuenten y otra cosa es que tú lo vivas. Es como todo, tú haz lo que yo te digo pero no lo que yo hago. Pues esto es parecido. Yo te cuento que hay gente que habla en euskera, que vive en euskera, que [?] en euskera y te pongo la tele, pero es que en la tele dan las películas, y las películas nos han dicho que son de mentira, entonces no sé yo muy bien si lo de la tele será de mentira o será de verdad. Pero alrededor no ocurre que la gente vive en euskera. Entonces, una cosa que me ha pasado siempre es, cada vez que algún niño me oye hablar en euskera con mis hijos, me viene y me pregunta si soy maisu. Porque suelen identificar, adulto habla en euskera, es profesor. Eso lo primero. Y segundo, viene a hablarme, porque en cuanto oye un adulto hablar euskera, viene para demostrar que él sabe y para poder usarlo con alguien, porque lleva*

*un tiempo esperando dónde usarlo fuera de la escuela, y dice, "¡Oh, servía para esto!", entonces es como un descubrimiento. Pero te sorprende hasta dónde son capaces, o sea, hasta dónde de verdad está funcionando, que nos parece que son, dices, "Jo, esto no funciona, no funciona, porque nadie usa". ¡Hombre!, es que no necesita usar, es que no necesita. (BA-F, 111)*

Euskara komunikazio-hizkuntza bezala erabiltzen ez den lekuetan, euren herrian euskara normaltzeko hartzen diren neurriak ahalegin "surrealistak" izan daitezkeela sumatzen dute batzuek [ikus (96) aipua]: umeek ikasten dute, lana bilatzeko askotan eskatzen da baina gero inork ez du erabiltzen, seguruenik elebidun horiek, euskara jakin arren, bi mundu bereiziko egoeran bizi direlako.

*(96) Sí noto que a un nivel oficial, administración, colegios, Gobierno Vasco y demás, ha habido un fuerte trabajo en ese sentido. Los números cantan, la mayoría de los alumnos se matriculan en ikastola o modelo D. Pero yo, en mi entorno, el euskera no está muy presente. No sabría cómo decirlo, si poco o casi nada. Yo he trabajado con chavales, en tiempo libre, he sido monitora de muchas actividades para Ayuntamientos y otras entidades, siempre en euskera, y a mí siempre me ha sonado bastante artificial, incluso entre chavales que yo sabía que sus padres y sus familias eran euskaldunes, y que hablaban euskera. Pero para ellos como la tendencia primaria, al castellano, incluso en cualquier otra actividad, al castellano.Y luego veo también muchas incoherencias. A mí, por ejemplo, en trabajos para el Ayuntamiento se me exigía hablar en euskera, actividad en euskera, y demás, pero luego la memoria de esa actividad yo la tenía que hacer en castellano porque ni los técnicos, ni nadie que (¿) eso conocían el euskera. Entonces, a veces parece como, estamos intentando hablar en euskera y luego nadie habla en euskera, o estamos haciendo, o queriendo hacer un esfuerzo pero luego ¿para qué nos sirve si luego nadie lo usa? (GA-D, 13)*

Naturaltasun eza zertan datzan, zergatik ematen den eta zerk bultzatzen duen oso ondo azaldu du honako partaide honek:

*(97) En la margen izquierda en general eso pues ha faltado porque era un entorno castellanohablante, y la gente en principio lo que hace es vivir y usar la lengua para vivir. Y todo lo demás, que es una cuestión ideológico-política, pues está siendo un poco... sobrevolando ese asunto, pero el asunto primero es vivir, y vivir es hacer algo cómodo, usar la lengua como herramienta*

*de lo que te sale, de lo que te escapa de la boca. Tú dices, es raro escuchar a los niños. En Baracaldo escuchar a los niños en el recreo jugar en castellano es lo más natural, a mí no se me ocurre oírles de otra manera. Porque aunque estén en un modelo D de inmersión, en el que su andereño les habla todo el tiempo en euskera, sus padres les hablan en castellano, en la tienda les hablan en castellano, en la tele igual se animan muchos sus aitas y les ponen la ETB para ver los dibujos, pero el resto, o sea, de cada 10 cadenas, 1 es en euskera. Entonces, todo lo que tienen en el entorno es castellano, y lo más fácil es que se les escape porque es lo que les hace olvidarse de que tienen que hablar. Porque lo que quieren es actuar, quieren jugar al balón, y se ha molestado, y quiere decirle a ese algo, y se lo dice como le sale, si tiene que estar pensando, "a ver, pensar, ¿cómo se dice esto?" "Pues no, yo no voy a pensar, voy a jugar". Entonces, lo más natural es eso. Otra cosa que me parece muy normal es... entre unos cuantos amigos que son euskaldun berris en la margen izquierda resulta que todos hablan euskera pero hablan en castellano. Pues hombre, igual ahora lo han conseguido aprender a nivel de destreza de soltarse, como tú decías, de soltarse a hablar a los 20 años. Y llevan 20 años hablando en castellano, ¿tú sabes lo que cuesta ahora ponerte entre amigos que se han hablado toda la vida y se han dicho todas los chascarrillos y las intimidades en castellano, volver a decir eso en euskera?, que encima lo tienes que pensar media hora decirlo. Pues me parece que eso es durísimo. (BA-F, 103)*

Euskara ikuspuntu eta talde politiko jakin batzuekin lotzea, edo gauza artifizial bezala ikustea, euskararen kontrako politiketatik sortutako zerbait da, jakina. Izan ere, beste hizkuntza batzuen kasuan ere berdin-berdin egin daitekeen arren ez da egiten, edo ez du arrakastarik. Adibidez, ingelesa ikastea eta hemen erabiltzea, berez, gauza askoz artifizialagoa da, baina hori aberastasun bezala ikusteko jarrera dago. Izan ere, jarrera-kontua giza-mailako eraikuntza dela, azken batean interes sozial eta politikoen baitan sorrarazten eta garatzen den zerbait.

### 3.1.4. Noren erantzukizuna izan behar den euskararen aldeko lana egitea

Solaskide gehienak euskararen aldeko lana egitearen alde daude. Halere, aldeak daude zeregin hori noren erantzukizuna izan beharko litzatekeen adierazteko orduan. Funtsean erantzule bi aipatzen dira: hezkuntza-sistema eta *gu geu* (norbera, gizartea eta abar). Euskararen etorkizuna eskolak bermatzen duelako ideia oso zabal dabil, batez ere irakasle ez direnen eta erdaldunak direnen artean; irakasleek, berriz, hezkuntza-sistemaren mugak antzematen dituzte:

> *(98) El futuro está en los colegios ¿no? Yo lo que no sé es lo que pasa en los patios de los colegios, cuando salen al patio de colegio en qué hablan. (BI-C, 294)*
> *– Ya estamos con los colegios. (BI-A, 295)*
> *– Es que la enseñanza es un pilar muy importante. (BI-D, 296)*
> *– Ya tenemos que hacerlo todo nosotras. (BI-A, 297)*

Euskararen transmisioa hezkuntza-sistemari esker bermatuta dagoelako ideia beste arinkeria batzuekin batera agertzen da batzuetan, 5.2.8. atalean azalduta dagoen moduan. Euskara normaltzeko hartutako neurriak kontuan hartuta, euskararentzat etorkizun zoriontsua besterik (*arrosa koloreko etorkizuna*) ezin da espero. Aurreiritzi hori ezagutzaren eta erabileraren arteko nahasketaren ondorio izango litzateke: umeek, euskaraz badakitenez, euskaraz egingo dutela pentsatzea erraza da, baina baita uste okerra ere.

Nolanahi ere, zentzu batean edo bestean euskararen etorkizuna (ez dakitenek ikasiko duten ala ez eta dakitenek erabiltzen eta erabiliko duten ala ez) *gu*re esku dagoela uste dute gehienek. *Gu*re erantzukizuna dela oso modu ezberdinean antzematen da partaide bakoitzak euskararekiko dituen jarrera eta sentimenduen arabera. Gehienek euskara *gu*re kontzeptutik bizi dute eta beraz, erantzukizuna *gurea*, *norberarena*, *gizartearena* dela azpimarratzen dute. Euskara *beste*ena dela antzematen dutenek, berriz, nahi duenaren esku utzi nahi dute euskararen erantzukizuna, parte ez hartzeko norberaren eskubideak aldarrikatzen dituzte, eta haien parte hartzea eskatzeko edozein ahalegin inposaketa moduan har dezakete. Azken ideia horretatik hasita, ikus

daiteke eremu erdaldunean bizi den eta euskara *besteen hizkuntza* sentitzen duen partaide honek zer dioen:

(99) *Pero para mí el planteamiento no es aprenderlo más, el planteamiento es que cada uno haga lo que quiera, que aprenda, que hable lo que quiera. (GA-B, 198)*

Baina esan bezala, partaide gehienek euskararen erantzukizuna zelanbaiteko *gu* baten inguruan kokatzen dute, modu ezberdinean bada ere. Sarri aipatu da euskara ikasteko edota erabiltzeko norberak egin behar duela ahalegina, norberak nahi izanda, alegia:

(100) *¿Cómo se piensa en euskera? Yendo a un pueblo donde sólo se hable euskera y obligándote a hablar en euskera, bueno, porque yo creo que el euskera no es un idioma fácil, pero es lo mismo ponerte a estudiar euskera que ponerte a estudiar inglés, que ponerte a estudiar francés. Y cuando una persona saca una titulación en un idioma extranjero donde hay menos oportunidades de escuchar que aquí. Porque hoy aprender euskera es un lujo: tienes la televisión en euskera, tienes la radio que habla en euskera, tienes la prensa escrita que escribe en euskera... o sea, que oportunidades hay muchas. Lo que pasa es que te tienes que auto-obligar un poco a decir: "bueno, pues yo sé euskera, yo estoy en un lugar euskaldun y voy a hablar euskera, y voy a hablar euskera". (BA-B, 47)*

Euskara heldutan ikasi duen partaide honek norberaren burua behartu beharra azpimarratzen du, euskara hizkuntza zaila delako ideiari (ikus 4.1. atala) indarra kenduz. Gainera, euskara ikasteko dauden aukerak aipatu ditu, beste partaide batzuen moduan: nahi duenak ikas eta erabil dezake, aukerak badaude eta:

(101) *El que quiera que sus hijos hablen euskera o que al final se recupere la lengua y que se hable más de lo que está hablando actualmente pues se puede hacer. Es una cosa personal de cada uno. Facilidades hay, yo lo he hecho con mis hijos. / Imagino que el que quiera hablar euskera lo hará y el que no, pues no, pero es así. Facilidades hay todas. (BA-E, 5/7)*

Inguru euskaldunagoan bizi den beste partaide batek bere esperientziaren berri eman du: berak ere, guraso euskaldunak izanarren ez zuen erabil-

tzen, eta bat-batean hala egitea erabaki zuen, *barneko motibazio* oso indartsua izan zuelako ("algo sentí que me empujó a..."):

(102) *Es que yo lo que veo es que el euskera, así, naturalmente y sin empujones, no va a seguir para adelante. O sea, yo igual hablo desde mi propia experiencia, yo si hablo euskera y si sé euskera es porque en algún momento algo sentí que me empujó a… y que me metí, y que me puse a leer y a aprender y me puse a hablar euskera porque no hablaba. Claro, de pequeño yo era euskaldun ¿eh? pero luego perdí, como otros muchos. Como no tengamos, como no haya un compromiso de la sociedad claro, que ya no... va mucho más allá que el tema de los partidos políticos y eso ¿eh? como no tengamos muy claro y no hagamos no sé, ese esfuerzo, ¿no? Así naturalmente y tal, yo creo que soy pesimista, creo que sí requiere compromiso, implicación y un poco de entrega, ¿verdad? Cada uno a su nivel. Eso no significa que tengas que ir a no sé qué asociación y tal, pero por lo menos… (DU-B, 488)*

Norberaren barne-motibazioaz aparte, konpromisoa beharrezkoa dela behin eta berriro ageri da, norbera, gizarte, erakunde publiko eta *denon konpromisoa* alegia. Badirudi, konpromisoa beharrezkoa duela euskara moduko hizkuntza minorizatu batek; bestela ez dagoela zereginik, partaide askoren iritzian. Zentzu horretan, jendeak erabili behar duela aipatzen da, baita gizarte, partidu politiko, erakunde publiko eta abarren erantzukizuna ere badela:

(103) *Pero yo he dicho antes, todo está en manos de la educación, todo no está en manos de que la gente sepa euskera, es importante que la gente sepa euskera, pero luego la gente tiene que utilizarla, y tiene que haber, pues eso, tiene que haber estímulo, motivación y tiene que haber también pues oye, en vez de… A ver, yo sé que somos una comunidad de seiscientos mil, setecientos mil… ¿cuantos somos? (DU-B, 408).*

Erantzukizunaren ideia hori azpimarratzeko gehiago egin daitekeela ere aipatzen da, baita inguru erdaldunari euskaldunek eragin behar diotela ere, askotan translazio-teknika erabilita katalanekin konparaketa eginez:

(104) *[Katalunian] Les hacen aprender. Si a mí me hablaran en euskera, igual no me quedaba otro remedio... La culpa es vuestra[euskaldunena, ez nauzue behartzen eta]. / Tú allí va... lo primero que te hablan es catalán. Luego, si*

*ven que no sabes te responden amablemente en castellano. Pero lo primero es en catalán, aquí no. (BI-B, 106/108)*

Euskaldunek erdaldunak euskara ikastera eta hitz egitera behartu behar dituztela pentsatzea, erdaldunak egonda euskaraz berba egitea heziketa txarrekoa delako aurreiritziaren kontrakoa da (ikus 4.3. atala).

Amaitzeko, euskararen alde norberak egin behar du, beste inorentzat ez dauka interesik, nork egingo du bada bestela?

(105) *Sin duda, sin duda, porque es minoritario. Tú te puedes hablar a Boston hablando el inglés solamente, y te vas con el euskera, y, pues muy bien, como el que habla el suahili. Es verdad, es decir, desde el punto de vista, salvo que nosotros lo cuidemos, ¿qué interés tiene? Eso es una realidad. (ZA-F, 116)*

> Ikusi den bezala, garrantzitsua da partaideentzat *gu geuk*, gizarte osoak, erantzukizuna hartzea eta ahalegin berezia egin beharko litzateke euskararen kontua *besteena* dela sentitzen dutenekin. Bi ideia azpimarratu behar dira: alde batetik, errespetuaren ideiak ez doa inora (“respeto pero no me mojo”), baina bestetik, konpromisoa ez dela absolutua ulertu behar da, konpromiso-mota asko egon baitaiteke.

### 3.1.5. Hizkuntza-plangintza instituzionalaren ebaluazioa

Euskara normaltzeko, azken urteetan hartutako plangintza-neurriak direla eta, argi dago denek ez dutela bizi izan modu berean, eta norberaren esperientziak (zein ingurutan bizi den, euskara zelan bizi duen) eta ideologiak eragiten dutela. Egindako plangintzaren egokitasuna eta arrakasta ebaluatzerakoan, oso gai ezberdinak ageri dira partaideen esperientziaren arabera.

Salbuespenak salbuespen, lau ideia nagusi agertu dira:

- Gobernuaren (edo administrazio publikoaren) esku-hartzea eta babesa beharrezkoak dira, euskara hizkuntza txikia delako; (ikus 3.1.5.1. atala)
- Hizkuntza-plangintza ez da adostu eta adostasunetik abiatzea beharrezko ikusten da; (ikus 3.1.5.2. atala)
- Bestela erraza da batzuek erakunde publikoen hizkuntza-plangintza inposaketa bezala hartzea; guzti honen ondorioz; (ikus 3.1.5.3. atala)
- Plangintzaren helburuak berrikusi eta zehaztu behar dira, errealitate ezberdinak kontuan hartuta eta, arestian esan bezala, adostasunetik (ikus 3.1.5.4. atala)

### 3.1.5.1. Erakunde publikoen esku-hartzea eta babesa beharrezkoak dira

Joan den mendeko euskararen galera kontuan hartuta, erakunde publikoen esku-hartzea onartzerakoan adostasun handi samarra dago, esku-hartze hori zein neurri eta eremutan egin behar den iritzi ezberdinak badaude ere. Erakunde publikoek esku hartu ezik, euskara gorde eta biziberritzea ezinezkoa dela argi ikusten da.

(106) *Yo creo que no hay que tener por qué tener demasiado miedo a la ley del péndulo. Yo creo que en todo caso, por mucho que se haga, el movimiento no va a ser tan fuerte hacia la recuperación del euskera como fue hacía la pérdida del euskera. O sea que, eso se va desacelerando naturalmente. Y que se presione desde la administración y se haga fuerza para mantenerlo y para recuperarlo, yo creo que es positivo. Y pensar que naturalmente por espontaneidad se va a recuperar, yo creo que no es real. (ZA-E, 68)*

Gainera, demokrazian erakunde publikoek egoera ahulean daudenak babestu behar dituztenez, guztiz zilegi da euskara babestea, inguruko hizkuntza handien eraginez desagertu ez dadin:

(107) *Como parece que la lengua dominante se comería a la lengua chica, vamos a regular, ¿no?, para eso están los poderes públicos. Y efectivamente es una lógica democrática elemental tal como la entendemos. (KA-B, 82).*

Erakunde publikoen babesaren ildotik, argi kritikatzen da 2. kapituluan azaldutako gizartean dagoen politizazioa. Gainera, bi mundu bereizien egoera dela eta, erakunde publikoek askotan mesfidantzaz ikusten dituztela beren inguru hurbilean sortzen ez diren euskararen aldeko ekimenak eta, horregatik, ez dituztela babesten ere azpimarratzen da.

(108) *El Diario Vasco en Guipúzcoa, sacó un suplemento en euskera. Quizás un poco por lo que tú decías de lo testimonial, por quedar bien y tal, pero también en Guipúzcoa porque había un nicho comercial evidente. ¿Qué pasó? Que a una iniciativa de la iniciativa privada, con perdón, los poderes públicos no la aceptaron. El poder público dominante nacionalista, no sé si lo ahogó pero desde luego no le daban publicidad, no lo distribuían en centros públicos, etc. (KA-B, 82)*

Antzeko zentzuan, gobernuaren esku-hartzea eta babesa beharrezkoa dela pentsatu ez ezik, gehiago egin beharko luketela uste du zenbaitek. Administrazio publikoan ematen den babesa administraziotik kanpoko eremuetara ere zabaldu beharko litzateke: funtzionario ez direnei ere lagundu behar zaie euskara ikasi edota erabil dezaten, baita komunikabide pribatuei eta enpresei ere, laguntza fiskalak bultzatuta, esate baterako.

Partaide guztiak iritzi berekoak dira enpresa pribatuak bere arau eta lehentasun propioak dituela esaterakoan, norbere lehiakortasun eta irabazien arabera. Inolaz ere ezin lirateke beste helburu batzuengatik arriskuan jarri, euskararen normalizazioagatik esaterako. Esparru hau gobernuaren esku-sartzearekin eta inposaketa pertzepzioarekin oso sentibera da, beraz, euskararen sostenguari buruzko ahalegina zama bezala enpresaren etekinen geldotze gisa ikusi izan daiteke. Jarraian dauden ataletan, ondorengo puntuak aztertuko dira:

- Euskararen erabilera enpresan (3.3.1.)
- Euskararen balio integratzaile eta instrumentala enpresa pribatuan (3.4.2.)
- Enpresa pribatuan euskararen garapenak dituen zailtasunak eta normalizazio-politiken mugak (3.4.3.)
- Babes ekonomiko eta instituzionalaren eta hizkuntzarekiko konpromisoaren garrantzia (3.4.4.)

### 3.4.1. Euskararen erabilera enpresa pribatuan

Orokorrean guztiek egiten dute bat enpresa-munduan euskararen erabilera mugatua dela eta ez dagoela normalizatua esatean. Ez da egiaztapen hori

zehazteko ezta erabileran eragina izan dezaketen faktoreak zehazteko behar beste datu, baina ondorengo aipuak lan-munduan euskararen erabilerarekiko dagoen irudiaren erakusgarri izan daitezke:

*(224) En el mundo del trabajo hay mucho por hacer, mucho por hacer, todo el tema del trabajo, de la relación laboral, de las empresas. (DU-B, 189)*

*(225) Hay un tema muy importante, el tema del trabajo. Bueno, evidentemente no se habla –pero ni aquí, ni en Rentería– en las empresas. Si los empleados... o según, o qué... habría que matizar, sectores y tal, pero aquí, nada. (GA-A, 23)*

*(226) – Luego, por ejemplo, en el ámbito laboral las reuniones, yo todavía no he estado en ninguna en euskera. Jamás, pero jamás, en euskera. / Yo he estado trabajando en el ayuntamiento y las reuniones eran fifty-fifty, en castellano, euskera, y en Tolosa también estuve, y allá sí que era euskera, euskera. Pero vamos, contados. (ZA-F, 222/ 224)* (Oharra: partaidea medikua da.)

■ Aipuetan ageri diren ideiak:

(a) Enpresetan euskalduna den langile-kopurua urria edo txikiegia da.

*(227) Gero, euskaldun mailan, kopuru aldetik, jendea, gehienak dira erdaldunak. Adibidez, produkzioan, esateagatik, produkzioan edo prozesu produktiboan lan egiten dutenak gehienak dira Ermukoak, orokorrean izaten bagara lantegian 68 bat pertsona, ba euskaldunak izango dira, ba 10. Orduan horrek ere mugatzen du pilo bat. Joaten bazara, adibidez, nik sartzerakoan esaten dut "Egun on", hori da, ba jende gutxik esaten du. (ENP1-B, 15)*

(b) Enpresaren kokaguneari dagokion ingurune soziolinguistikoa aldagai erabakigarria dirudi euskaldunen masa kritikoari dagokionez, langile-kopuruaren portzentaje handia ingurune horri baitagokio.

*(228) Mira, de esas empresas, de esas trece –una en Navarra, doce– hay una que es pequeña, que es yo diría que el 90% euskaldun. Está en Andoain, y bueno, euskaldun peto-peto. No tienen un plan de euskera dentro de la empresa porque es una manera natural de comunicarse, etc., con lo cual... Luego tenemos otra en Zumaia que también es relativamente pequeña, cuando hablo pequeña, por debajo de 100, ¿eh? Y bueno, pues éstas tam-*

*bién, están en una fase... son normalmente perfil lingüístico euskaldun, aunque ya empieza a haber gente no euskaldun, pero bueno, se les da formación sin que exista un plan definido tampoco de euskera. Y luego hay otra que está ubicada cerca de aquí, de Ermua, que ésa es básicamente castellanoparlante, muy poco de euskera. (ENP2-A, 59)*

(c) Hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, zenbait aiputan kontratazio berrietarako euskal hiztunak diren gazteak aurkitzea ez dela zailtasuna ikus daiteke. Hau, euskarak hezkuntzan izan duen pisuaren gorakadari dagokio.

*(229) Pero yo por mi trabajo en este momento, lo que sí os puedo decir, por ejemplo, tengo que captar gente que hable euskera para determinadas funciones y servicios, y no tengo absolutamente ningún problema para encontrar. Y no estoy hablando de Vitoria, en Vitoria no habría ningún problema, porque de los colegios salen hablando, otra cosa es que luego, como decíamos antes..., no, no, estoy hablando de los pueblos, estoy hablando de Araia, estoy hablando de Agurain, estoy hablando de Elciego, estoy hablando de Laguardia, de Laguardia. Os lo digo yo, que es mi trabajo. Claro, ¿cuál es el nivel de conocimiento que tienen? No es como el de [partaide baten izena], está claro ¿no?, ni como el de [partaide baten izena], ni el mío. No, no. De hecho, si tenemos un conflicto, de tipo laboral, o lo que sea, pues, dependiendo del nivel de conocimiento de esa persona del euskera, igual tiene que pasar al castellano para expresarse mejor. Eso nos pasa a todos con todos los idiomas. (GA-A, 23)*

(d) Euskaldun “peto-petoak” diren guneetan euskararen erabilera arrunta dela sumatzen da. Baina zehatzago aztertuz, funtzioekiko egoera diglosikoak daudela aurresatea posible da. Gainera, ondorengo aipuan ikusi daitekeenez, profesionaltasun mailaren araberako ezberdintasunak ere ageri dira: lantegian euskararen erabilera zuzendaritza-maila edota bitarteko mailetan baino arruntagoa da.

*(230) Yo creo que se admite que la gente de cierta cualificación no habla. yo creo que eso está admitido aquí en Euskadi p or los menos los que están en mi entorno no hablan la mayor parte. (BI-B, 43)* (Injeniariei eta goi-mailako kargudunei buruz ari da.)

(e) Lan-munduan euskara eta gazteleraren erabilerari dagokionez bi mailatan banatzen den egoera diglosikoa dago.

- Erabilera-esparru gisa, euskal gizartean euskararen komunikazio-funtzioa ez dago enpresa-munduarekin identifikatua.

(231) *Estamos viendo que a pesar de poder contar pues con personal de veinte y pocos años, que han hecho su carrera en euskera, que tienen el título de EGA, que tienen todo, pues no se consigue el ambiente. Estamos intentando ¿eh?, pero no se consigue de una manera natural. (ENP2-A, 8)*

(232) *Ez dakit, kulturalki gure grupoan ez dago sartuta euskera. (ENP1-B, 15)*

- Euskara erabiltzen den enpresetan, hau funtzio komunikatibo batzuetara soilik murriztua dagoela dirudi, interakzio informaletarako alegia, eta ez du presentziarik izaten erabilera formal edo goi-mailakoetan.

(233) *Esta tarde hemos firmado el convenio y el convenio viene en castellano y no hay duda, ¿por que? Porque lo leen en la de estos centrales que son ELA y LAB y allí para encontrar alguien que hable euskera y que sepa euskera, igual no hay. (BI-B, 43)*

(f) Usadiozko egoera diglosiko honek gainditzeko zailak diren irudiak agerrarazi ditu, nahiz eta aldaketarako borondatea ere agertu den:

(234) *Nosotros hemos tenido pues casos dentro de nuestras campañas y nuestras cosas que hacemos por el euskera, pues de obligarnos a hacer todo, toda la cuestión de documentación, avisos, cartas, comunicaciones en los dos idiomas traducido, pues en algún momento hemos tenido dificultades..., bueno, hemos tenido dificultades, te voy a decir concretamente. Hace, el día 11 tuvimos la asamblea de la empresa y también ahí procuramos que el grado de utilización del euskera cada vez vaya a más, pero sabemos que es también complicado, primero, por los propios ponentes, porque aunque podamos ser euskaldunes pues no somos, no estamos alfabetizados y nos cuesta, nos falta erraztasuna. Y bueno, pero hay algunas cosas que comunicas en euskera. (ENP2-A, 26)*

(g) Enpresaren tamaina edota bere izaera lokala edo multinazionala: euskararen erabilera nabariagoa da enpresa txiki edo familiarretan, eta urriagoa, aldiz, enpresa handi, multinazional edo kanpoko jatorria dutenetan.

*(235) Las empresas pequeñitas sí son euskaldunes, hablan en euskera, pero si no, no. (DU-B, 189)*

### 3.4.2. Euskararen balio integratzailea eta instrumentala enpresa pribatuan

Jarrerak ikertzerako orduan ohikoa da hizkuntzaren balio instrumentala eta identitate-balioa aztertzea

(a) **Euskarak ez dirudi balio integratzaile argirik duenik enpresa-munduan.** Eskuragarri dauden datuekin ez da lortu ondorio zehatz batera heltzerik, honetan sakontzea beharrezkoa bada ere. Era berean, euskarak berak edo enpresa euskalduna izateak ez dio enpresari “balio erantsi” gisa erabiltzeko identitate baliorik eskaintzen.

*(236) El entorno económico no se mueve por identidades, lo siento mucho, señores. O sea, nuestro factor de competitividad como Euskadi, el factor de competitividad de nuestras empresas vascas no es la identidad, y menos el idioma. Dile a cualquier empresa que está compitiendo en el mercado español, bueno, en el mercado internacional, si por hablar euskera tiene una ventaja competitiva. Evidentemente, te dirá lo contrario, que es un coste. / Ventaja no lo es. O sea, otra cosa es que digas, por hacer patria lo hacemos. Y entonces ahora pregunto, ¿Y por qué tenemos que hacer patria?, y ¿eso es hacer patria? Y entonces vuelvo a lo... ¿realmente (¿) a mis profesionales formados en euskera y traer a gente donde discrimino y digo, “A este no porque no sabe euskera y a este sí porque sabe euskera”. ¿Me aporta valor añadido? ¿Qué valor me aporta cuando dejo escapar a gente que no sabe euskera?, ¿qué valor me aporta? Y cojo a uno que tiene menos conocimientos técnicos que otro y no puedo coger a un tío de Cuba..., bueno, Cuba, porque sabe español, pero de Canadá, de América o de Israel para traerlo aquí porque resulta que tiene que pasar la formación en euskera. ¿Qué ventaja estoy aportando yo a mi tejido empresarial? (ENP3-B, 14/16)*

Hala ere, zantzuak daude pentsatzeko alde handiak daudela enpresa batetik bestera. Adibidez, berba-hartze honetan taldeak sortzeko funtzioa balioesten zaio euskarari.

*(237) El mundo de los negocios, pues porque la empresa, la empresa no es la empresa de hace 100 años, es una empresa totalmente globalizada y donde se va a ser competitivo en la medida que tus profesionales, fundamentalmente sepan inglés, ésa es la primera, porque es la única manera de comunicarte con el mundo. Entonces, el euskera, evidentemente te va a ayudar pues para generar team building, para generar equipos. Porque si tus colegas son todos euskaldun zaharras, pues oye, igual se entienden mucho mejor entre ellos..., pero para hablar entre ellos y para generar equipos, fenomenal. ¿Por qué? Pues porque estamos en un mundo donde tú has salido del colegio y en tu casa hablan euskera y siempre te vas a sentir pues mucho más cómodo si tu colega de al lado y el de la izquierda y la derecha hablan como tú en euskera. Entonces, pues eso se va a ver y se va a ver ese sentimiento de que estas como en casa. Si tu lengua materna es el euskera. (ENP3-B, 62)*

Ildo beretik, enpresan euskara hizkuntza erabiliena denean balio integratzaile argia du.

*(238) Necesidad de… un poco en la línea de lo que comentabas tú, que hay una necesidad de comunicación y creo que es importante. Yo no me he dado cuenta de la necesidad que tengo de comunicarme en euskera hasta que no empecé a trabajar. En todo mi entorno casi nadie habla euskera y la verdad, hay uno en la cuadrilla que habla euskera porque sus abuelos hablaban, y nadie habla y hasta que yo entré a trabajar y comentas en el trabajo y uno es de Arratia, el otro es de Legazpi el otro es de no sé qué y resulta que eres tú el raro. Y tenemos una comida y entre ellos hablan en euskera. Yo no era consciente de ese mundo. (BI-C, 236)*

(b) **Euskarak, berez, ez du balio instrumentalik, eta enpresari ez ohi dio balio erantsirik ematen**.

*(239) Nik uste dut garbi esan duela berak. O sea, berez euskararen beharrik ez dago. (ENP1-C, 33)*

(240) *Nik ez dut uste euskara kontzeptu mailan lantzen den tresna bat bezala, eta hori da arazo bat, niretzat, komunikatzeko ez dugu behar euskara, bezeroekin hitz egiteko, komunikatzeko ez dugu behar, hornitzaileekin ezta, orduan tresna moduan, niretzako da tresna bat, gauza askotarako, baino nagoen tokian ez dut ikusten euskara tresna bat modura. Jende batzuekin bai, jende batzuekin, nik euskaldun bat, talde bat euskalduna ikusten badut egiten dutela lan, eta hori, ba saiatzen naiz euskaraz komunikatzea eta hori. Baina gero kontzeptuen mailan ez da ikusten tresna bat bezala lantegiaren barruan. Ez dakit ondo... Hori da ateratzen zaidana. / Nik uste dut tresna bezala ez baduzu ikusten hizkuntza bat edo kultura bat, ba leku horretan ba oso murriztuta egongo da, egongo da murriztuta harreman pertsonaletan bakarrik, edo profesionaletarako maila eta departamentu batzuetan bakarrik. (ENP1-B, 14/15)*

(241) *Lo que pasa es que es un tema de rentabilidad. Yo sé que en francés, inglés o alemán... Yo soy director de una empresa yo sé que la gente la necesito que hable ese idioma yo necesito gente que hable ese idioma. A mí si habla euskera no me aporta nada más que satisfacción. (BI-B, 38)*

(242) *Nire lantegian komertzial mailan edo salmentak handitzeko edo, ez du balio euskarak, gure erreserbak kanpoan daudelako, bai Alemanian, bai Espainian, baita Frantzian, edo Polonian edo Txinan. (ENP1-B, 74)*

(243) *Si mi trabajo es desarrollar proyectos de consultoría, es decir, lo que puede aportar a mi trabajo, en desarrollo de proyectos de consultoría. Ten en cuenta que el desarrollo de proyectos de consultoría fundamentalmente, por ponerle un título a esto, por servicios, son servicios de conocimiento. Si a mí me ayudara, es decir, que por saber euskera se va..., o sea, si esa gente que se incorpora nueva va a aportar más al equipo de trabajo y al conocimiento de trabajo por saber euskera, lo incorporaría, pero es que en este momento, no lo utilizamos ni siquiera como lengua vehicular. O sea, esta gente se va a incorporar a mi equipo y van a hablar en castellano. Con lo cual, ¿qué aporta? A mi equipo, nada. ¿Al conocimiento? Hombre, si yo estaría haciendo investigación sobre el euskera pues igual sí, pero tampoco, porque la gente utiliza euskera pero no sabe de la..., o sea, si estuviera dedicada a la lengua, sí, pero en mi trabajo no me aporta ningún valor añadido, no me aporta ningún factor de competitividad adicional salvo para competir con mi cliente que es Gobierno Vasco, Administración Pública Vasca. Salvo eso, porque me lo piden, porque me lo establecen como*

*un criterio, y por tanto, como ya me lo establecen como un criterio en la Ley de Contratación Pública, si a mí me quieren contratar, yo me van a poner un menos 2 si no presento mis informes y mis tal en euskera. Y por esa razón, evidentemente tengo que contratar a gente de euskera. Pero nada más que por esa razón. (ENP-B, 28)*

Alabaina, negozioaren araberakoa dela dirudi. Hori dela eta, enpresa--motaren araberako ezberdintasunak aurreikustea garrantzitsua da, tamaina, negozio-mota eta bere nazioarteko harremanak kontuan izatea alegia. Ostalaritzan hots, jendaurrerako balio garrantzitsua izan dezake, Bilboko tabernaria den hiztun honek dioen moduan, euskara jakitea negoziorako onuragarria izan baitzaio.

*(244) Yo tengo un local público. Es decir, para mí es importante la persona. Ahora hay mucho turista que viene de fuera, y es importante que hables inglés. Gracias a Dios yo hablo inglés y cojo un montón de clientes por el inglés, pero también cojo un montón de clientes por el euskera. Para mí es importante. (BI-E, 48)*

Euskararen balio instrumentala, edo honen gabezia, askotan ingelesarekin konparatuta agertzea ez da arraroa.

*(245) Y además yo pienso que la empresa privada más exigen el inglés, el alemán, en determinados sectores de la industria, que el euskera. (DO-C, 131)*

*(246) Inork ez du kuestionatzen [enpresaren izena]en adibidez ingeniari bat hartu behar duzunean, hark jakin behar du ingelesa, baina ondo, baina hori inork ez du kuestionatzen, hari eskatu behar zaionik ingelesa, ez dakit zerbaiterako alemana edo frantsesa, orain, euskara exijitu behar baduzu, jartzen da, zergatik? Eske hori da, jendearengan, hori da saldu behar duguna, baina ez saldu nik esan dudalako, benetan sinistarazi hori horrela dela. (ENP1-C, 92)*

Geroz eta handiagoa da ingelesa hizkuntza korporatibotzat eta elkar komunikatzeko normaltzat hartzen denaren ustea.

*(247) – Nik dudan arazoa da hori, da hizkuntza korporatiboa bera da ingelesa, eta gaztelania, eta orduan... (ENP1-B, 78)*
*– Hori enpresetan asko pasatzen da. (ENP1-M1, 79)*

*– Teknikerri ere berdin gertatuko zaio. Teknikerren bezeroa...*
*(ENP1-C, 80)*
*– Bai, lan egiten dugu proiektu Europarrekin, eta askotan ingelesez, ingelesez. (ENP1-A, 81)*

(248) *No, dependiendo de los sectores. Sector de consultoría. Vamos a ver: sector de consultoría. Yo voy a hacer un informe en euskera exclusivamente para el Gobierno Vasco, y porque me lo pide. Porque si no, no tiene sentido. Si yo, esos informes los debería hacer en inglés para publicarlos en la web internacional y para que todo el mundo conozca lo que... el conocimiento que tenemos en España, en Euskadi y en Bilbao sobre determinadas materias. Y lo mejor sería que fuera en inglés, porque estamos en un mundo del conocimiento, y donde deberíamos de utilizar las lenguas vehiculares que nos permitan conectarnos con el mundo. O sea, las lenguas que nos permitan conectarnos con el mundo, eso debe ser la prioridad de eso. (ENP3-B, 12)*

Euskara ingelesarekin edo nazioarteko beste hizkuntzekin erkatzen denean askotan hizkuntza biak kontrajartzen dira, “ingelesa ikastea probetxugarriagoa da” zentzuan. Kontraezarpen honek pertsona bat eleanitza izateko aukera urriak dituela onartzen du; aurreiritzi hau hiztun elebakarren artean oso zabal dago: ez da kontua euskara eta ingelesaren artean hautaketa egin beharra egotea, edota euskara eta gaztelaniaren artean, hirurak edo are gehiago jakitea baizik, eta argi edukita hizkuntza bakoitzak funtzio ezberdinak izaten dituela. Eleaniztasunerako oztopatzailea den aurreiritzi honen kontra zerbait egin beharko litzateke.

### 3.4.3. Enpresa pribatuan euskararen garapenak dituen zailtasunak eta normalizazio-politiken mugak

Kontu honi dagokionez, euskara balio honetaz hornitzeko zuzenean akzio eraginkorren bat egin beharra legokeen ideiari buruzko iritzi ezberdinak daude: esaterako, Eusko Jaurlaritzaren normalizazio-kanpainaren diskriminazio positiboan, hain zuzen ere, lanpostu-kopuru batetarako euskal hiztunak exijitzean, Euskara Plan bat inplementatzean edota enpresa-munduan euskararen sustapenerako martxan jartzen diren neurrietan.

Euskararen alde aktiboki agertzen diren parte-hartzaileek erabilera bultzatzeko neurriak hartzearen beharrizana posible dela edo beharrezkoa dela diote. Konpromisotik mintzo diren hauek, babes eta konpromisorako laguntza ezinbestekoa dela diote, euskarak ez baitu enpresa-munduan bere kabuz aurrera egingo. Bestalde, euskararen erabilera bultzatzeko neurriak hartzearen kontrakoek, enpresa-munduak berezkoak dituen arau eta irizpideez erregulatzen dela, edota interesak bestelakoak direla esanez argumentatzen dute beren jarrera. Esku-hartzea edonolakoa izanik ere, inposizio edo enpresarako zama zentzuaz hartzeko joera dago partaideen artean, baita eraginkortasun eta enpresa lehiaren oztopo moduan ere. Nolanahi ere, argi eta garbi hauteman daitekeena, aldekoen artean bertan ere, enpresen parte-hartzean mugak daudela da, hau da, euskara sustatzeko eginbeharrekoak, enpresaren lehen mailako funtzioak ezin dituela arriskuan jarri diote lekukoek: lehiakorra izatea, irabazi ekonomikoa, langileen lanpostuak babestea, eta abar.

#### *3.4.3.1. Enpresa pribatuan euskararen normalizaziorako zailtasunak*

**(a) Zuzendaritza edota langileen inplikazio-falta**

- Partaide batzuk enpresa batzuetako zuzendaritzaren inplikazio-falta sumatzen dute.

*(249) Guk ikusten dugu gauza bat, zuzendaritzak onartzen du euskararen normalizazio eman behar dela XXXen [MCCeko enpresa baten izena], baina beti ere egiten duena da kanpora begira. Adibidez, XXX jaunak [Eusko Jaurla-*

*ritzako Euskara Kontseiluaren partaidea da. Orduan urtean behin, horrela dago XXX [MCCeko enpresa baten izena] gora, eta XXX [MCCeko enpresa baten izena] behera, eta guk zer... Kanpora begira, XXX [MCCeko enpresa baten izena] baina gero eguneroko errealitatean guri benetan, sinistu iezadazue, gertatzen zaigula zuri gertatzen zaizuna, Teknikerren gertatzen dena. Alegia, hitz gutxitan esanda, euskararen normalizazio gelditzen da langilearen borondatearen arabera. Inork ez du esaten zuk hau bete behar duzu edo hau euskaraz egin behar duzu./ Eta arazoa horixe da. Arazoa da azken batean gu oso euskaltzaleak izango gara, oso garbi eta umekeri gabe gauzak ondo egiten arituko gara, baina zuzendaritzak ez badu bere gain hartzen, ez badu sinisten, ez du sinisten, euskaran, ez dago zer eginik, ez dago zer eginik. Eta hori izango da gure helburua. (ENP1-C, 27/28)*

*(250) Joan den urtean saiatu nintzen beno, euskara planean zerbait egin, beno, ideia orokor horretaz zerbait egin. Egon nintzen Udaletxeko neska, zinegotzi batekin hitz egiten honetaz. Berak esan zidan, beno bazirela laguntza batzuk horretarako. Bazeuden. Egon nintzen begiratzen, egon nintzen aztertzen presupuestoak ba osatzeko talde bat lantegian euskara zelan posiblea den bultzada bat emateko. Baino azkenean zeukan kostu bat, kontzejuan aurkeztu nuen horren kostua, hurrengo urteko presupuestoan sartzeko, eta esan zidaten ezetz. (ENP1-B, 19)*

Aldiz, badira enpresa batzuk non zuzendaritza inplikatzen den, partez, enpresa-motaren eta bere ezaugarri fundazionalengatik, partez bertako langile guztien konpromisoarengatik.

*(251) Además, apoyo importante porque del propio consejo de dirección al propio consejo rector, pasando por el consejo social, etc., todos esos estamentos lo han asumido y lo han tratado de impulsar, y han dado un poco las instrucciones de impulsarlo y de utilizarlo. (ENP2-A, 45)*

*(252) Gure kasua oso, oso desberdina da. Niri muga bat jarri zeren saiatuko naiz.. ez ekartzea pixka bat... Gurea oso desberdina da. Nik adibidez 26 urte daramatzat XXXen [MCCeko enpresa baten izena] eta gure historia izan zen, nik sartu nintzenean XXXen [MCCeko enpresa baten izena]euskara ez zen existitu ere egiten. Orduan pixka bat gurea izan zen behetik gora etorri zen zerbait. Langileak hasi ginen eskatzen, beno guk gure bizitzan, lantokitik kanpo euskaldunak ginen, ehuneko ehun, eta enpresa ikusten zen Beasainen egoteagatik ba Ataunera joatea izan zen Madrilera eta Valladolidera*

*joatea bezala da. Orduan, azkenean, esan nahi dut, sortu zen euskararenganako kontzientzia hori behetik gora. (…) Lan pilo egin genuen, zuzendaritza konbentzitu genuen, eta egia esan behar bada, zuzendaritzak bere egin zuen, nolabait ere behetik zetorren eskari hor . (ENP1-C, 23)*

Enpresetan euskararen normalizaziorako hartutako neurriak esfortzu handia behar du, baita gastu ekonomikoa ere: zenbait enpresak gustura egiten dute eta honetarako diru-kopuru bat zuzentzen dute; beste zenbaitek zama gisa ikusten dute, egin ala ez.

■ Langileen inplikazio eta kontzientziazio-falta

Langile gutxi batzuk dira honetan dihardutenak eta horien lana ez da guztiz emankorra. Langileen nahimen eta inplikazioa berebizikoa dela partaide guztiek onartzen dute adostasunez.

(253) *Orduan, nahiz eta gure zerbait egin, oso murriztuta zaude. Alde batetik jendea, [kontzientzia] aldetik, ba jendeak ez duelako eskatzen, erdaldunak direlako ia gehienak, eta beste aldetik propiedad aldetik ez duzulako ba babesa. Orduan, momentu honetan banago, beno, gure pinitoak egiten, ba zuzendaritza mailan gaudenok ba momentu honetan gara sei pertsona, hiru euskaldunak, eta orduan egiten duguna, saiatzen dugu ba kontaktu berriekin, beno, ba eskatzea, baloratzea behientzat, nahiz eta ez idatzi, ba baloratu hori, hemengoa izateko, Eibarretarra izateko, eta euskalduna. Baina exito aldetik, nahiko eskasa. (ENP1-B, 20)*

(254) *Hombre, nosotros lo estamos viendo. En el plan profesional, laboral si quieres, el grado de... y fíjate que estamos en una cooperativa, que aquí cada uno pues hemos puesto nuestro dinero y de nuestro trabajo vivimos, no de lo que gane el patrón, ¿no? Entonces, hasta ese punto incluso, la implicación pues es un poco... se pone un poco en entredicho, ¿no?, muchos aspectos. Porque priman otros valores. Por ejemplo, una persona, nosotros hemos tenido, quizás ahora en este momento y en los últimos meses no, pero el año pasado por estas fechas pues teníamos una gran carga de trabajo y pedíamos a los..., a la mayoría, a la gente en general, que bueno, pues por lo menos que metiera algunas horas extraordinarias, que viniera un sábado porque había un cliente... No había compromiso, uno decía que tenía que ir a jugar al fútbol y el otro tenía que ir a hacer footing, el otro al gimnasio, el otro con la novia. Y no había. Y un poco, si quieres y salvando*

*un poco las distancias, con el euskera pasa lo mismo. Yo creo que pasa lo mismo. Los motivos quizá sean diferentes pero igual es un poco entrar en la rueda de: bueno, pues no me comprometo oye, yo... (ENP2-A, 22)*

- Enpresa askotan euskaldun masa kritikoa falta da eta lan-munduko kontuez euskaraz hitz egiteko hitz-jario-falta handia ere (terminologia, ohiturak… lehenago aipatutako diglosiaren ondorioak)

(255) *Hace... el día 11 tuvimos la asamblea de la empresa y también ahí procuramos que el grado de utilización del euskera cada vez vaya a más, pero sabemos que es también complicado, primero, por los propios ponentes, porque aunque podamos ser euskaldunes pues no somos, no estamos alfabetizados y nos cuesta, nos falta erraztasuna. Y bueno, pero hay algunas cosas que comunicas en euskera. Bueno, pues, "Oye, por favor, dime en castellano que no me entero". Poco, pero hay. Entonces, pues sí, siempre hay ese grupillo de 8 ó 5 ó 10 personas, que nunca lo hacen con mala fe, también tengo que decir... (ENP2-A, 26)*

Lan-munduko zenbait gai eta egoeretan hitz-jario edota baliabide linguistikoen falta hainbat modutan uler daiteke: batzuentzat testuinguru horretan hizkuntzaren aldetik alfabetatu gabeak izatearen ondorioa da; beste zenbaitek, aldiz, lan-munduan dauden jarduera ekonomiko ez tradizionaletarako euskara ez dela erabilgarria dioen estereotipoari eusten diote.

(256) *Tiene que aprender el lenguaje profesional, vale, el lenguaje profesional. Entonces, vamos ahora a las universidades, ¿en qué se forman las universidades? Porque claro, si yo la carrera de económicas y empresariales, o cualquier master, un master en cualquier business school, de Esade o..., de formar en euskera, y esos vocablos, que muchos de los vocablos, evidentemente de económicas los hemos traído del inglés pero los hemos adaptado al euskera, si muchos de esos vocablos los tuviéramos en euskera, ningún problema. Pero es que ahora me encuentro con que es que la gente que ha estudiado económicas, empresariales o ha hecho un master, un MBA, vamos, no lo ha hecho en euskera, con lo cual ese lenguaje no existe en euskera, o no lo tienen ellos en la cabeza; tendrían que hacer su formación profesional en el uso de la lengua del euskera profesional, adaptada a temas puramente empresariales. (...) Yo es que veo que es muy complejo*

*el llegar a determinar el que el euskera realmente se utilice como lengua profesional aquí en Euskadi. (ENP3-B, 32)*

Puntu honekiko, batez ere ingurugiro ez euskaldunetan eta euskararekiko inplikazio urri edota gabekoetan, normalkuntza-bidean egindako esfortzuak, kasu onenetan karga gisa ikusten dira, beste askotan ordea, inposaketa surrealista gisa.

### (b) Euskara zama gisa

Enpresaz gain euskara sustatzeko ez dago inolako problemarik, baina hainbat testuingurutan normalizazio-bidean aurrerapausoak hartzea enpresarako zama gisa ikusten da (zama ekonomiko gisa gehienbat), baita ere inposaketa soil gisa.

(257) *[Enpresaren izena]ko propietarioa dau Madrilen, da propietario bat, orduan berak euskararekiko ez dauka inolako konpromisorik. Nik hitz egin dut honetaz, berak ikusten duela euskara ba beno, zama bat bezala. (ENP1-B, 15)*

(258) *Dile a cualquier empresa que está compitiendo en el mercado español, bueno, en el mercado internacional, si por hablar euskera tiene una ventaja competitiva. Evidentemente, te dirá lo contrario, que es un coste, porque tengo que traducir toda esta historia a no sé cuántos o porque tengo que formar a mi gente y me cuesta una pasta, y me cuesta una pasta, o sea que ventaja, ventaja no es. (ENP3-B, 14)*

Enpresako zuzendaritzaren inplikazio- eta konpromiso-mailak gastu ekonomikoa zama gisa ikustean eragina izango du.

(259) *En cuanto, decía, a la parte económica, pues bueno, es un desembolso importante. En el año 2006 nos habrá supuesto, de los antiguos..., pues del orden de unos 6 millones de pesetas aproximadamente. Vale, pero es una cantidad importante. Lo estamos viendo desde una perspectiva enriquecedora, no porque nos ha venido impuesto sino porque creemos. (ENP2-A, 6)*

### (c) Inposizio-pertzepzioa eta enpresaren beraren helburu eta erritmoaren arabera erabateko adostasunaz jokatzearen ustea

*(260) [En nuestro grupo de empresa] es una recomendación, no es que venga algo impuesto, "Oye, hay que...", ¿eh? Hay que hacerlo por consenso. (ENP2-A, 38)*

*(261) Se van dando pasos pero el técnico que tenemos nosotros de euskera, claro, yo ya les entiendo, ¿no? (...), siempre van con la idea de dar un paso más. Yo siempre les suelo decir: no, no, el paso es el que quiera la empresa, no el que quieras tú. (...) Nosotros no tenemos un objetivo que para el 2012 todo el personal tenga... No. Vamos a ir a nuestro paso, vamos a ir incorporando cada vez más cosas. No queremos a la gente obligarles a nada porque lo mismo que le obligamos... (ENP2-A, 45)*

*(262) Entonces, nosotros, ya te he dicho, estamos, tenemos nuestro plan de euskera, pero por ejemplo hay empresas dentro del grupo que todavía no han iniciado, a pesar de que nosotros ya llevamos desde el año 97, casi 10 años, por ahí, otros no han iniciado, pero iniciarán porque poco a poco van entrando, primeramente se tiene que convencer, ¿no? (ENP2-A, 59)*

Eusko Jaurlaritzak enpresa pribatuan euskararen erabilera normalizatzeko edonolako akzioak inposaketa gisa har daitezkeela ondoriozta daiteke, baita bezero gisa exijitzen direnean ere.

*(263) En mi trabajo no me aporta ningún valor añadido, no me aporta ningún factor de competitividad adicional salvo para competir con mi cliente que es Gobierno Vasco, Administración Pública Vasca. Salvo eso, porque me lo piden, porque me lo establecen como un criterio, y por tanto, como ya me lo establecen como un criterio en la Ley de Contratación Pública, si a mí me quieren contratar, yo me van a poner un menos 2 si no presento mis informes y mis tal en euskera. Y por esa razón, evidentemente tengo que contratar a gente de euskera. Pero nada más que por esa razón. (ENP3-B, 28)*

*(264) – Hombre, yo ahora en este momento, los que estoy contratando, y yo porque me estoy, mi negocio va más dirigido a las empresas, estoy haciendo una preselección en los que estoy valorando más aquellos currículums de gente que son euskaldun zaharras. (ENP3-B, 22)*
*– Pero porque... (ENP3-A, 23)*
*– Pero porque me lo exige el Gobierno Vasco. (ENP3-B, 24)*

(265) *Que vengan todos nuestros profesionales ya formados y que hagan las carreras en euskera si quieren y entonces ya se utilizará. Pero no lo impongas desde arriba porque es que es un gasto inútil y además yo creo que estamos siendo no competitivos. (ENP3-81)*

### (d) Esparru pribatuan euskararen normalizazioaren aldeko parte-hartzearen mugak

Lekukoen artean, horiek euskararen alde zein ez hain alde agertzen direlarik ere, zabalen dabilen ideia da, agian, enpresa bere kasako arauen arabera dabilela, irabazi ekonomiko eta lehiakortasunez funtsean, are gehiago, euskararen erronka ez dagoela enpresa-munduarekin lotua.

(266) *Quizá un poco porque teníamos que darnos cuenta de cuál era nuestra preferencia, o sea, nuestra prioridad, ¿no?, como empresa estamos hablando. Y nuestra prioridad es sacar los... conseguir el mayor número de pedidos, sacar, facturar y ganar dinero, que para eso estamos aquí en la empresa. Y si luego, después de ganar dinero, podemos crear puestos de trabajo, es nuestro objetivo, pero primero ganar dinero, lo demás no podemos crear puestos de trabajo. Y eso si no lo tenemos claro, difícilmente vamos a ganar. Entonces, todo el resto de cosas que vienen alrededor... (...) Entonces, nosotros ¿qué es lo que tenemos que priorizar? Eso, eso es lo que tenemos que priorizar. Ahora, que no tenemos que olvidar que somos euskaldunes y que tenemos que fomentar ese uso, por supuesto que sí vamos a poner los medios, pero vamos a poner teniendo en cuenta cuáles son las prioridades. (ENP2-A, 51)*

(267) *Todos dicen, "Éste tiene que tener el nivel tal, tiene que saber leer, escribir, no sé qué..." Bueno, ¿nosotros qué hacemos aquí? Hacemos fresadoras. ¿Nosotros qué queremos, uno que sepa euskera o uno que trabaje bien? Porque lo otro ya se formará. (ENP2-A, 45)*

(268) *Evidentemente, o sea, la prioridad de una empresa es ganar dinero, ganar dinero y sostenerse a futuro, es decir, mantenerse en Euskadi. (ENP3-B, 22)*

(269) *Yo creo que al mundo de la empresa hay que dejarle que se bandee con sus propias reglas. O sea, el mundo de la empresa es un mundo vivo, es un mundo muy competitivo, es un mundo de intercambios de ideas, de in-*

*tercambios de conocimiento, de... O sea, ahora si ves las conexiones que hay de las empresas en internet y del uso que se hace en internet de los trabajadores, pues vamos, absolutamente todo el mundo está conectado. Entonces, la gente de una manera habitual va a utilizar distintas lenguas. Entonces, imponer o hacer que las empresas, todos nos formemos en euskera para el uso de la lengua, yo si a estas alturas no he utilizado el euskera, evidentemente, como lengua vehicular no lo voy a utilizar, por mucho que me meta en cuatro años de cursos intensivos. (ENP3-B, 56)*

*(270) Entonces, fomenta la lengua materna. Y el tema de las empresas es secundario. Es que no te empeñes. (ENP3-B, 63)*

Aurreko ideiatik erauzten den ideia euskara ezin dela enpresaren funtsezko aktibitatearen gain jarri da, eta ezta aktibitatearen beraren zereginaren gain ere.

*(271) O sea, que en las OPEs, al final salgan profesionales super-cualificados, porque no saben euskera, vamos, es sangrante. Que no hombre, que no, que no estamos para eso, que somos un país que necesitamos ser competitivo, que somos un país que estamos perdiendo puestos en el ranking, que necesitamos los mejores profesionales, que nos dejemos de ostias, que aquí con aprender euskera tira millas y no, no hombre, que necesitamos profesionales, técnicos, buenos, buena gente. Entonces, ahí, esa batalla, evidentemente, es que yo creo que la lengua, las lenguas se utilizan para distintas cosas, que yo las utilizo para distintas. Bueno, yo mi lengua materna es el castellano y la utilizo para comunicarme, tal, pero yo en el negocio me comunico en inglés muchísimo, y punto. Y me comunico en inglés y no pasa nada, no pasa nada. (ENP3-B, 65)*

Lehenik euskararen erabilera beste testuinguru batzuetan normalizatu beharra dago, batez ere kalean, ondoren enpresetan ahalegin bat egiteko. Edota bestela esanda, kaleko erabilera normalizatuagoa denean, enpresako erabilera ere normalizatuko da.

*(272) Nik uste dut lehenengo normalizatu egin behar dela gizartean, ikusteko gu nahi dugun fruitua lantegietan. Gizartea normalizatzen ez den bitartean oso erronka zaila izango da beti. Egingo dira, o sea, aurrera pausuak emango dira, egingo dira mila gauza, baino kostatuko da beti pilo bat, pilo bat. Es que kalean gero bizitzen bazara edo egoten bazara eta ez baduzu erabil-*

*tzen euskara, zer zaila izango den gero sartu lantegian eta han erabiltzea.. (ENP1-B, 47)*

**(e) Normalizazio-bidean enpresa pribatuetan abian dauden neurriak eta lortutako aurrerapausoen pertzepzioa.**

Elkarrizketatuen zenbait iritzitan aurrerabidearen pertzepzioa suma daiteke, modu irmoan eman ez arren.

(273) *Entonces, nosotros, ya te he dicho, estamos, tenemos nuestro plan de euskera, pero por ejemplo hay empresas dentro del grupo que todavía no han iniciado, a pesar de que nosotros ya llevamos desde el año 97, casi 10 años, por ahí, otros no han iniciado, pero iniciarán porque poco a poco van entrando, primeramente se tiene que convencer, ¿no? / Y en el ámbito fuera de nuestro grupo de empresas, la verdad es que conozco alguna realidad por ahí y encuentro un poco..., lo que sí estoy notando que cada vez están, vamos, es un argumento que cada vez se está introduciendo con mayor fuerza en las empresas. Es decir, la formación del euskera y tal, pues veo, veo empresas, no solamente de nuestro sector, ¿eh? sino fuera del sector de la máquina herramienta, pues que ya están demandando puestos de trabajo con nivel de euskera, que también están elaborando planes de euskera, que ya a la hora de transmitir o de enviar cartas, etc., pues ya lo hacen en bilingüe. Se está notando poco a poco que están haciendo... (ENP2-A, 59/69)*

Gai honetaz zuzenean galdetu izan ez bada ere, jada martxan dauden neurriak edo martxan jarri beharko liratekeen neurriak aipatu zituzten parte--hartzaileek:

- Hizkuntza-plan baten beharra. Asko dira honetan diharduten enpresak [ikus (273) aipua]. Garrantzizkoa: plana bera, ezta honen xede ez edukia, ez da inposaketa gisa ulertu behar, adostasunetik abiatutakoa izan behar baita. Zalantza-kasuetan lehenik konbentzitu beharra dago.
- Euskararen normalkuntza ISOrako eskakizun izatea (ENP1-C, 27)

(274) *Izan gaitezen serio, eta gure helburua izango da zehatz-mehatz esanda, [enpresaren izena]era lotura, beno, [enpresaren izena]ek funtzionatzen du, bere barruko sistematikaz gain, dago ISO 9000 batean. Orduan, ISO horrek*

*arautzen du, bat, laneko arriskuen prebentzioa, ingurumenari dagozkion guztia, kalitatea... Orduan, klaro, gu ja hasita gara esaten sartu dezagun euskararen normalizazio ere ISOn. (ENP1-C, 27)*

- Euskara lanpostu batzuetarako beharrezko eskakizuna izatea. Zenbait lanpostutarako euskaren ezaguera eskakizun gisa (nahitaezko edo abantaila moduan) jada ematen dela, edo behintzat eman beharko litzatekeela, aipatzen da (ikus baita ENP2-A, 69).

(275) *Telefonista, beti ejenplo berdina jartzen dut, telefonista daramatza berrogeita bi urte eta ez daki euskaraz. Faborez, gu ez goaz esatera pertsona hori kendu ezazue hortik, gu goaz esatera pertsona horri ikus diezaiogun berak jakin beharko lukeela, nolabaiteko maila bat eduki beharko lukeela euskara, eta bere borondatez bere kontzientzia sortu dadila, eta hori jubilatzen denean, hori bai, hor jarri behar duzun pertsonak derrigorrez bete beharko du hemen eskatzen dena. (ENP1-B, 22)*

- Enpresako egunerokotasunean euskararen presentzia indartzea: idatzizko komunikazioan eta kartelak euskaraz zein gaztelaniaz egotea, baita bilerak euskaraz egitea lor dadin ahalegina egitea.

(276) *Aquí en la propia empresa, e impartido por una irakasle de AEK. Eso creo que es..., son cinco personas pero, vamos, repito que como he dicho antes, fundamentalmente es una empresa vascoparlante, aunque luego se utilice en mayor o menor medida. Luego, vamos a decir, a lo largo de los años y poco a poco, marcando los ritmos, hemos ido incorporando lo que llamamos los erabili-taldeak, ¿no?, que con la participación de diferentes departamentos, desde administración, oficinas técnicas, áreas de montaje, pues poco a poco hay un núcleo en el que trabajan una hora al mes, en el que hacen aportaciones, es decir, en, vamos a decir sugerencias, y hacen publicaciones de, pues bueno, de en paneles de un poco de cada una de las vivencias de cada área. Luego tenemos también un poco el que coordina o vamos a decir, gestiona también esas erabili-taldeas que es el euskera batua que da la propia empresa, en el que ahí está formado por miembros, vamos a decir de la dirección y de la administración, en nuestro caso del consejo de dirección y el consejo rector y de otras personas de otras áreas, pero con una involucración de mayor dedicación, 3, 4 horas por mes, en el que de alguna manera se hacen los planes de gestión, se*

*elaboran los planes de gestión viendo un poco de las peticiones que vienen de los erabili-taldea y se hace un plan de gestión como podría ser a nivel de empresario cualquier otro, con unos objetivos, un seguimiento, etc. Eso lo estamos llevando bien. / (...) obligarnos a hacer todo, toda la cuestión de documentación, avisos, cartas, comunicaciones en los dos idiomas traducido. (ENP2-A, 6/26)*

- Langileei euskara ikasi edo hobetzeko aukerak eskaintzea [ikus (276) aipua].

### 3.4.4. Azken hausnarketa: babes ekonomiko eta instituzionalaren eta hizkuntzarekiko konpromisoaren garrantzia

Behin eta berriz errepikatu den moduan, enpresa pribatua ez dela euskararen normalkuntzarako ingurune aproposa uste da, “enpresa pribatua bere horretan utzi behar dela” eta “erronka ez doala bide horretatik”. Nolanahi ere, badaude ingurune honetan ere lan egitea beharrezkoa dela uste dutenak, eta enpresa askotan martxan jarritako neurriak badaudela ikusi da. Azken horien iritzia zera da, lan-munduan euskararen normalkuntza bermatzeko laguntza behar dela, batez ere enpresa pribatuetan.

(a) Zuzendaritzaren parte-hartzea beharrezkoa da.
(b) Langileen aldetik inplikazioa eta konpromisoa behar dira.
(c) Erakundeen laguntza behar da.

Hiru faktoreak emanez gero aurrera egitea are errazagoa da, baina hau ez da ohikoena:

- Zuzendaritzaren parte-hartzea askotan ez da erabatekoa edota zuzenean ez du euskara aintzat hartzen eta ez du normalkuntza prozesuaren lidergoa bere gain hartzen. Honelakoetan, langileen inplikazioak ere, hau da, behetik gorako bidean doan langileen lanak eta eskaerek emaitzak lor ditzake, zuzendaritzarekin akordioren bat lortzea barne, 3.4.3.1.(a) atalean ikusi den bezala

- Zuzendaritza-maila ere kontzientziatua dagoen enpresetan, normalkuntzarako neurriak abiaraztea eta honetarako beharrezko diru-laguntza lortzea errazagoa da. Halere, enpresa hauetatik langileen parte-hartze barik ezer gutxi egin daitekeela azpimarratzen da (ikus 3.4.3.1.(a)).
- Eusko Jaurlaritza eta administraziotik jasotako laguntzak ez dirudi martxan jartzeko eragingarria denik. Are gehiago, beste erakunderen bat martxan hasterakoan, iniziatibak aurrera eroateko, eragingarri barik, euskarri gisa hartzen da. Bestela esanda, hauen laguntza aurretik eman beharreko zuzendaritza eta langileen konpromisoaz baldintzatua dagoela dirudi.

Errepikatzen den zerbait da normalkuntza-bidean eginbeharrekoa ez dela, inolaz ere, enpresetako funtsezko zeregina. Alegia, enpresek beste eginkizun batzuk dituztela. Bestalde, askotan aipatua izan ez arren, badirudi aurrerapausoren bat edo beste eman denaren sentsazioa dagoela, edo behintzat aurrerabidean dagoen kontua dela, baina asko dagoela egiteke. Enpresako eta erakunde publikoko normalizazioa ezberdinak dira, ezinbestean, batak eta besteek erritmo eta ardura propioak baitituzte.

Enpresa-munduan euskararen normalizazioari dagokionez, oso ezberdinak diren bi joera daudela dirudi: batetik, enpresa alde batera utzi behar dela, eta euskararen erabilera gizartean normalizatzen denean enpresan normalizatuko dela (“la batalla del euskera no está en las empresas”) dioen joera; eta, bestetik, euskararen normalizazioa eremu guztietan aldi berean jorratu beharrekoa dela dioena, enpresa barne (beti ere, enpresa-jarduerarako zama izatera iritsi gabe). Enpresen inplikazio-maila modu batekoa edo bestekoa da aipatutako joeren arabera. Hori dela eta, ezin ahaztu daiteke euskara sustatzeko edozein neurri hartzeko orduan kontrako jarrera erakutsiko duten enpresa asko dagoela.

## 4. KAPITULUA:

# AURREIRITZI MESEDEGARRI ETA OZTOPATZAILEAK

Kapitulu honetan euskarari buruzko aurreiritziak arakatuko dira. Hizkuntzari buruzko usteak asko aztertu dira *Folk Linguistics* (*ez adituen hizkuntzalaritza*) izeneko azter eremuan: *ingelesa hizkuntza polita da*, *alemanera itsusia da*, *hizkuntza batzuk ez dute gramatikarik*, *AEBetako hegoaldean oso txarto hitz egiten da ingelesez*, *gaurko umeek oso txarto hitz egiten eta idazten dute*, *hizkuntza-aniztasunak traba egiten dio gizadiaren garapenari* eta abar dira nazioartean aztertu diren aurreiritzi horien batzuk (ikus, besteak beste, Bauer eta Trudgill 1998, Lippi-Green 1997, Moreno Cabrera 2000).

Ez adituen hizkuntzari buruzko uste orokortuak oso garrantzitsuak dira ondorio sozialak izaten dituztelako sarri: hainbat talde baztertzeko bestelako aurreiritzien isla izan daitezke eta, gainera, euskararen testuinguruan garrantzitsuagoa dena, aurreiritziok elebitasun edo eleaniztasun egoera sustatzeko sano kaltegarriak izan daitezke, hizkuntza txikiari eustea edo ikasteko ahalegina egitea oztopatzen dutelako. Azkenik, aurreiritzi batzuk euskararen kontrako jarrera ezkutuen adierazle edo euskararen aldeko ahaleginik ez egiteko aitzakia ere izan daitezke, datuen bidez erakutsiko denez.

Baina beti ez dira kaltegarriak. Batzuetan euskal elebitasunerako mesegarriak izan daitezke. Kontuan izan behar da lan honi ez dagokiola uste

orokortu horiek zientifikoki egiaztatzea[2], baizik eta uste edo aurreiritzi horiek euskal elebitasun eta eleaniztasunerako mesedegarri ala oztopatzaile diren azaltzea.

Ondoren, eztabaida eta elkarrizketa-saioetan agertu diren aurreiritziak aurkeztuko dira hiru multzotan banatuta: lehenik, bereziki euskarari buruzkoak; bigarrenik, edozein hizkuntzaren jabekuntza eta ikaskuntzari dagozkienak (baita euskararenari ere), eta azkenik, elebitasunari buruzkoak.

## 4.1. EUSKARARI BURUZKO USTE EDO AURREIRITZI OROKORTUAK

Ikerketan aurkitu diren uste orokortu batzuk zehazki euskarari buruzkoak dira. Horietako batzuk mesedegarriak dira euskararentzat, baina gehienak nahikoa kaltegarriak.

### (a) *Euskara hizkuntza ederra da*

Euskara hizkuntza *ederra*, *berezia*, *aberatsa* da. Balorazio erabat subjektiboak dira horiek, baina edertasun hori termino objektiboetan adierazi dute partaideek, linguistikoetan hain zuzen:

- Hizkuntza-egitura berezikoa da euskara:

  *(277) Lengua muy rica, con unas peculiaridades muy amplias, hablada por muy poquita gente. (BA-B, 139)*

- Oso aberatsa eta, zentzu oso positiboan, berezia, aldaki anitzekoa, dialektoen aberastasuna, xehetasun-maila eta garatzeko gaitasun handia duelako.

  *(278) Me siento absolutamente enamorado del idioma. Me he sentido así con todos los idiomas que he ido aprendiendo, eso también es verdad. Pero con el euskera en particular, como no me pasa con ninguno, o sea, es que es, es, con ningún otro, en euskera tú te vas a Lekeitio, se habla de una forma, te vas a Ondarrua, se habla de otra, te vas a Oñate, se habla de otra, te vas*

2 Moreno Cabrera hizkuntzalariak (2000) hainbat uste orokortu gezurtatzen ditu.

*a (¿), se habla de otra... Hay, o sea, puedes decir las cosas de mil formas distintas, con mil matices, con mil... ; hay muchas formas dialectales, hay, o sea, y la posibilidad de desarrollar el idioma es enorme, es enorme, la versatilidad que tiene es enorme, o sea, las posibilidades de crecimiento. Eso, desde el punto de vista estructural, desde el propio idioma, lingüístico, eso, al margen de los problemas sociales. Pero es que cuando uno tiene esa certeza, realmente cuando te pones muy cerca de un idioma y dices, "Ostias", y te das cuenta los matices, al final, o sea, al final qué bonito es (...) Y a mí el euskera me parece extraordinariamente..., o sea, muy complejo pero maravilloso, que le queda un desarrollo en el tiempo enorme, porque todavía está, para mí está todavía iniciándose, desde el punto de vista del crecimiento, iniciándose. (GA-A, 182)*

- Eraketa lexikala kontuan hartuta, oso polita eta aberatsa:

*(279) Cómo van surgiendo las palabras, cómo se hacen las estructuras... / Coges el diccionario, y todas las palabras están encadenadas y con una palabra aprendes cinco, eso en ninguna lengua pasa. (BI-E 422/424)*

Agerian dago partaide horiek euskararen idealizazioa erakusten dutela beste hizkuntzekin alderatuz gero, eta hori mesedegarria dela euskarara hurbiltzeko, dituzten usteak egiazkoak izan ala ez.

**(b) *Euskara hizkuntza zaila da***

Aurreiritzi hau oso zabal dabil; izan ere, 15 bider agertu da euskaldunen zein erdaldunen hitzetan: *Zaila*, *oso zaila*, *guztiz zaila, konplexua, oso konplexua* kalifikatzaileak erabili dira. Zailtasuna eragiten duten arrazoien artean bi aipa daitezke: euskara zaila da inguruko beste hizkuntzekiko distantzia tipologiko handia duelako, eta ahozko aldaera eta idatzia oso ezberdinak direlako.

Lehen arrazoiari dagokionez, gaztelaniatik abiatuta hizkuntza bien arteko distantzia linguistikoa handia denez, euskara ikastea zaila dela hautematen da. Partaideek zailtasun horri erreferentzia egiteko bi modu erabiltzen dituzte: zuzenean hala adieraziz (DO-C, 161; GA-E, 26), edo gramatikari buruzko aipuak eginez (BA-C, 40).

(280) *Y luego yo sigo diciendo, para mí, o sea, es una opinión mía, personal, que el euskera como lengua es difícil, es de las lenguas más difíciles. Igual porque no tiene raíces latinas, y nos basamos en el castellano. (DO-C, 161)*

(281) *Me parece que el problema que tenemos la gente ya que lo hemos hecho de mayores, es que nosotros pensamos en castellano. Entonces, queremos aprender la gramática y la gramática yo creo que en euskera es muy difícil porque no hay una regla que siempre sea estricta, siempre hay una cosa que en esa regla cambia, entonces tú ya te armas un lío en la cabeza, un taco. (BA-C, 40)*

Azken kasu horretan, BA-C partaideak duen arazoa zera da: ez du lortu euskararen izaera ezberdinaz jabetzea, ezagutzen dituen beste hizkuntzen egiturarekin konparatuta euskararena ezberdina delako. Horregatik hizkuntzari berari arau erregularrik ez izatea leporatzen dio.

Euskararen zailtasuna azaltzeko katalana edo galegoa zein errazak diren azpimarratzen dute partaide batzuek konparaketa gisa, eta erraztasun hori dela eta gertatzen diren ondorio praktikoak seinalatzen dituzte:

- Katalaneko eta galegoko hiztun pasibo bihurtzea oso erraza da eta “modu naturalean” (ahaleginik egin gabe) lor daiteke:

(282) *Eso es, que el tema en que todos hablen, es por la dificultad. Yo creo que si el euskera fuera tan fácil como el gallego y el catalán, quiero decir, a la hora de que personas que nunca lo han hablado puedan entender, o puedan hablar sin mucha dificultad después de estar un año, habría mucha gente igual, de la que viene de fuera, que sí que aprendería. (BA-C, 131)*

(283) *(Katalanaren kasuan) Entonces la facilidad que presta el mismo idioma para una adaptación y una normalización es muy grande, con el gallego ocurre igual. Yo he ido a Galicia, hombre, a veces les tienes que parar, y eso que iban despacio hablando, pero eres capaz de seguir la línea. En cualquier discurso puedes ir cogiendo las ideas principales, o a grandes rasgos, sin saber nada y sin haber tenido un mínimo contacto. En euskera no, y eso me lo dice gente que ha venido aquí con interés, e incluso con que “Ya que voy para allí pues ya verás tú, qué bien voy a coger euskera”. No, no se han vuelto y han dicho, “Qué barbaridad, eso tiene que ser dificilísimo”. Esa percepción que tienen de dificultad de adquisición del euskera en mi opinión es real. / Sin embargo en el caso que estaba mencionando*

*del catalán tu puedes entenderlo aunque luego recurras a tú expresar lo que quieras en castellano, pero pues es integrarte en un grupo castellano parlante, y sin embargo en euskera, no. Y es una dificultad muy grande. Porque la gente tiene voluntad. Cualquiera que le preguntas, pues "Bien, yo ya haría un esfuerzo". (BI-A, 111/256).*

- Irakurtzen errazak direnez, enpresa-munduan erabili daitezke:

(284) *Es una cuestión de facilidad, no es una cuestión de otra cosa, no creo que es un tema mental nuestro que somos más duros de mollera sino que es mucho más fácil leer el catalán, entenderlo, porque yo estoy estu... A mí me pasa muchas cosas nuestra oficina de Cataluña, y nuestra oficina de Cataluña escribe en catalán. Pero, ¿por qué? Porque los negocios en Cataluña han sido siempre en catalán y porque me puede mandar cosas que yo las entiendo, nada más, es por pura..., por ser pragmático. (ENP-B, 34)*

Partaide batzuek zailtasunaren pertzepzioa gehiago garatu zuten. Hizkuntza zaila dela onartuz ere, ideia hori leundu nahian, euskara beste hizkuntza asko baino zailagoa ez dela diote:

(285) *Pero hasta el inglés y el francés, que no son tan difíciles, nos cuesta aprender. / Nos cuestan mogollón. (DU-B, 234/236)*

(286) *Porque dificultad no tiene más el euskera que ninguna otra lengua, tiene la misma. Hombre, tiene una dificultad mayor dependiendo del idioma del que partes. Probablemente para un ruso será más fácil eso que el castellano, porque el ruso usa una lengua que es muy parecida al euskera, se le ponen cosas detrás, en vez de preposiciones utiliza morfemas, utiliza trozos de palabras, y entonces para él se parece más a su lengua el uso del euskera que el castellano. Por supuesto para uno que habla castellano cualquier lengua románica es más fácil, porque su mecánica, su manera de funcionar se parece más a la suya, el francés, el italiano, el portugués, el catalán, el gallego, pues para un castellanohablante son más fáciles desde su lengua. (BA- F, 121)*

Gainera, gaur egun euskara ikasteko beste hizkuntzak ikasteko baino aukera gehiago daudela azpimarratu du partaide batek:

(287) *Porque yo creo que el euskera no es un idioma fácil pero es lo mismo ponerte a estudiar euskera que ponerte a estudiar inglés que ponerte a*

*estudiar francés y cuando una persona saca una titulación en un idioma extranjero donde hay menos oportunidades de escuchar que aquí. Porque hoy aprender euskera es un lujo, tienes la televisión en euskera, tienes la radio que habla en euskera, tienes la prensa escrita que escribe en euskera o sea que oportunidades hay muchas lo que pasa es que te tienes que auto-obligar un poco a decir: "Bueno, pues yo sé euskera, yo estoy en un lugar euskaldun y voy a hablar euskera, y voy a hablar euskera". (BA-B, 47)*

Hurrengo elkarrizketa zatiak oso argi ilustratzen du partaideek nola aztertzen duten, denen artean, zein den zailtasunaren benetako garrantzia, eta zein aparteko faktorek eragiten duten hizkuntzaren ikaskuntzan (hizkuntzaren prestigioa eta erabilera soziala, hain zuzen):

*(288) – Yo, de todas formas, creo que la historia no es la facilidad o la dificultad, sino que es la importancia que tenga a nivel social. (GA-F, 29)*
*– Claro, es lo que... (GA-E, 30)*
*– Si aquí, vamos a ver, en el País Vasco, se hablara euskera, aquí en Vitoria se hablara, digo, pues es que un niño no se plantearía para nada, es muy difícil. Luego, esto, o sea, para nada. Es más, la utilización, el prestigio... (GA-F, 31)*
*– Es el prestigio, sí. (GA-E, 32)*
*– El prestigio, un niño no se plantea si es difícil o no. (GA-A, 33)*

Azken txandako partaideak, GA-Ak, euskarari aitortzen dion zailtasuna gauza positibo moduan antzematen du: euskararen konplexutasunak aberastasuna dakar.

*(289) A mí ya no me cuesta hablar [euskaraz], pero desde luego sé mucho más inglés y francés que euskera escrito o leído, muchísimo más. Yo he estado..., y sigo leyendo en inglés, y no tengo mucha dificultad, en euskera tengo muchas dificultades. Y sin embargo a la hora de hablar no tengo... El abismo, la distancia que hay entre el euskera oral y el euskera escrito, eso hace que el idioma se vuelva extremadamente difícil. Bueno, son muchas razones, pero al mismo tiempo esa complejidad hace que sea un idioma extraordinariamente rico. Yo realmente me empecé a..., estoy, en este momento puedo decir que estoy absolutamente enamorado del euskera. (GA-A, 182)*

Halaber, euskara beste hizkuntza batzuk baino zailagoa delako usteak batzuetan euskararekiko kontrako jarrera ezkutatzen duela ikus daiteke. Hona hemen adibide bi. Lehenengoan, DU-C partaideak euskara oso zaila dela nabarmentzen du, defentsiban jarrita (ikus bigarren pertsonaren erabilera) baina, zailtasuna zertan datzan bat ere azaldu gabe:

*(290) – Lo que no puedes cambiar es que el euskera es difícil. Eso no lo puedes cambiar, que el euskera es difícil, es una lengua difícil, entonces eso no se puede cambiar, entonces eso pues... (DU-C, 323)*
*– Pero hasta el inglés y el francés, que no son tan difíciles, nos cuesta aprender. DU-B, 324)*
*– Yo creo que no son tan difíciles. (DU-C, 325)*
*– Nos cuestan mogollón. (DU-B, 326)*
*– Bastante menos, creo yo. (DU-C, 327)*

Hurrengo adibidean, GA-B partaideak euskararen galera geografiko eta historikoak berez ei duen zailtasun horrekin lotura duela iradokitzen du, ukipen-egoeran zegoen beste hizkuntzekin konparatuta euskara zaila zelako gerta zitekeela, alegia.

*(291) Yo no quiero ser malo, pero se me está ocurriendo que si se fue reduciendo, porque supongo que el euskera o una lengua parecida se hablaba hace miles de años en la península, no solamente aquí, sino que se hablaría en un montón de sitios. Porque de hecho se encontraban conexiones con el tarteso. Pero supongo que si se ha ido restringiendo igual es por eso, por algo de eso, porque hay otras lenguas que la han desbancado porque eran más fáciles de hablar. (GA-B, 27)*

Euskara hizkuntza zaila izateko beste arrazoia ahozko eta idatzizko euskararen artean dagoen aldean datza: partaide batzuek heldutan euskara ikasten saiatu baina arrakastaz lortu ez duten batzuek ezin dutela hitz egin adierazi dute, eta euskaldun zaharra eta erdaraz eskolatutako beste batek hitz egiteko arazorik ez baina idazteko zailtasun handiak dituela adierazi du:

*(292) Allí [en el euskaltegi] desde el principio empiezan a hablar en euskera y tú te sientes..., tú lo que no quieres es hablar porque a ti te ponen un papel, una redacción y dices: "Bueno, voy a pensarlo mucho y seguramente que lo escribo bien y todo". Pero a la hora de ponerme a hablar, totalmente..., porque lo quiero hacer bien, lo tengo que pensar y puede pasar media hora*

*hasta que yo he estructurado una frase de cuatro líneas y la quiero soltar. Entonces ya directamente... (BA-C, 40)*

Azken aipu hau oso zabal dagoen uste oker baten oinarrituta dago: ahozko euskara eta idatzizkoa ezberdinak izatea fenomeno ez ohikoa dela. Hizkuntza guzti guztietan ahozko erregistro informal, bat batekoak, eta idatzizko erregistro formal eta landuak hizkuntza-ereduaren aldetik oso ezberdinak dira. Ezin dira aukera berberak izan dokumentu landu bat idazteko eta lagunartean berba egiteko eta bai lehen bai bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan ahozkoa ezin da irakatsi aspalditik idatzizkoa irakatsi den moduan: ahozkoak eta idatzizkoak ez dute gramatika bera, estrategia komunikatibo ezberdinak erabiltzen dira batean eta bestean eta garbi esanda, erabat ezberdinak dira. Ikus 3.3. atala.

Euskara zaila delako aurreiritzia ezabatzeko ahalegin handia egin behar da. Euskara eta inguruko hizkuntzen arteko distantzia linguistikoa handia dela egia bada ere, euskara ikasi eta erabiltzea errazago izateko beste arrazoi indartsuagoak daude: norberak duen euskararen pertzepzioa, ikasteko edo erabiltzeko motibazioak (barnekoak eta kanpokoak), prestigioa eta erabilera soziala. Distantzia linguistikoaren zama erraz murriztu daiteke pertzepzio positiboa, barneko motibazioa eta aldeko jarrera izanez gero. Izan ere, nahiz eta euskara eta gaztelaniaren arteko distantzia linguistikoa handia izan, hizkuntza-ukipenak, euskararen presentzia handia denean, euskara ez dakitenek ere “barneratzea” egiten du, hurbil eta ezagun sentitzen delako, eta horrela distantzia linguistikoaren zama gehiago murriztu daiteke. Gainera, kontuan hartu behar da distantzia berbera dagoela euskaratik gaztelaniara eta euskaldunek erraz ikasten dutela gaztelania.

### (c) Euskalduna izateko ondo hitz egin behar da / Batzuek ondo hitz egiten dute baina gehienek txarto

Jarrera arauemailea erakusten duten beste hainbat aurreiritzi oso zabal dabiltza gizartean. Interesgarria, eta aldi berean kezkagarria da honako ideia hau aurkitzea, gizarte euskaldunean inork ez duela *ondo* hitz egiten, alegia. Gai honen inguruko usteak honela labur daitezke:

- euskaldun berriek *bantu, eskolako euskara,* ez euskara *jator eta benetakoa* egiten dute;
- euskalkia egiten duten euskaldun zaharrek ez dakite euskara *landua, etxekoa* baino ez dakite;
- zaharrek *txokokeriak dakizkite, etxe-etxekoak, baserritarren kontuak* baina ez euskara modernoa, eta
- gazteek *euskañol* egiten dute, batzuentzat euskararen galerarako aurreko pausua.

Labur esanda, inork ez du *ondo* hitz egiten. Aurreiritziok hizkuntza guztietan egon daitezke baina euskararen kasuan guztiz kaltegarriak dira erabilera eragozten dutelako.

Esan bezala, partaideen ahotan sarri entzun izan dira euskararen *kalitateari* buruzko uste orokortuak. *Batzuek ondo hitz egiten dute eta beste batzuek txarto:*

(293) *Bueno, mi madre entender, entendía todo, lo que pasa que, bueno, mi hermano el mayor cuando le empezaba a chapurrear algo en euskera, pues le decía, "Tú no hablas como las vecinas". Porque nosotros toda la vecindad en Lasarte hemos tenido a gente euskaldun. (...) Pero claro, mi hermano empezó y mi madre ya, "Un crío de 5 años me está diciendo que hablo mal, pues ya me callo lo poco que sé". (DO-C, 11)*

(294) *A mí lo que me ha dicho mi hijo antes de venir aquí, "Y la reunión esta, ¿qué?", "No, el tema de la lengua de euskera y tal", "¿Tú, euskera?, si utilizas el mismo tiempo del verbo todo el rato, y…" Es verdad, es decir, el nivel que tienen ellos y el de nosotros no tiene nada que ver. A mí, yo soy euskaldun zaharra, y bueno, cuando intentas hablar un poco bien, se te ríen a la cara los que saben bien. (ZA-F, 184)*

(295) *Aparte que yo en euskera no hablo más que con mi familia, y ahora con mis hijos o bueno..., bueno, soy de una (¿) también que si hay que hablar en euskera pues ahí, pero tampoco es que hable mucho. Tengo dos hijos, uno de 19 y otra de 13 que entre ellos antes hablaban bastante en euskera, cada vez hablan menos entre ellos. Estoy siempre diciéndoles que euskera, que euskera, que euskera. Y incluso yo con ellos hablaba también antes pero como ellos son batua, yo soy euskaldun zaharra, aunque yo les entienda muchas veces, prácticamente yo les entiendo todo, ellos sí que me atacan a mí diciéndome que hablo muy mal, que hablo muy mal y tal. (IR1-C, 8)*

Hiru aipu horietan ikusten denez, batzuentzat betiko euskaldun zaharren euskara ona eta jatorra den bitartean, beste batzuentzat, batuarekin konparatuz gero, oso pobrea da. Hiru aipuetan gainera, seme-alabek duten aurreiritzia ere kontuan hartu behar da, hizkuntza-aldakortasuna onartu eta baloratu ordez gurasoen aldaera gaitzesten baitute, eta hori gurasoek euskara erabil dezaten oso kaltegarria da.

Arestian esan bezala, jarrera arauemaileak erabat kaltegarriak izaten dira, salbuespenak salbuespen: partaide batek dio hiztun batzuek ondorio oztopatzailea gainditu dutela, txarto hitz egin arren; ez direla lotsatzen eta euskaraz hitz egiten jarraitzen dutela. Hori da bere kasua, hain zuzen:

(296) *Y desde luego yo intento siempre con todo el mundo que puedo, a vosotras no os conocía, pero empiezo con todo el mundo a hablar en euskera y si sigue bien y si no, pues ya está. No me da ninguna vergüenza, que sé que fallo mucho, pero no me da vergüenza ni nada y... Me encanta. (IR1-B, 21)*

Euskararen munduan bizi ez direnak ere konturatzen dira batzuetan jarrera preskribatzaile gehiegi dagoela eta kaltegarri sumatzen dute:

(297) *Y yo creo que la única manera de mantenerla viva, a mí me parece es, relajando, primero relajando un poco, relajando su uso y relajando, insisto, el que escribas en euskera y que nadie te corrija. Y a mí me han corregido, a mi equipo le han corregido. En mi vida me han corregido en inglés y en euskera, para dos veces que lo hemos hecho, nos han corregido los informes. Y he mandado un informe en euskera y me han contestado diciendo a ver qué traductor había hecho eso, que era una mierda y que eso Euskaltzain-*

*dia no lo pasaba. Y digo: es que a mí mis informes en castellano no me los pasa el Instituto Cervantes, no se los paso al Instituto Cervantes para ver cuáles son los errores en castellano, es que a ver qué pasa, a ver si somos más papistas que el Papa. Pues no, entonces, utilízalo de una manera relajada. Y ¿metes errores? Sí. ¿Que cambias la lengua? Pues la cambiamos. ¿Qué pasa, o es que no estamos cambiando el castellano todo el día con jergas y con historias y con...? Y ¿qué pasa?, pues es lengua viva, lengua viva, tú, que la utilicemos y que cambiemos el castellano con el euskera y tal, tal, y chapurreemos, también a nivel profesional. (ENP3-B, 54)*

Jarrera arauemaileen ondorioz eta ematen zaien garrantzia dela eta, hezkuntza-sisteman umeek lortzen duten euskara gaitasun-maila oso baxua dela adierazi dute solaskide batzuek.

Jarrera arauemaileak oso kaltegarriak izan daitezke euskara moduko hizkuntza txiki batentzat. Jarrera horiek hizkuntza guztietan daude eta gizarteko hainbat lanbidetan ezinbestekoak dira, hala nola, irakasle, zuzentzaile-itzultzaile, komunikabideetako langile edo bestelako eremu formaletako lanbideen kasuetan. Alabaina jarrera arauemaileak gizartearen esparru guztietan orokortzea ez da komenigarria, are gutxiago egoera eta erregistro guztietara. Euskararen moduko egoeran dagoen hizkuntza batentzat, non batez ere erabilera bultzatu behar den, hiztun kopurua gehitzeko eta hiztunak *txarto hitz egiten duen* ala ez epaiaren menpe ez sentitzeko ahalegina egin behar da.

Euskara egokia erabili behar dela argi dago baina ez dago eredu egoki bakarra, egoera eta zirkunstantzien arabera eredu ezberdinak izango dira egoki. Gainera, euskara txarra, eskasa edo maila baxukoa dela esaten denean, zehazki, adierazi beharko litzateke hizkuntzaren zein alderdik ez duen beharrezko maila, hiztunaren betebehar komunikatiboa kontuan hartuta. Hori ahalbideratzeko hizkuntza-ikerlariek, aurrez, talde sozial ezberdinen hainbat erregistroren erabilera sakon aztertu beharko lukete.

### (d) *Euskara galtzear dago*

Uste orokortu hau aspalditik da ezaguna. Euskara galtzear dagoen ala ez, partaideak ez dira ados jartzen. Bitxia da euskaldunek baietz uste dutela (DU-B, 468; GA-A, 86; KA-C, 190; ZA-A, 115, esate baterako), eta erdaldunek (DU-A 469; DU-C, 470; besteak beste) egoera hori gaindituta dagoela pentsatzeko joera erakusten dutela. Izan ere, euskara galtzeko arriskuan ez dagoela pentsatzen duten askok *euskararen etorkizuna arrosa kolorekoa* delako arinkeria (ikus 4.2.8. atala) adierazten dute. Nolabait esateko *arrosa koloreko etorkizuna* eta *euskara galtzear* dagoelako aurreiritzia txanponaren bi alde bezala ikus daiteke.

*(298) El euskera ha cambiado, habrá cambiado mucho. Además, los idiomas son, no sé, yo supongo que los idiomas cambiarán, no soy experto, y cambiará… y no sé cómo será dentro de doscientos años, y no sé ni si existirá, porque la tendencia parece ser que es... que salvo que haya un compromiso de la sociedad muy fuerte, y un compromiso y una implicación fuerte, de cuando hay dos idiomas, uno que es dominante, la tendencia es que los idiomas pequeños tienden a desaparecer y la situación del euskera es esa, ¿eh? Es esa… Tenemos un idioma que es dominante, que es el castellano, y a veces yo digo, o igual estoy metiendo la pata y dentro de doscientos años es el inglés el dominante, no sé, pero digo que me da miedo, tengo cierto temor, tengo cierta, cierta… no sé, soy un poco pesimista, no sé yo si dentro de doscientos años va a existir… (DU-B, 468)*

*(299) Yo creo que el euskera está en un momento extremadamente difícil a pesar de todo, y que lo tiene muy complicado, es lo que pienso. Pero casi todos los idiomas, es lo que pienso, casi todos los idiomas. Esto probablemente va a ir a otro debate, pero salvo el inglés, y el chino porque son muchos, y el castellano... (GA-A, 86)*

Euskara oraindik arriskuan dagoela adierazten dutenen argumentuak ez dira orain dela 40 urte erabiltzen zirenak. Garai hartan, euskara hainbat esparrutan erabiltzen ez zenez, bere funtzio komunikatiboa galdu zuelako ustea indar handiarekin zabaldu zen, eta horrek jendearengan hizkuntza arriskuan egotearen ideia hedatu zuen (Tejerina 1992); babes instituzionala behar zuen, beraz, euskarak. Gaur egun, babes hori neurri handi baten bereganatu

duenean, euskara oraindik ere arriskuan dagoela esateko erabiltzen diren argumentuak mota bikoak dira: alde batetik, asko dagoela oraindik egiteko, erabilera gainerako esparruetara zabaldu behar dela, eta hiztunak irabazi behar direla moduko argumentuak (DU-B, 462); bestetik, globalizazioa dela eta, hizkuntza minorizatu edo txiki guztiak arriskuan daudela, eta, hortaz, baita euskara ere. Ildo beretik doa honako ideia hau ere: erakundeen babesa beharrezkoa da, euskarari babes hori kenduz gero galduko bailitzateke:

(300) *Pero si este apoyo deja de ser, yo creo que el euskera tiene el peligro, aún así, de perderse. (ZA-A, 115)*

Esan bezala, euskara arriskuan ez dagoelako ustea askotan *arrosa koloreko etorkizunarekin* lotuta agertzen da; hau batzuetan euskararen kontrako jarrera ezkutatzeko estrategia moduan erabil daiteke (DU-C), edo iritzi naïve, baikorregia, izan daiteke, erakundeen babesak liluratuta (DU-A).

(301) *– No creo que vaya a desaparecer… (DU-A, 469)*
*– A mí me parece al revés totalmente. (DU-C, 470)*
*– ¿Sí? (DU-B, 471)*
*– ¿Que no va a desaparecer? (DU-M1, 472)*
*– No. (DU-C, 473)*
*– Yo, la tendencia que veo es que los idiomas pequeños desaparecen. (DU-B, 474)*
*– Si no ha desaparecido cuando no esto… ¿cómo va a desaparecer ahora? (DU-C, 475)*
*– Pero los idiomas pequeños están desapareciendo y cada año, y cada diez años y… (DU-B, 476)*
*– Tal y como está llevado así desde luego yo creo que es imposible que desaparezca. (DU-C, 477)*
*– Pues como no tengamos un compromiso serio, los euskaldunes y los vascos de ser bilingües y de dominar y de comunicarnos en dos idiomas por lo menos, ¿eh?...Porque ya está viniendo el tercero o no sé cuántos vendrán, ¿verdad? Yo creo que va a ser difícil, difícil… (DU-B, 478)*
*– Yo creo que en los pueblos por lo menos no se va a perder, pienso que no. Otra cosa es ya por ejemplo ya en las capitales o las ciudades ya más grandes, eso ya no lo sé, porque en Bilbao sí que no oyes hablar ni… (DU-C, 479)*
*– ¿Tú también eres optimista? (DU-M2, 480)*

*– Yo sí. Yo no creo que vaya a desaparecer. Yo creo que no al cien por cien pero se llegará… se seguirá hablando, la gente viene empujando fuerte. (DU-A, 481)*

*Euskara galtzear dago* iritzia garai batean oso eraginkorra gertatu zen euskararen aldeko ekimenak bideratzeko. Gaur egun badirudi *arrosa koloreko etorkizuna* dela zabalduena lagin honetan. *Euskara galtzear dago* iritzia galtzearekin batera euskararen aldeko ekimenak ere gal daitezke beharrezko ikusten ez direlako. Euskararen etorkizuna arrosa kolorekoa ez dela garbi dago eta garrantzia handikoa da euskararen egoera zein den gizarteari jakin araztea etorkizuna bermatuko dion ardura har dezan.

### 4.2. JABEKUNTZA ETA IKASKUNTZARI BURUZKO USTE OROKORTUAK

Asko dira hizkuntzen jabekuntza eta, batez ere, ikaskuntzari begira partaideek erakutsi dituzten uste orokortuak. Hizkuntza ikasteko orduan:

- arrakasta adinarekin dago lotuta: *heldutan hizkuntzak ikasteko gaitasuna galtzen da,*
- arrakasta pertsonaren araberakoa ere bada: *heldu batzuek ez dute* balio *bigarren hizkuntzak ikasteko,*
- metodologia dela eta, *murgiltzean (inmertsioan) hobeto ikasten da*, eta
- transmisioa dela eta, *aitak zailago dauka euskara transmititzeko* ama ez bada euskalduna.

Hona hemen uste orokortu hauek banan banan:

### (a) ***Umeek erraz ikasten dute***; ***helduentzat oso zaila da***

Euskara ikasteko orduan adina hil ala bizikoa da lekuko gehienentzat: umeek erraz ikasten duten bitartean (adostasun borobila dago honetan) helduentzat ezinezkoa da edo, behintzat, oso zaila. Partaide batek baino ez du azpimarratu heldutan ikastea ezberdina dela, ez zailagoa: gauza ezberdinak ikas daitezke edota era ezberdinean.

Funtsean, umeek erraztasun osoarekin ikasten dute, ahaleginik egin behar izan barik:

*(302) Si hubieses aprendido desde pequeñito, con tres añitos no te hubiese costado. A mí francés no me ha costado estudiar porque nací en Francia y aprendí francés y a mí no me costó aprender, a mí no me supuso ningún esfuerzo. / Los críos son como una esponja, es una gozada. (BI-D, 219/221)*

*(303) Yo creo que todo lo que aprendes de pequeño luego lo puedes recordar, o lo puedes… Y si no lo aprendes de pequeño, luego es mucho más difícil, pienso yo. (DU-C, 48).*

Guztiz zabal dabilen uste orokortu hau, umeek hizkuntza erraz, inolako ahalegin barik, ikasten dutela, arinkeria dela azpimarratu behar da. Izan ere, hizkuntzak bizitza osoan zehar ikasten dira eta txikitan hainbat gauza ezin direla ikasi (batetik, umeek gaitasun kognitibo nahikorik ez dutelako eta, bestetik, dena ikasteko aukerarik eta beharrik ere ez dutelako). Uste honen txanponaren beste aldean helduentzat bigarren hizkuntza bat ikastea, eta batez ere, euskara ikastea oso zaila da, solaskide gehienek adierazi duten bezala:

*(304) Una persona desde pequeñita sí puede estudiar dos o tres idiomas, independientemente que sea euskera, inglés, francés, lo que sea, sin tener que estar como nosotros, sufriendo ahí con los verbos. (IR1-B, 59)*

*(305) Sí, ellos [helduek] van a tener problemas porque el euskera es difícil. (KA-A, 176)*

Azken bi aipu hauetan ikusten denez, umeek euskara eta baita hiru hizkuntza ere erraz ikasten duten bitartean helduek euskara, edo beste bigarren hizkuntza bat, ikasteko sufritu behar ei dute. Uste orokortu hau guraso erdaldunek beraien umeak euskal ereduetara bidal ditzaten animatzeko

mesedegarria da, baina indar gehiegi ipintzen du heldutan ikasteko omen dagoen zailtasunean. Hona hemen beste adibide batzuk:

(306) *Entonces, yo creo que los idiomas, por mi experiencia, se tienen que aprender desde pequeño, de una forma como ha dicho él, natural. Porque luego, por cabezas o por todo, o porque tienes igual... estás haciendo otras cosas y tal, te cuesta mucho entenderlo, porque piensas en castellano y tu cabeza piensa en castellano, tiene que traducir al euskera y luego decirlo. Yo estudié una carrera que normalmente para poder tener trabajo de ella hay que opositar. Entonces, yo aquí si yo oposito me ocurre lo mismo. Yo estoy en un euskaltegi pero avanzo muy poco porque me cuesta mucho. Siempre va a costar mucho. O sea, nosotros empezamos a aprender euskera, no sé si fue a partir de sexto de EGB que dábamos una hora o dos horas a la semana, la típica asignatura, y a mí el resto de las asignaturas yo era buena estudiante pero yo siempre, desde el principio, tuve muchos problemas. Entonces, para mí ya desde ahí era como un handicap que siempre tenía que pasar, llegaba septiembre y yo siempre iba a septiembre, pues yo creo que desde primero de BUP con el euskera, entonces, para mí... / No, porque yo por ejemplo tengo el First de inglés, no tengo ningún problema y no me da... Pero sin embargo, esto desde el principio me costaba y entonces yo..., ya te digo, yo sigo yendo al euskaltegi pero me parece que el problema que tenemos la gente ya que lo hemos hecho de mayores, es que nosotros pensamos en castellano. Entonces, queremos aprender la gramática, y la gramática yo creo que en euskera es muy difícil porque no hay una regla que siempre sea estricta, siempre hay una cosa que en esa regla cambia, entonces tú ya te armas un lío en la cabeza, un taco, y ahora yo por ejemplo en el euskaltegi al que voy no es como dice ella. Allí desde el principio empiezan a hablar en euskera y tú te sientes..., tú lo que no quieres es hablar porque a ti te ponen un papel, una redacción y dices “Bueno, voy a pensarlo mucho y seguramente que lo escribo bien y todo”. Pero a la hora de ponerme a hablar, totalmente... porque lo quiero hacer bien, lo tengo que pensar y puede pasar media hora hasta que yo he estructurado una frase de cuatro líneas y la quiero soltar. Entonces ya directamente... (…) Yo desde luego me siento muy mal porque creo que ahora mismo si hubiera aprendido desde pequeña no tendría problema. Yo tengo mi hermano, mi hermano va a hacer 20 años, ha ido a ikastola y él habla euskera. Y en casa no lo habla, pues bueno, pues porque es vago,*

*yo creo que lo habla con los que saben que (¿), lo demás habla castellano pero por comodidad, porque... (BA-C, 38/40)*

BA-C partaideak (Bizkaiko ezkerraldeko emakume gazteak) frustrazio handia sentitzen du: kanpoko motibazio instrumentala dauka euskara ikasteko –lana bilatzeko– eta saiatu ere saiatzen da baina dena da oztopoa: euskara oso zaila da, arau guztiek salbuespena ei daukatelako; izan ere, ingelesa baino askoz zailagoa da; berarentzat umeek erraz, konturatu barik, ikasten dute eta helduentzat ezinezkoa da ikastea; eta gainera, haserre dago berak ez duelako izan txikitan *erraz, konturatu ere egin barik* ikasteko aukerarik eta orain ahalegin handia egin behar duelako. Aurreiritzi guzti hauek euskararen kontrako jarrera izkutua adierazten dute: hizkuntzaren alde positiborik ez du antzematen, ez dago motibatuta ikasteko eta dituen aurreiritzi oztopatzaile guzti horiek (euskara zaila da, heldutan ikastea ezinezkoa da, umeek erraz ikasten dute) ez diote uzten ikaskuntza-prozesuan arrakastaz aurreratzen.

Euskara heldutan ikastea oso zaila dela behin eta berriro agertu da: helduek gaitasun kognitibo edo neurologiko gutxiago daukate ikasteko, euskara beste hizkuntza batzuk baino zailagoa da eta, batzuentzat, *oso ondo* hitz egiteko asmoak gutxiago dakiten hizkuntza erabiltzen eragozten du, lotsatu egiten direlako:

(307) *La edad también es muy importante. Tienes veinte años, las neuronas tienes bien fresquitas, tienes más tiempo, ya con cuarenta… / Igual no se mueren pero no funcionan igual, igual no se mueren pero ya… (BI-D, 207/209)*

(308) *Pues luego entré en la historia esta de apuntarme a mil euskaltegis, y sin embargo nunca he sido capaz luego... O sea, entender entiendo perfectamente todo, si hicierais la presentación y todo en euskera yo la seguiría perfectamente, pero sería luego incapaz de empezar a hablar, y no sé exactamente muy bien por qué. Porque creo que he aprendido un montón de cosas, que no me ha sido difícil de aprender, y parece que un idioma me es dificilísimo. (DO-A, 3)*

(309) *A mí me resulta dificilísimo. Yo de los idiomas que más o menos, el francés aprendí, y el inglés, el euskera me parece dificilísimo, aprenderlo de mayor. (DO-C, 9)*

Beste iritzi-emaile baten ustez, euskara bakarrik ez, edozein hizkuntza heldutan ikastea gogorra da, lan eta ahalegin handia eskatzen du:

(310) *Es que el aprendizaje del idioma es costoso, requiere mucho tiempo y yo, a todos los que conozco de mi cuadrilla que han aprendido inglés, todos han dejado en tercero en la escuela de idiomas también. (DU-B, 111)*

Ikuspegi guztiz ezkor eta euskararako oztopatzaile honen kontra, batzuek adierazten dute –euskaldun berria den BA-Bk bezala– heldutan hizkuntza bat ikastea gogorra izanik ere posible dela, eta euskara hizkuntza zaila izan arren ez dela beste hizkuntza batzuk baino zailagoa. BA-Bek arrakastarako giltzarria ematen du: erabilera, euskara ikasteko erabili eta erabiltzeko beharra izan behar duzu.

(311) *¿Cómo se piensa en euskera? Yendo a un pueblo donde sólo se hable euskera y obligándote a hablar en euskera, bueno, porque yo creo que el euskera no es un idioma fácil pero es lo mismo ponerte a estudiar euskera que ponerte a estudiar inglés que ponerte a estudiar francés, cuando una persona saca una titulación en un idioma extranjero donde hay menos oportunidades de escuchar que aquí. Porque hoy aprender euskera es un lujo, tienes la televisión en euskera, tienes la radio que habla en euskera, tienes la prensa escrita que escribe en euskera, o sea, que oportunidades hay muchas. Lo que pasa es que te tienes que auto-obligar un poco a decir, "Bueno, pues yo sé euskera, yo estoy en un lugar euskaldun y voy a hablar euskera, y voy a hablar euskera". (BA-B, 47)*

Interesgarria da ondoko bi partaide hauen arteko eztabaida. BI-Dek heldutan euskara (eta edozer) ikastea oso zaila dela sinesten du (berak gazte-gaztetan ikasi zuen), burmuinak adinarekin gaitasuna galtzen duela. BI-Bk, berriz, ez dela hain zaila konbentzitu gura du BI-D: umeek ikasten duten beste ez dela zertan ikasi eta, jakina, itxaropen gutxiago izanda errazagoa dela berba egiteari ekitea; heldutan burmuinari lana eraginda gai dela gauza berriak ikasteko, neuronak ez direla hiltzen, baina erabili behar direla!, eta heldutan edozer ikasteko motibazio eta kontzientzia handiagoa egon ohi denez, hori beti dela lagungarria:

(312) *– Lo que pasa… aprender de niño no es lo mismo, ¿no? No te cuesta nada. (BI-D, 80)*

*– No es igual. Pero tampoco tienes que aprender al mismo nivel. (BI-B, 81)*
*– La edad también es muy importante. Tienes 20 años, las neuronas tienes bien fresquitas, tienes más tiempo, ya con 40. (BI-D, 207)*
*– Ahora han descubierto que no se mueren. (BI-D, 208)*
*– Igual no se mueren pero no funcionan igual, igual no se mueren pero ya…(...) Pero no es igual. (BI-D, 209 /211)*
*– Yo he aprendido cantidad de cosas después de los 30 y después de los 40. (BI-B, 212)*
*– Si yo también, pero si los hubiera aprendido, pero que me cuesta más, seguro, y si las hubiera aprendido con 10 las hubiese aprendido antes seguro, eso sin ninguna duda. (BI-D, 213)*
*– Tienes otras cosas. La falta de saturación que tienes con pocos años… pero tienes más voluntad, más regate. (BI-B, 214)*
*– Pero la base de datos está completa también, ¿eh? (BI-D, 215)*

Adinarekin euskara ikasteko gaitasunak galtzen direlako uste orokortua oso zabal dabil gure gizartean eta euskaldun berriak euskara erabiltzen hasi daitezen oso kaltegarria da. Gainera, beste bi aurreiritziekin batera agertzen da gehienetan: batetik, euskara zaila dela eta bestetik, hizkuntza bat (euskara) erabiltzeko *ondo* jakin behar dela, edo beste modu batera esanda, hobe dela ez erabiltzea *txarto* egitea baino.

Hiru aurreiritzi horiek batuta pertsona heldu batek oinarrizko behar komunikatiboak asetzeko euskara apur bat ikastea lortu ezinezko erronka ematen du. Euskararen erabilera bermatzeko *euskara zaila da, adinarekin gaitasunak galtzen dira eta* ondo *hitz egin behar da* aurreiritziak desegitea komeni da.

### (b) *Heldu batzuk ez dira gai euskara ikasteko*

Aurreko uste orokortuarekin lotuta, askok uste du pertsona batzuek erraztasuna dutela bigarren hizkuntzak ikasteko eta beste batzuek, berriz, ez; kasu batzuetan *nik horretarako ez dut balio* esanda aitzaki ederra izan daiteke ahaleginik egin ez eta aldi berean norbere burua zuritzeko.

*(313) Y luego yo también estoy convencida que cada persona... Hay gente que tiene facilidad para los idiomas. (DO-C, 163)*

*(314) Mi caso es bastante parecido. Siempre castellano en casa, la mujer también en su casa todo castellano. Soy del 65, me tocó la época mala, no conseguí aprender a hablar euskera. Ya he estado también yo en AEK y cosas de ésas, pero donde no entra, no entra. (ZA-D, 9)*

### (c) *Murgiltzea da euskara ikasteko metodo bakarra* edo *murgiltzean baino ezin da euskara ikasi*

Partaide batzuek adierazi bezala, euskararen ikaskuntzaren arrakasta, beste hizkuntzekin gertatzen den legez, murgiltzea da: beharra daukazunean erabili egiten duzu eta horrela bermatzen da arrakasta:

*(315) También tuve ciertas..., pues estuve, en mi época, no sé si... me imagino que todo el mundo conoce la historia de “Kutxidazu bidea”, famoso, aunque no la haya leído, la habrá oído, o habrá oído de la película... Bueno pues lo mío es un poco autobiográfico, pasó así. Te mandan con los indios a la reserva para ver si aprendes, porque en la realidad es la manera de... la manera de aprender eso que a ti te falta. (BA-F 107)*

*(316) ¿Cómo se piensa en euskera? Yendo a un pueblo donde sólo se hable euskera y obligándote a hablar en euskera. (BA-B, 47)*

*Murgiltzean baino ezin da euskara ikasi* aurreiritzia ere apurtu beharko litzateke, murgilketa oso egokia da baina ez da bideragarria guztientzat, ezta bide bakarra ere. Gainera, hizkuntza-gaitasuna ez da osotasun moduan ikusi behar, gai zaren edo ez zaren termino absolutuetan. Gaitasun komunikatiboaren kontzeptua erabili behar da eta gaitasunean mailak daudela onartu: lagun askorentzat nahikoa izan daiteke ume txikiei etxeko lanekin laguntzeko gaitasuna eskuratzea, edo lagun euskaldunei euskaraz ari direnean nahikoa ulertzea bere aurrean erdarara pasatu ez daitezen, edo telebistako kirol-emanaldietan zer gertatzen den ulertzeko gai izatea, egoera batzuk aipatzearren. Euskara heldutan ikasteko helburua ezin da izan denentzat euskaldun oso bihurtzea, euskarara hurbildu nahi duten askorentzat helburu apalagoak ere egon daitezkeelako.

**(d)** ***Ama ez bada euskalduna familian gutxiago transmititzen da euskara***

*(317) Con mucha immigración aparecieron mucho matrimonios mixtos de gente que sabía euskera, el padre o la madre sabía euskera y la pareja no. Entonces, se da el caso que si el padre es el que sabía euskera, el euskera se pierde porque estaba fuera de casa, en un montón de familias. Y en cambio si la madre es la que sabía euskera, como la madre se quedaba en casa al cuidado de los hijos, en esos casos se ha mantenido, por lo menos en la familia de mi marido. / Y si sabía la madre, los hijos aprendían por el trato directo. Pero si sabía el padre, que era el que salía a trabajar, ya no se daba la circunstancia. (BA-B, 61/70)*

Iraganari buruz ari da iritzi-emaile hau, baina aurreiritzi hau, gizartea asko aldatu bada ere, eta ama gehienek aitek bezala etxetik kanpo lan egiten badute ere, oraindik bizirik dago: euskararen transmisio naturala amaren eskuetan dago; amak helarazi diezaieke umeei euskara, aitak nekez. Partai-

deak aipatzen duen kasu hartan bezala, euskararen presentzia publikoa deus ez zenean, etxeko txokoan baino ez zenean erabiltzen, eskolaz kanpoko ordu gehienean ematen zen amarekiko interakzioak bermatzen ei zuen euskararen jabekuntza. Gaur egun aitak amak beste denbora edo gehiago egin dezake umeekin eta, gainera, eskolaz aparte euskara erabiltzeko aukera asko dago. Euskararen geroratzearen erantzukizun osoa ez dago, beraz, amengan.

## 4.3. ELEBITASUNARI BURUZKO AURREIRITZIAK

**(a) *Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe*; *Hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk*; *Hobe da denontzat hizkuntza bakarra egotea***

*Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe* aurreiritzia nahikoa zabalduta dago, kontrakoa pentsatzen duenik ere badagoen arren. *Hobe da guztiontzat hizkuntza bakarra* eta *zenbat eta hizkuntza gehiago hobe* aurreiritziak txanponaren alde biak dira. Lehenengoa elebitasun eta eleaniztasunerako oso oztopatzailea da, eta askotan hizkuntza txikiekiko (kasu honetan euskararekiko) ezkutuko kontrako jarreren adierazle. Bigarrena, aldiz, eleaniztasunerako oso mesedegarria da.

*(318) Yo creo que lo ideal sería que hubiese una lengua para todos. / Eso sería para mí [egoera ideala, danontzat hizkuntza bat egotea], porque además no me gusta nada estudiar lenguas, o sea, no me gustan las lenguas, porque no me resultan fáciles. (DU-C, 276/288)*

*(319) Es que a mí no me parece un problema que se pierdan los idiomas, o sea, que se dejen de hablar. O sea, a mí si el castellano se perdiera y sólo se hablara inglés en todo el mundo, me parecería una ventaja, sería más fácil entenderse con cualquiera en cualquier parte del mundo. (GA-B, 195)*

*(320) Yo personalmente creo que cuantos más idiomas tengas mejor. Pero hablando lo que estamos hablando ahora, yo creo que si vives aquí euskera y castellano, esos dos idiomas, yo creo que hay que intentar mejorar, hay que intentar conocerlos. (DU-B, 224)*

Elebitasuna sozialki desiragarria dela aspalditik argi dauka ondoko partaide honen amamak:

(321) *Pues llegamos y, “¿Qué tal?”, y dije, “Pues este año vamos a dar euskera”, que era como… y me dijo mi abuela, “Yo hablo euskera”. Y yo dije, “Esta mujer…” Y me contó que estuvo en Madrid sirviendo y dos de sus compañeras eran euskaldunes. Y ella me decía, “A mí me daba mucha envidia cuando ellas hablaban entre ellas y yo no les entendía. Y me daba mucha envidia porque ellas hablaban dos idiomas y yo sólo sabía uno y entonces yo les dije que me enseñaran, pero después de los años y de la vida y después de 40 años de no hablar…” y tal, y dice, “Se me ha olvidado”. Pero decía, “Zer moduz? Ondo, eta zu?” Y en ese sentido igual he tenido algo activo por parte de mi abuela, de decir, qué bien que puedes hablar dos idiomas en vez de uno. En ese sentido mi abuela no lo veía como algo politizado el euskera, al contrario, lo veía como lo que hablaban sus compañeras que eran del País Vasco, y ¡Jo!, qué bien que entre ellas lo hablaban. (BI-F, 286)*

Denontzat hizkuntza bakarraren abantailak azpimarratzen dituztenak normalean elebakarrak izaten dira eta hala esaten ez badute ere –edo kontrakoa esanda ere–, hizkuntza bakar hori haiena izatea espero dute. Aurreiritzi honek, euskararen testuinguruan kokatuta, euskararen kontrako jarrera eta balorazio eskasa ezkutatzen duela argi dago. Txanponaren ifrentzua, DU-B-ren [ikus (320) aipua] iritzia da: zenbat eta hizkuntza gehiago jakin hobe, eta hemen, euskara eta gaztelania, gutxienez.

Esan bezala, elebitasunaren aldeko aurreiritzia nagusi izan da partaideen artean. Hiru ideia nagusitu dira gai honen inguruan:

- elebitasuna eta eleaniztasuna aberasgarriak dira,
- elebitasunak eleaniztasuna errazten du, eta
- eleaniztasunak kultura-aniztasuna dakar.

Ugari izan dira gizartean hizkuntza biak jakitearen abantailak azpimarratu dituztenak: *hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste hizkuntzak*.

(322) *Ya de entrada, de ni lo sabes que hay dos idiomas, y eso es un logro y luego a la hora de aprender otro es mucho más fácil porque estás acostumbrado a pensar en dos idiomas. (BI-B, 288)*

(323) *X [bere semearen izena] habla cuatro idiomas, pero es que el haber hablado castellano y euskera perfectamente le... yo tengo la impresión y luego ha ocurrido también con Y [beste semearen izena], el que tiene 16 años, de que le ha facilitado el aprendizaje de otras lenguas. O sea, eso es así. (KA-A, 91)*

Oso zabal dagoen aurreiritzi hau, *txikitatik elebiduna izanda errazago ikasten dela hirugarren hizkuntza*, oso onuragarria da gurasoek haien umeak eredu euskaldunetara bidal ditzaten baina ez bakarrik arrazoi praktikoak direla eta, eleaniztasunaren aberastasuna ere indartzen du, eleaniztasunak kultura-aberastasuna eta mentalitatea zabaltzea dakarrelako. Hizkuntzak jakiteak beste mundu bat, beste errealitateak ezagutzea, ahalbideratzen du eta beste errealitate batzuk ezagutzeak mentalitatea irekitzen dizu:

(324) *Es que eso es lo que hay que pensar, si es algo enriquecedor, si cuanto más idiomas hables, la mentalidad tienes muchísimo más abierta, eso para empezar, y que entiendes mucho mejor las demás realidades y las demás culturas. (BI-D, 287)*

(325) *Hay un tío que dice que el que sólo conoce una religión, no conoce ninguna, y el que sólo conoce una lengua, no conoce ninguna tampoco. Y yo estoy muy de acuerdo con eso, o sea, que me parece muy pobre, me parece muy pobre. Y el tener dos idiomas, eso es de mi cosecha, para mí es tener dos almas, dos formas de ver el mundo. Y es enriquecedor, o sea... Entonces, bueno, sí, podríamos decir, "Va, pues venga, tiramos todos los idiomas a freír puñetas, y hablamos todos inglés". Pues hombre, me parece bastante penoso. Es como decir, "Mira, cogemos toda la selva del Amazonas y la plantamos de pinos, y ya está". (GA-E, 203)*

### (b) *Zilegi da hizkuntzen arteko elkar eragina*

Aurreiritzi hau eleaniztasunaren aldeko ideiaren ondorioa da eta kalitatearekiko gehiegizko arduraren kontrakoa; hizkuntza bat baino gehiago jakitean normala da hizkuntza batetik bestera pasatzea, kode-alternantzia egitea. Elebitasun pasiborako aukera eman dezake hizkuntza biak erabiltzea –batek bat

eta besteak bestea– (BA-F, 218) eta norberaren behar komunikatiboak asetzeko beharrezkoa izan daiteke (GA-A, 86):

(326) *Nos reuniremos y hablaremos en muchas lenguas a la vez, que es algo que se hace muy poco, porque parece que tenemos asumido que para entendernos todos sólo hay que hablar en una, y sin embargo, habrá personas en la margen izquierda que entiendan perfectamente el euskera, pero lo de hablar, pues se le queda aquí. Entonces, me hable en castellano, y a mí no me importa, porque como yo soy bilingüe y entiendo castellano, y él es bilingüe y entiende el euskera, yo hablo en euskera y él habla en castellano, y entonces entendemos perfectamente lo del otro y hablamos lo que nos da la gana a cada uno. Y eso no pasa ahora. Uno oye eso y dice, éstos están mal de la cabeza, éste habla y aquel le contesta en castellano, éste habla en euskera y el otro le vuelve a contestar en castellano, estarán mal de la cabeza. Pues no. (BA-F, 218)*

BA-F partaideak plazaratu duen ideia, hizkuntza biak ulertuta hizkuntza ezberdinetan hitz eginez, batek hizkuntza batean eta besteak bestean, komunikazioa posible dela ez da huskeria, euskararen kasuan egin ez bada ere. Katalunian aspaldi saiatu dira elebitasun pasiboa bultzatzen ildo horretatik. Egia da katalana eta gaztelaniaren artean dagoen hizkuntza-distantzia txikiak errazten duela hizkuntza bitan aritzea, baina euskara eta gaztelaniarekin, kasu batzuetan behintzat, ahalegina egin beharko litzateke.

### (c) Elebitasun indibidualik ez dago: *ezinezkoa da elebidun izatea*

Erabateko elebidun edo elebidun osoa izatea posible den ala ez jende askorengan interes bizia sortzen du. Askorentzat hau ezinezkoa da, beti ere, hizkuntza bat besteari gailenduko zaio, eta gailentzen dena beti izango da lehen hizkuntza.

(327) *Pues yo, aunque sepa francés, si yo tuviese que estudiar en francés pues no es lo mismo, para mí. Ahora, si son totalmente bilingües desde el principio y eso, pues igual sí, pero si dominan una más que otra, desde luego no, pienso que no, ¿eh? / Yo creo que, de todas formas, cada uno tiene un idioma, o sea, aunque seas bilingüe yo creo, pienso que tiene que ser así, ¿eh? No lo sé. Pienso que tiene que… vosotras sabréis eso ¿no? / ¿Vosotras creéis que puede estar dividida la mente así como para dos idiomas exactamente igual? / Sí, pero ellos pensarán en algún idioma, o soñarán en un idioma o…en uno de los dos o ¿en los dos? / Sí, pero cuando se preguntan a sí mismos algo, quiero decir, o sea, no a ti, que saben que te… / Cada uno piensa en un idioma. No puedes pensar en dos, ¿no? (DU-C, 21/225/227/230/232/244)*

Elebiduna den DU-Bk kontrakoa adierazi du: elebiduna izatea posible da baina ez da berez gertatzen; lortzeko lan egin behar da, hizkuntza biak erabili eta landu behar dira. DU-Ck hala ere, ez du horretan sinesten.

(328) *– Sí. Yo creo que sí [elebiduna izatea posiblea da]. Lo que pasa es que hay que dominar bien. Y hay que tener estimulación desde los dos, tienes que estar estimulado, no sé, lees en euskera o lees en castellano, ves una película en castellano y luego ves un informativo en euskera, vas compaginando todo, es… bilingüismo. Eso sería un poco, en ese sentido, y con uno hablas en euskera y luego, según con quién pues… si la vecina no sabe euskera hablas en castellano. (DU-B, 246)*
*– Eso sería lo ideal, llegar a eso. (DU-C, 247)*

Elebitasun eta eleaniztasunerako oso kaltegarria den aurreiritzi honekin lotuta beste aurreiritzi bat ageri da, *lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko*, hau ere oso oztopatzailea.

### (d) *Lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko*

Lehen hizkuntzan, etxean txikitan ikasitako hizkuntzan, ikasi ezik, txartoago, gutxiago, ikasten da.

(329) *Yo he estudiado en castellano. Entonces…. Pero yo pienso que si estudio en una lengua que no es la mía no puedo aprender igual ni por nada. Yo veo que mis hijos también, cuando han estudiado en euskera algunas asignaturas que les ha tocado, han estudiado algunas asignaturas en euskera,*

*yo veo que el conocimiento..., o sea, ni la cuarta parte que si lo hiciesen en castellano. / Si saben los dos idiomas igual sí, pero si saben uno más que el otro, no. (DU-C, 17/19)*

*Lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko* aurreiritzia oso hedatuta dago, batez ere erdaldun elebakarren artean. Alabaina, hainbat ikerketa eta eredu gisa har ditzakegun hezkuntza-eredu elebidun eta eleanitzek lehen hizkuntza ez den beste batean arrakastaz ikastea guztiz posible dela erakusten dute. Irakas-hizkuntzan beharrezko maila izanik, ikaste-prozesua behar bezala ematen da eta gainera lehen hizkuntzara eta besteetara transferitu ere egiten dira hainbat ezagutza irakas-prozesua behar den profesionaltasunez egiteko baldintzak jartzen badira.

Gainera, erdaldunen artean dagoen aurreiritzi hori dela eta, badago honako hau ere: euskaraz ikasiz gero irakasleek erraztasunak ematen dituztela, gutxiago eskatzen dutela eta beraz ikasleek gutxiago ikasten dutela. Hala adierazi du KA-Ak:

(330) *Pero recuerdo aquello: "¿Tus hijos van a estudiar en euskera?". Yo decía: "Sí." Porque el entorno, ¿no?, la familia... Entonces, "Pero eso puede significar un fracaso escolar para él". Esto era... Te lo decía bastante gente, ¿no? (KA-A, 21)*

Kasu honetan garbi dago aurreiritzi batzuek ez dutela oinarri sendorik. Izan ere, ezaguna da D ereduan dauden ikasleek emaitza zertxobait hobeak ateratzen dituztela nahiz eta euretariko askorentzat euskara ez izan familia-hizkuntza.

**(e)** ***Denak euskaldunak izan arte Euskal Herria ez da euskalduna izango***: ***elebitasun sozialik ez dago***.

Batzuek elebitasun indibiduala ezinezkoa dela pentsatzen duten bitartean beste batzuek elebitasun sozialean ez dute sinesten. Euskararen geroratzea lurraldeko pertsona guztiak euskaldunak izan ezik ezin dela bermatu uste dute.

> (331) *[MCCeko enpresa baten izena]ren elebitasunik ez da izango [MCCeko enpresa baten izena]ko langile guztiak euskaraz jakin arte. (ENP1-C, 57)*

ENP1-C partaidea, enpresa batez ari bada ere, gizarte osora eraman daiteke uste hau. Izan ere, oraindik zabal dabil *Euskal Herria ez da elebiduna izango Euskal Herriko pertsona denak euskaldunak izan arte* aurreiritzia. Euskararen normalizaziorako onuragarria baino kaltegarria izan daiteke uste orokortu hau, ze indar gehiegi ipintzen du guzti-guztien euskalduntzean (eta hori epe labur eta ertainean behintzat ez dirudi posiblea denik), eta gainera, denak euskaldunak izateak ez du bermatzen erabilera (are gutxiago lan eremuan euskaraz egitea).

**(f)** ***Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz berba egitea***

> (332) *Porque lo habla todo el mundo además. Y lo otro, como no habla todo el mundo pues es lógico irse a lo que te va a entender todo el mundo, digo yo. (DU-C, 164)* [Gazte euskaldunak erraz pasatzen direla erdarara daukate hizpide]

Hitz-hartze honetan aipatzen denez, solaskideen artean euskaraz hitz egiten ez duenik egonez gero erdarara pasatzea erabat normala da, eta ez egitea, berriz, heziketa txarrekoa edo “ilogikoa”. Aurreiritzi hau oso kaltegarria da hizkuntza txikientzat edo ospe gutxiago daukatenentzat, izan ere beti egongo dira egoera ahulean eta, beraz, galtzaile. Gainera, euskararen kontrako jarrera ezkutuaren adierazle ere izan daiteke.

Elebidun osoa izatearen gaiak aditu zein ez-adituen interesa piztu du. “Benetako elebiduna” zer den azaltzen duen definizioaren azpian elebiduna bi elebakarren batuketa dela dirudi, ez psikolinguistikak ez pragmatikak sostengatu ezineko ideia alegia. Ikuspuntu praktiko batetik abiatuz, elebiduna egoera komunikatibo zehatz eta erreal batzuetan komunikatzeko gaitasunaren arabera definitzea askoz esanguratsuagoa da; eta askoz eraginkorragoa da maila jakin batzuekiko gaitasunarekiko ebaluatzea, *Europako Hizkuntzen Erreferentzi Marko Bateratua*n (2002) deskribatutako mailen arabera esate baterako. *Lehen hizkuntza* kontzeptua ere zehaztea komenigarria da. Umeak gizarteratzeko darabilen lehen hizkuntza izanik, eta gurasoek eta familiak transmititutakoa delarik, pisu afektibo ukaezina du; hala ere, lehen hizkuntzak ez du zertan izan behar hiztunaren hizkuntza nagusia, ezta gaitasun-maila gorena duen hizkuntza bakarra ere. Lehen hizkuntza bat besterik ezin dela izan ere uste du zenbaitek, kontrako adibide ugari egon arren.

*Elebitasuna ezinezkoa da* edo *lehen hizkuntzan besterik ezin da ikasi*-moduko aurreiritzien oinarrian *lehen hizkuntza*ren sublimazioa dago. Alabaina, asko dira murgiltze ereduetan ikasleek, D eredukoak barne, lortutako arrakasta akademikoa eta linguistikoa erakusten duten adibideak. Hau da azken baten, gaur egungo Europako unibertsitate-sistemak hobesten duen irakaskuntzarako eredu nagusia: ikasleek bere lehen hizkuntza ez den batean ikastea.

## 5. KAPITULUA:
# *BAI-BAINAKO*EN AZTERKETA

Ikerketaren ikuspegitik, euskararekiko eta euskararen aldeko hizkuntza-politikari buruzko jarrera ez-sutsua edo ez-grinatsua duten lagunak *bai-bainako jarreradun pertsona* modura definitu dira. *Bai-bainakoak* iritzi-sorta konplexu eta zehaztua duten pertsonak dira; zenbaitetan iritzi horiek kontraesankorrak ere badira. Euren konpromiso maila *epela* da. Alabaina, euskararen alde egingo luketenaren ideia zehatza dute, eta, baita, gizartean eta gobernutik egitea zilegi denaren muga gardena ere; *euskararen alde* kategoriatik, maila desberdineko jarrera *kritiko*etatik iraganaz, *aurka* kategoriara doan *continuum* batean kokatzen dira.

*Jarrera epeleko pertsonak* bereziki interesgarriak dira euskararen normalizaziorako. Izan ere, muturrekoak diren jarrerak eta jokabideak aldatzea oso zaila eta geldoa izan ohi da. Jarrera epela edota konplexua dutenek, berriz, rol aktiboa joka dezakete euskararen normalizazioan, modu eta maila ezberdinetan. Euren parte hartzea honako esparruetara bidera daiteke: euskararen mundua ezagutzera eta hurbiltzera, euskara begi onez ikustera, bere behar eta mugen arabera euskara ikastera, haien umeak euskaldunak izan daitezen ahaleginak egitera eta euskararen aldeko jarrerak transmititzera, besteak beste. Beraz, ezinbestekoa da talde horren ezaugarriak ahalik eta modu zehatzenean ezagutzea, eta erakusten dituzten jarreren oinarriak zeintzuk diren ulertzea. Ikerketa honetan, talde horretako azterketak emaitza oso interesgarriak eman ditu. Emaitzok ikerketaren bigarren zatiaren diseinurako giltzarri izan dira, hau da, azterketa kuantitatiborako, helburua zera izan baita:

*bai-bainakoek* zein ezaugarri dituzten eta zein profil erakusten duten, beren hizkuntza-jarrerak eta ezaugarri soziodemografiakoak kontuan izanda.

Ikerketaren alderdi kualitatiborako jarraitutako metodoa ondokoa izan da: lehenik, *bai-baina* erako iritzi konplexuak, garatuak eta xehetasun handikoak epel modura kodetu dira; ideia epel horietatik, maiz adierazten dituzten partaideak identifikatu dira. Hurrengo urratsean, pertsona horien ekoizpenak sakon aztertu dira. Batez ere, ideien formulazioak edo adierazpideak aztertu dira, baita erabilitako baliabide linguistiko eta diskurtsiboak ere, esate baterako, enfasiaren erabilera, ni-aren proiekzioa, modalizazioa, eta lexikoaren aukera eta trataera. Hori guztia, benetako jarrerak identifikatzeko xedearekin, baita ezkutuan gordetzen direnak ere. Kontuan hartu behar da jarrera ezkutuak, hitzak adierazi moduan, ezkutatzen direnak direla, kontzienteki onartuak izan arren, hitzez adieraztea politikoki zuzena ez baita; edo, neurri batean behintzat, subkontzientean gordeta daudenak.

Berez, kapitulu honek ez dakar aurrekoetan azterturikoetatik at kontzeptu berririk. Orain helburua *bai-bainakoen* ezaugarriak azaltzea da, aurrez emandako kontzeptu horiek erabilita. Horregatik irakurleak jadanik ezagutzen dituen ideiak aurkituko ditu maiz, baina ondokoari arreta ipintzea komeni da: *bai-bainako*en taldean, zein ideia ageri diren zein ideiekin batera eta zein xehetasun egiten duten *bai-bainako*ek ideia horiek adierazterakoan.

## 5.1. *BAI-BAINAKOEN* EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Ikerketa kualitatiboak ez du *bai-bainako*en profilari buruzko ondorio orokorrak ateratzea ahalbidetzen, izan ere, informazio hori azterketa kuantitatiboaren bitartez jaso ahal izango da. Hala ere, ezaugarri komun batzuk agertzen dira jadanik, nahiz eta ez diren halabeharrez betebeharrekoak.

*Bai-bainako* modura definitu diren pertsonen ezaugarri komun esanguratsuak hauexek dira: *ez-euskalduna* izatea, hizkuntza nagusia gaztelania den ingurune soziolinguistikoan bizitzea, eta *euskararekin harremanetan dagoen mundua ezezaguna* edo *erabat urruna* delako pertzepzioa izatea. Gainera, tarteko talde honek ondoren zehaztuko diren iritzi, jarrera eta pertzepzio komunak erakusten ditu.

## 5.2. *BAI-BAINAKO*EN MODURA DEFINITURIKOEN ELEMENTU KOMUNAK EDO ERREPIKATUAK

### 5.2.1 Euskararekiko kokapena

Euskararekiko eta hura mantentzearen inguruko jarrera aitortuak, oro har, aldekoak edo positiboak dira. Kasu askotan, euskara erkidegoaren hizkuntza propio modura hautematen da, euskaldunona, edo erkidegoaren hizkuntzetako bat izatearen modura. Bi ikuspegietatik abiatuta, orokorrean, ez da euskara babestearen eta mantentzearen aldeko ahalegina zalantzan jartzen. Halere, hizkuntza-politikari zehaztasunak eta mugak jartzen zaizkio (ikus 5.2.3 atala)

(333) *Sí, pero una cosa es la presencia y otra cosa es el prestigio. A mí me parece más prestigioso en cuanto a mérito, en cuanto a mérito, que me parece muy meritorio alguien que habla euskera. Yo cuando escucho a alguien que habla bien euskera, digo, "Jo, ¡qué suerte!, qué suerte o cómo se lo ha currado, o qué suerte ha tenido". (GA-B, 39)*

(334) *Entonces era como "Qué guay, la gente me reconoce como vasco", y les gusta que... por eso digo yo lo del orgullo, en el sentido que si tú hablas euskera y vas a otra parte, puedes decir, "Yo hablo otro idioma, y encima es el idioma de donde yo vivo, y que es muy rico, y que es..". (BI-F, 233)*

Kasu batzuetan, esplizituki ekartzen dute gogora EAEn bi hizkuntza direla ofizialak, eta, beraz, biak babestu eta sustatu beharko liratekeela.

(335) *Pero como no hemos resuelto el tema de la identidad y de cuáles son las lenguas nacionales de los vascos y qué es la nación vasca o la comunidad vasca, entonces yo siempre he entendido que el castellano y el euskera son las dos lenguas nacionales vascas, pero las dos por igual, digamos. (KA-B, 29)*

(336) *¿Tú sabes la cantidad de gente de cine que hay aquí en el País Vasco? Actores, directores, guionistas, hay la tira, pero todos se van. Porque aquí el único cine que harían sería el cine euskaldun, que es el que promocionan. Y ése es el error, creo yo. (BI-B, 476)*

### 5.2.2. *Bi mundu bereiziak*: euskarari uztartutako mundua, mundu ezezaguna

Lehenago esan bezala, *bai-bainako*en taldeko pertsona gehienek, mailakatze bat egonik ere, ez dute euskaraz hitz egiten. Euren ezaugarrietako bat *bi mundu bereiziko egoeran* kokatzen direla da (ikus 2.2.2.2. atala). Gehienek badakite euskararen inguruko mundu oso bat dagoela baina ez dute ondo ezagutzen.

Euren adierazpenak mailaz mailako kategoriatan sailka daitezke, gehienak honako bi kategoriotan:

- Pertsona batzuek, ezagutu ez arren, *euskal mundua* badagoela onartzen dute, baloraziorik egin gabe.

  (337) *Mi familia es toda de Álava, mi madre de la zona de Orduña, mi padre de la zona de Rioja Alavesa, pero nunca se ha hablado euskera, y en mi entorno nunca se ha hablado euskera. (GA-B, 19)*

  (338) *Yo soy de la margen izquierda, he nacido allí y vivo allí. Y quizá la realidad social y lingüística de esa zona es muy característica y quizá especial. Entonces al igual que dice él, yo nunca he necesitado hablar en euskera y nunca he oído hablar en euskera, y para mí el euskera era como si me enseñaran inglés en el colegio. De hecho hasta que, yo trabajo en [lantokiaren izena], hasta que no vine a [lantokiaren izena] no conocí a nadie que hablara euskera como primera lengua, que su lengua fuera el euskera; que hablara en euskera sí. / Pero un euskaldun zaharra yo nunca había visto, es así de simple como lo digo o tan crudo, ero es así. Entonces por ejemplo en nuestro caso, muchas veces hemos comentado, dices, jo pues aprender euskera… hombre, claro que tienes contacto con el euskera y sabes que existe el euskera y tal, pero ni tus amigos, ni tu familia, ni tus vecinos, ni la familia de tus amigos, nadie habla euskera. (BI-F, 60/62)*

- Beste kasu batzuetan, nahiz eta sarrera mugatua izan, *euskal munduak* zer eskaini diezaiekeen badakite, neurri batean bederen. Kasu horietan balorazio positiboa egiten da.

(339) *Yo sé que hay una parte de la historia que me pierdo por no saber euskera. (BI-B, 13)*

Euskaldun berrien artean ere badira *bereizitako bi mundu* horren egitura gainditu ez dutenak, edozein dela kausa izanda ere. Konfirmatzeko dagoen arren, hipotesia honakoa da: euskara lan-presioagatik ikasi dutela, eta –askotariko arrazoiak tarteko– ez dutela euskal munduarekiko interesik garatu. Gerta daiteke era berean, euskararekiko harremanak izateko zailtasun handiko ingurune soziolinguistikotan bizitzea. Horren lekuko atal honetan zehar ageri diren GA-D partaidearen aipuak dira.

*Bai-bainako* ez-euskaldunen artean badira *bi mundu* egoeran bizi ez direnak ere, ondorengo aipuetan agertuko den ZA-C bezala.

### 5.2.3. Euskarari eta hizkuntza-politikari ematen zaion babesari mugak

Talde honen ezaugarri bereizgarrienetako bat da hizkuntza-politikari buruzko diskurtso muga-jartzailea eta zehaztasunez betea. Euren hitzetan “ezin da dena justifikatu”. Euretako bakoitzak esperientzia pertsonalaren arabera jartzen ditu mugak eta modu berezian adierazten ditu. Ez dago mugak non jarri beharko liratekeenari buruzko iritzi bateraturik, ez kuantitatiboki, ez ehunekotan eta ez kualitatiboki ere (zein arlotan jarri beharko liratekeen, alegia). Hala ere, ondorengo ideiak behin eta berriro agertzen dira:

#### (a) Euskara ez da edozein gaitasun baino garrantzitsuago

Ideia hori sarri agertzen da osasun-arloan, enpresa-munduan eta, oro har, lan-munduan; komunikabideetan asko zabaldu den ideia da baita ere.

(340) *Pero a mí, cuando me abra la cabeza, el que mejor opere, me es igual en qué hable. / Yo creo que sí es importante lo que comentabais antes, en lo que tú vas al centro de salud, y que tengas la opción de que te puedan atender en euskera, si así lo deseas. Eso sí es importante, pero luego el cirujano y eso... A mí déjame de pamplinas. (BI-B, 121/123)*

(341) *Hombre, está claro que para una plaza, depende qué plaza, es importante el idioma. Si estás igual de cara al público en una oficina del Gobierno*

*Vasco o tal..., es decir, que es que saber un poquito porque te puede venir gente de todo tipo. Yo creo que todas los puestos que haya públicos o administrativos necesiten, bueno, a parte tampoco sé cuánto es el plus por saber euskera, te cierran, o es 0,25 puntos más, a mí me gustaría informe de ello, pero yo para mí tendría que ser pues un cero punto algo más, porque lo más importante es los requisitos que tiene técnicos esa persona, los estudios, y lógicamente, también, los idiomas. Y como vas a vivir aquí e igual estás de cara a un público o tal, pues lógicamente el euskera es uno de los importantes. (ZA-C, 57)*

**(b) Adierazpen hori enpresa-munduan sarri ageri da, bai euskararen oso aldekoak direnen artean, eta baita kritikoenak direnen artean ere**

*(342) Pues no, por lo que te estoy diciendo, porque evidentemente las empresas tenemos una responsabilidad que es las empresas. Y los consejos de administración de las empresas es hacer ganar dineros a los accionistas y por lo tanto, la sostenibilidad de futuro. Si tú ves que tu empresa necesita profesionales de donde sea, los vas a traer. Y si no les formas en euskera, no les formas en euskera. (ENP3-B, 20)*

*(343) Como empresa estamos hablando. Y nuestra prioridad es sacar los… conseguir el mayor número de pedidos, sacar, facturar y ganar dinero, que para eso estamos aquí en la empresa. (…) Ahora, que no tenemos que olvidar que somos euskaldunes y que tenemos que fomentar ese uso, por supuesto que sí vamos a poner los medios, pero vamos a poner teniendo en cuenta cuáles son las prioridades. Eso es un poco lo que… creo que es importante. (ENP1-A, 51)*

Ondorengo adibideetan ideia hori lekualdatze-estrategia baten bitartez ageri da, beste toki batzuetan gertatzen dena kritikatuz.

*(344) He dicho 0,5 por decir algo [0,5 baxua dela esan duen beste partaide bati erantzunez]. Yo tengo un hermano en Andorra, que vive en Andorra, que es un país muy especial. Allí, pues te van a buscar el voto a casa. Es que me parece muy curioso. Porque son 30.000 los andorranos. Entonces había una amiga de mi hermano, que tenía 25 años, que estaba limpiando en el polideportivo de Ordino, un pueblito allí, y se lo habían dado ese trabajo, pues, pues la administración, pues porque su marido y ella votaban a uno de los Comus que hay allí. Y fue un día, cuando le fueron a decir lo del voto,*

*y dijo, "Pues yo quiero cambiar, porque estoy harta de estar limpiando, algo más tranquilo". Pues le pusieron Directora de Galería de Arte de Andorra, que si está Chillida compitiendo con ella, va primero ella, ¿por qué? Porque es andorrana. Entonces, eso es un fiel ejemplo de decir, ¿qué es más importante, que cuando vayas tú a la galería te atienda una persona que te pueda dar unas buenas explicaciones o que sea de Andorra? Allí, por ejemplo, cuando hacen oposiciones porque una andorrana tiene 20 años y saca la plaza de profesora, va a un colegio, y hay 15 profesores, 8 andorranos y 7 de Cataluña, normalmente suelen ser catalanes, esos 7 tienen que coger, hacer un examen, uno de ellos 7 va fuera porque viene una andorrana que acaba de acabar magisterio. ¿Eso es justo? (ZA-C, 89)*

*(345) ¿Qué hacen en Andorra? Priman primero el haber, el ser andorrano. Primero que estén todos los andorranos un poco cubiertos, pero no importa que no den buen servicio, y luego el resto, si hay sitio para el resto. Yo lo veo un poco, es un sistema feudal totalmente, es un sistema... El sistema de Andorra es especial. Por eso hay, hay que tener un poquito... Ese ejemplo es un poco para que lógicamente impuesto, no sé, en cierta medida, ¿hasta qué punto? Unos dirán que es mucho, otros que es poco. Lógicamente es bueno que sepan, esos dos, y si saben cinco, mejor. Es que si salen cinco es mejor. (ZA-C, 91)*

### (c) "Denontzat gauza bera, ez". "Zeanuri edo Barakaldo ez da berdin, ezin da gauza bera eskatu" (Ikus 3.1. atala)

*(346) A mí me parece muy bien que se potencie el euskera, es cultura, y todo lo que es cultura hay que trabajarlo y conservarlo. Pero otra cosa es pretender generalizar el uso del euskera a toda la población de Euskadi, de Vitoria o Álava, cuando igual la realidad es otra, o las demandas de la sociedad en general, sin hacer porcentajes, es otra. (GA-D, 70)*

### (d) Adostasunaren garrantzia

Adostasunaren ideia oso sarri agertu da. Nolanahi ere, termino honek zentzu asko biltzen ditu eta nork eta non erabiltzen duen kontuan hartu behar da: askotan euskara kontuetan norbanakoaren frustrazio-sentimenduekin lotuta agertzen da, besteetan norberak bizi ez duen mundua inposatzen dioten pertzepzioarekin lotuta ageri da. Dena den, partaideen artean oso zabaldua dago

ezinbestekoa dela adostasunetik lan egitea, talde politikoen arteko adostasuna lortzea beharrezkoa dela, eta gizarte osoan adostasuna egon behar dela.

(347) *Hay mucha gente que no quiere, simplemente que lo estudia porque lo necesita para el trabajo, o por obligación, o por lo que sea. Y mucha gente… porque no parte del sentir mayoritario de la población en Vitoria o Álava, surge algo que yo sí que veo en la calle, que es un poco de rechazo o el sentir que te lo están imponiendo. (GA-D, 51)*

(348) *Yo creo que las políticas tienen que salir de las opiniones del pueblo. (GA-D, 66)*

(349) *Y lo otro, el equilibrio ése creo, o sea, yo creo que tenemos un problema, que todos nuestros consensos se soliviantan en el nivel político y son consensos entre políticos. Porque tenemos unas instituciones ciudadanas, igual es porque vengo ahora dos años de Nueva York con todo este rollo anglosajón de…, pero es que me parece muy saludable que esos consensos políticos incluyeran consensos que se han establecido en instituciones sociales cívicas ciudadanas que reflejen la pluralidad y la diversidad social. (KA-B, 122)*

**(e) Euskararen berreskuratzean azkarregi joatearen ideia eta presio handiegia ezartzearena**

(350) *Es que es durísimo ser vasco a veces. / Porque es todo presión, en todos los ámbitos, no sólo con el euskera. Hay veces que dices, “Déjame en paz”. / Pero todo es como bloques, es muy pesado. (BI-B, 315/317/325)*

(351) *Yo creo que... igual yo creo que lo... el problema que ha habido es que se ha querido recuperar todo ese tiempo de represión muy rápido, y han sido las medidas de que no lo hablara casi nadie más que la gente que lo hablaba en su casa y tal a que ya lo pidieran para determinados trabajos, igual a la gente ha sido lo que le ha causado más rechazo y más resquemor. (BA-C, 198)*

**(f) Norbanakoaren erabakia errespetatu beharra, baita ikasi nahi ez dutenena ere**

(352) *Yo pienso que al final esto es un acto de respeto, por el que quiere hablar y lo habla, y por el que no lo quiere hablar pero respeta al que lo habla. Al*

*final es eso. Cuando lleguemos a eso en todo, y no veas qué felices vamos a ser, entonces no tendremos que reunirnos para hablar de nada, y ya está. (BA-C, 217)*

**(g) "Gorde edo mantendu bai, baina sustatu, ez" ideia edo "lagundu bai, baina inposatu, ez"**

*(353) Yo creo que una cosa es premiar, y otra cosa es imponer. (DU, 387)*

*(354) Una cosa es preservar el euskera y conservarlo, y otra cosa es extenderlo y potenciarlo. (GA, 19)*

*(355) Para mí es incuestionable, creo que no se cuestiona que no hay que dejar morir una lengua, como un elemento de cultura que es, y que hay que trabajar en ello. Pero, ¿qué es lo que se quiere hacer, mantener una lengua o recuperar la lengua y todo lo que ello lleva aparejado, euskaldunizar o extenderla a toda la población de este territorio? (GA-D, 92)*

*(356) A mí me parece muy bien que se conserve el euskera, que se trabaje a favor del euskera, pero una cosa es preservar el euskera y conservarlo, y otra cosa es extenderlo y potenciarlo, son cosas diferentes, yo creo que se confunden. Y que se quiera potenciar, pues también también me parece bien, pero lo siento como una imposición. Y a mí esa sensación no me gusta nada. (GA-B, 19)*

*(357) Yo estoy un poco en contra del uso... o sea, del uso de la lengua como si fuera... o sea, de la imposición de la lengua como si fuera la única manera de mantenerla viva, ¿no? (ENP3-B, 53)*

**(h) Euskara "jakintza" bat gehiago da**

*(358) Me parece que va a enriquecer su [de mi hija] formación que sepa euskera, como que sepa informática, como que sepa inglés, como que sepa otras cosas. (GA-D, 235)*

**(i) Erabileraren aldetik, heziketa txarrekoa da euskaraz hitz egitea baldin eta ondokoak ez badaki**

Ukipenean dauden hizkuntzen egoeretako ideia klasiko bat da hau hizkuntzaren erabileraren aldetik, behin eta berriz agertzen dena. Hizketaldietan eus-

kaldunen eskubideei edo euskararen higadurari ekarri dakiokeen ondorioari inolako erreferentziarik gabe ematen dira.

(359) *Es por respeto, yo creo que es por respeto. / Yo lo veo bien. (ZA-C, 51/53)* (Mintzaide batek gogoratzen du euskara ikasten ari zela besteek gaztelaniaz hitz egiten ziotela.)

### 5.2.4. Euskara ikasteko edo euskaraz mintzatzeko motibazioak

Motibazioen garrantziaz luze hitz egin da 2. kapituluan eta euskara ikasteko motibazioak 3.3. atalean aztertu dira. Hemen *bai-bainako*en taldeak euskara ikasteko adierazten dituen zergatiak –esplizituak eta inplizituak–, eta baita seme-alabak murgiltze-ereduko eskoletara edo eredu elebidunetara eramateko arrazoiak aztertuko dira. Ezinbestekoa da jakitea jarrera epeleko pertsonak zer-nolako baldintzetan prest egongo liratekeen euskara ikasteko, eta zein mugetaraino heltzeko prest leudekeen.

#### (a) Barne-motibazioa

“Jakin-minagatik”, “errespetuagatik”, “euskarak liluratzen nauelako”, “mundu hori gal ez dezadan”, “integratzeko”, “euskara salbatzearren”, etab. Barne-motibazioaren ezaugarri nagusia kanpo-eraginik edo presiorik eza da: “nik nahi dudalako egiten dut”, ”barrendik ateratzen zaidalako”, “nik neuk hartzen dut erabakia”.

Aitortzen diren iritzi eta ideien artean honakoak nabarmentzen dira: jakin-mina, irrika, errespetua, seme-alabei laguntzeko baliagarri izatea, historiaren zati bat galdu nahi ez izatea, integrazioa, euskara salbatu beharraren ideia, etab.

(360) *Yo sabía que para aprender euskera mi hija tenía que estudiar en una ikastola, y desde luego a mí, pensando en forma práctica, hubiese preferido que fuese al colegio alemán o francés. Pero por respeto tiene que aprender, porque castellano va a aprender, e inglés hemos aprendido todos de otra manera. (BI-B, 87)*

(361) *– Lo que pasa es que aprender cuesta. Yo hace dos años me metí en una escuela de guiones. ¿Qué necesidad…? (BI-B, 415)*
*– Pero porque estabas motivado… (BI-D, 416)*
*– Pero la motivación la tienes tú. (BI-B, 418)*

(362) *Al final, esto es un sentimiento. ¿Tú, por qué quieres, por qué te gustaría saber euskera? ¿Por qué quieres que tus hijos hablen euskera? Porque están viviendo en un sitio, que tenga esa cultura, esas raíces, y seguir con ellas. (BA-E, 165)*

### (b) Kanpo-motibazioa

Kanpo-motibazioa, norberarengatik kanpo hautematen den premia modura definituko genuke: “nire kide guztiek egiten dutelako”, “bestela, arraroa naizelako”, “nire lanerako derrigortzen nautelako”.

Kanpo-presioa gizarte-mailakoa izan daiteke edo hizkuntza-politika zehatz arautuak sortua (irakaskuntzako lehiaketetan, esate baterako). Azken kasu horretan, sarri, inposaketa modura hautematen da. Hala ere, kanpo-motibazioak balio integratzailea zein instrumentala bildu ditzake bere baitan.

Kanpo-motibazioaren balorazio desberdinak egiten dira sarri: arrazoi instrumentalengatik euskara ikastera behartuta sentitzen diren batzuentzat inposizioa edo ezarpena da. Ostera, euskara ikasteko behartuak egon gabe, ikasi nahi luketenen kasuan –euskararen balioa oso estimu handian dutelako–, maiz, ikastera behartuak ez egotea akats modura hartzen da, bestela balitz ikasi beharrean egongo bailirateke.

Era guztietan, kanpo-motibazioaren azterketatik ondorioztatzen dena zera da: baldintzak aldatuko balira edo kanpo-presioa murriztuko balitz, ziur aski, ez litzatekeela euskara ikasiko.

(363) *Les hacen aprender. Si a mi me hablaran en euskera igual no me quedaba otro remedio. La culpa es vuestra [de los euskaldunes]. (BI-B, 106)*

(364) *Claro, si eres un funcionario que.[¿] que meter porque no te estás jugando tu puesto de trabajo, pues entonces, pues probablemente te molestes más en aprender. / No me lo planteo porque como sé que no me pueden exigir nada, me lo puedo exigir yo mismo, pero nadie más, entonces, si me haría falta, yo qué sé por qué circunstancias... (BA-E, 78/89)*

(365) *Hasta qué punto esa imposición ha influido? Hombre, pues ha influido, como ha dicho él, a que muchos han aprendido, pues para poder obtener ese trabajo, está claro. Si no, igual no lo hubieran aprendido. Sobre todo la gente que a los 20 años todavía no sabía, pues ha aprendido para eso, eso está claro. ¿Ha influido? Sí ha influido. (ZA-C, 57)*

Arestian esan bezala, kanpo-motibazioak ez dira zertan izan instrumentalak. Zenbaitek, batez ere inguruak eraginda, seme-alabak eredu euskaldunetara bidal ditzakete edota euskara ikasten jar daitezke eurak; agian, inguru erdaldunagoan egongo balira, pertsona horiek ez lukete holako erabakirik hartuko.

(366) *Bueno, aquí en Zarauz ¿qué modelo le puedes llevar? Yo encantando, pero es que, ¿qué va a ir, solo a clase?, ¿o con quién va a ir?, ¿a qué clase va a ir? (...) Irá donde van sus amigos, y sus amigos. ¿Dónde van? Al modelo de euskera, eso está claro, eso está claro. (ZA-C, 21)*

### 5.2.5. Seme-alaben hezkuntza-eredua aukeratzeko norberaren edo besteen arrazoiak

Talde honetako lagunek B edo D hezkuntza-ereduak aukeratzen dituzte euren seme-alabentzat (adb. GA-D, 235; BI-B, 87, ZA-C, 7, ZA-D, 9). Joera hori kuantitatiboki ere baieztatzen da (ikus 6. kapitulua). Mintzaideek honako arrazoiak ematen dituzte euren seme-alaben hezkuntza-ereduak aukeratzeko orduan:

**(a) "Euskalduna ez naizenez eta transmititu ezin dezakedanez nire seme-alabek ikas dezaten"**

(367) *No conseguí aprender a hablar en euskera. (...) Sí me he preocupado de que mis hijos aprendan euskera. El mayor ya perfecto, y el pequeño está en ello, tiene cuatro años todavía. (ZA-D, 9)*

**(b) "Etorkizunean ondo etorriko zaielako"**

(368) *Nosotros vemos, al cabo del año vemos cientos de personas, de parejas o que han tenido hijos, o que los quieren tener, que te cuentan, el modelo tal,*

*y la mayor parte de la gente les mete en el modelo en el que meten euskera. Pero, ¿por qué? Porque el día de mañana lo van a tener más fácil, si no... (GA-B, 56)*

(369) *Porque ahora no creo que nadie se plantee no meter a un hijo a una ikastola cuando saben que el futuro aquí, en el País Vasco, es hablar euskera. (BA-C, 38)*

### (c) Aukerarik ez dagoelako

(370) *Yo creo que si le llevas es porque tampoco es que tienes otra alternativa tampoco. O sea, yo encantado de que aprenda, porque aprende un idioma, porque está con sus amigos también, es que ahora igual cambias el colegio. ¿Por qué va a éste? Pues por cercanía o porque van sus amigos, al final todo influye. Lógicamente, yo creo que es un poco la suma de varias cosas. (ZA-C, 23)*

*Bai-bainako*ek gehienek beraien seme-alabentzat B edo D hezkuntza-ereduak aukeratzea datu garrantzitsua da. Ikusi denez, gehienek ez dute euskara ikasi, nahiz eta iraganean ia denak saiatu diren, gaur egun ikasteko asmorik ez dutela aitortzen dute (ikus 5.2.6 atala). Alabaina, beraien seme-alabak euskal hiztunak izan daitezen erabakia hartzen dute.

Behar den neurrian baloratu behar da datu hau, eta bere ingurumen zabalean talde horretako partaideei zer eska dakiekeen ulertu, zer egiteko prest dauden kontuan hartuz. Garbi geratu da euren seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegintzen direla, baita haiei euskararekiko jarrera positiboak transmititzen ere. Zer gehiago egiteko prest leudeke?

### 5.2.6. *Bai-bainako*en euskara ikastea

Arestian esan bezala, *bai-bainako*en taldea euskara ez dakiten pertsonek osatzen dute, gehienbat. Bestalde, beste elementu hauek ere behin eta berriro agertzen dira:

- Gehienak noiz edo noiz euskara ikasten saiatu dira arrakasta txikiarekin.
- Ikasi ez izana arrazoitzeko eta justifikatzeko beharra sentitzen dute. Behar hori, neurri batean, frustrazioaren edo damuaren ondorio da, edo haien inguruan euskaraz ez jakitea “politikoki zuzena” ez izatearen ispilu.
- Euskara ikastera animatzekotan zer-nolako baldintzetan eta zer helburuekin egingo luketen zehazten dute.

**(a) Euskara ikasi ez izana justifikatzeko *bai-bainako*ek duten beharra**

Euskara ikasi ez izana arrazoitu edo justifikatu beharra behin eta berriro errepikatzen da *bai-bainako*en diskurtsoan. Arrazoi edo zuriketa horien artean islatzen da ez jakiteagatik gaizki sentitzea edo politikoki zuzena ez izatearen kontzientzia. Hona hemen mintzaldietan nagusitzen diren ideia batzuk:

> Erabilitako laginak ez du orokortasunik ateratzen uzten, baina halere agerian utzi du euskara ikasten saiatu eta lortu duten lagun asko ezin direla kategoria honetan sailkatu, askozaz jarrera aldekoagoa erakusten baitute. Pentsa daiteke, hortaz, euskara ikasteak berez erakar dezakeela euskaldun berria euskararen aldeko jarreretara. Hala ere, auzia askoz konplexuagoa da, eta jarrera epelak eta aurkakoak aurkitu baitira euskara behartuta eta baloratu gabe ikasi duten artean ere.

Euren borondatez ikasi dutenen artean ere *bai-bainako*ak aurkitu dira. Ziurrenik, euskaldun berri hauek jarrera epela erakusten badute, euskara ikasi arren *bi mundu egoera* gainditu ez dutelako izango da.

- "Saiatu nintzen baina ez nuen lortu"

(371) *Soy del 65. Me tocó la época mala, no conseguí aprender a hablar en euskera. Ya he estado yo en AEK y cosas de esas, pero donde no entra, no entra. Sí me he preocupado de que mi hijos aprenden euskera. (ZA-D, 9)*

(372) *Mi familia es toda de Álava, mi madre de la zona de Orduña, mi padre de la zona de Rioja Alavesa, pero nunca se ha hablado euskera, y en mi entorno nunca se ha hablado euskera. Entonces yo lo he aprendido..., bueno, o sea, yo no sé, no soy capaz de hablar euskera, entiendo algunas cosas, lo he estudiado toda la vida, a mí se me dan bien los idiomas, pero yo hablo inglés, pero no hablo euskera. O sea, yo hablo inglés porque cuando he viajado por ahí, pues siempre lo he usado, pero euskera, como no he usado nunca, pues no lo hablo. (GA-B, 19)*

- "Ikasteko garaia joan zait"; "orain beste gauza batzuk egiten ditut"; "seme-alabek ikasi dezaten erabaki dut"

(373) *Yo ya estuve, pero lo dejé por pereza, y hoy en día ya es falta de tiempo, lo mío es falta de tiempo. Opciones tengo de sobra para poder ir, y facilidades es muy fácil todo, pero ya creo ya que se me pasó... Nunca es tarde, pero creo que ya me preocupan más los chavales, que ellos sí aprendan. Nosotros creo que ya... Nos vamos defendiendo... De momento no nos ha hecho falta, ni en la vida laboral ni nada. (ZA-D, 183)*

- "Alferra naiz", "nagikeriagatik ez dut ikasten": Gehien errepikatzen den berbalizazioa da, aitzakia edo kulpa-sentimenduak eragindakoa ziur asko.

(374) *Yo creo que, de entrada, la gente es vaga, somos vagos, eres reacio a aprender. ¿Por qué aprendes inglés? Pues porque, o te hace falta, o porque eres una persona curiosa. (BI-B, 73)*

Euskara jakitea nahi luketela aitortzen duten *bai-bainako* askok, edo zerbait galtzen ari direnaren kontzientzia agerian jartzen dutenen arteko askok, nahikoa motibaziorik ez izatea aitortzen dute. Zenbait kasutan, ez behintzat behar adinako motibaziorik, eskatzen duen esfortzua eta denbora emateko, eta beste kasuetan, besterik gabe, beste jarduera batzuk gehiago interesatzen zaizkielako

(375) *Y el tiempo, y es que, como yo soy una persona que hace muchas cosas, entonces el meter hueco para otra por la que no siento pasión, me resulta muy difícil. No sé, igual algún día, peor no creo. (BI-B, 27)*

(376) *No he encontrado tiempo, ya te digo que lo intenté. Que además me costaba, porque era mi empresa, y no, estaba siempre de viaje. Y lo acabé dejando. Entonces, pues, seguramente, si hubiera tenido mucha voluntad, y me hubiera atraído mucho, me hubiera seducido mucho la idea, pues lo habría hecho, pero no lo he hecho. Y en mi caso no es rechazo, al contrario. (BI-B, 75)*

(377) *Oportunidades ya tenemos, y cursillos y eso. Falta de tiempo habrá que decir como excusa. Ese es el caso, el mío personal. (ZA-D, 12)*

(378) *Yo he sido una persona bastante zángana es ese aspecto, que me hubiera gustado saber euskera pero no hay un chip que me lo pongan aquí y me lo aprenda, entonces yo no voy a saber euskera nunca. (BA-E, 5)*

(379) *Yo no. A mí me gustaría pero no voy a hacer el esfuerzo, pero sí me gustaría saber, pero... (…) No, además, es que porque no tengo tiempo, o sea, necesito tiempo, para todas esas cosas no tento tiempo. / Eso sí, si me enseña mi hijo, poco a poco, encantado. O sea, le leo cuentos en euskera y no tengo ni idea de lo que estoy leyendo... A veces le digo que me traduzca algo. Y además creo que leo bien porque me entiende. (BA-E, 80/94)*

(380) *Yo lo que no estoy dispuesto es a tirarme tres horas diarias todos los días de la semana durante cinco años yendo al euskaltegi para aprender, porque es que bastante tengo con lo que tengo, con trabajar, con... (GA-B, 74)*

- Ondorengo adibideak erakusten du bi mundu egoeran beti bizi izan den pertsona batek euskara ikasteko motibazioa nola azaltzen duen.

(381) *Pues (¿) que en el colegio (¿), salvo las muy minorías, como es mi caso, que no sea un colegio privado en otro idioma, la gente ha estudiado el euskera, está expuesta al euskera. No, yo creo que es una..., hombre, entorno familiar, y entorno profesional. Creo que son las maneras de... si en el entorno familiar o en el entorno profesional no hay nada que te invite a introducirte y a adentrarte más en el euskera. Entonces, quizás, no, no creo que sea tanto porque haya..., yo no aprendo euskera porque no..., creo que eso ya tampoco. Pero es verdad que ahora no. Hace 10 años o 5 años cuando yo empezaba a entrar en la vida profesional, todavía faltaban estímulos para hacer. Es decir, el castellano era aplastantemente mayoritario. En Bilbao, que es lo que yo conozco. ¿Cómo se estimular el invitar a adentrarse en el euskera a alguien que lo tiene como suyo pero no lo habla?, no lo sé. Pero no creo que sea una cuestión así de rencores sino que pues el castellano es muy mayoritario en ciertos ámbitos geográficos en Euskadi por lo menos y en ciertos ámbitos profesionales. No lo sé. (KA-B, 164)*

### (b) *Bai-bainako*ek dituzten baldintzak eta helburuak, eta zertarako ez dauden prest

Talde honetakoek adierazten dute jadanik ez dutela euskara ikasteko asmorik –gogoratu, gehienak arrakastarik gabeko esperientziadunak direla–. Hala ere, gai horretan sakontzeak lagun horiek hobeto ulertzeko datuak eskaintzen ditu eta ikus daiteke zer egiteko prest dauden eta zer ez; eta zer-nolako helbururekin eta zeren esperoan egin dezaketen euskara ikasteko ahalegina.

(382) *Entonces... sí, sí me gustaría, por mis hijos, pero bueno, pues porque, hombre, ahora mismo son chiquitines, pero imagino que un poquito más adelante, pues yo qué sé, por ejemplo, ayudarles en los estudios, esto tipo se cosas, me va a resultar más difícil en esta situación, yo aun así prefiero que hablen euskera. (BA-E, 7)*

(383) *Muchas veces, con todo lo que estoy diciendo reflexionas y dices es una especie de, no sé si llamarlo esquizofrenia o algo así, porque por alguna parte reconoces, ¿por qué no voy a hacer el esfuerzo? Porque tampoco necesito el EGA, simplemente con hablar un mínimo... Porque incluso a*

*veces entiendes a la gente que te habla euskera, pero tú eres incapaz de decir más que "Bai". Aunque puedas decirlo. (BI-F, 177)*

(384) *A mí me parece más importante el que se hablara. / Y para hablar no hace falta ni tener el EGA, ni nada. (BI-B, 130/132)*

(385) *Yo me acuerdo en otra ocasión que hice otra intentona, (...) y llamé un día: tenía que ir dos horas todos los días, y tampoco te lo ponían muy fácil. Es que eran como demasiado militantes. Yo sólo quería hablar un poco, tampoco era... Luego, si progresas, y si te apetece, bien, pero yo me conformaría con eso, con que hables, con que puedas comentar cosas simples. (BI-B, 181)*

(386) *Una semana intensivo, y me dice, "Vas a aprender euskera en una semana", lo haría. (BA-E, 212)*

(387) *Bueno, yo soy de Vitoria, y en mi casa no se ha hablado euskera, ni en mi familia, ni alrededor. Entonces, la mayoría de la gente que conozco que habla euskera ahora es porque lo ha ido aprendiendo. Entonces, bueno, yo siempre me ha gustado, emocionalmente el euskera me ha parecido algo que me apetecía, pero sí que he visto la dificultad, y creo que a mucha gente de mi edad le pasa, que es una inversión de tiempo, que, pues que a veces no puedes, pues porque el tema laboral, lo has priorizado en un momento de tu vida, porque en otro momento de tu vida has priorizado el tema familiar, y entonces veo la dificultad de engancharme en ese carro, que me apetece, porque no sólo es..., también veo que a nivel laboral o a nivel de salidas es algo que debería, pero por otro lado también me apetece, porque bueno, pues mi marido habla euskera, mi hija está aprendiendo euskera porque él le habla en euskera, pero yo veo la dificultad de eso, de engancharme a ese carro, pues porque con la edad que tengo, con la situación personal que tengo, es que es mucho el esfuerzo. O sea, son dos horas diarias para ir al euskaltegi, para no sé qué, y durante tiempo, durante mucho tiempo. Entonces, es un poco esa división de decir sí que hay que invertir, sí que hay que priorizar que la gente lo haga, pero yo creo que tiene que haber más facilidades de algún tipo, es complicado. Pues si eres funcionario sí que te liberan para estudiar euskera, pero si no eres funcionario, no te libera nadie, ni te lo pagan, ni te liberan de horas, ni nada de nada. Entonces, yo creo que ahí está la dificultad.Y comparto contigo el tema de que pasas al lado de una ikastola o de un colegio que sabes que todo es modelo D, y los chavales salen, los adolescentes salen hablando*

> *en castellano. Y eso no me deja de sorprender. Que, bueno, que supongo que será tema de generaciones y generaciones. (GA-C, 12)*

> Behin eta berriro errepikatzen den ideia da euskara ikasteko eskaintza arautuak ez dituela asetzen behar zehatzetarako eta ez oso maila sakonean ikasi nahi dutenen beharrak. Behar horiek, besteak beste, ondokoak dira: seme-alaben etxeko lanetan laguntzea, tabernetan edariak eskatzea edo lagun arteko elkarrizketetan euskaldunek gaztelaniaz hitz egin beharrik ez izatea.

### 5.2.7. Aurreiritziak, usteak eta balorazio orokortuak

Laugarren kapituluan, partaideen artean zein hizkuntza-aurreiritzi aurkitu diren eta, euskararekiko jarrerak osatzeko orduan, aurreiritzi horiek zelan eragiten duten aztertu dira. *Bai-bainako*en taldeak aurreiritzi horietako asko biltzen ditu. Esan denez, aurreiritziok zenbait uste orokortuen isla dira, usteak egiazkoak izan ala ez. Oro har, elebitasunaren edo eleaniztasunaren ingurukoak, bigarren hizkuntzaren ikaskuntzaren gainekoak, hizkuntza ezberdinen balioei buruzkoak –bereziki hizkuntza gutxituen ingurukoak–, eta euskarari buruzkoak izan dira. Partaideek egiten dituzten balorazioak, neurri handi batean, norberaren esperientzia linguistikoaren araberakoak dira, eta hizkuntzen inguruan “kaleko jendeak” daukan ikuspegia islatzen dute.

Euskarari buruzko aurreiritzi batzuk ezjakintasunean oinarrituta daude, *bi mundu bereizien egoerarekin* lotuta baitaude; askotan ezkutuko kontrako jarreraren adierazle dira.

Aurreiritzi horiek positiboak izan daitezke eta euskara babesteko mesedegarriak izan. Halaber, negatiboak ere izan daitezke, eta euskararentzat eragin oztopatzailea erakutsi. Erreferentzia egiten diete hizkuntzaren alderdi ezberdinei, bereziki elebitasunari eta eleaniztasunari, beste hizkuntzak ikasteari, kultura-aniztasunari edo euskararen balioari.

Euskarari buruzko zenbait *aurreiritzi* ezjakintasunaren ondorio dira, *bi munduko egoera*rekin lotzen direlako. Beste batzuk, agerian ez dauden jarrera negatiboekin zerikusia dute, jarrera ezkutuekin, alegia.

**(a) Balorazio eta aurreiritzi positiboak edo mesedegarriak**

Aurreiritzi positiboak deiturikoen artean honakoak azpimarra daitezke: “Hizkuntza guztiak desiragarriak dira, ederrak, interesgarriak”, “hizkuntza-aniztasuna desiragarria da”, “hizkuntza-aniztasuna aberatsa da”, “hizkuntzak ikastea ez da zaila”, “elebitasuna hizkuntza gehiago ikasteko lagungarria da”, “adina ez da gauza berriak ikasterakoan inolako oztopo” / “adin guztietan ikas daiteke beste hizkuntza bat”.

*(388) Yo hablo varios idiomas, pero porque he necesitado, o porque me ha gustado. Colecciono. Me gusta comparar, me gusta escribir. […] Me gusta jugar con ello, incluso encuentro satisfacción en ello, y no soy de letras, yo soy ingeniero. (BI-B, 73)*

*(389) – Y yo he aprendido cantidad de cosas después de los 30 y después de los 40. (BI-B, 213)*
*– Si yo también […] pero que me cuesta más seguro. (BI-D, 214)*
*– Tienes otras cosas, la falta de saturaciín que tines con pocos años, pero tienes más voluntad, más regate. (BI-B, 215)*

*(390) Y luego a la hora de aprender otro es mucho más fácil porque estás acostumbrado a pensar en dos idiomas. (BI-B, 288)*

*(391) – Eso es muy bonito y eso en euskera también pasa, y estudiarlo de esa manera le da un matiz que... tú empiezas a tirar de las palabras... (BI-E, 426)*
*– Eso es la parte bonita de los idiomas. (BI-B, 427)*

*(392) El euskera no lo hablo, pero estoy orgulloso de hablar muchos idiomas. (KA-B, 29)*

Euskararen inguruko aurreiritzi mesedegarriak eta pertzepzio positiboen artean, balorazio positiboak egon badauden arren (ikus 5.2.1 atala), deigarria da *bai-bainako*ek ez dutela *hizkuntza ederra*, *aberatsa*, *berezia*, *bakarra* moduko aurreiritzirik erabiltzen. Ondorengo adibidea salbuespen modura har daiteke, izan ere aurkitutako bakarra baita:

(393) *Es un idioma muy rico. (BI-F, 233)*

**(b) Balorazio eta aurreiritzi negatiboak edo oztopatzaileak:**

Aurreiritzi negatiboak deiturikoak ondoko gaietan sailkatu dira. Gai horiek honakoak dira:

- Hizkuntza-aniztasunaren inguruan

(394) *Yo creo que lo ideal sería que hubiese una lengua para todos. (DU-C, 276)*

(395) *Es que a mí no me parece un problema que se pierdan los idiomas, o sea, que se dejen de hablar. O sea, a mí, si el castellano se perdiera y sólo se hablara inglés en todo el mundo, me parecería una ventaja, sería más fácil entenderse con cualquiera en cualquier parte del mundo. / Yo lo que he dicho no es que tenga que dejar de haber lenguas, yo he dicho que si dejara de haber lenguas y sólo hubiera una, a mí no me importa. (GA-B, 195/ 225)*

- Elebitasun indibidualari buruz

(396) *Sí, pero ellos pensarán en algún idioma, o soñarán en un idioma o... en uno de los dos, o ¿en los dos? / Cada uno piensa en un idioma. No puedes pensar en dos, ¿no? (DU-C, 230/244)*

(397) *Yo no lo siento como mi lengua, o sea, porque yo, no es mi lengua materna, entonces no lo puedo sentir. Cuando tú decias, "Es nuestra lengua", para mí mi lengua es el castellano, porque yo me he criado en esa lengua. (GA-B, 19)*

- Beste hizkuntzak ikasteari buruz

(398) *Porque además no me gusta nada estudiar lenguas, o sea, no me gustan las lenguas, porque no me resultan fáciles. (DU-C, 288)*

- Edukiak ikasteko komunikazio-hizkuntzaren gainean

(399) *Yo pienso que si estudio en una lengua que no es la mía, no puedo aprender igual ni por nada. / Si saben los dos idiomas igual, sí, pero si saben uno más que otro, no. (DU-C, 17/19)*

(400) *Si no han tenido comprensión de la lengua, no pueden tener comprensión de los contenidos, digo yo, ¿o no? (DU-C, 74)*

"Hizkuntza ulertu ez badute ezingo zuten bada edukia ulertu, ezta?" balorazioak ondorengoa hartzen du bere gain: murgiltze-ereduek ez dietela edukiak behar bezala ikasten uzten etxetik euskaldunak ez diren umeei.

Aurreiritzi oker hau nahikoa zabalduta dago eta, elebitasunerako oztopatzailea izateaz gain, sozialki oso kaltegarria da zuzenean eragiten baitie umeak murgiltze-ereduetara bidaltzen dituzten guraso erdaldunei. Gainera politikoki erraz manipula daiteke. Murgiltze--ereduetan edukien ikasketaren kalitatea frogatzen duten ikerketa asko badaude ere, horiek ez dira askotan gizarte zabalera heltzen, eta horregatik aurreiritzi oker horrek eta beldurrak dirau guraso askoren baitan.

**(c) Aurreiritzi negatiboen artean euskararen ingurukoek atal berezia hartzen dute, aurreiritzi oztopatzaile modura**

Honako aurreiritziek euskara ikasteko nahia erabat eragotzi dezakete, eta saiatzen direnen ikasketa trabatu edo blokeatu. Besteren artean, garrantzi berezia honakoak hartzen du:

- *Euskara oso zaila da, eta saiatzeak ere ez du merezi*

(401) *Lo que no puedes cambiar es que el euskera es difícil, eso no lo puedes cambiar, que el euskera es difícil, es una lengua difícil, entonces eso no se puede cambiar. / [ingelesa eta frantsesa] Yo creo que no son tan difíciles. (DU-C, 323/325)*

(402) *Otro mensaje que la verdad no sé si también queda en el inconsciente colectivo y luego encima si piensas en ello también. El tema este de los pro-*

*fesores que, o aprendían euskera o tal. Es que somos incapaces de aprenderlo. Este profesor me está diciendo que es incapaz de sacar un examen para el que lo han liberado y a mí el tío desgraciado me estaba haciendo aprender esto y si no aprenderlo. Ellos mismo reconocen, o sea me están transmitiendo que es muy difícil y ni siquiera un profesor puede aprender euskera. O sea cómo vas a decir aprenderlo, es una visión negativa. (BI-F, 434)*

*(403) Eso es, que el tema en que todos hablen, es por la dificultad. Yo creo que si el euskera fuera tan fácil como el gallego y el catalán, quiero decir, a la hora de que personas que nunca lo han hablado puedan entender, o puedan hablar sin mucha dificultad después de estar un año, habría mucha gente igual, de la que viene de fuera, que sí que aprendería. (BA-C, 131)*

*(404) Yo no quiero ser malo, pero se me está ocurriendo que si se fue reduciendo, porque supongo que el euskera o una lengua parecida se hablaba hace miles de años en la península, no solamente aquí, sino que se hablaría en un montón de sitios. Porque de hecho se encontraban conexiones con el tarteso. Pero supongo que si se ha ido restringiendo igual es por eso, por algo de eso, porque hay otras lenguas que la han desbancado porque eran más fáciles de hablar. (GA-B, 27)*

*Euskara zaila da* aurreiritzia errotuenetarikoa eta adostasun-maila handienetakoa duena da, ez *bai-bainako*en artean soilik, baizik eta gainerakoen artean ere. Jarrera oztopatzailea, inon bada, horixe da. Aurreiritzi horrek –sumatua izan, onartua edo aitzakia modura erabilia–, funtzio desberdinak hartzen ditu, denak euskararen garapenerako oztopatzaileak. Ondorioz, batzuk ikasten saiatu ere ez dira egingo: “ezinezkoa da eta”.

Jarrera hori indartsuagoa da beste aurreiritzi batzuekin batera agertzen denean, esate baterako *adin nagusian hizkuntzak ikastea oso zaila da* edo “izan ere, ni oso txarra naiz hizkuntzak ikasterako orduan”. Uste horren eraginez, pertsona batzuk ezkortasunez, arrakasta txikia izango dutenaren beldur hasten dira euskara ikasten. Beste batzuek, berriz, euren porrota zuritzeko edota ikasteko motibazio ahula ezkutatzeko baliatzen dute.

Aurreiritzi honen indarra eta bere eragin negatiboak interpretatzeko orduan kontuan hartu behar dira baita ere, euskararen irakaskuntzaren metodologia-arazoak sortzen dituzten pertzepzio ezkorrak, eta horiek ere oztopatzaileak dira (ikus 3.3. atala). Aipagarria da, era berean, (ikus 4. kapitulua) mintzaideen adierazpenetan ikusi den jokabide arauemaile eta preskribatzaileak duen eragin kaltegarria euskara ikasteko orduan.

### 5.2.8. Euskararen moduko hizkuntza gutxituen ahulezia gutxiesten duten arinkeriak eta *naïvité*ak

Arestian, 4.1. atalean esandakoaren ildotik, *bai-bainako*ek euskarak zer-nolako erronkari aurre egin behar dionaren aurrean irakurketa oso sinplea, azalekoa edo lausoa egiten dute. Batzuetan, ezjakintasunaren ondorioz izan daiteke, beste batzuetan, gaia bere konplexutasunean ez dutelako aztertu, edo ardura besteengan jartzeko estrategia erabiltzen dute edo “zer dela eta kexatzen zarete?” “non dago arazoa?” adierazi nahi dutelako.

**(a) *Arrosa koloreko etorkizuna***

Etiketa honekin markatu dira, eredu elebidunen inguruan eta euskararen ospea jasotzeko hartu diren neurrien ondorioz, euskarak, halabeharrez, etorki-

zun zoriontsua izango duelakoren inguruko adierazpenak. Kasu hoberenetan adierazpenok ezjakintasun-neurri bat erakusten dute eta hizkuntza gutxituek zer-nolako arazoei aurre egin behar dieten ez jakitea. Beste batzuetan, arazoa sinpletzeko estrategia da: “ez dakit zergatik kexatzen diren”. Horietan, euskararen eta bere aldeko hizkuntza-politikaren inguruko jarrera negatiboak ezkutatzen dira.

*(405) Pero yo creo que con toda la gente que va subiendo de edad, no va a pasar eso, porque va a saber todo el mundo. / Creo que se hablará, por lógica, ¿no? Si ya..., quiero decir, en un entorno que de diez saben dos, pues no vas a ponerte a hablar en euskera, pero si en un entorno de diez saben ocho, pues igual los otros dos tendrán que aprender. (DU-C, 395/397)*

*(406) Hombre, yo creo que de que desaparezcamos nuestra generación. Porque cuando desaparezcamos nuestra generación, igual lógicamente mis hijos con sus hijos hablarán en euskera, y en casa, y hablarán todos. (ZA-C, 122)*

*(407) Yo pienso que somos la última generación. La que viene ahora ya, no va a haber esos problemas. Están puestas ya las bases. / Los inmigrantes que están viniendo, has dicho tú antes AEK, está un montón de gente ahí metida, y los hijos de esa gente también están en el modelo D, están aprendiendo ya euskera desde pequeñitos, que la siguiente generación va a saber todo euskera, se va a hablar mucho más euskera. (ZA-D, 97/107)*

### (b) Ezagutza eta erabileraren arteko aldea

Aurrekoarekin oso lotuta, edo modu independentean, honako ideia hau ere agertzen da: “dagoenekoz euskara dakien jende asko dagoenez, ez dago arazorik”. Hemen ez da ezagutza eta erabileraren arteko bereizketarik egiten, jakinekoa den arren ezagutza ez dela erabileran islatzen, eta biek arau desberdinei erantzuten dietela.

Ez soilik *bai-bainako*ei lagineko ez-euskaldun guztiei ere, oso deigarria egiten zaie gazte askok euskara jakin arren ez dutela erabiltzen ikustea.

*(408) Veo a los chicos que hablan a mi hija, por ejemplo, y yo nunca les oigo hablar en euskera, jugar en euskera, siempre hablan en castellano con los del pueblo. / Y desde niños, ¿eh? Y hablan [euskera] todos perfectamente. Pero no hablan. (BI-B, 17/19)* (Oharra: herria Elantxobe da).

(409) *Porque sucede mucho que gente que habla en euskera, sin embargo, luego entre ellos hablan castellano, que es un poco extraño eso. Yo creo que igual es por el círculo donde se han conocido o no lo sé, pero mis sobrinos... De mi familia, una hermana mía habla euskera, y se ha hablado euskera en su casa siempre, peor en los demás, que somos muchos, no se habla euskera en ninguno de mis hermanos, y mis sobrinos saben todos. Sin embargo, entre ellos, yo no sé si es por el tono en el que están, hablan siempre castellano, y saben euskera perfectamente. (BA-E, 43)*

(410) *Eso es, porque sus familias hablan en castellano, exceptuando mi hermana Loli, los demás, todos mis sobrinos hablan entre ellos y con sus amigos, yo les veo, además es curioso porque yo tengo... el hijo mayor mío tiene 6 años, y yo voy a a la ikastola a buscarle, están en el patio jugando y están hablando en castellano todos. Es que es curioso, o sea, están en una ikastola, todos hablan perfectamente, tienen 6 años y están jugando en castellano todos. (BA-E, 45)*

Harriduraz ere hartzen da D ereduko eskoletan edo ikastoletan gaztelaniaz hitz egitea (adierazpenok ingurune ez-euskaldunetakoak dira)

(411) *Tengo una anécdota de se tema, y es que tengo unos amigos que son de Azpeitia y Tolosa, y viene a Vitoria, y los hijos hablan euskera en casa, de siempre, toda la familia ha hablado, y el niño aprende castellano cuando empieza a ir a la ikastola, ahí aprende castellano. (GA-C, 175)*

Normala da solaskideek hitz egiten dakiten haur eta gazteek ez dutela euskaraz egiten harriduraz hartzea: hizkuntzalaritza, soziolinguistika eta hizkuntzaren ikaskuntzan trebatuta ez dagoen kaleko jendea da baina, bestetik, komunitate-elebidunean bizi dira, komunitate horretan hizkuntzetako bat normaltze-prozesuan dago eta haiek hizkuntzekiko erabakiak hartu behar dituzte (norberak euskara ikasi, umeek ikas dezaten ahalegindu, eta abar).

Euskara dakiten umeek ez erabiltzeaz harritzeak erakusten du ez dakitela zelan eragiten duten erabileran inguru soziolinguistikoak eta gizartearen hizkuntzarekiko balorazioak. Erantzuna argi azaldu beharko litzaioke gizarteari, okerreko uste eta kontrako jarrerak sortu ez daitezen. Horrela, ez litzateke izango hezkuntza-sistema euskara ez erabiltzearen erantzule bakarra. Aldi berean, ez da ahaztea komeni umeek haien artean euskara erabil dezaten neurriak sustatu behar direla, erabilera soziala bultzatuz.

# IKERKETA KUANTITATIBOA

## 6. KAPITULUA:
# AZTERKETA KUANTITATIBOA

Azterketa kualitatiboak batez ere euskaratu ez direnen euskararekiko jarrerak, uste eta aurreiritziak erakutsi ditu. Lekuko guztien artean *bai-bainako* deitu den talde interesgarria identifikatu da, baita, bosgarren kapituluan adierazi bezala, nolako ideia, jarrera edo aurreiritzi komun esanguratsuak izan ditzaketen iradoki ere. *Bai-bainako*ek, euskararen eta bere aldeko politikaren kontra ez egonik ere, zalantzak, mugak, "bainak", iritzi kontraesankor edota konplexu komunak erakusten dituzte, eta ideia horiexek erabili dira **euskaldunak ez diren EAEko 18-55 urte bitarteko** biztanleria osoan modu kuantitatiboan aztertzeko. Lehendabizi, azterketa kuantitatiboaren helburu zehatzak aurkeztuko dira. Bigarrenik, datuak jasotzeko diseinatu eta erabili den galdesorta azaldu eta justifikatuko da. Hirugarrenik, lagina deskribatu eta datu bilketa azalduko da. Azkenik, emaitzak aurkeztu eta aztertuko dira.

### 6.1. HELBURUAK

Azterketaren helburuak honako hauek dira:

H1: Azterketa kualitatiboan partaide *bai-bainako*en diskurtsoan (ikus. 5. kapitulua) agertu diren ideiak Euskal Autonomi Erkidegoko 18-55 urte bitarteko biztanleria erdaldunean, eta modu kuantitatiboan, aztertzea. Ideia horiek zein maiztasunarekin ageri diren eta zein erlazio duten herritarren aldagai sozio-demografikoekin argitzea.

H2: Euskararen aldeko politikan zein plangintza-neurritan dagoen adostasun zabala eta mugak non dauden antzematea; EAEko erdaldunentzat non egon daitekeen adostasun-atalasea argitzea.

H3: EAEko erdaldunak euskarara hurbiltzeko zer dauden prest egiteko, zer izan daitekeen arrazoizkoa, zer dagoen galduta eta zeintzuk diren oztopoak aztertzea, euskara biziberritzeko politikan zein arlotan lan egiteak merezi duen eta zeinetan ez duen merezi antzemateko.

H4: Euskararen aldeko plangintza-neurri zehatz batzuei adostasuna ematerakoan partaideen tipologia bat egin daitekeen ikustea eta, hala bada, talde horiek nolako ezaugarri soziodemografikoak eta nolako jarrera eta iritzi komunak dituzten zehaztea. Azken batez, aldagai sozio-demografiakoak eta jarrerak kontuan hartuta, zein talde diren aldekoagoak (eta beraz errazago euskarara erakartzeko) identifikatzea.

## 6.2. GALDESORTA

Datuak jasotzeko galdesorta (ikus 2. eranskina) azterketa kualitatiboan batutako datuetan dago oinarrituta. Batetik, *bai-bainako* modura sailkatu diren partaideen ideia komunei buruz informazioa biltzeko galderak egin dira. Bestetik, galdesorta erantzun behar duten lekukoen datu soziodemografiakoak jasoko dituen galdeketa osatu da.

Lehen motako galderei dagokienez, eztabaida-taldeetan irtendako ideiak, bere hitzetatik abiatuz, egin da. Azterketa kualitatibo eta kuantitatiboaren arteko lotura litzateke ikerketa honen alderik erakargarriena: eztabaida-taldeetan agertu diren gaiak eta kontzeptuak ez ezik, partaideek eurek hitzez adierazi zituztenak erabili dira kuantitatiboaren galdesorta prestatzeko. Hizkuntza jarrerak neurtzeko literaturak eskaintzen duen galdesorta bat aukeratu ordez, geure interesari hobeto erantzungo dion galdesorta berria diseinatu da: batetik, *bai-bainako*en jarrerak hobeto biltzeko, eta bestetik, jarrerok iritzi-emaileek eurek azaldutako moduan aurkeztuta hobeto jasoko diren ustearekin.

**(a) *Bai-bainako*ek agerian utzitako ideiak:**

- *Euskararekiko kokapena*: Galdesorta-erantzule bakoitzak bere burua euskararekiko nola kokatzen duen neurtzen duen galdera euskal soziolinguistikan klasikoa da: euskara euskal herritarren **hizkuntza** ala **hizkuntzetako bat** da? Horretarako, G3 galdera erabili dugu. Bertan aukera bi eman dira: euskara da euskaldunen hizkuntza (hemendik aurrera *hizkuntza*) eta euskara euskaldunen hizkuntzetako bat da (hemendik aurrera *hizkuntzetako bat*).

- *Bi mundu-egoera*: Lagineko partaideek bi mundu egoeran bizi diren ala ez neurtzeko bigarren galdera (G2) asmatu da. Bosgarren kapituluan adierazi bezala, *bai-bainako* sailkatu ditugun lekukoen ezaugarria bi mundu bereizien egoeran bizitzea da, baina bi mundu kategoria ez da absolutua, mailakatua baino. Azterketa kuantitatiboan ondoko ezberdintasuna neurtu nahi izan da: a) euskararen mundutik hurbil sentitzen direnak, hau da, bi mundu bereizitako egoeran ez direla bizi uste dutenak, b) bi munduko egoeran bizi direla jakin eta euskararekin loturiko beste mundu horretan interesa dutenak, c) bi munduko egoeran bizi direla jakin arren bestea ezagutzeko ere interesik ez dutela esaten dutenak, eta d) bi mundu bereiziak daudela ukatzen dutenak. Bi munduen aldagai honek euskararekiko jarreretan berebiziko garrantzia duela uste dugu.

- *Euskarara hurbiltzeko ahaleginak*: Informatzaileek euskarara hurbiltzeko zer egiteko prest dauden neurtu nahi da, eta egiteko prest dauden ahaleginak lau graduko mailaketa batean markatzeko eskatu zaie. Azterketa kualitatiboan agertu diren ahalegin-motak honela agertzen dira galdesorta kuantitatiboan: euskara ondo ikasteko ahalegina, euskara pixka bat ikasteko ahalegina, seme-alabek ondo ikas dezaten ahalegina, seme-alabek euskararen inguruko mundua ezagutu dezaten ahalegina, eta ingurukoei euskararekiko jarrera positiboak helarazteko ahalegina. Ikus galdesortako G5.

- *Euskara ikasteko motibazioak eta ez ikasteko arrazoiak*: Bosgarren kapituluan adierazi moduan *bai-bainako* moduan identifikatu ditugun lagun

gehienak inoiz euskara ikasten saiatu dira, baina arrakasta gutxirekin. Azterketa kuantitatiboan orain zenbat ari diren euskara ikasten (G-6.1.), zenbat saiatu diren iraganean (G-6.2.) eta zenbati gustatuko litzaiokeen euskara ikastea (G-6.3.) jakin nahi da. Horrezaz gain, euskara ikastea erabaki ezkero zeintzuk diren arrazoi edo motibazio garrantzitsuenak argitu nahi dira (G-7 multzoa), eta horrela zerrendatu dira azterketa kualitatiboan irtendako arrazoiak: gure hizkuntza delako, galdu ez dadin laguntzeko, euskaldunekiko errespetuagatik, seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko, euskaldunekin komunikatu ahal izateko, lan aukera zabalagoa izateko, inguruan euskaldunak daudelako, aberasgarria delako. Zein egoeratan egingo luketen euskara ikasteko ahalegina ere galdetu zaie (G-8 multzoa): egunero euskaltegira ordu birako joan behar ez bada, seme-alabek egiten dituzten jardueren bidez bada, norberaren intereseko jardueraren baten bidez bada, liberatuta bada, inolaz ere ez. Gainera, euskara ez ikasteko arrazoietan ere sakondu nahi da (G-9): motibazio nahikorik ez edukitzeagatik, denborarik ez edukitzeagatik, egin behar den ahaleginak ez duelako “merezi”, bat ere interesik ez edukitzeagatik, oso zaila delako, ondo ikasteko gai ez naizelako, nahikoa erraztasunik ez dagoelako, hizkuntzak ikastea zaila delako. Azken batez, galdera horien bidez herritarrak euskarara hurbiltzeko zer dauden prest egiteko argitu nahi da, zer eska dakiekeen eta zein plangintza-neurri izan daitezkeen eraginkorrak eta zeintzuk ez.

- *Aurreiritziak eta arinkeriak*: Laugarren kapituluan aurkeztu diren aurreiritzi eta arinkeriak era kuantitatiboan aztertu nahi dira, gizartearen aztergai dugun laginean (erdaldunengan) zein maiztasunarekin ageri diren argitzeko (ikus G-10). Esan bezala, horietako gehienak elebitasunerako kaltegarriak izaten dira eta sarri agertuz gero gizarteak bazter ditzan esku hartzea komeni da.

- *Euskararen sustapenari mugak*: Erdaldunak euskarara hurbiltzea nahi bada, euskarari eta hizkuntza-politikari ematen zaion sustapenari edo babesari zein muga ipintzen dioten jakitea komeni da (ikus 5.2.3. atala) eta giza-talde erdaldunean euskararen babesari mugak ipintzerakoan azpi-

talde ezberdinek zein muga ipintzen duten zehaztu behar da, denek ez baitituzte muga berberak adierazten. (ikus G-4ko multzoa)

**(b) Bestalde, lekukoen datu soziodemografikoak lortzeko arlo hauetako galderak egin dira:**

- *Identitate-sentimendua*: Identitate-sentimendua deitu dugun aldagaian erantzuleak *espainiar baino ez* kategoriatik *euskal herritar baino ez* kategoriara doan bost graduko continuumean kokatu behar du bere burua. Nolanahi ere, datu deskriptiboak ematerakoan bost kategoria horiek hirutara kodetu dira berriro: batetik, *euskal herritar baino ez* eta *gehien bat euskal herritar* kategoriak batuz *gehien bat euskal herritar* deitu dena, bigarren *euskal herritar bezain espainiar hiritar* izendatu dena eta hirugarrenik, *espainiar baino ez* eta *gehien bat espainiar*ra kategoriak batuz, *gehien bat espainiar* deitu dena. Galdera hori (G-21) erabat ohikoa da euskararen inguruan egin diren ikerketa soziolinguistikoetan, euskararekiko jarreretan eragina duelako ustea zabal baitabil.

- *Eskualde euskaldunagoa / erdaldunagoa:* 6.3. atalean azalduko den bezala, erantzuleak mapa soziolinguistikoaren araberako eskualde gehien bat erdaldun ala euskaldunagoetan bizi diren jakin nahi izan da; ez hori bakarrik, Euskadiko Autonomia Elkargoan eskualde euskaldunago/erdaldunagoan bizi izatearen arabera adierazgarria den lagina erabili da. Ingurunean euskarak duen presentzia handiak edo urriak erantzuleen jarreretan eragin zuzena duela pentsatzea ohikoa da, askotan pentsatzen baita zenbat eta euskararen presentzia handiagoa euskararen aldeko jarrera handiagoa egongo dela, eta alderantziz, zenbat eta euskararen presentzia urriagoa orduan eta euskararen aldeko jarrera urriagoa. Aldagai hau ez da galdesortan ageri, baina informazio hori datu biltzaileek jaso dute.

- *Euskararen presentzia*: Eskualdea euskaldunagoa izan ala ez garrantzitsua bada ere, norberaren giza-sareak oraindik garrantzi handiagoa izan dezakeela uste dugu. Pertsona bat eremu erdaldunean bizi daiteke, Barakaldon esate baterako, baina bai familian, bai lanean eta bai lagun

min gehienekin euskara erabili gehien bat. Eta alderantziz, erdaldun elebakarra ere oso euskalduna den herrian bizi daiteke erdara hutsez. Horregatik, galdesorta-erantzule bakoitzari bere familia eta lagun giroan euskararen presentzia nolakoa den galdetu zaie (G-1) bost puntuko eskalan eta gero berriro kodetu da hiru kategoria ezberdinduz: *presentzia urria edo bat ere ez-pixka bat presente-oso edo nahikoa presente*. Euskararen presentzia norberaren bizipenaren arabera ematen den datua da eta, beraz, subjektiboa izan daiteke. Alabaina, horrek ez du desitxuratzen errealitatea hiztunek inguruan dutenari buruzko bere bizipenak bultzatuta jokatzen baitute. Gainera, inpresio hori seguruenik errealitatetik oso hurbil egongo da eta pertsonaren inguruan dauden besteen bizipenaren antzekoa izango da.

- *Ideologia politikoa*: Ideologia politikoa biltzeko galdera ere klasikoa da ikerketa soziolinguistiko eta soziologikoetan. Continuum baten, 0tik 10era, 0 ezkertiarra eta 10 eskuin aldekoa izanda, haien burua nola kokatzen duten galdetu zaie eta, berriro, hiru kategorietara kodetu dira datuak, modu argiagoan aurkezteko: 0-3: ezkerrekoa; 4-6: zentroko posizioa; 7-10: eskuinekoa. Ikus G-19 galdesortan.
- *Euskal abertzaletasuna*: Aldagai hau ere klasikoa da ikerketa soziolinguistikoetan, ideologia abertzalea eta euskararen aldeko jarrerak lotuta daudela pentsatzea oso ohikoa delako. Galdesortako G-20k 0tik 10era haien burua kokatzeko eskatzen die erantzulei, 0 bat ere ez euskal abertzalea eta 10 euskal abertzalea izanik. Ideologia politikoarekin bezala, hau ere berriro kodetu da kategoria gutxiagorekin lan egiteko: 0-3: ez-euskal abertzale; 4-6: ez euskal abertzale ezta ez-euskal abertzale ere; 7-10: euskal abertzalea

Horrezaz gain, ikerketa soziologikoetan ohikoak diren aldagaiak ere aztertu dira: sexua (G-11), adina (G-12, gero adin-tarteetan berriro kodetua), ikasketa maila (G-13), lanbidea (G-14, gero berriz kodetua), norekin bizi (G-15), bizitokia (G-16), jaiolekua (G-17), beste hizkuntzetako ezagutza maila (G-18) eta diru sarrerak (G-19).

## 6.3. DATU BILKETA ETA LAGINA

Datu bilketa LKS enpresak egin du, 2008ko irailetik azarora bitartean. Aztergai den taldea honela definitu da: Euskara gutxi edo ezer ez dakiten 18 eta 55 urte bitarteko Euskal Autonomi Erkidegoko biztanle taldea.

Euskararen gaitasuna neurtzeko eta erantzulea eskualde horretakoa dela segurtatzeko lehendabizi A1-A3 eta A4, hurrenez hurren, galbahe-galderak egin zaizkie lekukoei (ikus galderak eranskinean).

Lagina eskualde euskaldunago/erdaldunago, adin eta sexuan EAEren adierazgarri izan dadin 600 lagunen datuak jasotzea erabaki da. Laginaren neurri honek datuen azterketarako %4 ±ko errorea besterik ez du ematen, ziurtasun maila %95,5 2 sigma izanik.

**1. TAULA: Laginaren neurria**

| Laginaren neurria | | |
|---|---|---|
| | Elkarrizketa kopurua | Lagin errorea |
| EAE | 600 | ± 4 % |

Oraintxe aipatu bezala, erreferentzia-unitate gisa eskualdea izan duen lagina burutu da. Ondorengo hipotesia jarraituz hartutako erabakia: Euskararekiko jarreren ezberdintasuna ez dago lurralde historikoarekin lotuta, hau da, Bizkaiko bizilagun batek Gipuzkoako beste bizilagun batek duen jarrera berdina izan dezake. Adierazgarri eta erabakigarria dena, eskualdeko euskararen presentzia da.

Arrazoiketa hau dela eta, biztanleria eskualde euskaldunagoetan (euskaldun presentzia handiagoa dutenetan) eta eskualde erdaldunagoetan (euskaldun presentzia txikiagoa dutenetan) banatu da, 2006ko Mapa Soziolinguistikoan (Eusko Jaurlaritza, 2008) emandako datuetan oinarrituta. Lagina euskaldun kopurua %47 edo gehiagokoa duten eskualdeak hautatuz egin da, hau baita EAEko eskualdeko euskaldun kopuruaren batez bestekoa; baldintza hau betetzen duten eskualdeak *euskaldunago* bezala sailkatu dira, besteak

berriz, *eskualde erdaldunago*. Baldintza honek behar bezalako biztanleriaren bereizketa egiteko ingurugiro ezberdineko multzo bi egiteko aukera eman du, eta hona hemen sailkapena:

**2. TAULA: EAEko eskualdeak**

| ESKUALDE EUSKALDUNAGOAK | ESKUALDE ERDALDUNAGOAK |
|---|---|
| Arrati-Nerbioi | Arabako Ibarrak |
| Deba Beherea | Arabako Lautada |
| Deba Garaia | Arabako Mendialdea |
| Durangaldea | Bilbo Handia |
| Gernika-Bermeo | Enkartazioak |
| Goierri | Errioxa Arabarra |
| Markina-Ondarroa | Kantauri Arabarra |
| Plentzia-Mungia | Bidasoa Beherea |
| Tolosaldea | Donostialdea |
| Urola Kostaldea | Gorbeia Ingurua |

Biztanleria modu honetara banatzen da (3. taula):

**3. TAULA: EAEko biztanleria eskualde-motaren arabera**

| EAEko biztanleria | Eskualde euskaldunagoetako biztanleria | % | Eskualde erdaldunagoetako biztanleria | % |
|---|---|---|---|---|
| 2.072.541 | 517.078 | %25 | 1.555.463 | %75 |

Eta banaketa honetako proportzionaltasuna jarraituz, eskualde-mota bakoitzean egin beharreko elkarrizketa kopurua –proposatutako laginaren tamaina (600) kontuan izanez– ondorengoa da: 150 elkarrizketa eskualde euskaldunetan eta 450 elkarrizketa eskualde erdaldunetan. Ondoren erakusten

diren tauletan (4. eta 5. tauletan) lagineko eskualdeak, bakoitzean egin den inkesta-kopurua eta zein udal herritan egin den ageri da.

**4. TAULA: Inkesta-kopurua eskualde euskaldunagoetan eta udalerriak**

| ESKUALDE EUSKALDUNAGOAK | Udalerriak | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arrati-Nerbioi | | | | | | |
| Deba Beherea | | | | | | |
| Deba Garaia | Arrasate, Bergara | | 32 | | 32 | |
| Durangaldea | Durango, Zornotza | | | 50 | 50 | |
| Gernika-Bermeo | | | | | | |
| Goierri | Zumarraga, Beasain | | 33 | | 33 | |
| Markina-Ondarroa | | | | | | |
| Plentzia-Mungia | | | | | | |
| Tolosaldea | | | | | | |
| Urola Kostaldea | Azpeitia, Zarautz | | 35 | | 35 | |
| Eskualde euskaldunagoetan burututako elkarrizketak guztira | | | 100 | 50 | 150 | %25 |

**5. TAULA: Inkesta-kopurua eskualde erdaldunagoetan eta udalerriak**

| ESKUALDE ERDALDUNAGOAK | Udalerriak | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arabako Ibarrak | | | | | | |
| Arabako Lautada | Gasteiz | 77 | | | 77 | |
| Arabako Mendialdea | | | | | | |
| Bilbo Handia | Bilbo, Barakaldo, Getxo | | | 274 | 274 | |
| Enkartazioak | | | | | | |
| Errioxa Arabarra | | | | | | |
| Kantauri Arabarra | | | | | | |
| Bidasoa Beherea | | | | | | |
| Donostialdea | Hernani, Tolosa | | 99 | | 99 | |
| Gorbeia Ingurua | | | | | | |
| Eskualde erdaldunetan burututako elkarrizketak guztira | | 77 | 99 | 274 | 450 | %75 |

**6. TAULA: Lagineko elkarrizketak lurralde historikoen arabera**

| | ARABA | GIPUZKOA | BIZKAIA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|
| EAEko elkarrizketa kopurua guztira | 77 | 199 | 324 | 600 | %100 |

Arestian esanda bezala, lagin hau biztanleriaren adierazgarri litzatekeen populazioa bilatu nahian sexu eta adinaren arabera burutu da.

Datu-bilketa arazo barik egin da, baina eragozpen batekin: eskualde euskaldunagoetan galdesorta erantzuteko galbahea gainditzen duten hiztunak aurkitzeko zailtasuna egon da, bereziki gazteagoen artean (18 eta 25 urte bitartekoetan). Aurretiaz esan denez, guztira 600 elkarrizketa burutu dira, hala

ere, kalitate kontrolaren prozesuan Urola Kostan egindako 2 galdeketa atzera bota dira –landa-lana behin burutua zegoelarik– estatu espainiarretik kanpo jaiotako herritarrei egindako galdeketen kopurua murrizteko, aldagai honetan aurretiazko mugarik jarri izan ez arren, ikerketako laginean larregizko pisua ez izatea egokiago ikusi baita. Beraz, baliozkotzat jotako 598 elkarrizketan oinarritu da ikerketa.

## 6.4. JARREREN MAIZTASUNA

Atal honetan aztertzen diren jarrera eta aurreiritziak zein maiztasunarekin ageri diren eta aldagai soziodemografikoekin gurutzatuta zeinen artean ageri den erlazio estatistikoki adierazgarria aurkeztuko da. Ematen diren datuak, denak, estatistikoki adierazgarriak dira, kontrakoa ez bada esaten. Aldagai batzuek (norekin bizi, sexua eta diru sarrera) ez dute erakutsi erlazio estatistikorik eta analisitik kendu dira.

### 6.4.1. Euskararekiko Kokapena

Azterketa kualitatiboan ikusi denez (ikus 2.2. atala), solaskideek norberaren eta taldearen nortasuna eraikitzeko balioa ematen diote euskarari, baina ez denak modu berean. Batzuentzat euskal herritarren hizkuntza euskara den bitartean (hemendik aurrera *euskara hizkuntza*), beste batzuek euskara eta erdarari, biei, (hemendik aurrera *euskara hizkuntzetako bat*) ematen diete balio hori. Azterketa kuantitatiboan, lehen iritzia dutenak erdia baino pixka bat gutxiago dira (%46,8) eta bigarrena dutenak berriz, erdia baino pixka bat gehiago (%52,3), 1. irudian ageri denez:

**1. IRUDIA: Euskararekiko kokapena**




Datu hau **eskualdeka** aztertuz gero, eskualde euskaldunagoetan bizi direnen %62,10k eta eskualde erdaldunagoetan bizi direnen %41,60k esan du *euskara dela euskal herritarren hizkuntza*. Arestian (6.2 atalean) esan bezala, eskualde euskaldunagoan ala erdaldunagoan bizi den baino lekuko bakoitzaren inguruan euskararen presentzia zein neurritakoa den esanguratsuagoa eta erabakigarriagoa da. Inguru euskaldunean bizi izanda ere, lagun batek kontaktu urria izan dezake euskaldunekin eta alderantziz. Norberaren hizkuntza-erabilera eta jarreretarako garrantzitsuagoa da zein harreman-sare dituen, bere esperientziak eta pertzepzioak eskualde batean edo bestean bizi izatea baino.

- Izan ere, azterketa kuantitatiboak erakutsi duenez, **euskararen presentzia** bere inguruan oso edo nahikoa handia dela esan dutenen artean %72,22k *euskara dela hizkuntza* esan dute eta %27,78k berriz soilik *euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat* dela.

**2. IRUDIA: Euskararekiko kokapena euskararen presentziaren arabera**




Euskararekiko kokapena lekukoaren **ikasketa-maila**ren arabera aztertuz gero, adierazgarria da unibertsitate-ikasketak dituztenen artean %66k *hizkuntzetako bat* esan dutela, %34k *euskara dela hizkuntza* esan duten bitartean.

**Ideologia** kontuan hartuz, haien burua ezkertiartzat hartzen dutenak dira *euskara dela hizkuntza* gehien esaten dutenak eta haien burua eskuindar edo zentrokotzat dutenek antzeko moduan erantzun dute, hamarretik seik *hizkuntzetako bat* dela adieraziz. Gogoratu behar da ideologia ezkertiar-erdiko-eskuindarren arabera 10 mailako eskalan zehazteko eskatu zaiela.

3. IRUDIA: **Euskararekiko kokapena ideologia politikoaren arabera**




**Euskal abertzaletasuna** neurtzen duen galdera kontuan hartuz, argi ageri da, espero daitekeen moduan, haien burua abertzaletzat daukatenen artean *euskara dela hizkuntza* nagusi agertzen dela (abertzaleen %75). Abertzaleen %25ak baino ez du esan *euskara hizkuntzetako bat* dela. Era berean, azpimarragarria da haien burua ez-abertzaletzat dutenen artean %66,10k euskara *hizkuntzetako bat* dela esatea, eta %33,90k, berriz, *hizkuntza* dela adieraztea.

4. IRUDIA: **Euskararekiko kokapena ideologia abertzalearen arabera**




**Identitate-sentimendua**ri erreparatuz gero, espero daitekeen moduan, haien burua *gehien bat euskal herritar* dutenen %70,20k euskara *hizkuntza* dela esan dute, eta soilik %29,80k *hizkuntzetako bat* dela.; era berean, haien burua *gehien bat espainiar* eta *bai espainiar bai euskal herritar* dutenek antzeko moduan jokatu dute, hamarretik seik *euskara hizkuntzetako bat* dela esan dute.

5. IRUDIA: **Euskararekiko kokapena identitate sentimenduaren arabera**




Labur esanda, badirudi euskarari euskal herritarren hizkuntza-balioa ematen diotenak gehiago direla eskualde euskaldunetan bizi direnak, euskararen presentzia handiagoa dutela esaten dutenak, ezkertiarrak, abertzaleak eta haien burua *gehien bat euskal herritar* dutenak. Edozein kasutan ere, eskualde erdaldunetan bizi diren, euskararen presentzia txikia dutenen, eta ezkertiarrak eta abertzaleak ez direnen artean ere batzuek euskarari *hizkuntza*-balioa ematen diotela ezin ahantz dezakegu.

### 6.4.2. Bi mundu

Hurrengo irudiak erantzuleen euskal munduarekiko hurbiltasuna erakusten du.

**6. IRUDIA: Erantzuleen euskararekiko hurbiltasuna**




Seigarren irudian aurkeztu diren datuak oso modu baikorrean baloratu behar dira. Erantzuleen %9,70k baino ez du erakutsi euskararen munduarekiko ezagupen falta eta kontrako jarrera argia (interes falta borobila). Ostera, %55,50k euskararen mundutik hurbil sentitzen dela eta %24,90k ezagutzen ez duen arren euskararen mundua interesatzen zaiola esan du.

Beste erantzun posibleak, “ez dut uste euskararen inguruan mundu diferente bat dagoenik”, %9,50 erantzun jaso ditu, baina hori erantzun dutenen artean batek ere ez du bere burua euskal abertzaletzat jo, izan ere ez-abertzaleen %17,40k eta abertzale-ez abertzale eskalan erdiko posizioa eman dutenen %7,30k esan du ez dagoela beste mundu bat euskararen inguruan. Beraz, azken datu hau jakin aurretik agian erantzule batzuek *euskararen*

*mundua* kontzeptua ez zutela ulertu edo ideologikoki ez zutela *mundu bi* (bat euskarari lotua eta bestea euskararik gabea) egon daitezkeela onartzen uste bagenuen ere, *bi mundu* aldagaia ideologia abertzalearekin gurutzatu ostean "ez dut uste euskararen inguruan mundu diferente bat dagoenik" erantzun duen %9,50 horrek ondoko arrazoietako bategatik erantzun duela ondorioztatu daiteke: *bi munduko egoera*n bizi dira baina ez dakite euskarari lotutako mundua dagoenik ere; euskarari lotutako mundua dagoela ukatzen dute, euskara bera ukatzeko moduan eta euskararen kontrako ageriko jarrera erakutsiz; edo ezkutuan euskararen kontrako jarrera dago, "denok, elebidun eta elebakar, euskal herritar garenez" beste mundu bat dagoela ukatu baitaiteke.

*Bi mundu*ren kontzeptua **eskualde-**mota biren arabera aztertuz gero, datu interesgarriak agertzen dira hizkuntza-plangintzarako:

7. IRUDIA: ***Bi mundu* eskualde-motaren arabera**



Lehendabizi, ez da harritzekoa eskualde euskaldunagoetan bizi direnen %73,20k *bi munduko* egoeran bizi ez direla ("me considero cercano al mundo del euskera") esan izana. Baina, kontuan hartzekoa da eskualde erdaldunagoetakoen %49,40k bere burua euskararen mundutik hurbil sentitzen dutela erantzun izana; datu hau oso positiboa da. Gainera eskualde erdaldunetakoen %27,20k eta eskualde euskaldunetakoen %18,30k euskararen munduan interesa duela erantzun izana aintzakotzat hartu behar da, esku hartzeari begira. Ahalegin berezia egin beharko litzateke talde haiei begira, duten jarrera ona eta interesa baliatuz, euskararen mundura erakartzeko.

Bestalde, azter dezagun bi munduren kontzeptua erantzuleek haien burua **abertzale** antzematen duten ala ez aldagaiarekin gurutzatuz: oso esanguratsua da abertzale batek ere (%0,00k) ez duela esan ez dagoela euskararen inguruan beste mundu bat; batek ere ez du ukatu euskararen inguruan mundu bat dagoenik. Ez da harritzekoa abertzale gehienak (%81,50k) euskaren mundutik hurbil sentitzea, euskaldun ez izanda ere. Gainera, abertzaleak ez direnen artean erdiak inguru (ez abertzale ez ez-abertzale direnen %56,60 eta ez abertzaleen %40,40) *bi mundu* egoeran ez direla bizi uste dute, hau da, euskararen mundutik hurbil sentitzen dira.

8. IRUDIA: ***Bi mundu* ideologia abertzalearen arabera**



**Identitate sentimendua**ri erreparatuz gero, ez da harritzekoa euskal herritar baino ez edo euskal herritar espainiar baino gehiago (gehien bat euskal herritar deitu duguna) sentitzen direnen artean gehien-gehienek (%83,01) *bi mundu*ko egoeran bizi ez direla esan izana, 9. irudian ageri denez.

9. IRUDIA: **Bi mundu identitate sentimenduaren arabera**




Atal honetan *bi mundu* kategoria aztertu dugu. Zera ageri da: oso gutxi dira euskararen munduan interesik ez dutenak eta asko, berriz, euskararen mundutik hurbil sentitzen direnak. Azken hauek eskualde euskaldunagoetan bizi direnen gehienak dira (%73,20) eta baita abertzaleen gehienak ere (%81,50).

Azpimarratzekoa da, baita, abertzale-ez abertzale eskalan erdiko posizioa hartu dutenen artean erdia inguru (%56,60) eta haien burua euskal-espainiar herritartzat dutenen erdia (%47,69) euskararen mundutik hurbil sentitzen dela.

### 6.4.3. Euskara ikasten saiatu diren pertsonak

Azterketa kualitatiboak *bai-baina* motako partaide askok, euskara ondo jakin ez arren, iraganean ikasten saiatu direla erakutsi du (ikus 5.2.6. azpiatala). Gainera, asko ikasi ez izana justifikatzeko beharra sentitzen dutela ikusi da, eta baldintza zehatz batzuetan, eta helburu jakinak buruan izanda, berriro ere euskara ikasteko ahalegina egingo luketela adierazi dute askok. Orain kuantitatiboki aztertuko dira datuok. Ikus 7., 8. eta 9. taulak.

7. TAULA: **Euskara ikasten saiatu direnak (%)**

| Ikasten saiatu naiz | Ez naiz saiatu ikasten |
|---|---|
| 67,70 | 34,30 |

8. TAULA: **Euskara ikasten ari direnak (%)**

| Ikasten ari naiz | Ez naiz ikasten ari |
|---|---|
| 8,90 | 91,10 |

9. TAULA: **Euskara ikastea gustatuko litzaieke (%)**

| Ikastea gustatuko litzaidake, prest nengoke ikasteko | Ez litzaidake gustatuko, ez nago prest |
|---|---|
| 53,00 | 47,00 |

(a) Esanguratsua eta euskararen biziberritzerako azpimarratzekoa da euskara ikasten saiatu direnen ehuneko oso altua (67,70). Lagin osoa kontuan harturik, soilik hirutik bat ez da sekula saiatu. Ez da harritzekoa, bestalde, **adin**-tarte gazteenetakoa izatea ehuneko altuena ematen duena saiatu izan aztertzerakoan, (18-25 urtekoen %88,5; 26-40 urtekoen %66,10; eta 41-55 urtekoen %58,60), hezkuntza-sisteman euskara irakasgai bezala behintzat aspaldi sartua baitago.

Bestalde, **ezkertiarra / eskuindarra** izan eta euskara ikasten saiatu izanaren artean erlazioa dago: ezkertiarren artean %75,80 saiatu den bitartean eskuindarren %44,40 baino ez da saiatu, nahiz eta azken hau ere ehuneko handi samarra izan.

**10. IRUDIA: Euskara ikasten inoiz saiatu direnen ehunekoa ideologia politikoa kontuan hartuta**




**Euskal abertzaletasuna**rekin gurutzatuz gero ere, azpimarratu beharreko joerak ageri dira. Abertzaleen %76,60 euskara ikasten saiatu izana ez da harrigarria, baina bai ez-abertzaleen %64,30 eta abertzale ez ez-abertzale direnen %61,80 saiatu izana.

**11. IRUDIA: Euskara ikasten saiatu direnen ehunekoa ideologia abertzalearen arabera**




**Identitate sentimendua**rekin gurutzatuta, *gehien bat euskal herritar* sentitzen direnen artean %77,40 saiatu dira eta *gehien bat espainiar* sentitzen direnen artean, %37 baino ez.

**12. IRUDIA: Inoiz euskara ikasten saiatu direnen ehunekoa identitate sentimendua kontuan hartuta**



(b) Bestalde, 8. taulan adierazi denez, hamarretik bat baino gutxiago (%8,90) ari da euskara ikasten une honetan. Azterketa kualitatiboak erakutsi duenez (ikus 3.3. atala), askotarikoak dira euskara heldutan ikastea zailtzen duten arrazoiak (denbora falta, familia- eta lan-ardurak, irakasteko sistema eta egitura bera, *euskara zaila* delako, eta/edo *heldutan ezin dela ikasi* aurreiritzi oztopatzaileak eta abar). Adin batera helduta bigarren hizkuntza bat ikastea oso zaila delako iritzia oso zabalduta dago, gaztetan saiatu direnak gehiengoa izanda ere. Izan ere, arestian esan den bezala, lagin osoaren %8,90 baino ez dago une honetan euskara ikasten, baina %65,7 saiatu da inoiz, oso ehuneko altua, dudarik gabe. Gogoratu behar da galdesorta erantzun duten denak erdaldunak direla, ez direla gai, haien ustetan, lagunarteko elkarrizketa batean euskaraz parte hartzeko; eta ausaz aukeratu direla. Ez dute nahikoa ikastea lortu baina saiatu hainbeste saiatu dira. Zergatik utzi dute? Galdera horri erantzun ahal izatea interesgarria litzateke. Arrazoiak sakontasunez aztertu beharko lirateke, ikaste esperientzia probetxugarriago eta atseginagoak eskaini ahal izateko.

(c) Azkenik, euskara ikasten ez daudenen artean, lagineko gehienak (545) bestalde, erdiak baino gehiagok (%53) gustatuko litzaiokeela erantzun du. Ikastea gustatuko litzaiekeenak gehiago dira ondokoetan: eskualde euskaldunetan (%61,30); euskara nahikoa edo oso presente dutenen artean (%61,90), 18-25 adin taldean (%67,20), ezkertiarren artean (%65,50), haien burua gehien bat euskal herritar daukatenen artean (%69,90). Gazteenen adin-taldea interesgarria da, euskararen biziberritzerako garrantzitsuenetakoa eta sakonago aztertzea merezi du. Gazteak dira euskara ikasteko interes handiena erakutsi dutenak (haietako % 67,20k euskara ikastea gustatuko litzaiokela esan du) baina harrigarria da adin-talde horretan oso gutxi ari dela une honetan ikasten (%16,4). Zergatik ote? Oso estrategikoa den adin-talde honetan gehiago sakondu beharko litzateke.

### 6.4.4. Euskarara hurbiltzeko ahaleginak: zer egiteko daude prest?

Azterketa kualitatiboan euskara ikasten ari ez baina bere seme-alabek ikas dezaten ahaleginak egiteko prest daudenaren zantzuak agertu dira. Azterketa kuantitatiboak zantzu horiek berretsi ditu. 13. irudian ahalegin horiek irudikatzen dituzten erantzunen batez bestekoak ageri dira. Kontuan izan, 1etik 4ra erantzun behar zutela ahalegina egiteko duten prestutasunaren arabera, non 1 oso prestutasun txikia den eta 4 oso handia.

**13. IRUDIA: Euskararen aldeko ahalegina egiteko batez besteko prestutasuna (1etik 4ra)**




Hamahirugarren irudian ikus daitekeenez, erantzuleak oso prest daude seme-alabek ikas dezaten ahaleginak egiteko eta seme-alabei euskararen inguruko jardueretan parte har dezaten laguntzeko. Baina ez daude hain prest euskara heldutan ikasten jartzeko.

Halaber, euskararen alde edozein ahalegin egiteko prestutasuna eta aldagai soziodemografikoak gurutzatuz joera argiak ageri dira: ahaleginak egiteko prestutasuna eta **euskal abertzaletasuna** batetik, eta, bestetik, prestutasuna eta **identitate-sentimendua** gurutzatuz gero, zerrendatutako ahalegin

guztietan *abertzaleek* eta *gehien bat euskal herritar*rak ahalegin handiagoa egiteko prest ageri dira; eta *ez-abertzaleak* eta *gehien bat espainiar* sentitzen direnak ahalegin txikiagoa egiteko, 14. eta 15. irudiak erakusten dutenez.

**14. IRUDIA: Euskarara hurbiltzeko ahaleginak ideologia abertzalearen arabera**




**15. IRUDIA: Euskarara hurbiltzeko ahaleginak identitate-sentimenduaren arabera**



Bestalde, prestutasun txikiena euskara ondo ikasteko erakutsi dute denek. Hala ere, gogoratu lagin osoaren erdia inguruk (%53) euskara ikastea gustatuko litzaiokela esan duela (ikus 6.5.3. azpiatala).

### 6.4.5. Euskara ikasteko motibazioak eta ez ikasteko arrazoiak

Atal honetan herritarrak euskarara hurbiltzeko zer dauden prest egiteko argitu nahi da. Erdaldunak euskara ikastera zerk bultzatu ditzakeen antzematea oso garrantzitsua da Horregatik, zer eska dakiekeen, zein motibazio motak bultzatuta hasiko liratekeen euskara ikasten eta zein egoeratan egingo luketen ahalegina jakin nahi da. Gainera, lagun gehienentzat euskara ez ikasteko zeintzuk diren arrazoi nagusiak ere argitu nahi da.

#### *6.4.5.1. Euskara ikasteko motibazioak*

Orain euskara ikasten ari direla eta ikasten ez egonda ere euskara jakitea gustatuko litzaiekeela esan dutenei (lagineko 341 lagunei guztira) euskara ikasteko ahalegina egiteko arrazoi nagusi bi seinalatzeko eskatu zaie, garrantzitsuenetik abiatuz. Lehenengo arrazoi bezala ondokoak aipatu ditu parentesi artean ematen den ehunekoak: gure hizkuntza delako (erantzuleen %23,70k), umeei etxeko lanekin laguntzeko (%23,10k), lan-aukera handiagoak izateko (%17,30k) eta euskaldunekin hitzegiteko (%12,60k), besteak beste. Bigarren arrazoi moduan ondokoak dira aipatuenak: norbera aberasteko (%19,60k), euskaldunekin hitzegiteko (%18,10k), lan-aukera gehiago izateko (%14,19k) eta umeei etxeko lanekin laguntzeko (%11,40k).

**10. TAULA: Euskara ikasteko ahalegina egiteko erabakia hartzerakoan lehen eta bigarren arrazoi garrantzitsuenak**

| HE INTENTADO O ME GUSTARÍA APRENDER EUSKERA... | Primer aspecto más importante | Segundo aspecto más importante |
|---|---|---|
| Porque es nuestra lengua | % 23,70 | % 7,30 |
| Para poder ayudar a las/los niños con los deberes | % 23,10 | % 11,40 |
| Para poder optar a más trabajos | % 17,30 | % 14,90 |
| Para poder comunicarme en euskera con las/los vascohablantes | % 12,60 | % 18,10 |
| Para enriquecimiento personal | % 10,20 | % 19,60 |
| Por contribuir a que no se pierda | % 7,00 | % 9,90 |
| Porque en mi entorno familiar o de amistad algunos lo hablan | % 2,30 | % 5,60 |
| Por respeto a los y las vascohablantes | % 2,00 | % 3,80 |
| Por acceder al entorno cultural vasco | % 1,20 | % 6,70 |
| No contesta | % 0,60 | % 2,60 |

Lehen edo bigarren arrazoi moduan gehien aipatutakoak, beraz, umeei etxeko lanekin laguntzeko, lan-aukera gehiago izateko eta gure hizkuntza delako dira. Badirudi euskara ikasteko ahalegina egiteko motibazio nagusi bi daudela: alde batetik, tresna motibazio argia (umeei laguntzeko, lan-aukera gehiago izateko) eta bestetik, identitate edo barneko motibazioekin lotuta daudenak (gure hizkuntza delako). Izan ere, 10. taulan ageri diren lehen bost itemetan lehen arrazoi moduan eta bigarren arrazoi moduan emandako kopuruak baturik antzeko ehunekoa dago: %30.

### 6.4.5.2. Zein baldintzatan ikasiko luketen euskara

Hizkuntza bat heldutan ikasteko motibazioez gain, zein baldintzatan egingo luketen euskara ikasteko ahalegina ere galdetu zitzaien, nahi beste baldintza emateko aukera emanez. 16. irudiak baldintza bakoitza ehuneko zenbatek erantzun duen biltzen du:

16. IRUDIA: **Euskara ikasteko baldintzak**




Hamaseigarren irudiak dakartzan datuak positiboak dira: batetik, sekula ahaleginik egingo ez luketela erantzun dutenak oso gutxi dira (%3 baino gutxiago). Bestetik, oso ehuneko altuak euskara ikasteko modu tradizionala ez den bide batetik saiatzeko interesa erakutsi du: seme-alabek egiten dituzten jarduerekin lotuta (%76k), norberaren gustuko jardueraren baten bidez (%73k), edo egunero ordu birako euskaltegira joatea eskatuko ez balu (%72,5k). Gehien-gehienek (%80,10) funtzionarioen modura liberatuta egongo balira erantzun dute, konpromiso txikiena (agian irrealena eta sekula egingo ez den *desideratuma*) erakutsiz.

Seme-alabek egiten dituzten jarduerekin lotutako aldagaiak sakonago aztertzea merezi du. Identitate-sentimenduarekin gurutzatuz gero zera ikusten dugu: haien burua gehien bat espainiar sentitzen dutela esan dutenen artean %47,20k seme-alabek egiten dituzten jarduerei lotuta ahalegina egiteko prest daudela esan dute. Datu hau oso kontuan hartu behar da euskara bultzatzeko esku-hartze neurriak hartzerakoan. Pentsatu beharko litzateke zein baliabide eskaini gurasoei seme-alabei laguntzeko euskara ikas dezaten, talde honek izan dezakeen motibazio bakarra edo bakarrenetakoa seme-alabekin lotuta egon baitaiteke.

**11. TAULA: Umeekiko jarduerekin lotuta euskara ikasi identitate-sentimenduaren arabera**

| G8-2: Estaría dispuesto a aprendier euskera si fuera en actividades unidas a las que hacen mis hijos | | | |
|---|---|---|---|
| | **Gehien bat espainiar hiritar** | **Espainiar bezain euskal herritar** | **Gehien bat euskal herritar** |
| Bai | 47,2 | 79,70 | 80,90 |
| Ez | 52,8 | 19 | 18,1 |
| Ez du erantzun | 0 | 1,3 | 1,0 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |

Ez da harritzekoa **euskal abertzaletasun** continuuma kontuan hartuta abertzale direnen ehuneko altuagoak (88,10; ez abertzale ez ez-abertzaleen %77,10; eta ez-abertzaleen %64,70) seme-alaben jarduerekin batera euskara ikasteko ahalegina egiteko prest agertzea, baina deigarria da gehien bat espainiar (**identitate sentimendua**) sentitzen direnen hain ehuneko altuak (%47,2) seme-alaben jardueraren batekin lotuta euskara ikasteko ahalegina egingo luketela esan izana (espainiar eta euskal herritarren %79,70 eta *gehien bat euskal herritar*ren %80,9k gauza bera esan dute).

Bestalde, **eskuin-ezker** aldagaiak ez du eragiten galdera honetan (haien burua ezkertiartzat dutenen %74,8k seme-alaben jarduerekin lotuta euskara ikasteko ahalegina egingo luketela esan dute; zentroko posizioa hartu dutenen 71,70; eta eskuindartzat dutenen %71,70). Datu horiek seme-alabak guztientzat direla motibazio ona, eskuindar zein ezkertiar izan, erakusten dute eta, beraz, seme-alaben motibazioaren inguruan lan egin beharko litzatekeela.

Gainera, arestian (3.3.3. atalean) esan dugun moduan, euskara ikasteko motibazioak askotarikoak izan daitezke eta, motibazio batzuk besteak baino eraginkorragoak direla onartuta ere, denak kontuan hartu beharko lirateke mota askotariko pertsonak euskarara hurbildu daitezen. Abertzale ez direnen eta *gehien bat euskal herritar* sentitzen ez direnen euskara ikasteko motibazioak zeintzuk izan daitezkeen sakonago aztertu beharko litzateke.

### 6.4.5.3. Euskara ez ikasteko arrazoiak

Lagineko erantzuleek zein baldintzatan ikasiko luketen ikusita, orain azter dezagun ikasten ez daudenek (lagineko gehienak, bestalde, arestian esanda bezala) zein arrazoi aipatu duten momentu honetan ez ikasteko: gehienek (%60) denbora falta aipatu dute. Nahi beste arrazoi emateko eskatu zitzaien. Ikus 17. irudia.

**17. IRUDIA: Euskara ez ikasteko arrazoiak**




Gutxien aipatu den arrazoia (%6 eskas) inolako interesik ez dutelako da; datu hau euskararako oso positiboa da, jakina. Hala ere, esateko orduan oso markatua denez, erlatibizatu behar da ehuneko hori. Arrazoi garrantzitsu moduan agertzen dira, bestalde: beste lehentasun batzuk izateagatik (%31,90k aipatu du), zaila delako (%31,60) eta nahikoa motibaziorik ez edukitzeagatik (%18,90). Gai ez sentitzeagatik ere oso gutxik (%9,20k) aipatu du.

Arestian esan bezala, denbora falta aipatu dute gehienek euskara ez ikasteko arrazoi moduan. 5.2.6 atalean aipatu denez, euskara ez dakiten askok bere burua justifikatzeko beharra sentitzen dutela erakutsi du azterketa kualitatiboak. Denbora falta norberaren burua zuritzeko aitzakia izan daiteke,

baina baita helduentzat, lan eta familia-ardurak izanda, benetako arazoa ere. Bestalde, motibazio nahikorik ez izatea edo euskara lehentasuna ez izatea ere askok aipatu dute. Azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak, biek, argi erakutsi dute *euskara zaila da* aurreiritzia oso zabalduta dagoela; sakonago aztertzea merezi du. 4.1. atalean aipatu denez, aurreiritzi hau oso kaltegarria baita euskara heldutan ikasteko orduan eta sarri *ezinezkoa da euskara heldutan ikastea* aurreiritziarekin batera ageri da. Bestalde, batzuetan euskararen kontrako jarrera ere ezkuta dezake. Ikus ondoren datorren 6.4.5.1. azpiatala; bertan aurreiritzi hori sarriago nortzuk erabiltzen duten aztertzen da eta datu hori kontrako ezkutuko jarrerak azalarazteko lagungarria izan daiteke.

Azkenik, esan behar da badagoela estatistikoki adierazgarria den erlazioa euskara ikasteko motibazio nahikorik ez izan eta euskararen presentzia, abertzaletasun eta identitate sentimenduaren artean: ez ikasteko nahikoa motibazioa ez daukatela arrazoi moduan eman dute euskararen presentzia urria daukatenek, ez-abertzale eta gehienbat espainiar sentitzen direnek, ehuneko altuagoan euskararen presentzia handia dutenek, abertzale direnek eta gehienbat euskal herritar sentitzen direnek baino, hurrenez hurrez. Edo beste modu batera esanda, badirudi euskararen presentzia handia izatea (sare euskaldunetan egotea), abertzalea izatea eta gehienbat euskal herritar sentitzea lagungarria dela euskara ikasteko motibazioa izateko

### 6.4.6. Aurreiritziak eta arinkeriak

Ikerketa kualitatiboan azaleratutako aurreiritzi eta arinkeria garrantzitsuenak zein maiztasunarekin ageri diren jakin nahi da orain. Horretarako, baieztapen batzuen ostean, adostasun maila emateko eskatu zaie elkarrizketatuei. Atal honetan, beraz, galde-sortaren bidez bildu den aurreiritzi eta arinkerien inguruko erantzunen berri emango da, laugarren kapituluan eman den sailkapenari jarraituz, eta hiru multzotan banatuta: lehenik, bereziki euskarari buruzkoak; bigarrenik, edozein hizkuntzaren jabekuntza eta ikaskuntzari dagozkienak (baita euskararenari ere), eta azkenik, elebitasun eta eleaniztasunari buruzkoak.

### 6.4.6.1. Euskarari buruzko aurreiritziak

**(a) *Euskara hizkuntza ederra da***

Liburuaren lehen partean (ikus 4.1 (a) azpiatala) azaldu denez, lagun batzuek, euskara hizkuntza ederra, berezia edo aberatsa dela esaterakoan, berarekiko idealizazio handia erakutsi dute. Horrelako balorazio estetikoek euskaldunekiko balorazio positiboa ezkutatzen dute. Baina zenbatek eman dute balorazio positibo hori? Ikus 18. irudia:

**18. IRUDIA: *Euskara hizkuntza ederra da* aurreiritzia**




Erantzuleen gehiengoak (%67,4) balorazio positiboa egin duen bitartean, hamarretik batek baino gutxiagok adierazi du desadostasuna (“en desacuerdo” gehi “muy en desacuerdo”), nahiz eta ez den derrigorrean pentsatu behar ez adostasunak euskara hizkuntza itsusia dela esan nahi denik edo balorazio negatiboa egiten denik.

### (b) *Euskara baserritarren hizkuntza da*

Aurreiritzi hau oso zabal egon da iraganean. Gaur, euskarak prestigioa irabazi duenez, aurreiritzi hori gutxitu delako zantzuak daude eta hau egiaztatzeko “El euskera sigue siendo una lengua de aldeanos” baieztapenari adostasuna emateko galdera dago.

19. IRUDIA: ***Euskara baserritarren hizkuntza da*** **aurreiritzia**




Euskara baserritarrekin lotzen dutenak gutxi dira: %8,5. Zalantzarik gabe, *Euskara hizkuntza ederra da* eta *Euskara baserritarren hizkuntza da* aurreiritzien azterketa kuantitatiboak euskarak garai baten zeukan estigmatizazio hura gainditu duela erakusten du.

### (c) *Euskara hizkuntza zaila da*

*Euskara hizkuntza zaila d*elako aurreiritzia aztertzeko euskara ez ikasteko arrazoi moduan eman zaie erantzuleei. Aurreko atalean esan den bezala (6.4.4), galdesorta erantzun duten %31,60k adierazi du euskara ez ikasteko arrazoi moduan “zaila delako” (G-9.6). Bestalde, “euskara heldutan ikastea

ia ezinezkoa da" (G-10.7) baieztapenarekin ados dauden galdetu denean %45,3k ados dagoela esan du, %14,70 ez ados ez desados, eta %37,50k ez dagoela ados. Azter dezagun aurreiritzi hau sakonago. Norengan ageri da sarriago?

Batetik, lehen mailako **ikasketak** baino ez dituztenen %45,10k euskara ez ikasteko arrazoiak ematerakoan "oso zaila delako" esan du, bigarren mailako ikasketak dituztenen %22,4ak eta unibertsitate-ikasketak dituztenen %22,04ak. Hau da, aurreiritzi hori ikasketa gehiago dutenen artean ez dago hain zabalduta, besteak beste, modu "akademikoan" ikasteko zailtasun gutxiago dituztelako, seguruenik.

Bestetik, arrazoi hori (euskara ikastea zaila delako) **identitate-sentimenduarekin** gurutzatzen dugunean datu interesgarriak agertu dira:

**20. IRUDIA:** ***Euskara zaila*** **da aurreiritzia identitate-sentimenduaren arabera**




Haien burua *gehien bat espainiar* dutenen erdiak (%50,60) euskara zaila delako arrazoia eman du, *bai espainiar bai euskal herritar* dutenen hirutik batek (%29,20) eta *gehien bat euskal herritar* dutenen lautik batek (%24,20). Euskara zaila delako pertzepzioa berez ez dute zertan sarriago izan identitate-

-sentimendu bat edo bestea dutenek eta, gainera, azterketa kualitatiboan erakutsi den moduan, izan daiteke euskararen kontrako ezkutuko jarrerak egotea horren oinarrian. Edozein kasutan, auzitan jartzen ez den aurreriritzi hori euskara ikasteko oso kaltegarria da: kontrako jarrera dutenek aitzakia moduan erabil dezakete baina kontrako jarrera ez dutenenentzat ere frustrazio eta errudun-sentimenduen iturburu izan daiteke, euskara ikastea kasu askotan oso neurri handian oztopatuz.

### 6.4.6.2. Jabekuntza eta ikaskuntzari buruzko uste orokortuak

#### (a) *Euskara heldutan ikastea ezinezkoa da*

*Euskara zaila da* aurreiritziarekin batera *euskara heldutan ikastea ezinezkoa da* aurreiritzia aztertzea komenigarria da. Horregatik, aurreiritzi bi horiek biltzen duen baieztapenarekin adostasuna emateko eskatu da galdesortan. 21. irudian ikusten denez, erdia baino gehiago ados edo guztiz ados dago emandako baieztapenarekin: ”ia ezinezkoa da heldutan euskara ikastea oso hizkuntza zaila delako”.

21. IRUDIA: ***Ezinezkoa da euskara heldutan ikastea* aurreiritzia**



Lagineko erdia (%45,3k) aurreiritziarekin ados edo oso ados dagoela esan izanak (soilik %14,70 ez ados ez desados daude eta %37,80k desados) zer pentsatua ematen du: ikerketa kualitatiboaren ondorioz esan dugun moduan, euskararako guztiz oztopatzaileak diren bi aurreiritzi horiek oso zabalduta daude. Hortaz, 4.1. eta 4.2. ataletako laukietan esandako eta gomendatutakoak ekarri behar dira hona berriro: *euskara zaila da* eta *euskara heldutan ikastea ezinezkoa da* aurreiritziak desegitea komenigarria da. Horretarako, egokia izan daiteke kontrakoa erakusten duten lekuko ezagunen bidez (kirolari, artista, politikari famatuen bidez) publizitate-kanpainak egitea.

**(b)** ***Hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk***

Edozein hizkuntzari dagokion eta eleaniztasunerako mesedegarria den aurreiritzia euskararen kasuan ondokoa da: errazagoa da beste hizkuntza bat ikastea euskara eta erdara, biak, badakizkizu.

Laugarren kapituluan esan dugun moduan, hau giltzarri izan daiteke berez barneko motibazio handirik ez daukaten familia erdaldunek haien seme-alabak hezkuntza eredu elebidunetan matrikula ditzaten.

**22. IRUDIA:** ***Hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste batzuk* aurreiritzia**



Hogeitabigarren irudian erakutsi bezala, %30 inguru baino ez dago ados aurreiritzi horrekin. Gainontzekoei (ez dakitenei, %16,40, eta ados ez daudenei, %36,30 eta ez ados ez desados erantzun dutenei %17,10) elebitasunaren alde onak ikustarazi behar zaizkie. Batez ere ados ez daudenen portzentaje oso altua da (ados egon ez: %28,90 eta guztiz ados egon ez %7,40). Elebitasun goiztiarraren onurak gizartean zabaltzeko ahalegin handiak egin beharko lituzkete arduradunek, batez ere guraso gazteen artean.

### (c) *Ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko*

Ikerketa kualitatiboan antzeman den aurreiritzi horren presentzia ugaria egiaztatu da ikerketa kuantitatiboan ere. Ia hirutik batek (%29,30) euskaraz ikasten duten ume erdaldunek gutxiago ikasten dutela uste du eta ia bostetik batek (%18,40) ez daki erantzuten. Tamalgarria da gizartean hezkuntza sistema elebidun eta eleanitzek balia dezaketen edukien transferentzia eta hizkuntzen trataera bateratuari buruz zeinen ezjakintasun handia erakusten duten erantzun hauek. 4.3. atalean adierazi den bezala, lehen hizkuntzan eta eskolan ikasitakoan behar bezalako gaitasuna badute ikasleek eta ikaste prozesua behar bezala ematen bada ez dago inolako arazorik lehen hizkuntza ez den beste baten arrakasta akademiko osoarekin ikasteko.

**23. IRUDIA:** ***Ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko* aurreiritzia**



Ehuneko berrogei baino gutxiagok dauka argi ez dagoela arazorik etxean euskaraz ikasi ez eta hezkuntza sisteman euskaraz aritzeko. Aurreiritzia oso zabalduta dago eta plangintza-neurri zehatzak hartu beharko lirateke ikastetxeetan irakasle eta gurasoen artean uste oker hori ezabatzeko.

### 6.4.6.3. Elebitasunari buruzko aurreiritziak

**(a) *Hobe da denontzat hizkuntza bakarra egotea*; *Hizkuntzak galtzeak ez dauka garrantzirik***

*Hobe da hizkuntza bakarra egotea* uste orokortua oso kaltegarria da euskara moduko hizkuntza txikietarako eta, 4.3. atalean aipatu den moduan, askotan hizkuntza txiki edo ahulen kontrako jarrera ezkutua erakusten du. Ikus dezagun aurreiritzi hori zein maiztasunarekin ageri den:

**24. IRUDIA:** ***Hobe hizkuntza bakarra*** **aurreiritzia**




Aipagarria da baieztapenarekin ados edo oso ados daudenen ehuneko oso altua: %38. Datu hau kezkagarria izan daiteke: batzuek, modu arinean, hizkuntza bakarraren komunikaziorako abantaila “ideal” praktikoa erakusten

dutela dirudi. Erantzun hori *hizkuntza aniztasuna komunikazio eraginkorrerako muga* delako uste okerrean oinarrituta egon daiteke.

Alabaina, euskara jokoan dagoenean, galtzeko posibilitatea arazo moduan sumatzen dute gehien-gehienek (ia %70). Badirudi hizkuntza zehatz baten galera posiblea aipatuta, eta batez ere, euskara aipatuta, auzia “zail” (hizkuntzarekin batera galdu daitezkeen gauza positiboak galdu daitezke-eta) sumatzen dela.

**25. IRUDIA:** ***Euskara galtzea ez da arazoa*** **aurreiritzia**




### (b) *Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz berba egitea*

Aurreiritzi hau ere oso kaltegarria da euskara moduko hizkuntza txikientzat eta, gainera, kontrako jarrera ezkutatu dezake, 4.3. atalean esan den bezala. Hurrengo irudiak (26.ak) aurreiritzia, zuzenean, neurtzen duten datuen berri ematen du:

**26. IRUDIA:** ***Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz hitz egitea*** **aurreiritzia**




Kontuan hartzekoa da erdaldunak egonda euskaraz berba egitea heziketa txarrekoa dela baieztapenarekin ados eta guztiz ados daudenen ehuneko oso altua: 62,7 guztira. Alabaina, egoera posible hori pertsonalizatzen denean, norberari bere aurrean euskaraz egitea inporta zaion ala ez galdetzen denean, ia beste hainbesteri (ia %60ri) ez zaio ardura bere aurrean euskaraz egitea. Ikus 27. irudia.

**27. IRUDIA:** ***Euskaraz norberaren aurrean egitea***



Badirudi, elebitasuna barneratu dela erdaldunen artean eta normal antzematen dela, seguruenik, euskarak prestigioa eta presentzia soziala irabazi duelako. Gainera, azken bi irudietako itxuraz kontraesankor diren datuei dagokienez, *denek hitz egiten duten hizkuntzan hitz egin behar da* aurreiritzia uste orokortua da, kontzientziapean dagoena eta oso zaila dena gainetik kentzen (26. irudiko % 62,7), nahiz eta gero norberaren esperientzia edo sentimendua galdetuta, edo euskarak prestigioa irabazi duelako edo kontrakoa esatea politikoki zuzena ez delako pertzepzioa dagoelako, eurei inporta ez zaiela erantzuten duten askok (27. irudiko ia %60).

### (c) *Arrosa koloreko etorkizuna*

*Arrosa koloreko etorkizuna* deitu dugun arinkeria (euskararen egoera, berez, denborarekin hobetuko dela pentsatzea) kuantitatiboki aztertzeko hurrengo baieztapenarekin adostasuna erakutsi behar zen: “El problema del euskera se solucionará con el tiempo porque las y los niños lo aprenden en la escuela”.

**28. IRUDIA: *Arrosa koloreko etorkizuna* aurreiritzia**




Aurreko irudiak (28. irudiak) erakusten duenez, baikortasuna nahikoa orokortua dago: %67,5 ados edo guztiz ados dago baieztapenarekin. *Euskara galtzear dago* aurreiritzia gutxitu dela eta *arrosa koloreko etorkizuna* nahikoa

zabalduta dagoela esan daiteke. Badirudi eleaniztasun egoeran hizkuntza gutxituaren mehatxuez hobeto informatuta dagoenak ez erantzun edo ez ados ez desados esan beharko lukeela. Ildo horretatik, gogoratu azterketa kualitatiboak *arrosa koloreko etorkizuna* (ikus 5.2.8. azpiatala) erdaldunen artean zabalago dagoela, eta ostera, *euskara galtzear dago* aurreiritzia euskaldunen artean (ikus. 4.1. azpiatala) erakutsi dutela. Edozein kasutan, oso kezkagarria da euskara jadanik mehatxatuta ez dagoelako pertzepzioa zabala izatea. Arestian esan den moduan (3.1. azpiatalean), erakunde publikoek euskara babesten dutenez eta bere aldeko plangintza egiten dutenez, batzuek (erdaldun gehienek, azterketa kuantitatiboak erakutsi duenez) erantzukizuna eurengandik uxatu eta erakundeen eskuetan uztea oso arriskutsua da euskararen etorkizunerako. Izan ere, euskararen etorkizuna bermatzeko gizartearen inplikazioa behar da. Euskarak hizkuntza gutxitua izaten jarraitzen du eta hala helarazi behar zaio erdal gizarteari, hizkuntza txikiek dituzten mehatxu eta presioen berri argi emanez.

### (d) *Euskara enpresentzat zama da*

Aurreiritzi hau ikerketa kualitatiboan ageri da baina han ezin izan da argitu noraino zabalduta dagoen. Horregatik, kuantitatiboki aztertu nahi izan da, lagineko erantzule guztiei galdetuta. Emaitzak ondoko irudiak biltzen ditu:

**29. IRUDIA:** ***Euskara enpresentzat zama da*** **aurreiritzia**



Datuok interpretatzea ez da erraza: batetik, bostetik batek ez du erantzun, galdera ez duelako ulertu edo enpresa mundua ez ezagututa ez dakielako erantzuten. Bestetik, %40 inguruk ez du uste zama denik, nahikoa ehuneko altua, duda barik. Azterketa kualitatiboan enpresa-munduko jarrerak ikertu dira, eta bertan ikusi da *euskara enpresarentzat zama dela* aurreiritzia dagoela (ikus 3.4.3.1.(b)). Nolanahi ere, lagin kuantitatiboak ez du eman biderik aurreiritzi hori hedatuta dagoen ala ez baiesteko. Hala ere, arlo honen azterketa berezia egitea komeniko litzateke.

## 6.5. EUSKARAREN SUSTAPENARI BURUZKO PARTAIDEEN BALORAZIOA

*Bai-bainako*en ezaugarri bereizgarrienetako bat euskarari eta hizkuntza-politikari ematen zaion sustapenari mugak ezartzea dela ikusi da 5.2.3. azpiatalean. Ikerketa kuantitatiboko helburuetariko bat euskararen aldeko plangintzan erantzuleek mugak zertan ipintzen dituzten, partaideentzat zer izan daitekeen arrazoizkoa (zilegi, zentzuzkoa) egitea eta zer ez zehaztea da. Bestalde, euskararen aldeko politikan adostasun-atalaserik dagoen jakin nahi da eta, baldin badago, zertan dagoen adostasun zabala.

Gainera, mugak ipintzeko orduan giza-talde ezberdinek antzeko moduan jokatzen duten argitu nahi da, edo beste modu batera esanda, EAEko erdaldunak ordezkatzen duen lagineko erantzuleak, euskararen alde egiten den politikari ematen dioten adostasunean oinarrituta (G-4 multzoan neurtu dena), talde ezberdinetan sailkatu daitezkeen egiaztatu nahi izan da eta ikusi ea talde bakoitzak ezaugarri propio komunak dituen.

### 6.5.1. Kluster azterketa

Arestian esan denez, euskararen alde egiten den hizkuntza-politikari partaideek nolako adostasun-maila erakusten duten ikusteko, eta adostasun horren arabera partaideak multzo edo klusterretan sailkatu ahal izateko, erabili diren galderak azterketa kualitatiboko emaitzetan oinarritu dira. Han *bai-bainako* identifikatu ditugun solaskideek aipatu dituzten gaiak ez ezik, haien berba-

lizazioak eta adibide zehatzak ere erabili ditugu, inkesta-erantzuleek erraz ulertuko dituztelakoan eta haiekin identifikatuko direlakoan. “Arazotsu” edo *bai-bainako*en talde konplexu horren diskurtsoan ageri diren gai, berbalizazio eta adibide zehatzak EAEko erdaldunek osatutako inkesta-erantzule guztiei galdetu zaizkie.

Behin klusterrak lortuta, beste aldagai batzuekin gurutzatu dira, kluster bakoitzaren profila ezagutzeko, hau da, kluster bakoitzaren ezaugarri soziodemografiakoak eta jarrera komunak antzemateko. Hartara, erantzuleen tipologia bat deskribatu ahal izango da, beti ere argi utzita erantzuleak sailkatzeko tipologia euskararen aldeko hizkuntza-politikari ematen dioten adostasunean, ez beste ezertan, oinarrituta dagoela.

Esan bezala, galdesortaren diseinua egiterakoan ikerketa kualitatiboan modu esanguratsuan agertu ziren plangintza-neurriei buruzko ideiak dira aukeratu direnak. Kluster analisia egiteko G4 galdera-multzoa erabili da. Ondoko taulan ikusten den bezala, galdesortako baieztapen batzuk euskararen aldekoak dira eta beste batzuk kontrakoak. Batzuk birkodetu behar izan dira, denak norabide berean ager daitezen, alegia euskararen aldeko, era horretan estatistikoki errazago kudea daitezke eta.

**12. TAULA: Kluster azterketa egiteko aldagaiak**

| |
|---|
| 4. “Hablando de las acciones que se están llevando a cabo desde la administración pública a favor del euskera, dígame, por favor, en qué medida está de acuerdo o no con las afirmaciones que le voy a leer, siendo 1 muy en desacuerdo y 5 muy de acuerdo.” |
| 4.1. Es imprescindible que se exija que hablen euskera los funcionarios que trabajan de cara al público. |
| 4.2. En profesiones, como por ejemplo cirujanos, no se les debería exigir que sepan euskera.<br>BIRKODETUTA: En profesiones, como por ejemplo cirujanos, se les debería exigir que sepan euskera. |

(…)

**12. TAULA: Kluster azterketa egiteko aldagaiak**

| |
|---|
| 4.3. La política lingüística a favor del euskera está imponiendo el euskera por decreto.<br>BIRKODETUTA: La política lingüística a favor del euskera no está imponiendo el euskera por decreto. |
| 4.4. Se deberían respetar los derechos de los que no quieren aprender euskera.<br>BIRKODETUTA: No se deberían respetar los derechos de los que no quieren aprender euskera. |
| 4.5. Para poder respetar los derechos de las y los hablantes de euskera, los funcionarios deben ser bilingües. |
| 4.6. Si se quiere salvar una lengua en peligro hay que tomar medidas para favorecerla, aunque no gusten a todos. |
| 4.7. Debería haber distintos ritmos en la promoción del euskera, no es igual una persona que otra, un municipio que otro.<br>BIRKODETUTA: No debería haber distintos ritmos en la promoción del euskera, es igual una persona que otra, un municipio que otro. |
| 4.8. Se ha querido recuperar el euskera demasiado rápido.<br>BIRKODETUTA: No se ha querido recuperar el euskera demasiado rápido. |
| 4.9. Pedir que se sepa euskera para hacer oposiciones es inaceptable porque es discriminatorio.<br>BIRKODETUTA: Pedir que se sepa euskera para hacer oposiciones es aceptable porque no es discriminatorio. |
| 4.10.No se debería pretender generalizar el uso del euskera a toda la población de Euskadi.<br>BIRKODETUTA: Se debería pretender generalizar el uso del euskera a toda la población de Euskadi. |
| 4.11. Es imprescindible gastar dinero público en la promoción del euskera. |
| 4.12. No hay que dejar morir el euskera. |
| 4.13. Estoy de acuerdo con que se apoye el euskera. |
| 4.14. Para que el euskera no se pierda es necesario extender su uso, aunque pueda entenderse como una imposición. |
| 4.15. Los esfuerzos para apoyar el euskera son inútiles porque siempre va a estar en posición de riesgo.<br>BIRKODETUTA: Los esfuerzos para apoyar el euskera son útiles porque no siempre va a estar en posición de riesgo. |

(…)

12. TAULA: **Kluster azterketa egiteko aldagaiak**

| |
|---|
| 4.16. Es un poco absurdo hacer tanto esfuerzo por el euskera cuando luego no se ve que se hable.<br>BIRKODETUTA: No es absurdo hacer tanto esfuerzo por el euskera cuando luego no se ve que se hable. |
| 4.17. Los costes que está teniendo la política lingüística a favor del euskera son razonables. |
| 4.18. Hay que respetar el euskera. |
| 4.19. El euskera ya no está en peligro de desaparición.<br>BIRKODETUTA: El euskera todavía está en peligro de desaparición. |
| 4.20. Los y las niñas de Euskadi deben aprender euskera. |

Lehenengo azterketan kluster hierarkikoaren analisia egin da. Analisia honen bidez erantzuleak taldeetan banatzen dira aldagai bakoitzean (galdera bakoitzean) eman duten erantzuna kontuan hartuta: taldeek barneko homogeneotasuna behar dute eta beste taldeekiko heterogeneotasuna. Lehendabizi erantzun berdin-berdinak eman dituztenak biltzen ditu kluster hierarkikoak eta gero antzekoak diren multzo edo taldeak batzen ditu, elementu denak multzo gutxitan egon arte, eta jarraian egiten den talde-egitura berrian beti aurreko egituran dauden talde batzuk egitura berrian integratuz. Momentu horretan G4-7 itemak emaitza atipikoak erakutsi ditu, agian formulazioa anbiguoa edo konplexuegia delako, partaideek interpretazio ezberdina egin dute. Horregatik, item hori analisitik ateratzea erabaki da.

Ondoren, berriro metodo ez-hierarkikoen bidez burutu da kluster analisia, hiru aldiz: multzo edo kluster bi egin ditzan eskatuta, hiru multzo egin ditzan eskatuta eta lau multzo egin ditzan eskatuta. Azken hiru analisi hauetan argi ikusten da bi multzo oso ezberdin daudela; lau multzoko aukeran erdiko bi multzoak antzekoak dira; eta inkesta-erantzuleak bi multzotan sailkatu ezkero bi talde horiek ez dira, ezinbestean, oso homogeneoak. Horregatik, hiru multzoko soluzioaren alde egin da.

Behin onena hiru multzoko soluzioa dela erabakita, multzo edo kluster bakoitza interpretatu da. Horretarako, analisirako erabili diren aldagai (galde-

ra) guztietan kluster bakoitzean kokatuta dauden erantzuleen batez besteko emaitza konparatu da. Ondoren datorren irudiak (30.ak) kluster bakoitzak galdera bakoitzean eman duen batez bestekoa dakar:

30. IRUDIA: **Klusterren item bakoitzaren batez bestekoa**




| | G4.1 | G4.2 | G4.3 | G4.4 | G4.5 | G4.6 | G4.8 | G4.9 | G4.10 | G4.11 | G4.12 | G4.13 | G4.14 | G4.15 | G4.16 | G4.17 | G4.18 | G4.19 | G4.20 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aldekoagoak | 4,36 | 2,96 | 3,19 | 2,47 | 4,35 | 4,28 | 3,86 | 3,85 | 3,39 | 4,33 | 4,72 | 4,68 | 3,93 | 4,01 | 4,15 | 3,54 | 4,67 | 2,86 | 4,61 |
| Bai-bainakoak | 3,6 | 2,27 | 2,43 | 1,7 | 4,02 | 3,95 | 2,27 | 2,26 | 2,06 | 3,92 | 4,27 | 4,27 | 3,52 | 2,89 | 2,79 | 3,33 | 4,26 | 2,31 | 4 |
| Kritikoagoak | 2,47 | 1,89 | 1,82 | 1,61 | 3,25 | 2,68 | 2,1 | 2,03 | 1,92 | 2,8 | 3,78 | 3,73 | 2,24 | 3,39 | 2,9 | 2,26 | 4,02 | 2,61 | 3,49 |

Euskararen alde hartutako plangintza-neurri edo ideien aurrean kluster bakoitzak zein batez bestekoa eman duen ageri da 30. irudian. Gogoratu 5ak neurri edo aurreiritziarekiko adostasun osoa adierazten duela eta 1ak desadostasun borobila. Batez besteko horiek aztertuta klusterrak deskribatu daitezke:

- ***Aldekoagoak*** (urdinez irudian): *Aldekoagoen* klusterra aldagai guzti-guztietan adostasunik altuena duena da eta, gainera, batzuetan, beste bi klusterren emaitzekin konparatuta, alde handia erakusten du: jendaurrean lan egiten duten funtzionarioak euskaldunak izatea ezinbestekoa dela uste dute kluster honetakoek (G4-1: 4,36 eta G4-5: 4,35), ez daude ados euskara arinegi berreskuratu nahi izan dela (G4-8: 3,86), ezta oposaketetan euskara eskatzea diskriminatzailea dela baieztapenekin (G4-9: 3,85); beste klusterrekoek baino adostasun handiagoa erakusten dute, batetik, euskararen erabilera zabaldu beharko litzatekeela (G4-10: 3,39), batzuek inposaketa bezala hartuta ere (G4-14: 3,93), eta bestetik, ez dela absurdoa hainbeste ahalegin egitea euskararen alde (G4-16: 4,15). Funtsean, talde honek euskararen aldeko plangintza-neurriekin adostasun altuena erakusten du, guztiei gustatu ez arren. Hemendik aurrera *aldekoagoak* deituko zaie. Lagineko %25 inkesta-erantzule kokatu dira kluster honetan.

- ***Kritikoagoak*** (gorriz irudian): *Kritikoagoen* klusterra galdera gehienetan euskararen aldeko neurriekin adostasunik baxuena duena da. Adostasun altuena item orokorretan ematen dute: G4-18 (euskara errespetatu behar da: 4,02), G4-12 (euskara ez da hiltzen utzi behar: 3,78), P4-13 (ados nago euskararen alde egin behar dela: 3,73). EAEko ume denek euskara ikasi behar dutela (G4-20) itemaren aurrean adostasun baxuagoa erakutsi dute: 3,49. Eta gainontzekoetan oso adostasun maila baxua erakutsi dute: ikasi nahi ez dutenen eskubideak ez lirateke errespetatu behar (G4-4: 1,61), erabilera orokortu beharko litzateke (G4-10: 1,92), euskararen aldeko hizkuntza-politikak ez du inposatzen euskara (G4-3: 1,82). Edo beste modu batera esanda, adostasun handia erakusten dute ondoko item edo baieztapenetan: ikasi nahi ez dutenen eskubideak errespetatu beharko lirateke, euskararen erabilera ez litzatekeela orokortu behar

eta euskara inposatu egiten da. Labur esanda, talde honek euskararen normalizazioaren aurrean onartzen du euskara errespetatu behar dela eta ez dela hiltzen utzi behar, baina neurri zehatzetara joanda adostasun txikiena, eta jarrera kritikoena, erakusten du. Laginaren %30 kluster honetan kokatu da. Hemendik aurrera *kritikoagoak* deituko zaie.

- ***Bai-Bainakoak*** (berdez irudian): talde honen adostasun maila aldagai gehienetan *aldekoagoen* eta *kritikoagoen* taldeek emandako batez bestekoen artean dago, item batzuetan talde horietako batetik oso hurbil eta beste item batzuetan talde biren erdi-erdiko posizioan kokatuz. Batzuetan, *aldekoagoen* taldearekin lerrotzen da: euskara salbatzeko neurriak hartu behar dira, guztiei gustatu ez arren (G4-6an B: 3,95; A: 4,28; C: 2,68), euskara biziberritzeko dirua gastatu behar da (G4-11, B: 3,92; A: 4,33; C: 2,80) eta politika linguistikoaren kostea arrazoizkoa da (G4-17, B: 3,33; A: 3,54; C: 2,26). Alabaina, beste aldagai batzuetan *kritikoagoen* taldearen iritzietatik hurbilago dago: haien iritzian, funtsean ikasi nahi ez dutenen eskubideak errespetatu beharko lirateke (G4-4ean B: 1,70; C: 1,61; A: 2,47), euskara arinegi berreskuratu nahi izan da (G4-8an B: 2,27; C: 2,10; A: 3,86), oposizioetan euskara eskatzea diskriminatzailea da (G4-9an B: 2,26; C: 2,03; A: 3,85) eta euskararen erabilera ez litzateke orokortu behar (G4-10ean B: 2,06; C: 1,92; A: 3,39). Azkenik, *aldekoagoen* eta *kritikoagoen* taldeen batez bestekoen erdi-erdian agertu da ondoko itemetan: jendeaurrean lan egiten duten funtzionarioak elebidunak izan behar dira (G4-1ean A: 4,36; B: 3,60; C: 2,47), zirujauei ere eskatu beharko litzaieke euskaraz jakitea (G4-2an A: 2,96; B: 2,27; C: 1,89), euskararen aldeko hizkuntza-politikak ez du inposatzen euskara (G4-3an A: 3,19; B: 2,43; C: 1,82) eta EAEko ume guztiek euskara ikasi behar dute (G.4-20an A: 4,61; B: 4,00; C: 3,49). Kluster honetan lagineko %45 lagun kokatu dira. Hemendik aurrera *bai-bainakoak* deituko zaie.

Euskarari eta hizkuntza-politikari ematen zaion sustapenari mugak ezartzerakoan hiru klusterrak, erraz identifikagarriak badira ere, continuum baten koka daitezkeela esan behar da. Kluster azterketak erakutsi duenez, mugak ez dira kategorikoak ezta diskretuak ere. Kontua ez da kluster bateko lagunek

muga batzuk ipintzen dituztela eta beste batekoek beste batzuk, baizik eta mugak ipintzerakoan adostasun-maila ezberdina dagoela talde batetik bestera. Horregatik, kluster bakoitzari izena ipintzerakoan ere graduazioa azpimarratu nahi izan da.

### 6.5.2. Erantzuleen tipologia

Behin hiru taldeak deskribatuta, *aldekoagoak*, *bai-bainakoak* eta *kritikoagoak*, talde bakoitzaren profila irudikatuko da. Horretarako, erlazio estatistikoki adierazgarria erakutsi duten aldagai soziodemografikoak (adina, ikasketa-maila, ideologia politikoa, identitate-sentimendua, euskararekiko kokapena, euskararen presentzia, eskualde-mota) hiru klusterretan aztertuko dira (6.5.2.1.). Gero, kluster bakoitza euskarara hurbiltzeko zer dagoen prest egiteko arakatuko da (6.5.2.2.). Azkenik, aurreiritziei eta arinkeriei begiratuko zaie, klusterren artean egon litezkeen ezberdintasunak antzemateko (6.5.2.3.). Aldagaia kuantitatiboa denean ANOVA analisia eta kualitatiboa denean kontingentzia taulen analisia egingo da. Estatistikoki adierazgarriak diren erlazioen berri (p 0,05 baino gutxiago edo berdin) baino ez da emango.

#### *6.5.2.1. Klusterren ezaugarri soziodemografiakoak*

**(a) Euskararekiko kokapena**

Euskararekiko kokapena kluster ezberdinetan aztertzeak argi erakusten du euskararen aldeko politikarekin ados egotea erabat lotuta dagoela euskal herritarren *hizkuntza* euskara dela pentsatzearekin: hala uste dute *aldekoagoen* gehienek (%80,6). Ikus 31. irudia.

Bestalde, *bai-bainakoen* taldean kokaturikoen erdiak baino pixka bat gehiagok euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat dela uste du. *Kritikoagoen* taldean % 23,3k euskara dela euskal herritarren *hizkuntza* esan izana ere azpimarratzekoa da: izan daiteke horientzat euskara erabat besteena izatea (ikus 3.1.4. atala) eta, horregatik euskararen aldeko politikarekin ados ez egotea.

**31. IRUDIA: Klusterrak euskararekiko kokapenaren arabera**




Bestalde, azpimarratzekoa da *aldekoago*ek eta *kritikoago*ek erantzun asimetrikoa eman duten bitartean (lehenengo klusterreko gehienek *hizkuntza* dela eta bigarren klusterreko gehienek *hizkuntzetako bat* dela), *bai-bainako*en gutxi gorabehera erdiak *hizkuntzetako bat* eta beste erdiak *hizkuntza* erantzun duela.

### (b) Eskualde-mota

Gogoratu behar da EAEko biztanleriaren (eta laginaren) %75 eskualde erdaldunagoetan bizi dela. Hori kontuan izanik, ez da harritzekoa *aldekoago*en %70,8 ere eskualde erdaldunagoetan bizitzea.

Bestalde, azpimarratzekoa da, *kritikoago*en klusterrean bildu direnen hamarretik bat baino gehiago (%12,5) eta *bai-bainakoen* ia bostetik bat (%18,6) eskualde euskaldunagoetan bizi dela.

**32. IRUDIA: Klusterrak eskualde-motaren arabera**




## (c) Euskararen presentzia

Eskualde euskaldunago edo erdaldunagoan bizi baino norberaren harreman--sareetan euskararen presentzia zein neurritan dagoen esanguratsuagoa izan daiteke.

**33. IRUDIA: Klusterrak euskararen presentziaren arabera**



*Aldekoago*en klusterrean dago euskararen presentziarik handiena, eta presentzia txikia dutenak % 20,8 baino ez dira. *Kritikoago*en klusterreko gehienek euskararen presentzia oso txikia edo bat ere ez daukate eta hamarretik batek baino ez dauka euskararen nahikoa presentzia edo presentzia handia. Bestalde, *bai-bainakoen* klusterrean erdiak baino gehiagok ez dauka sare euskaldunik inguruan. Edo beste modu batera esanda, *aldekoago*en artean gehienek (ia %80k) euskararen presentzia dute; *Bai-bainako*en artean, erdiak euskararen zelanbaiteko presentzia du, eta beste erdiak bat ere ez; eta *kritikoago*en artean hamarretik seik ez dauka presentziarik batere, eta lauk zelanbaiteko euskararen presentzia dute, baina batek baino ez du presentzia handia.

### (d) Identitate-sentimendua

Identitate-sentimendua aztertuta, euskal identitatea nagusia dela ikusten da, euskal identitatea espainiar identitatearekin konpartitua izan ala ez. Lehenengo kasuan, haien burua *espainiar bezain euskal herritar* dutenek gehiengoa osatzen dute *bai-bainakoen* artean (%65,5) eta *kritikoagoen* artean ere (%68,5). Bigarren kasuan, *gehien bat euskal identitatea* dutenak gehienak dira *aldekoago*en klusterrean (%70,1), ia hirutik bat (%26,9) *bai-bainakoen* taldean, eta hamarretik bat baino gehiago (%13,7) *kritikoago*en klusterrean.

34. IRUDIA: **Klusterrak identitate-sentimenduaren arabera**



Bestalde, identitate *gehien bat espainiar*ra hiru taldeetan gutxienena da (gehienez ere kritikoagoen %17,8).

### (e) Euskal abertzaletasuna dela eta

Arestian esan den moduan, euskal abertzaletasuna deitu dugun aldagaia neurtzeko 0tik 10erako eskalan haien burua kokatzeko eskatu zaie, 0 bat ere ez-abertzalea eta 10 abertzalea izanik. Ez da harritzekoa abertzaletasunaren continuumean batez besteko altuena eman duen taldea *aldekoago*ena izatea (5,8), eta baxuena eman duena, berriz, *kritikoago*ena izatea (2,4); *bai-baina-ko*en batez besteko emaitza 4,3 izan da.

### (f) Adina dela eta

Adin-tarteak aztertuta ere, alde aipagarriak ageri dira.

35. IRUDIA: **Klusterrak adin-taldeen arabera**




Lehendabizi, *kritikoago*en taldean adin–tarteak modu orekatsuan ordezkatzen direla aipatu behar da, ezein adin-talde da nagusi. A klusterrekoen artean oso gutxi dira gazteak. Eskualde euskaldunagoetan arazoak izan ditugu

adin-tarte honetako lekukoak aurkitzeko. Izan ere, adin-talde horretan euskararik batere ez jakitea oso markatuta dagoelako izan daiteke A klusterrean hain gutxi izatea.

### (g) Ikasketa-maila dela eta

Ikasketa-maila klusterren arabera begiratzerakoan aldean badaude. Ikus 13. taula.

13. TAULA: **Klusterrak ikasketen mailaren arabera (%)**

| | Aldekoagoak | Bai-bainakoak | Kritikoagoak |
|---|---|---|---|
| Lehen mailako ikasketak | 29,2 | 33,3 | 18,2 |
| Bigarren mailako ikasketak | 51,4 | 44,2 | 38,6 |
| Unibertsitate-mailako ikasketak | 19,4 | 22,5 | 43,2 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |

Ikasketa-mailaren arabera klusterren osaera aztertzeko orduan aipagarria da aldekoagoen artean unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak gutxiago diren bitartean (%19,4k baino ez) kritikoagoen artean %40tik gora direla.

### 6.5.2.2. Zer egiteko prest daude

Klusterren ezaugarriak hobeto deskribatzeko norbanako bakoitza euskararen alde zer dagoen prest egiteko zehaztu behar da. Horretarako, kluster bakoitzaren G-5 multzoko erantzunak aztertuko dira.

#### (a) Seme-alabek ikas dezaten

Azterketa kualitatiboan adostasun handia agertu da belaunaldi gazteak elebidunak izan behar dutela adieraziz, eta azterketa kuantitatiboak datu hori berretsi du. Ikus 36. irudia.

**36. IRUDIA: Klusterrak seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegina itemaren arabera**




Hiru taldeetan oso ehuneko altua dago nahikoa prest edo oso prest bere seme-alabek ikas dezaten ahaleginak egiteko: *aldekoago*en ia %99, *bai-bainakoen* ia %94 eta *kritikoago*en %73,5. Gainera, *bai-bainakoek aldekoago*en antzera jokatzen duten bitartean (seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegin egiteko prestutasun oso handia erakusten duten bitartean) *kritikoago*ek prestutasun txikiagoa eta mailakatua erakusten dute.

### (b) Seme-alabei euskal mundua hurbildu

Seme-alabei euskal mundua gerturatzeko ahaleginarekin antzekoa gertatzen da; izan ere, bi item hauetan adostasun handia dago lagin osoa kontuan harturik (gogoratu 6.4.3. atalean esandakoa).

**37. IRUDIA: Klusterrak seme-alabei euskal mundua hurbiltzeko prestutasunaren araberaa**




Aurreko irudian erakusten denez, hurrengo belaunaldia elebiduna izan beharrak emaitzetan adostasun handia erakusten du berriro ere: adostasun handia dago (oso edo nahikoa prest) baita *kritikoago*en artean ere (%65). Berriz ere, *aldekoago*ek eta *bai-bainakoek* antzeko moduan jokatu dutela ikus daiteke eta *kritikoago*ek horretarako ahaleginak egiteko hain prest agertzen ez badira ere, bat ere prest ez daudenak %8 baino gutxiago direla azpimarratu behar da. Zalantzarik gabe inon adostasun zabala baldin badago belaunaldi gazteak elebidun izan behar duela eta hartarako ahaleginak egiteko prest daudela esatean dago.

## (c) Euskararen aldeko jarreren transmisioa

**38. IRUDIA: Klusterrak euskararen aldeko jarreren transmisioaren arabera**




Seme-alabei euskararen aldeko jarrerak transmititzeko ahaleginak egiteko prest dauden galdetuta, *aldekoago*ek eta *bai-bainako*ek antzeko joera erakusten dute, normala denez, *aldekoago*en prestutasuna handiagoa izanik. Baina, *kritikoago*ek iritzi edo jarrera hartze ezberdin bi erakusten dute: %55,4k prestutasun txikia edo bat ere ez dute eta %44,5 nahikoa edo oso prest daude.

### (d) Euskara ondo eta pixka bat ikasteko ahalegina dela eta

Baina norbera heldutan euskara ikasteko ahalegina egiteko prest dagoen esateko orduan prestutasuna jaitsi egiten da. Ikus ditzagun euskara ondo (39. irudia) eta pixka bat (40. irudia) ikasteko ahalegina kluster bakoitzean.

**39. IRUDIA: Klusterrak euskara ondo ikasteko ahalegina itemaren arabera**




Euskara ondo ikasteko intentzioa euskara biziberritzeko politikaren aldeko jarrerarekin lotuta dago: euskara ikasteko *aldekoago*ek daukate prestutasunik handiena eta *kritikoago*ek txikiena.

**40. IRUDIA: Klusterrak euskara pixka bat ikasteko ahalegina itemaren arabera**




Pixka bat ikasteko intentzioa aztertuta, argi dago prestutasuna, ondo ikasteko prestutasunarekin alderatuta, nahikoa igotzen dela, batez ere *aldekoago* eta *bai-bainako*en artean. Datu hau kontuan hartzekoa da: plangintzari begira, badirudi "pixka bat ikasi nahi izatetik" emaitza oparoagoak lortu daitezkeela euskara ikastea osotasunean hartuta baino, batez ere hain aldekoak ez diren lagunen artean.

Edozein kasutan, *kritikoago*ek ere euskara ikasteko interesa izatea positiboa da. Zein baldintzatan eta zein motibazioak bultzatuta egingo luketen ikusi beharko litzateke. 6.4.4. azpiatalean ikusi denez, seme-alabekin lotutako jardueren bidez euskarara hurbiltzea bultzatzea arrakastatsua izan daiteke.

### 6.5.2.3. Aurreiritzi eta arinkeriak hiru klusterretan

Ondoko irudiak G-10 multzoan emandako aurreiritzi eta arinkerien aurrean kluster bakoitzaren erantzuleek eman duten batez besteko adostasun-maila ageri da. Taldeen arteko batez besteko guztiak dira estatistikaren adierazgarritasunaren aldetik ezberdinak (p .05 baino gutxiago edo berdin). Gogoratu 1tik 5era erantzun behar zela, 1 “muy en desacuerdo” eta 5 “muy de acuerdo” izanik.

41. IRUDIA: Aurreiritzi eta arinkeriak kluster bakoitzean



Irudian ikus daitekeenez, item batzuetan espero daitekeen graduazioa ageri da: esate baterako, *euskara oraindik ere baserritarren hizkuntza da* aurreiritzia kontuan harturik, hiru taldeak baieztapenarekin oso ados ez badaude ere, *bai-bainako*ek *aldekoago*ek baino adostasun maila altuagoa erakutsi dute eta *kritikoago*ek *bai-bainakoek* baino altuagoa. Halere, lehen esan bezala, batez beste oso gutxik onartzen du baieztapen hori. Hiru multzoen lerratzeari dagokionean, gauza bera gertatzen da G10-8 (heziketa txarrekoa da norbaitek ulertzen ez duenean euskaraz egitea), G10-4 (familian erdara ikasi duten eta eskolan euskaraz ikasten duten umeek irakasgaien edukiak txartoago ikasten dituzte) eta G10-3 (niretzat euskara galtzea ez da arazoa) itemetan. Berdin gertatzen da euskarentzat mesedegarriak diren item batzuetan ere: *Euskara hizkuntza interesgarria eta polita* aurreiritziarekin adostasun zabalagoa erakutsi dute *aldekoago*ek *bai-bainakoek* baino eta azken hauek handiagoa *kritikoago*ek baino.

Alabaina, batzuetan *aldekoago* eta *bai-bainakoek* antzeko moduan erantzun dute G10-6: euskararen arazoa berez konponduko da denborarekin) eta beste batzuetan *bai-bainako*ek eta *kritikoago*ek antzeko moduan (G10-7: ia ezinezkoa da euskara heldutan ikastea, G10-2: hobe hizkuntza bakarra eta G10-1: errazagoa da hirugarren hizkuntza bat ikastea euskara eta erdara badakizu). Azken taldeen arteko parekotasun hauek direla-eta, ezin esan genezake zerk eragindakoak izan daitezkeen.

### 6.5.2.4. Klusterren ezaugarriak laburbilduta

Amaitzeko, klusterren ezaugarriak laburbilduko dira. Oso aintzakotzat hartu behar da, arestian esanda bezala, talde edo klusterrak egiteko erabili diren galderak euskara biziberritzeko hizkuntza politika-neurri zehatz batzuk izan direla eta, beraz, azterketa ezin daitekeela orokortu euskararekin zerikusia duten beste ideia batzuetara.

- *Aldekoagoak euskararen aldeko sustapenaren aurrean*: Hirutik bat eskualde euskaldunagoetan bizi da eta euskara lagunarte eta familia-inguruan nahikoa edo oso presente daukate. *Gehien bat euskal herritar* (edo *euskal herritar baino ez*) bezala ikusten dute bere burua eta abertzaleenak dira.

Hamarretik zortzirentzat euskara da euskal herritarren *hizkuntza*. Gehiago dira bigarren mailako ikasketak dituztenak. Gainera, beste bi taldekoek baino euskararen balorazio positiboagoa dute, ez zaie asko inporta haien aurrean euskaraz egitea eurek ulertu ez arren, eta nahikoa konbentziturik daude elebiduna izanda hirugarren hizkuntza errazago ikasten dela. Gehien-gehienek prestutasun oso handia erakutsi dute seme-alabek euskara ikas dezaten ahaleginak egiteko eta haiei euskal mundua hurbiltzeko eta ia erdiek euskara pixka bat ikasteko prest daudela adierazi dute.

- *Bai-bainakoak euskararen aldeko sustapenaren aurrean*: Gehien bat eskualde erdaldunetan bizi dira eta euskara ez dute presente edo oso modu urrian dute. Gehienek bere burua *espainiar bezain euskal herritar* ikusten dute eta euskal abertzaletasunaren continuumean erdian kokatzen dira. Azpimarratu behar da 26-40 adin-taldean daudenak gehiago direla kluster honetan, seme-alabak izateko adinean daudenak, hain zuzen. Gehienek prestutasun oso handia erakutsi dute seme-alabek euskara ikas dezaten ahaleginak egiteko eta haiei euskal mundua hurbiltzeko.

- *Kritikoagoak euskararen aldeko sustapenaren aurrean*: Eskualde erdaldunagoetan bizi dira eta gehienek ez dute euskara presente edo oso modu urrian dute. Era berean, gehienentzat euskara euskal herritarren *hizkuntzetako bat* da. Euskal abertzaletasunaren continuumean ez-abertzalearen muturrean kokatzen dute bere burua eta *espainiar bezain euskal herritar* sentitzen dira. Gehienak oso prest edo nahikoa prest daude seme-alabek euskara ikas dezaten ahaleginak egiteko. Hiru klusterretatik ondoko aurreiritziekin adostasun handiena haiek erakutsi dute: *heziketa txarrekoa da euskaraz egitea norbaitek ulertzen ez duenean, euskara galtzea ez da arazoa* eta *euskaraz ikasten duten ume erdaldunek txartoago ikasten dute*.

Bestalde, adostasun-maila bera ez bada ere, hiru klusterrek adostasun zabala erakutsi dute seme-alabek euskara ikas dezaten ahaleginak egin behar direla esaterakoan eta horretarako bere prestutasuna adierazterakoan. Belaunaldi gazteak elebidunak izan behar direla eta seme-alabei euskal mundua hurbiltzeko ahaleginean, hain zuzen.

# AMAIERA

## 7. KAPITULUA:
# SINTESIA ETA AZKEN HAUSNARKETA

Azterketa honen xedea euskararekiko jarrerak, usteak eta aurreiritziak ikertzea da; bereziki, euskaraz ez dakien EAEko biztanleria oinarri hartuta. Liburu honetan, bi azterketa osagarrien emaitzak aurkeztu dira; hau da, azterketa kualitatiboaren eta azterketa kuantitatiboaren emaitzak. Lehenengoari esker, euskarari buruzko hainbat ideia argitara eman dira, eta horiek hainbat dimentsiotan ordenatu dira (2-5 kapituluak, 1. eranskina: “Jarreren Diagrama”); ostera, azterketa kuantitatiboaren bidez, euskaldunak ez diren biztanleek zenbait jarrera izateko duten maiztasuna neurtu da, *bai-bainakotzat* definitu ditugun pertsonek, zehazki (hau da, iritzi zehaztuagoak eta konplexuagoak ematen dituztenak, euskara babesten dutenak baina hizkuntzaren alde egiteko zilegi edo bidezko diren ekintzei mugak jartzen dizkietenak). Bigarren azterketa horri esker, halaber, hiru pertsona-profil bereizi dira, euskararen aldeko hizkuntza-politikarekiko duten atxikimenduaren edo babesaren arabera: *aldekoagoak* (euskararen aldekoen direnak), *bai-bainakoak* (alde egon arren baldintzak ezartzen dituztenak) eta *kritikoagoak* direnak; dena den, hautemandako aldagarritasun horrek pentsarazten digu egoera pertsonalek euskal hizkuntzaren sustapenarekiko *continuum* bat islatzen dutela.

Azken kapitulu honetan, ikerketa hau zehaztu duten oinarriak gogorarazi eta hartutako ikuspegi metodologikoaren egokitasuna laburki ebaluatuko da (7.1.); horrez gain, hasierako helburuak eta horien lortze-maila birpasatuko dira (7.2.). Era berean, bi azterketetako emaitzak modu bateratuan eztabaidatuko dira; hain zuzen, arreta berezia jarriko da behin eta berriz landu diren

gaietan eta euskaraz ez dakiten euskal herritarren jarreran gehien eragiten duten gaietan, bai eta jarrera horiekin lotutako jokabideetan ere (7.3.).

## 7.1. EUSKARAREKIKO JARRERAK AZTERTZEARI DAGOKIONEZ IKERKETA HONEK EGINDAKO EKARPENA BALORATZEKO GILTZARRIAK

Honako hauek dira ikerketa hau zehaztu duten giltzarriak:

- Eztabaida-taldeetan bilduta, partaideek egin zituzten ekarpenak oinarri hartzen dituen azterketa kualitatiboa eta galdesorta soziologiko baten bidez egindako azterketa kuantitatiboa bateratzen ditu.
- EAEko biztanleriaren (eta, bereziki, euskaraz ez dakitenen) jarrerak, usteak eta aurreiritziak beren konplexutasun guztiekin identifikatzeko helburu nagusia duen azterketa kualitatiboa ez da jarrera-tipologia itxietatik abiatzen, gero horiek egiaztatzen saiatzeko; aldiz, “bottom-up” (behetik gora) estrategiari jarraitzen dio, eta, horren bidez, hiztunek egindako ekarpenak hartzen dira oinarri. Hau da, tipologia corpusetik beretik eraikitzen da.
- Azaldu diren ideia guztiak agerian uzteaz gain, garrantzi handia eman zaio ideia horiek adierazteari berari; horrenbestez, berbalizazio zehatzak kontu handiz aztertu dira, jarreren, ñabarduren, kontraesanen eta ezkutuko jarreren konplexutasunak identifikatzeko.
- Azterketa kuantitatiboa egiteko galdesorta ez da aurrez diseinatu eta, era berean, ez du aurrez erabilitako eredu bat kopiatu; hau da, galderen edukia azterketa kualitatiboaren emaitzen araberakoa da zuzen-zuzenean, ikerketa guztiaren ezaugarri nagusi den ”behetik gora”, metodologiari jarraiki. Horrenbestez, galdesortaren edukiari dagokionez, ideia eta gai oso zehatzetan oinarritu da; hain zuzen, azterketa kualitatiboan *bai-baina* jarrera-motekin (epelak, dudak sortzen dituztenak) eta *bai-bainakotzat* hartutako subjektuekin lotura gehien duten gaietan. Era berean, galdesortako

galderak egiteko, hiztunen beren berbalizazioak erabili dira, ikertzaileen interpretazioetan edo kontzeptualizazioetan oinarritutako galderen ordez.

- Liburuaren estiloak ezaugarri horiek islatu ditu, bai bere egitura propioari dagokionez (azterketaren emaitza izan den tipologiaren makrodimentsioak errepikatzen dituena), bai hiztunen berbalizazioei emandako protagonismoari dagokionez (2-5 kapituluetan egindako aipu ugariren bidez). Material hori guztia ezinbestekoa da azalpena ilustratzeko, eta, horrez gain, funtsezko tresna da irakurleek hobeto uler dezaten eta, elkarrizketa-datuak oinarri hartuta, beren interpretazioak egin ditzaten.

Aurrez diseinatutako tipologietan oinarritu beharrean beste tipologia bat egitea, datuak oinarri hartuta; partaideen berbalizazioak azterketaren hainbat mailatan kontuan hartzea; eta ezaugarri kualitatiboak eta kuantitatiboak uztartzen dituen metodologia bat bultzatzea. Ezaugarri horiek guztiak, azken batean, ikerketa honen indar guneak dira, azterketa-gai den errealitatea beharrezko duen sakontasunez eta konplexutasunez deskribatzen lagundu dutenak.

## 7.2. IKERKETAREN HELBURUAK

**Azterketa kualitatiboaren** funtsa xede den taldeak euskararekiko dituen jarrerak bere konplexutasun guztiarekin ezagutzea da, bai eta konplexutasun hori egoki deskribatzeko behar bezain eraginkorra den dimentsio-taula batean antolatzea ere. Helburuek asmo orokor hori islatzen dute:

1. Lehen helburua (1.H) euskararekiko jarrerak ezagutzea da, hizkuntza-jarrerei buruzko ikerketen hiru dimentsio klasikoak oinarri hartuta: balio instrumentala, balio integratzailea eta ideologia. Horrela, dimentsio handi horiek oinarri hartuta, euskararen kasuan zein balore zehatz dituen arakatzeko ahalegina egin da azterketa honen bidez. Helburu honi buruzko emaitzak 2. kapituluan aurki daitezke, batez ere.

2. Bigarren helburua (2.H), jarreren unibertso zabala modu osatuago batean deskribatzen laguntzeko zer beste dimentsio edo kategoria dauden jakiteko ahalegina da. Hartutako “behetik gora” ikuspegia oso eraginkorra izan da beste tipologia batzuetan ez zeuden ideiak eta dimentsio berriak aurkitzeko. Adibide ona dira *barneko/kanpoko motibazioak* eta *bi mundu* kategoriak, datuak interpretatzeko funtsezkoak izan baitira. Aurkitutako dimentsioak 2-4 kapituluetan deskribatu dira.

3. Azterketa honen funtsezko helburua (3. Helburua) ez da aurkitutako ideiak dimentsio edo kategorietan sailkatzea soilik, baizik eta azpikategoriak identifikatzeko gai izatea –aurkitutako errealitatea deskribatzeko beste–, bai eta ordenatzeko ere. Ariketa honen emaitza euskararako tipologia edo katalogazio espezifiko bat izan da. Azterketa kualitatiboaren kapituluak (2-5) ondorioztatu den kategorizazioaren arabera antolatu dira; hain zuzen, horien irudikapena 1. eranskina da: “Jarreren diagrama”.

4. Azkenik, interes berezia izan du pertsona-talde zehatz bat aztertzeak, euskararen eta hizkuntza hori suspertzeko nahiz horren erabilera normalizatzeko hartu diren neurrien aurka egon ez arren guztiz alde ez daudenak, hain zuzen; beraz, 4. helburua (4.H) talde horren jarrerak identifikatzea izan da. Horretarako, berbalizazioak berak aztertuz, *bai-baina* motakotzat har daitezkeen ideiak identifikatu dira, ñabarduraz beteak, konplexuak, zalantza eragiten duen elementu bat dutenak; gero, ideiok oinarri hartuta, horiek agertzen dituzten pertsonak identifikatu dira, bai eta talde horren ezaugarri diren gaiak eta iritziak deskribatu ere. Gogoan izan behar da *bai-bainakoak* izendatu dugun talde horretako pertsonak ez direla uniformeak, epeltasun txikiagotik handiagora doan *continuum* baten arabera antolatzen dira; hau da, alde batean, hizkuntzaren jarrera aldekoenak daude, eta, bestean, jarrera kritikoenak. Helburu horri buruzko emaitzak 5. kapituluan daude.

Laburbilduz, azterketa kualitatiboak honako emaitza hauek eman ditu:

- Euskaldunak ez direnek euskararekiko dituzten jarrerak eta aurreiritziak sailkatzen diren hainbat kategoria biltzen dituen tipologia.

- *Bai-bainakoen* taldea, *horien* gaiak (hots, gehien kezkatzen dituzten gaiak), eta horiekiko agertzen dituzten jarrerak identifikatzea; gai eta jarrera horiek berak dira azterketa kuantitatiboaren oinarri.

Gogorarazi behar da tipologian aipatu diren ideia guztiak daudela, bai noizean behin agertutakoak , bai sarri agertu direnak. Badira mahai-inguru guztietan aipatu diren ideia ugari; zenbait, ordea, behin edo birritan soilik agertu dira. Nolanahi ere, kontu handiz ibili behar da gertaera ezohikotzat hartzean; izan ere, ideia bat ez agertzeko arrazoiek lotura gehiago izan dezakete politikoki ez zuzena edo onarpen gutxikoa izatearekin, ideia bera zabalduta ez egotearekin baino. Era berean, kontuan izan behar da ezkutuko jarrerak eta iritziak egoten direla; azterketan zehar, aipatu da fenomeno hori.

Beraz, azterketa kualitatiboak datu aberatsak ematen ditu *bai-bainakoak* taldeak egoera nola ikusten eta bizi duen ulertzeko; baina, aldi berean, ez du erakusten aurkitutako jarrera, usteak eta aurreiritziak euskal gizartean zein maiztasunez agertzen diren. **Azterketa kuantitatiboa**, hain zuzen, aurkitutako zenbait jarrerak euskal hiztunak ez diren biztanleen artean duten hedapena neurtzeko egin da (1. helburua), bai eta *bai-bainakoak* deskribatzeko ere, horien profil sozio-demografikoa eta jarrera oinarri hartuta (4. helburua). Beste maila batean, aztertutako herritarrek euskararen aldeko politikari dagokionez adostasuna zein alorretan agertzen duten jakin nahi da azterketa kuantitatiboaren bidez, bai eta zein muga ikusten dituzten (2. helburua), eta pertsona horiek zer egiteko prest dauden ere (3. helburua). Zehazki, azken bi gai horietan oinarritzen da EAEko erdaldunen gizartean “adostasun-atalasea” non dagoen jakiteko esperantza; hau da, guztiak zer egiteko edo bultzatzeko prest egongo liratekeen.

Hasiera batean, azterketa kuantitatiboaren asmoa *bai-bainakoen* taldea hobeto ezagutzea soilik zen; dena den, inkestatutako unibertsoan euskaraz ez dakiten 18 eta 55 urte bitarteko herritar guztiak daudenez, aipatutako talde horrez gain beste bi ere deskribatu ahal izan dira: *aldekoagoak* (aldekoen direnak) eta *kritikoagoak* (kritika gehien egiten dutenak).

Azterketa kuantitatiboaren emaitzak 6. kapituluan daude.

## 7.3. EMAITZEI BURUZKO ZENBAIT HAUSNARKETA

Atal honetan, aurreko kapituluetan banaka landu diren baino modu orokorragoan aztertzea komeni den zenbait gairi buruz hausnartu nahi da, datu kualitatiboen eta kuantitatiboen trataera bateratua barne.

### 7.3.1. Jarreren izaera: euskararen hainbat balio

Aurrez aipatu bezala, euskararekiko jarreren izaera aztertzeko, balio instrumentalek eta integratzaileek osatutako ardatza hartu da oinarrizko dimentsiotzat; hau da, zenbateraino ditu euskarak balio horiek? Zein erabilera-esparrutan hartzen dira baliozkotzat? Zer garrantzi ematen zaie? (ikus 1.2. eta 2.2. atalak). Emaitza interesgarriak aurkitu diren arren, agerian gelditu da euskarari emandako balioak behar bezala azaltzeko kategoria horiek duten urritasuna, hiztunen berbalizazioen kopuru handi batek beste ideia bat azaleratu baitu: *barnekoa* (“barrutik ateratzen dena”, “askatasunez hartzen dena”) eta *kanpokoa* (“norberarengandik at dagoen zerbaitek eragina”, “kanpo-presioa”). Dimentsio hori eraginkorra izan da euskararen balio instrumentalaren mugak aztertzeko, euskararen aldeko neurrien laguntzaren jatorria ezagutzeko, edo azaltzeko zergatik neurri horietako batzuk inposizio-moduan hautematen diren. *Barnekoari eta kanpokoari* elkarrizketa-datuetan egindako erreferentziak euskara ikasteko eta hitz egiteko nahiz euskararen aldeko neurriak bultzatzeko pertsonek dituzten motibazioei lotuta agertzen dira sarritan. Horregatik, jarreren jatorria aztertzeko, *motibazioak* kategoria sortu da, *barne-motibazioen eta kanpo-motibazioen* ardatzaren bidez gauzatu dena. Ardatz hori oso eraginkorra izan da, bai modu isolatuan erabili denean, bai eta *balio integratzailearen* eta *balio instrumentalaren* ardatzarekin gurutzatu denean ere, azterketa honetako partaideek euskarari lotutako ekintzak burutzeko duten prestutasunaren edo prestutasun ezaren motibazioak egokiago aztertzeko.

Euskararen ikaskuntzari eta erabilerari buruzko atalean, motibazioak behin eta berriz agertu dira; bertan, dituzten motibazioak eta jendeak (bereziki, gazteek) euskaraz hitz egiteko edo ez hitz egiteko dituzten arrazoiak aztertu dituzte hiztunek berek, bai eta zerk bultzatzen duen jendea euskara

ikastera edo seme-alabak eredu elebidunetan sartzera ere (ikus 2.1.3; 3.2.2; 3.2.3.1.; 3.3.3.). Azterketa kualitatiboan motibazioak askotarikoak direla egiaztatu da, eta, gainera, barnekoak nahiz kanpokoak izan daitezkeela, bai eta integratzaileak eta instrumentalak ere; gainera, duten mailaren arabera aldatzen dira ("behar beste motibazio ez izatea", "oso motibatuta egotea"…). Gai hori aurrerago landuko da berriro.

Motibazioei buruz behin eta berriz agertzen diren ideiak –bereziki *bai-bainakoak* taldeari dagozkionak– azterketa kuantitatiboaren galdesortan sartu dira (ikus eranskinean G-7 eta G-9 galderak), jakiteko zerk bultzatzen dituen euskaraz ez dakiten biztanleak euskararen aldeko ekintzetan parte hartzera. G-7 galderak euskara ikasteko motibazioei egiten die erreferentzia, eta G-9k euskara ez ikasteko arrazoiei.

G-7 galderari orain ikasten ari direnek eta ikastea gustatuko litzaiekeela esan dutenek erantzun diote, eta honako emaitza hauek lortu dira:

- Bi motibazio instrumental indartsuak dira: "haurrei etxeko lanekin laguntzea" eta "beste lan batzuk lortu ahal izatea". Lehenengoari dagokionez, 1. arrazoia izan da %23,10entzat eta 2. arrazoia %30entzat (hau da, inkestatutako erdiek baino gehiagok lehenengo bi arrazoien artean sartu dute); bigarrenari dagokionez, berriz, %17,3rentzat 1. arrazoia izan da, eta %14,9rentzat 2. arrazoia (hots, lehenengo bi arrazoien artean ageri da inkestatutako pertsonen herenaren ustez).

- "Gure hizkuntza delako" motibazioa, identitatearekin lotura argia duen barne-motibazioa, 1. postuan jarri dute inkestatuen %23,7k eta 2. postuan %7,3k; hau da, inkestatuen ia herenarentzat, lehenengo bi lekuetan ageri da.

- Halaber, garrantzitsua da "euskaldunekin euskaraz komunikatu ahal izatea" motibazio integratzailea; %12,6ren iritziz 1. arrazoia da eta %18,10en iritziz bigarrena, berriro ere inkestatuen heren batek hautatutako motibazioa, beraz.

- Guztizkoaren heren batera iristen dira (%29,8) lehenengo bi arrazoietan “neure burua aberasteko” barne-motibazioa adierazi dutenak; kasu honetan, ordea, 2. motibaziotzat ageri da, batez ere (%19,60).

- Ondoren, “gal ez dadin laguntzeko” motibazioa dago (%16,9k aipatu dute), eta, oso atzean, argi eta garbi motibazio-iturri garrantzitsu ez direnak: “nire familian edo lagun-taldean zenbaitek hitz egiten dutelako” (%7,9), “euskal kulturan integratzeko” (%7,9) eta “euskal hiztunekiko errespetuagatik” (%5,8). Azken hiru motibazio horiek integratzaileak dira.

Ikus daitekeen bezala, ez dago besteen gainetik nabarmentzen den motibaziorik, baizik eta guztiek –barnekoek, kanpokoek, integratzaileek eta instrumentalek– dute indarra euskaraz ez dakiten herritarrak mugiaraziko dituzten motibazioak sortzeko.

Euskara ez ikasteko arrazoiak neurtzen dituen G-9ri dagokionez, 9.1, 9.3, 9.4 eta 9.5 itemak motibazio-mailarekin daude lotuta. Zehazki, %31,9k adierazi du beste lehentasun batzuk dituela eta %18,9k ez duela behar beste motibazio; ostera, %9,70ek esan du egin beharreko ahaleginak ez diela merezi, eta %6,70ek ez dutela batere interesik. Ehuneko horiek ez direla euskara ikasten ari aitortu duten inkestatuei egiten diete erreferentzia, laginaren guztizkoaren %91,10i, zehazki. Gehien errepikatu duten arrazoia denbora falta izan da (%60k aipatu du; ikus 6.4.5.3.), pertsonaren kontrolpetik at dagoen arrazoia, hain zuzen; hala ere, behar beste motibazio ez izateak ere garrantzi handia du, ikus daitekeen bezala. Gogoan izan, halaber, arrazoi “saihestezin” hauek motibazio-falta ezkutatzen dutela, barne-motibazioaren falta.

Bai azterketa kualitatiboak eta bai kuantitatiboak agerian utzi dute euskaraz ez dakiten herritarrak euskararen aldeko konpromisoak hartzera bultzatzen dituzten edo bultza ditzaketen motibazioen aniztasuna. Aniztasunari dagokionez, bi ideia adierazi dira: batetik (a), beharrezkoa da errealitatea ezagutzea, eta ez euskararen egoeran dagoen hizkuntza batek funtsean motibazio-mota bat soilik erakartzen duela onartzea, eta, bestetik (b), motibazioen aniztasuna onartzea eta hizkuntzaren normalizazio-prozesuetan kontuan hartzea. Era berean, gaineratu behar da euskararen egoeran dagoen hizkuntza batentzat,

oso garrantzitsua dela hizkuntzaren aldeko motibazioak askotarikoak izatea eta zentzu nahiz ardatz bakar bati ez lotzea.

Motibazio desberdinak legitimotzat hartu arren, geure buruari galdetu behar diogu ea horiek guztiak eraginkorrak diren hizkuntzak indartzeko; partaideek egindako balorazioaren arabera, benetan ahalmentsuak diren motibazioak barnekoak dira. Dudarik gabe, kanpokoak ere oso garrantzitsuak dira, euskararen alde urratsak ematea ahalbidetzen baitute, baita barne-motibaziorik ez dutenen artean ere; dena den, barne-motibazioak dirudi mugimendu hori benetan sustatzen duena, iraunarazten duena, hizkuntza batek aurrera jarraitzeko ezinbestean behar dena. Balorazio hori egokia bada, euskararen aldeko laguntza-ekimenek euskaldundu gabeko pertsonen motibazio-espektroa indartu eta areagotu beharko lukete, eta, horrez gain, aniztasun horri erantzun eta barnean eragitea ahalbidetu beharko lukete.

### 7.3.2. Bi munduko egoeran bizitzea: integrazioaren ideiari buruzko eztabaida

Euskararen balio integratzailearekin lotutako ideiak aztertuz, oso eraginkorra den beste dimentsio bat identifikatu ahal izan da: *bi mundu.* Dimentsio horrek bi munduren izateari eta bi munduko egoeran bizitzeari egiten die erreferentzia; hau da, dimentsio horren arabera, euskarari lotutako mundu bat dago, eta, bertan, ez da sartu biztanleriaren zati bat, gaztelaniarekin lotutako munduan soilik bizi direnak, hain zuzen. Dimentsio horrek, beraz, hainbat mailatan egindako hausnarketa merezi du:

- Azterketaren arabera, egoera hori benetakoa da, eta, gainera, nahiko arrunta da euskaraz ez dakiten pertsonen artean; dena den, euskarari lotutako munduaren ezagutzari edo ezjakintasunari buruzko hainbat maila daude, eta horrekiko egiten duten balorazioa ere desberdina da. Horrenbestez, euskarari lotutako mundu bat dagoela ez dakiten pertsonak daude alde batetik, eta, bestetik, mundu horren izatearen berri dutenak. Azken horien artean, gainera, hainbat multzo daude, ezagutza-mailaren, mundu

horren parte izateko edo ez izateko nahiaren, eta mundu horretaz egiten duten balorazioaren (positiboa edo negatiboa) arabera.

- Beste maila bati dagokionez, *bi mundu* izatearen egiaztapenak integrazioaren gaia birplanteatzera behartzen du, bai eta hiztunek integratuta sentitzeari edo ez sentitzeari dagokionez duten pertzepzioa ulertzeko modua birplanteatzera ere. Hau da, bi munduko egoeran bizi direnak ez dira ohartzen "istorioaren zati bat" galtzen ari direla; hots, guztiz integratu gabeko komunitate batean bizi direla, batzuk horretaz jabetuta eta beste batzuk hori jakin gabe.

*Bi mundu*ko egoerarekin lotutako elementuak behin eta berriz erabili dira azterketa kualitatiboan, eta, gainera, *bai-bainakoak* taldearen ezaugarri nagusi izan dira; horrenbestez, azterketa kuantitatiboan erabili dira, EAEn euskaraz ez dakiten biztanleria guztiarengan duten presentzia neurtzeko. Alderdi hori G-2n jaso da, eta honako emaitza hauek lortu dira (ikus 6.4.2.): oro har, datu positibotzat hartu behar da inkestatutako lagunen erdiak baino gehiagok (%55,5) euskararen mundutik gertu sentitzen dela adierazi izana, bai eta %24,9k euskara ezagutu ez arren horrekiko interesa duela esan izana ere; ostera, euskararekiko interesik ez dutela adierazi duten pertsonak apenas iritsi dira laginaren %10era. Bestalde, beste %10ek adierazi du ez duela sinesten euskararen inguruan beste mundu bat dagoenik.

Datu horiek berretsi dute euskaraz ez dakiten biztanleen zati handi batentzat bi munduko egoeraren ideia orokortuta dagoela; dena den, ezin da ukatu biztanleria horren erdiak baino gehiagok ez duela iritzi hori. Bestalde, bi mundu horien berririk ez dutela aitortzen dutenen artean, mundu hori ezagutzeko duten jarrera positiboa azpimarratu behar da. Esan daiteke euskararen munduarekiko hurbiltasun-sentimendua eta mundu horrekiko interesa *barne-motibazioak* direla, eta, beraz, oinarri interesgarria direla jarrera positiboak garatzeko.

### 7.3.3. Euskararen etorkizuna, erakundeen babesa eta konpromisoa

Azterketa kualitatiboaren bidez egiaztatu ahal izan denez, partaide gehienek argi dute euskara “gure” erantzukizuna dela, gizarte osoarena (ikus 3.1.4.), eta, horrenbestez, gizarte osoaren konpromisoa dela beharrezkoa (ikus 2.3.2.), konpromisotzat “euskararen alde egiteko prest gaudena” hartuta. Iritzi horiek pozgarriak dira; baina, horrekin lotutako beste gai batzuk aztertzen baditugu –esaterako, erakundeen lana (ikus 3.1.4. eta 3.1.5.1), euskararen etorkizunari buruzko iritziak (ikus 6.3.) eta euskara galtzeko arriskuan dagoen hizkuntzatzat hartu izana (ikus 4.1.d)–, gehiago hausnartu behar diren zenbait ideia agertzen dira.

- Euskararen normalizaziorako konpromisoa beharrezkoa den ideia orokortuta dagoela dirudi; baina, aldi berean, azken hamarkadetan konpromisoa gutxitu egin den pertzepzioa dago. Aipatu diren arrazoien artean, euskal gizartearen aldaketa sozio-politikoak aipatu dira (hain zuzen, konpromisoa eremu guztietan gutxitu dela uste da), bai eta erakundeek hizkuntzari ematen dioten laguntza ere, orain dela 30 urte ez zegoena (ikus 2.3.2.).

  Zaila da askotan *lehen-orain* estrategiaren bitartez egiten diren baieztapen horiek behar bezala baloratzea; hau da, normalean, orain dela 20 edo 30 urteko egoera egungoarekin alderatzen da. Horrez gain, baieztapen horietan “konpromisoa” hitza ere erabiltzen dute, hitz horrekin zer adierazi nahi duten aztertu edo zehaztu gabe. Alderatzen dena konpromiso-mota bat dela dirudi, “lehen” zegoen konpromisoa, eta ez da pentsatzen egungo egoeran beste konpromiso-mota batzuk egon daitezkeela edota egungo egoeran beste konpromiso-mota batzuk behar direla. Konpromisoa gutxitu egin al da? Konpromisoa aldatu egin al da? Agian, baieztapenak beste galdera batzuekin erkatu beharko genituzke: Egungo konpromisoa nahikoa al da? Egungo konpromiso-motak egungo euskarak dituen premietara egokitzen al dira?

  Azterketa kualitatiboko beste kategoria batzuek gai hori argitzen lagun dezakete; zehazki, pertsona bakoitza zer egiteko prest dagoen edo egon daitekeen aztertzen dutenak. Gai horri dagokionez, azterketa kualitatiboak

adierazten du konpromiso-maila edo -mota desberdinak egon daitezkeela (ikus 2.3.2.); hori, hain zuzen, azterketa kuantitatiboan berretsi da, proposatutako ekimen guztiekiko gogo-maila ertaina edo handia izan baita G-5en emaitzen arabera. Azterketa horien bidez ezin dira gaiari buruzko ondorioak atera; baina, gutxienez, iradoki daiteke konpromisoa ez dela zehaztu gabe erabili daitekeen kontzeptu bat eta, horrez gain, hainbat konpromiso-maila eta -mota egotea onartu behar dela. Hori horrela bada, horiek agian hobeto ezagutu beharko lirateke, baita bakoitza zer egiteko prest dagoen ere; aldi berean, datu horiek kontuan hartu beharko lirateke hizkuntza-normalizazioko estrategian.

- Erakundeen laguntzari dagokionez, aldagai bikoitza sortu da, ustezko dilema bat. Alde batetik, laguntza hori ezinbestekotzat jo da euskara berreskuratzen eta normalizatzen joateko; baina, bestetik, arriskua dago gizarteak pentsatzeko ematen zaion babes horrekin euskara salbu dela, bai eta pertsonak nahiz gizartea inplikatzeko premiarik ez dela hautemateko ere. Hurrengo lerroetan erakutsiko diren datuek ideia hori berresten dute:

- Euskararen etorkizuna oso modu desberdinean hauteman da: partaide batzuek etorkizun oparoa ikusten diote, eta beste batzuk, berriz, ez dira hain baikorrak, oso ezkorrak baizik.

  Baikortasunerako motiboen artean honako hauek azpimarratu behar dira: hizkuntza dakiten pertsona-kopuruaren hazkundea –batez ere, hezkuntza-eredu elebidunen arrakastari esker– eta erakundeen babesa.

  Ezkortasunerako motiboen artean, aldiz, honako hauek aipatu behar dira: euskarak zenbait ingurutan duen erabilera txikia –ia gaztelaniaz soilik dakiten lekuetan– eta euskararen normalizazioa lortze-bidean egiteke dagoen guztia, bai eta euskarak oraindik behar duen guztia ere: euskal gizartearen konpromiso eta inplikazio handia, motibazio-maila handia –barne-motibazioa, bereziki–, euskararen ospe handiagoa “guaya” edo modernoa izateari dagokionez, eta erabileraren hedapen handiagoa, bai orokorrean, bai gero eta esparru gehiagotan: komunikabideak, teknologia berriak, irakaskuntza eta enpresa pribatua.

- Ebaluatu eta zuhurtasunez tratatu beharreko ideia da *arrosa koloreko etorkizuna* deitu diogun gehiegizko baikortasuna (ikus 4.1); hau da, euskara eskolan, ume-garaian, "guztiek" ikasten dutenez (hori pertzepzio orokorra izan arren, ez da oso ziurra) eta erakunde publikoen laguntza duenez, arazorik ez dagoela pentsatzea: "bi belaunaldiren buruan, guztiek hitz egingo dute" eta "jada ez dago galtzeko arriskurik".

Azterketa-xede izan den biztanleriaren artean ideia horiek izan duten hedapena azterketa kuantitatiboaren bidez neurtu da; ideia horiek, hain zuzen, G-4.15, G-4.19 eta G-10.6 itemetan jaso dira, eta honako emaitza hauek izan dituzte:

- G-4.15 "Euskara bultzatzeko ahaleginak alferrikakoak dira beti egongo baita arrisku-egoeran": %53,50 ez dago ados edo batere ados ideia horrekin; %18,70 ez dago ados baina ezta kontra ere; eta %20,10 ados edo oso ados dago (%7,70ek ez du erantzun).

- G-4.19 "Euskara jada ez dago desagertzeko arriskuan": %16,50 ez dago ados edo batere ados baieztapen horrekin; %17,7 ez ados, ez kontra; eta %52,80 ados edo oso ados dago (%12,90ek ez du erantzun).

- G-10.6 "Euskararen arazoa denborarekin konponduko da haurrek eskolan ikasten baitute": inkestatutakoen %11,2 ez dago ados edo batere ados; %13 ez ados ez kontra; eta %67,5 ados edo oso ados (%8,2k ez du erantzun).

Aztertutako biztanleen erdiak, gutxienez, ez du uste euskara beti arriskuan egongo denik, ez eta orain desagertzeko arriskuan dagoenik ere; %70ek, gainera, etorkizun oparoa ikusten diote, belaunaldi berriak eskolan ikasten ari direla-eta. Datuek, beraz, euskararen egoerari buruzko ikuspegi baikorra adierazten dute, nahiz eta kezkagarria izan, behean azalduko den bezala.

Euskararen egoerari dagokionez gehiegizko baikortasuna dagoela ohartaraztea komeni da; izan ere, azken 30 urteetako lorpenek nahiz erakundeen babesari emandako garrantziak euskarak oraindik dituen erronka handiak mozorrotu ditzakete. Garrantzitsua da gizartea erronka horiez jabetzea, eta

garrantzitsua da, halaber, euskal gizarteak argi izatea euskararen egoeran dagoen hizkuntza batek gizartearen konpromisoa behar duela ezinbestean; izan ere, euskara gutxiengoaren hizkuntza da lurraldearen zati handi batean, egoera horretan mende ugari egin ditu, egun oraindik hizkuntzaren gainbehera eteteko prozesuan dago, eta, gainera, gero eta globalizatuago dagoen munduaren erronkei aurre egin behar die. Ezin da pentsatu euskararen aldeko hizkuntza-politika bat dagoelako (hizkuntza hitz egiten den lurraldearen zati batean, zehazki) arazoak amaitu direnik, ez eta euskaraz hitz egiten den lurraldearen zati batean hiztun-kopurua galtzeko joera eten delako hizkuntzaren etorkizuna bermatuta dagonik ere (erreparatu Nafarroako eta Iparraldeko egoerari). Mezuak argia izan behar du: gizartearen eta bertako erakundeen konpromisoa behar da; hau da, komunitate bezala dagokigun konpromisoa eta norbanakoaren konpromisoa.

Erakundeen laguntzari eta hizkuntza-politikari dagokionez, beste zehaztapen bat egin behar da: askotan politika horien premia gutxiengoen hizkuntzen, hizkuntza gutxituen, mehatxupeko hizkuntzen edota hiztun gutxiko hizkuntzen –erabiltzen den izendapena dena delakoa izanda ere– testuinguruan sortzen da (baita azterketa honetan ere), eta, horrenbestez, pentsa daiteke politikok hizkuntza horiei soilik dagozkiela. Argi dago, ordea, hizkuntza handiek eta menderatzaileek ere laguntzeko hizkuntza-politikak dituztela, eta politika horiek, gainera, hiztun gutxiko hizkuntzenak baino indartsuagoak direla; adierazpen hori egiazkoa da, bai gaztelaniari dagokionez, bai frantsesari dagokionez. Euskararen hizkuntza-politika aztertzen denean, beraz, ezin dira bi hizkuntza horien hizkuntza-politikak eta euskararengan haiek duten eragina bazterrean utzi.

### 7.3.4. Euskara ikasteko zailtasunak

Hizkuntzei dagokienez, gizartean zabaldutako uste eta aurreiritzi ugari daude; batzuk, gainera, egia objektibo bezala barneratuta daude , eta eragin zuzena izaten dute hiztunen jokabidean nahiz horien jarreren eratze-prozesuan. Orokortutako uste horietako batzuk zentzuzkoak dira, eta beste batzuek, berriz, ez dute inolako oinarririk ebidentzia zientifikoaren arabera. Euskal hizkuntza-

-komunitatean, “herri-hizkuntzalaritzaren” adibide dira; bertan sartzen dira hainbat gairi buruz dituzten usteak: euskara, elebitasuna, hizkuntzen ikaskuntza, hizkuntzen kalitate-irizpideak, hizkuntza-portaerak… Uste horiek elkarrizketa-datuetan agertu dira, eta azterketa kualitatiboan jaso eta azaldu dira (4. kapitulua); aurreiritzi entzutetsuenetako batzuk, berriz, azterketa kuantitatibora eraman (G-10 galdera eta G-4.9 itema) eta 6.4.6. atalean aztertu dira.

Aipatu bezala, uste edo aurreiritzi horiek neurri handian eragiten dute jarreretan. Euskararen ikaskuntzak hizkuntzaren beraren normalizaziorako duen garrantzia dela eta, atal honetan gai horretan eragina duten hainbat uste aztertu dira, bai ikaskuntza bultzatzen dutelako, bai horri dagokion edozein ekintza eragozten dutelako. Hemen aztertu direnak hiru motatakoak dira: euskararen ikuspegiari dagozkionak, hizkuntzen ikaskuntzari dagozkionak eta hizkuntzekiko jarrera preskriptibo edo arauemaileei dagozkienak.

Euskara “hizkuntza oso zaila” dela dioen ikuspegia orokortuen eta zalantza gutxien sortzen dituen ustetzat identifikatu da azterketa kualitatiboan (ikus 4.1 (b)). Uste hori, besteak beste, helduei hizkuntza ikastea zenbat kostatzen zaien azaltzeko arrazoiak eztabaidatzen dituztenean aipatzen da; askotan, gainera, hiztunak eurak euskara ikasten saiatu arren zergatik ez duten ikasi justifikatzen ahalegintzen direnean agertzen da. Hizkuntza ikastean arrakastarik ez izateari dagokionez, oso litekeena da beste faktore batzuek ere eragin izana; baina, hala ere, hizkuntzaren zailtasuna da, dudarik gabe, partaideek beren buruari ematen dioten azalpena. Era berean, beste uste batzuek ere ikuspegi hori indartzen laguntzen dute: “heldua zarenean oso zaila da hizkuntzak ikastea” edota “heldua zarenean oso zaila da euskara 2. hizkuntza bezala ikastea” (4.2. (a)). Bestalde, euskara hizkuntza “berezi”, “konplexu” eta “guztiz desberdintzat” hartzen dute ikuspegi positiboa oinarri hartuta, eta ezaugarri horiek harrotasunez adierazten dituzte, gainera; pertzepzio horrek, ordea, konplexutasun- eta eskuraezintasun-ideia indartzen laguntzen du, zailtasun-ideia azken batean. “Euskara oso zaila da” aurreiritzi oso negatiboa da euskararentzat, askotan euskarak dituen arazoen arrazoi nagusitzat edo ikasten saiatu ere ez egiteko aitzakia ukaezintzat hartzen baita.

Azterketa kuantitatiboaren bidez, ideia horren hedapena azterketa kualitatiboak iradoki bezalakoa den egiaztatu nahi izan da. Horrenbestez, zenbait

galderatan ideia hori aintzat hartu da: G-10.7 "Ia ezinezkoa da euskara ikastea pertsona heldua zarenean hizkuntza oso zaila baita", edota G-9.6 "Ez dut euskara ikasten oso zaila iruditzen baitzait". Emaitzek berretsi dute ideia hori zabalduta dagoela, hurrengo lerroetan ikus daitekeen bezala:

- G-10.7 "Ia ezinezkoa da euskara ikastea pertsona heldua zarenean hizkuntza oso zaila baita": inkestatutakoen %45,3 ados dago baieztapen horrekin, eta, ostera, %37,8 ez dago ados. Lehen begiradan, ados %45,3 egoteak aztertzen ari garen ustea ez dela uste bezain orokorra pentsarazi diezaguke; hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da itema oso modu bitxian eta ezkorrean adierazia dagoela –"ia ezinezkoa da ikastea"–, eta, gainera, inkestatutakoen %16,90ek ez du erantzun edo "ez ados ez kontra" dagoela adierazi du. Horrenbestez, adierazi den modu ezkorra kontuan hartuta, %45,3 ados egoteak uste hori berresten duela pentsatu behar da; halaber, helduen ikaskuntzari dagokionez duen balio inhibitzailea berresten du. Gogorarazi behar da inkesta euskaraz ez dakiten euskal herritarrengana mugatu dela.
- Euskara ez ikasteko inkestatuek ematen dituzten arrazoiei buruzko G-9.6 galderan, inkestatutakoen heren batek (%31,6) hizkuntzaren zailtasuna aipatu du; kontuan izan behar da, halaber, %65,70 euskara ikasten saiatu izan dela baina ez duela lortu (G-6.2), datuen arabera.

Horrenbestez, euskararen zailtasunari buruzko uste zabaldua indargabetzeko premia azpimarratu behar da, behin eta berriz. Ez da gaztelaniaz hitz egiten dutenek euskara ikasteko zailtasunak izan ditzaketela ukatzea, baizik eta uste horren eragin fatalista saihestea, baita hiztunak gutxitzeko izan dezakeen erabilera manipulatua saihestea ere. Dudarik gabe, gaztelaniaren eta euskararen artean alde handia dago, eta hori da, neurri batean, ikasi nahi dutenek hautematen dituzten zailtasunen oinarria. Baina beste hizkuntza bat ikasteko zailtasunean edo erraztasunean ez dute egitura-alderdiek soilik eragiten; beste faktore batzuek horiek beste eragin edo gehiago dute, esaterako: ikasteko motibazioa edo hizkuntzak inguruan duen presentzia. Izan ere, helduak izanda euskara 2. hizkuntzatzat ikasi duten milaka eta milaka pertsonak

aipatutako hizkuntza ikas daitekeela frogatzen dute. Bestalde, euskaldun askok ere gaztelania ikasteko gainditu behar izan duten distantzia berbera da, eta maila horretan ez dirudi zailtasun berezirik egon denik.

Horrenbestez, honako beste gai hau agertzen zaigu: zer mailatan? Guztiek ikasi behar al dute euskaraz “bikain” hitz egiten? Eztabaidan, ikasleen helburuak hartu behar ditugu kontuan. Azterketako partaideak kexu dira helduak euskalduntzeko irakaskuntza-eskaintzak oso formala izaten jarraitzen duela eta helburutzat, zuzenean, EGA lortzea jartzen dela adieraztean. Ikuspegi hori oso zabalduta dago, nahiz eta azken urteetan zenbait aldaketa egin diren metodologian, eta, horrez gain, beste eskaintza-mota batzuk ere aztertzen ari dira, ikasteko beste modu batzuk. Partaideek beste ikaskuntza-bide batzuk eskatu dituzte, ludikoagoak, ez hain formalak, erabilgarriagoak eta praktikoagoak, alegia. Aldi berean, hainbat mailatako helburuen onarpena aldarrikatu dute; hau da, ez soilik EGA lortzea edo hizkuntza “bikain” ez ikastea, baizik eta komunikazio-egoera jakin batzuetan moldatzeko adina ikastea, esaterako: lagunarteko elkarrizketetan parte hartzeko, oinarrizko solasean moldatu ahal izateko –taberna batean zerbait eskatzeko edo oinarrizko erosketa bat egiteko–, prentsa euskaraz irakurri ahal izateko edo haurrei etxeko lanak egiten laguntzeko. Gai horiek guztiak 3.3., 5.2.4. eta 5.2.6. ataletan landu dira xehetasunez.

Azterketa kuantitatiboak gai hori argitu du, neurri batean. G-6.3 galdera: “Prest egongo al zinateke euskara ikasteko? gustatuko al litzaizuke?”: %53k baiezkoa erantzun du, eta %47k ezezko erantzunak eman ditu. G-5ek ere euskara ikasteko asmoa aztertu du, hizkuntza sustatzeko egingo luketenari buruzko galdera orokorraren bidez: %22,58k adierazi du “euskara ondo ikasteko ahalegina egingo lukeela” (G-5.1), eta, apur bat gehiagok, %25,95ek, “euskara apur bat ikasiko lukeela, gutxieneko komunikazioa lortu ahal izateko”. Azkenik, inkestatutako pertsonak euskara ikastera zein egoeratan animatuko liratekeen aztertu dituen G-8 multzoan ere agertu da gai hori. Aurrez aipatu diren azterketa kualitatiboaren datuekiko koherentziari eutsiz, euskara ikasteko prestutasun-maila handia dago testuinguru ez hain formaletan eta komunikazio-zeregin zehatzei loturikoetan; zehazki, inkestatutako pertsonen %70 ikasteko prest agertu dira baldin eta eskolara egunean bi orduz joan

behar ez badute, seme-alabek egiten dituzten jarduerekin lotuta badaude eta beren intereseko jardueraren bidez badira.

Atal honetan, honako hau laburbildu dezakegu: euskara ikasten ari ez diren ez euskaldun ugariri gustatuko litzaieke euskara ikastea; ikusi bezala, erdiari baino gehiagori. Nolanahi ere, pertsona horientzako formulak malgutasuna eta planteamendu sortzaileagoak izan behar dituela dirudi; hau da, ez dute prestutasunik egunean bi ordu *euskaltegian* pasatzeko, baina euskara ikasiko lukete beren interesei edo beren seme-alaben jarduerei lotutako jarduera ludikoetan. Bestalde, horien xedea ez da, hasiera batean, euskara bikain ikastea (bai benetan interesatzen ez zaielako, bai ez direlako gai ikusten), baizik eta norberak identifika ditzakeen komunikazio-egoera zehatzetan moldatzeko beste ikastea.

Ikusitakoaren arabera, badirudi komunikazio-mailei eta –zereginei dagokienez hainbat helburu daudela, eta horiei zilegitasuna eman behar litzaiekeela; era berean, eskaera horri erantzuten saiatu beharko litzateke ikaskuntza--formula egokiak baliatuz. Gerta liteke nahigabea sortzea hiztun horiek asmo handiagoko helbururik ez izateak, bai eta horien prestutasun-maila behar bezain handia ez izateak ere; dena den, pentsatu behar da momentuz pertsona horietako gehienek ez dutela euskara ikasiko, eta, beraz, egiten duten aurrerapen bakoitza euskararen garaipentzat hartu behar da. Ezin da ahaztu beste gai batzuk daudela jokoan, ez baita hizkuntza-gaitasun batez jabetzea soilik; horrez gain, euskararen kultura-mundura hurbiltzea da, pertsona horiek agian bizi diren *bi munduko* egoera horrekin hausten jarraitzea.

Atal honi amaiera eman aurretik, bada hausnartu beharreko beste alderdi bat, hizkuntzaren kalitateari buruzko ideiei erreferentzia egiten diena, jarrera preskriptiboak islatuz. Ideia horiek eragin handia dute ikaskuntza-prozesuetan, bai eta ikastunek hizkuntzaz egiten duten erabileran ere. 4.1.(c) atalean euskararen kalitateari buruz egiten diren balorazioei buruz jardun da, eta, bertan, agerian utzi dira hizketaren hainbat adierazpen-biderekiko dauden jarrera arauemaileegiak: euskaldun-berriekiko, euskaldun-zaharrekiko, gazteen hizkerarekiko, dialektoekiko… Jarrera-mota horiek oso kaltegarriak dira euskararentzat, oro har; hala ere, arreta berezia jarri behar da ikaskuntza-prozesuetan dauden pertsonengan nahiz euskara 2. hizkuntzatzat ikasi

dutenengan, euskaldun-berriengan. Gehiegizko jarrera preskriptiboek, hainbat balorazio-motaren bidez gauzatzen direnek, eragin inhibitzaile garrantzitsua dute; balorazio-mota horiek honako hauek izan daitezke, besteak beste: “ongi/gaizki hitz egin”, “bantuaz hitz egin”, “euskaltegian ikasitako euskaraz hitz egin”, “euskaldun-berri batek bezala hitz egin” edota “erdarakadak erabiliz hitz egin”. Azterketa honetan parte hartu duten askok aitortu dute ez direla gai euskaraz hitz bakar bat ere esateko edota ez direla euskaraz hitz egitera ausartzen, nahiz eta euskara ikasten urteak daramatzaten eta maila onargarria dutela deritzoten. Hizkuntzak erabiliz ikasten dira, eta praktikatuz hobetzen. Behin eta berriz errepikatu behar da jarrera-mota horiek oso kaltegarriak direla, blokeo handia eragin, ikaskuntza oztopatu, euskara gizartean erabiltzea eragotzi eta, horrenbestez, hizkuntza horren presentzia gutxitzen baitute.

### 7.3.5. Adostasuna eta esanahi bikoitzeko beste ideia batzuk

Azterketa kualitatiboan hausnartzea merezi duten hainbat nozio daude, bai erabiltzen diren moduagatik, bai ematen zaien estatusagatik: ukaezintzat hartzen diren eta, horrenbestez, eztabaidatu edo aztertzen ez diren zenbait kontzeptu, balio, eta ideiak: euskarari dagokionez “gauzak adostasunez egin beharko lirateke” (ikus 3.1.5.2. eta 3.1.5.3.); “euskara politizatuta dago” eta uste horren balorazio negatiboa egitea (ikus 2.3.1.); euskarak “kultura izan behar luke batez ere” (ikus 2.3.1.4.); “guztien” eskubideak errespetatu behar dira, baita euskara ikasi nahi ez dutenenak ere (ikus 3.1.4.); euskararen berreskuratze-prozesuak –eta erabilerak– “naturala” izan behar du (ikus 3.1.3.). Ideia horiek bereziki aipatu ditugu, ez erreferentzia egiten dieten balioak zilegiak ez direlako, baizik eta, egiaz, hala direlako; horrenbestez, horrela, aztertu gabe aurkeztuta, esanahi bikoitza izan dezakete euskaren egoeran dagoen hizkuntza batentzat. Nork ez du nahi euskara laguntzeko neurriak adostasunean oinarritzea? Nork ez luke nahi aurrerapena naturala izatea, euskararen normalizazioa nahiz erabilera politizaturik ez egotea, eta pertsona guztiek onartzea?

Behin eta berriz errepikatzen den ideietako bat euskararen berreskurapena eta normalizazioa adostasunez lortu behar izatea da, inolako inposatze-

rik gabe. Zer adostasun-maila izango da nahikoa mehatxupeko hizkuntzaren egoerari buelta eman eta euskararen erabilera normalizatzeko? Azterketa kuantitatiboaren bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira, besteak beste: herritarren gehiengoaren babesa duten neurriak identifikatzea eta, ahal izanez gero, euskaraz ez dakiten euskal gizarteko pertsonen arteko adostasun--mailaren muga non egon daitekeen bereiztea. Emaitzek adostasun muga edo atalase bat erakutsi dute, bi maila desberdinetan:

- "Administrazio publikoak euskararen alde egiten dituen ekimenei" dagokienez duten adostasun- edo desadostasun-maila neurtzen duen G-4 oinarri hartuta, azaldu diren hiru klusterrek *–aldekoagoak, bai-bainakoak* eta *kritikoagoak*– adostasuna erakutsi dute zenbait neurriri dagokionez, eta hori positiboa da. Nolanahi ere, baieztapen horien izaerak adierazten du erabateko adostasuna printzipio orokorren baitan soilik dagoela, hiru klusterrak honako item hauetan soilik baitaude ados: G-4.12 "Ezin da euskara galtzen utzi", G-4.13 "Ados nago euskara bultzatzearekin" eta G-4.18 "Euskara errespetatu behar da". Ostera, neurri zehatzak proposatu dituzten itemei dagokienez, ez da adostasunik lortu.

  *Kritikoagoen* klusterra talderik kritikoena dela kontuan hartuta, bigarren saiakera batean ikus daiteke non dagoen *aldekoagoen* klusterraren eta *bai-bainakoen* klusterraren arteko adostasun-maila, bi multzoek aztertutako biztanleriaren %70 osatzen baitute. *Kritikoagoen* klusterrarekin bat egiten duten neurriez gain –dagoeneko aipatu ditugunak–, honako neurri hauetan ere bat egiten dute bi multzo horiek: G-4.6 "Arriskuan dagoen hizkuntza batek bizirik jarraitzea lortu nahi bada, horren aldeko neurriak hartu behar dira, nahiz eta guztien gustukoak ez izan", G-4.11 "Ezinbestekoa da euskara sustatzeko diru publikoa gastatzea" eta G-4.17 "Euskararen alde hizkuntza-politika izaten ari den kostuak arrazoizkoak dira".

  Bestalde, *bai-bainakoen* klusterrak eta *kritikoagoen* klusterrak bat egiten duten itemek txanponaren ifrentzua erakusten dute; hauek dira bi talde horiek egiten dituzten kritikak: G-4.8 "Euskara azkarregi berreskuratu nahi izan da", G-4.9 "Oposizioak egiteko euskara jakin behar dela eskatzea onartezina da, diskriminatzailea baita" eta G-4.10 "Ez litzateke euskara-

ren erabilera Euskadiko biztanleria guztiarengana zabaltzen ahalegindu behar".

Gainera, G-4.1 itemari dagokionez –"Ezinbestekoa da jendaurrean lan egiten duten funtzionarioek euskaraz hitz egin dezaten eskatzea"–, adostasun falta dago, baina iritziak ez dira klusterren arabera banatzen.

- Era berean, beste adostasun-maila bat bilatu daiteke euskaraz ez dakiten herritarren gehienak euskararen normalizazioan laguntzearren zer egiteko prest dauden aintzat hartuta. Azterketa kualitatiboan *bai-bainakoek* azpimarratutako zenbait ekintza aipatu dira, bai eta beren gain hartzeko gai ikusten ez diren beste zenbait ere. Gai hori azterketa kuantitatibora eramanez, zenbait galderaren bidez alderdi hori neurtu nahi izan da: G-5 galderan euskararen aldeko bost ekintza edo jokabide zehatz proposatu dira, hizkuntza ondo edo apur bat ikastea barne; G-6.3 galderaren bidez, euskara ikasteko prest egongo liratekeen edo gustatuko litzaiekeen galdetu zaie inkestatuei; eta, azkenik, G-8 galderan inkestatutako pertsonek euskara ikastea pentsa dezaketen hainbat egoera proposatu dira. Erantzunak aztertuz, honako gai hauei dagokienez adostasun maila edo atalase bat lortu dela esan daiteke:

  Gehienak prest agertu dira beren seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegintzeko, eta, gainera, ehuneko garrantzitsu bat prest dago hizkuntza apur bat ikasteko, haurrei etxeko lanak egiten laguntzeko, bai seme-alabek egiten dituzten jardueren testuinguruan parte hartzeko. Gai bakoitzarekiko atxikimendu-maila aldatu egiten da *ideologia, identitate-sentimendua* eta *euskal abertzaletasuna* aldagaien arabera; dena den, argi dago seme-alabekin zerikusia duen oro oso motibagarria dela ekintzari begira.

- Gainera, oso zabalduta dauden hainbat elementu positibo daude euskararen aldeko jarrera erakusten dutenak; horietako batzuk, hain zuzen, jada aipatu dira: euskarari lotutako munduarekiko hurbiltasunari eta/edo balorazioari dagokionez, %80,4k adierazi du euskararen mundutik gertu dagoela edo mundu horretan interes handia duela; hizkuntzarekiko aurreiritzi orokorrei dagokienez, berriz, %67k uste du euskara hizkuntza "oso

polita" dela (G-10.10) eta %81,1 ez dago ados "baserritarren" hizkuntzatzat hartzearekin (G-10.11). Hizkuntza-aniztasunari dagokionez, %69,4k arazotzat hartuko luke euskara desagertzea; ostera, euskaraz ez dakiten pertsonen aurrean euskara erabiltzea dela eta, %58,2ri ez zaio axola bere aurrean euskaraz hitz egitea nahiz eta berak ez ulertu.

Adostasun-maila bat lortzeko saiakerak ez du fruitu askorik eman, euskararen aldeko printzipio orokorren adierazpen bat edo oso orokorrean egin diren balorazio positiboak izan ezik. Errealitatea eta adostasunean oinarrituta jarduteko nahia alderatuz, hainbat hausnarketa egin dira, atal honen hasieran aipatu diren beste ideia batzuetara ere zabal daitezkeenak. Egiaz bete nahi diren eta, antza, oinarri dituzten balioak direla-eta, ukaezinak diren ideiak edo nahiak dira; aldi berean, ordea, badute ezkutatu ezin den beste aldagai bat eta "esanahi bikoitz" bat, hurrengo lerroetan irakur daitekeen bezala, gogoan izan behar dena. Hau da, euskararen egoeran dagoen hizkuntza batek beti beharko du erakundeen eta gizartearen konpromisoa; baina, bakoitzaren iritziaren arabera, batzuentzat bidezko diskriminazio positiboa dena beste batzuentzat inposizioa da. Erabateko adostasuna baldintzatzat hartuz gero, ez al litzateke eragozpen izango euskararen aldeko edozein ekimen burutzeko? Guztien eskubideak errespetatzeak –hau da, euskaldunenak nahiz euskara ikasi nahi ez dutenenak– gatazka sortzen du askotan; euskararen politizazioa gai oso negatibotzat hartzen da, baina zenbait alderdi politikok hizkuntzaren alde egin ez balute, ez zen aurreratu den beste aurreratuko; euskara guztiena dela esaten da, ez alderdi politiko batena, baina alderdi guztiek ez dute beren hizkuntzatzat hartzen eta ez dute horrekiko konpromisorik hartzen; euskararen berreskuratzea modu naturalean gerta dadin eskatzen da, baina hizkuntza batek bestea menderatzen duenean naturaltasuna hizkuntza bere zoriaren menpean uztea esan nahi du.

Atal honetan, azterketan gehien errepikatu diren zenbait nozio edo ideia sakontzen saiatu gara; azken batean, nozio horien garrantzia eta eraginak agerian utzi nahi dituen hausnarketa da. Dena den, ez da ondorioztatu behar egoera perfektura iristea lortu behar ez denik, adostasunik bilatu behar ez denik, edota euskara guztiok barneratu dezagun lan egin behar ez denik. Horiek

gauzatzean, ordea, argi izan behar da zer egoeratan gauden; hau da, gatazka-elementuak daudela, gatazka prozesuan sartu behar dela eta hori kudeatzen ikasi behar dela, gizartearen gehiengoaren nahietara ahalik eta gehien hurbilduz. Inola ere ez da utzi behar ideala lortzeko nahia hizkuntza ahultzeko arma edo hizkuntzaren aldeko neurriak baztertzeko aitzakia bihur dadin

Amaitzeko, irakurketa positibo bat egin behar da: adostasunari buruzko datuek erakusten dutenez, oinarri sendoa dago, bai neurri- edo ekimen-multzoei dagokienez, bai zerbait egiteko prest dauden pertsonen ehunekoari dagokionez; beraz, hori abiapuntutzat hartuta, aurrera egin daiteke. Gai honi dagokionez, motibazioei eta konpromiso-mailari buruz esandakoa onartu daiteke: askotarikoa da, hainbat mailatakoa, eta politika azkar batek aniztasun hori identifikatu, zilegi bihurtu eta, gero, aintzat hartu beharko luke erakundeek hizkuntzari ematen dioten laguntza kudeatzeko prozesuan.

## 7.4. BESTE IKERKUNTZA-BIDE BATZUK

Azterketa honek datu interesgarri batzuk eman ditu euskararekiko dauden jarrerak ezagutzeko, eta, aldi berean, datu horiek berak eta azterketaren beraren mugak oinarri hartuta, galdera ugari azaleratu ditu. Uste dugu beharrezkoa dela lanean jarraitzea, azterketa honetan izandako ikuspegia oinarri hartuta, errealitateari buruz gero eta gehiago jakiteko; horrela, euskararen aldeko politika azkarrak eta ongi funtsatuak garatu ahal izango dira.

### 7.4.1. Gazteen jarrerak edota gazteen erabilera

Azterketa honetan ez dira kontuan hartu 18 urte baino gutxiagoko gazteak; hala ere, hainbat gairi dagokionez, nerabeei erreferentzia egin zaie, behin eta berriz. Oso interesgarria izango litzateke nerabeek euskararekiko dituzten jarrerei buruzko ikerkuntza bat egitea, azterketa honen modu berean; hau da, batez ere, kualitatiboa, euskararekin lotutako jarrerek eta bizipenek zalantzarik gabe duten konplexutasunaz ohartzeko. Azterketa honen bidez, agerian gelditu da euskarak “guaya” izatearekin, modernitatearekin edota gaztetasu-

narekin duen lotura txikiari buruz partaide askok duten kezka; ezaugarri horiek guztiak, zehazki, gaztelaniarekin eta ingelesarekin lotzen dituzte. Hain zuzen, horrelako gai-motak landu beharko lirateke azterketa honetan. Talde honen osotasunean oinarritu beharko litzateke ikerkuntza, eta, bertan, kontuan hartu beharko lirateke hizkuntzaren hainbat gaitasun-maila, bai eta etorkin gazteak ere.

Halaber, beharrezkoa dirudi gazteen hizkuntza-erabilera sakontasunez ikertzea. Hain zuen, gure azterketan parte hartu dutenek askotan egiten diote erreferentzia gazteek euskararekiko duten erabilera urriari, "guztiek dakite baina gero ez du inork hitz egiten" esapidearen ildoari jarraiki. Gaztelania nagusi den inguru soziolinguistikoetako gazteei dagokienez, bada orokortuta dagoen beste pertzepzio bat, euskaraz ez dakitenen artean behintzat; hau da, gazteen hizkera, nerabeen hizketa urratzailea, gaztelanian oinarritzen den ustea oso zabalduta dago. Baina, benetan, egia al da? Gure iritziz, gazteek euskara erabiltzeko duten moduari buruz dauden pertzepzioak ez datoz bat errealitatearekin, eta, gainera, gazteen erabilerak desberdinak izango dira inguru soziolinguistiko bakoitzean. Beraz, euskarak gazteen artean duen presentzia indartzeko eta hitz egiteko behar dituzten ereduak eta baliabide dinamikoak eskura jartzeko, beharrezkoa da gazteen hizkuntza-erabilerak ezagutzea; hau da, batez ere euskaran edo gaztelanian oinarritzen diren edo bien arteko nahasketa duten oinarri.

### 7.4.2. Euskaldunek euskararekiko dituzten jarrerak

Azterketa hau, funtsean, EAEko biztanleria ez euskaldunaren jarreretan oinarritu da; hortaz, uste da emaitzak oso desberdinak izango liratekeela, baldin eta azterketan euskal hiztunak kontuan hartu izan balira, bai euskaldun-zaharrak, bai euskaldun-berriak. Oso interesgarria izango litzateke euskarari zehaztutako balioak azterketa honen xede-taldearen arabera nola aldatuko liratekeen aztertzea, bai eta eztabaida gehiago sortzen duten zenbait gairi buruz talde honek dituen bizipenak eta iritziak ezagutzea ere, esaterako: euskararen aldeko hizkuntza-politikari, inposizioaren gaiari eta hizkuntza-eskubi-

deei buruzkoak; azken batean, talde horren ideiak azterketa honetan aurkeztu dugun jarrera-tipologian aintzat hartzea.

### 7.4.2. Ezkutuko jarreren azterketan sakontzea

Ikerketa honen ezaugarri bereizgarrienetako bat elkarrizketa-datuak eta hiztunen berbalizazioak oinarri hartzea izan da; behin eta berriz adierazi den bezala, ideiak berak adierazteko moduari arreta jarriz, hobeto ulertu da horien konplexutasuna. Konplexutasun horretan daude, halaber, ezkutuko jarrerak, aurreiritziak edo usteak; ezkutuko jarrerak egon badaudela, hain zuzen, gauza jakina da hizkuntza-jarreren azterketan. Zenbait kasutan, pertsona bera jabetzen da horietaz, eta, beraz, ezkutatzea jakinaren gainean egiten duen ekintza bat da; beste batzuetan, berriz, jarrera inkontzienteak izaten dira, eta, beraz, ustekabean ezkutatzen dira. Azterketa honetan zehar, era horretako jarrerei aipamena egin zaie, tartean-tartean; halere, ez dira aztertu, ez eta sistematikoki arakatu ere. Hauteman al daitezke ezkutuko jarrerak? Horretarako, espezifikoki diseinatutako teknikak daude; horrez gain, ordea, ezkutuko jarrerak hizkuntzaren erabileraren bidez ere antzematen dira, eta, neurri batean, hiztunek solasean bertan egiten dituzten berbalizazioak aztertuz ere identifika daitezke. Beraz, hiztunaren subjektibotasuna islatzen duten hizkuntza-baliabideak ebidentzia-iturri izan daitezke; batez ere, adierazten dutena hiztunaren diskurtsoko beste elementuekin kontraesanean sartzen denean. Ebidentzia--iturri izan daitezke, esaterako, lexikoaren aukeraketa, irudikatzeko erabiltzen diren adibideak eta irudiak, modalizazioak edo enfasia. Gainera, gure datuen arabera, beste zenbait baliabide ere eraginkorrak izan dira: *lehen--orain* (beste denbora batekiko erreferentzia), *han-hemen* (beste leku batekiko erreferentzia) eta zeharkako diskurtsoa (beste batzuen ahoan norberaren ideiak jartzea).

Jarrerak hainbat arrazoi direla-eta ezkutatzen dira, besteak beste: politikoki zuzenak ez direlako, norbera hori adierazteko askatasunez sentitzen ez delako, pertsona bati jarrera horiek edukitzea gustatzen ez zaiolako eta ukatu egiten dituelako… Nolanahi ere, ezkutuan egon arren, bizirik jarraitzen dute,

eta, beraz, jokabideen oinarri dira. Dudarik gabe, azterketa hau osoagoa izango zen hiztunen ezkutuko jarreren hurbilketa bat egin izan balitz.

# ERANSKINAK

# I. ERANSKINA
# JARREREN DIAGRAMA


JARRERAK:
ANALISIAREN ATALAK
JARRERENIZAERA
ARLOAK: ZERI BURUZ
ADIERAZPEN ESANGURATSUAK
BALIABIDE DISKURTSIBOAK
Balio instrumentala
Balio integratzailea
Motibazioak
Ideologia
Normalkuntza
Erabilera
Ikas-irakaskuntza
Enpresa mundua
Epelak
Folk
Ezkutuak
Han-hemen
Irudiak
Lehen-orain


JARRERAK:
ANALISIAREN ATALAK
JARREREN IZAERA
BALIO INSTRUMENTALA
BALIO INTEGRATZAILEA
MOTIBAZIOAK
IDEOLOGIA
Tresna
Tresna arloak
Badauka
Beharrezkoa da
Ingelesa
Administrazioa
Etxeko lanak
Irakasleria
Badauka
Beharrezkoa da
Identitatea
Bi mundu
Bi mundu
Aurka
Barnekoak
Kanpokoak
Kontzientzia
Politizatua


JARRERAK:
ANALISIAREN ATALAK
ARLOAK:
ZERI BURUZ
NORMALKUNTZA
Erantzunkizuna
Kontrakoa
Modus vivendi
Gobernuaren eskuhartzea
Naturala
Prestigioa
Adostasuna
Babesa
Inposaketa
Bestelakoak
ERABILERA
Kalekoa
IKAS-IRAKASKUNTZA
Antolaketa
Frustrazioa
Metodoa
Motibazioa
ENPRESA MUNDUA
Enpresaren erabilera
Enpresa-normalkuntza
Babesa eta konpromisoa
Inposaketa
Zailtasunak


JARRERAK:
ANALISIAREN ATALAK
BALIABIDE DISKURTSIBOAK
HAN-HEMEN
IRUDIAK
LEHEN-ORAIN
Irakasgaia
Jolasa
Ideia zaparrada
Bestelakoak
ADIERAZPEN ESANGURATSUAK
EPELAK
FOLK
EZKUTUAK
Ederra
Elebitasuna
Galtzear
Jabekuntza
Kultura-hizkuntza
Kalitatea
Zaila
Bestelakoak

## 2. ERANSKINA

# IKERKETA KUANTITATIBORAKO ERABILITAKO GALDESORTA

**PERCEPCIONES Y ACTITUDES HACIA EL EUSKERA**

| | |
|---|---|
| Nº de cuestionario | |
| Fecha | |
| Municipio de realización de la encuesta | |
| Comarca (según muestreo) | |
| Entrevistador-a | |

Un grupo de investigación de UNESCO Etxea estamos realizando un estudio sobre las opiniones hacia el euskera. Necesitamos su valiosa colaboración para responder a unas preguntas. Garantizamos su anonimato. Preguntas para discernir si seguimos o no: sólo queremos personas de la zona en que entrevistemos que no sepan euskera bien, que no sean capaces de utilizarlo normalmente.

| | | | |
|---|---|---|---|
| A1 | Puedo comprender EN EUSKERA saludos rutinarios, preguntas y frases sencillas (p.ej. sobre el tiempo, la salud, los precios de las tiendas, etc.) | Sí (seguimos) | No (Pasamos a 4) |
| A2 | Puedo responder a preguntas simples y decir cosas sencillas. | Sí (seguimos) | No (Pasamos a 4) |
| A3 | Puedo participar en conversaciones coloquiales (sobre temas corrientes entre amigos) | Sí (no sigo) | No (Pasamos a 4) |
| A4 | ¿Lleva residiendo por lo menos 10 años en esta comarca? (en la Comarca donde se le realiza la encuesta, no en el País Vasco en general) | Sí (sigo) | No (no sigo) |

1. En mi entorno familiar y de amigos la presencia del euskera está ... (leer las posibles respuestas, nada presente, muy poco presente,…)

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| Nada presente | Muy poco presente | Poco/algo presente | Bastante presente | Muy presente |

2. De las siguientes afirmaciones elija la opción con la que está más de acuerdo: (Mostrar tarjeta)

| | |
|---|---|
| Aunque no sepa euskera me considero cercana/o al mundo del euskera | 1 |
| Desconozco el mundo en torno al euskera, pero me interesa | 2 |
| Desconozco el mundo en torno al euskera y no me interesa | 3 |
| No creo que hay un mundo diferente en torno al euskera | 4 |

3. Dígame cuál de las siguientes dos afirmaciones resume mejor su opinión:

| | |
|---|---|
| Para mí, el euskera es una de las lenguas de los vascos, no la lengua de los vascos | 1 |
| Para mí, el euskera es la lengua por excelencia de los vascos | 2 |

4. Hablando de las acciones que se están llevando a cabo desde la administración pública a favor del euskera, dígame por favor, en qué medida está de acuerdo o no con las afirmaciones que le voy a leer. (LEER EN ALTO Y MOSTRAR TARJETAS DE RESPUESTA) siendo 1 muy en desacuerdo y 5 muy de acuerdo.

| | Muy en desacuerdo | En desacuerdo | Ni de acuerdo ni en desacuerdo | De acuerdo | Muy de acuerdo | NS/NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.1. Es imprescindible que se exija que hablen euskera los funcionarios que trabajan de cara al público | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.2. En profesiones, como por ejemplo a cirujanos, no se les debería exigir que sepan euskera | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.3. La política lingüística a favor del euskera está imponiendo el euskera por decreto | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.4. Se deberían de respetar los derechos de los que no quieren aprender euskera | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.5. Para poder respetar los derechos de las y los hablantes de euskera, los funcionarios deben ser bilingües | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.6. Si se quiere salvar una lengua en peligro hay que tomar medidas para favorecerla, aunque no gusten a todos | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.7. Debería haber distintos ritmos en la promoción del euskera, no es igual una persona que otra, un municipio que otro | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.8. Se ha querido recuperar el euskera demasiado rápido | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.9. Pedir que se sepa euskera para hacer oposiciones es inaceptable porque es discriminatorio | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |

| | Muy en desacuerdo | En desacuerdo | Ni de acuerdo ni en desacuerdo | De acuerdo | Muy de acuerdo | NS/NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.10. No se debería pretender generalizar el uso del euskera a toda la población de Euskadi | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.11. Es imprescindible gastar dinero público en la promoción del euskera. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.12. No hay que dejar morir el euskera. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.13. Estoy de acuerdo con que se apoye el euskera | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.14. Para que el euskera no se pierda es necesario extender su uso, aunque pueda entenderse como una imposición. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.15. Los esfuerzos para apoyar el euskera son inútiles porque siempre va a estar en posición de riesgo. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.16. Es un poco absurdo hacer tanto esfuerzo por el euskera cuando luego no se ve que se hable. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.17. Los costes que está teniendo la política lingüística a favor del euskera son razonables. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.18. Hay que respetar el euskera. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.19.El euskera ya no está en peligro de desaparición | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 4.20. Los y las niñas de Euskadi deben aprender euskera. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |

5. ¿Me podría decir si estaría usted muy dispuesto, dispuesto, poco o nada dispuesto a hacer algún esfuerzo en cuanto al euskera? *Preguntar una a una las cuestiones*

| | 1 Nada dispuesto | 2 Algo dispuesto | 3 Bastante Dispuesto | 4 Muy dispuesto | NS/NC |
|---|---|---|---|---|---|
| 5.1. Haría el esfuerzo de aprender euskera bien | 1 | 2 | 3 | 4 | & |
| 5.2. Aprendería un poco de euskera para poder comunicarme mínimamente. | 1 | 2 | 3 | 4 | & |
| 5.3. Me aseguraría de que mis hijos e hijas aprendan euskera correctamente | 1 | 2 | 3 | 4 | & |
| 5.4 Buscaría oportunidades para que mis hijos conozcan el mundo vinculado al euskera, llevándoles a actividades en euskera como payasos, teatro, extraescolares. | 1 | 2 | 3 | 4 | & |
| 5.5. Haría lo posible para que la gente de mi entorno vea el euskera como algo positivo. | 1 | 2 | 3 | 4 | & |

6.1. ¿Está usted aprendiendo euskera?

| | |
|---|---|
| Sí (PASAR A P7) | 1 |
| No | 2 |

6.2. ¿Ha intentado aprender euskera anteriormente?

| | |
|---|---|
| Sí | 1 |
| No | 2 |

6.3. ¿Estaría dispuesto/a a aprender euskera , le gustaría?

| | |
|---|---|
| Sí | 1 |
| No (PASAR A P9) | 2 |

7. Dígame, por favor, qué importancia tienen los siguientes aspectos a la hora de decidir hacer el esfuerzo de aprender euskera. Para ello, tiene que elegir las 2 opciones que más le interesan en orden de importancia: He intentado o me gustaría aprender euskera... (Mostrar tarjeta)

| | Primer lugar (7.1) | Segundo lugar (7.2) |
|---|---|---|
| Porque es nuestra lengua | | |
| Por contribuir a que no se pierda | | |
| Por respeto a los y las vasco hablantes | | |
| Para poder ayudar a las y los niños de la familia con los deberes | | |
| Para poder comunicarme en euskera con los y las vasco hablantes | | |
| Para poder optar a más trabajos | | |
| Porque en mi entorno familiar o de amistad algunos lo hablan | | |
| Para enriquecimiento personal | | |
| Por acceder al entorno cultural vasco | | |
| Otros: (especificar) | | |

8. Estaría dispuesto a aprender euskera... (Elegir tantas opciones como se quiera)

| | | |
|---|---|---|
| 8.1. Si no me exigiese ir a clase dos horas diarias. | sí | no |
| 8.2. Si fuera en actividades unidas a las que hacen mis hijos/hijas | sí | no |
| 8.3. Si fuera a través de alguna actividad de mi interés, por ejemplo con un grupo de monte o haciendo un curso de cocina. | sí | no |
| 8.4. Si me liberasen como a los funcionarios. | sí | no |
| 8.5. No me animaría a aprender euskera bajo ninguna circunstancia | sí | no |

9. En el caso en que no esté aprendiendo euskera posiciónese en relación a las siguientes razones. (Respuesta múltiple. Elegir tantas opciones como se quiera)

**No aprendo euskera…** todos lo que no están aprendiendo ahora, los que han contestado NO en la 6.1.

| | |
|---|---|
| 9.1. Porque no tengo motivación suficiente | 1 |
| 9.2. Porque no tengo tiempo | 2 |
| 9.3. Porque el esfuerzo no me compensa | 3 |
| 9.4. Porque tengo otras prioridades | 4 |
| 9.5. Porque no me interesa en absoluto | 5 |
| 9.6. Porque me parece muy difícil. | 6 |
| 9.7. Porque creo que no sería capaz de aprenderlo suficientemente bien. | 7 |
| 9.8. Porque no me dan suficientes facilidades. | 8 |
| 9.9. Porque no se me da bien aprender idiomas. | 9 |
| 9.10. Otras (ESPECIFICAR) | 10 |

10. Para finalizar, dígame su grado de acuerdo o desacuerdo con las siguientes afirmaciones, siendo 1 muy en desacuerdo y 5 muy de acuerdo. (LEER EN ALTO Y MOSTRAR TARJETAS DE RESPUESTAS): PARA TODOS

| | Muy en desacuerdo | En desacuerdo | Ni de acuerdo ni en desacuerdo | De acuerdo | Muy de acuerdo | NS/NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10.1. A la hora de aprender otro idioma (inglés, francés,…) es mucho más fácil si sabes euskera y castellano | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.2. Yo creo que lo ideal sería que hubiera una única lengua en el mundo para comunicarnos mejor. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.3. A mí no me parece un problema que se pierda el euskera | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |

| | Muy en desacuerdo | En desacuerdo | Ni de acuerdo ni en desacuerdo | De acuerdo | Muy de acuerdo | NS/NC |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 10.4. Los niños de familia no vasco-hablante que estudian en euskera aprenden los contenidos de las asignaturas peor que si lo hicieran en castellano. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.5. A mí no me importa que se hable en euskera en mi presencia, aunque yo no entienda muy bien | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.6. El problema del euskera se solucionará con el tiempo porque las y los niños ya lo aprenden en la escuela. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.7. Es casi imposible aprender euskera de adulto porque es una lengua muy difícil | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.8. Es de mala educación hablar en euskera cuando alguien no entiende | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.9. El euskera es una carga para las empresas | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.10. El euskera es una lengua muy interesante y bonita | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |
| 10.11. El euskera sigue siendo una lengua de aldeanos | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | & |

**Datos de la persona encuestada**

11. **Sexo :**

| | |
|---|---|
| Hombre | 1 |
| Mujer | 2 |

12. **Edad:**

| |
|---|
| |

13. Dígame el nivel más alto al que ha llegado Ud. en sus **estudios:**

| | |
|---|---|
| Ninguno | 1 |
| Estudios primarios | 2 |
| Estudios secundarios (BUP, FP) | 3 |
| Estudios universitarios | 4 |
| Universitarios de postgrado (master y doctorado) | 5 |

14. **Profesión…**

| |
|---|
| |

Codificar en la siguiente tabla: (una vez cumplimentado el cuestionario, rellena la casilla correspondiente con la profesión de la persona consultada)

| | |
|---|---|
| Empresario/a (más de 10 empleados) | 1 |
| Pequeños propietarios/ empresarias (menos de 10 empleados)/ Autónomos sin asalariados/ Taxistas.) | 2 |
| Profesión liberal (abogada, médico, arquitecto,...) por cuenta propia | 3 |
| Técnico superior (abogada, médico, arquitecto,...) por cuenta ajena | 4 |
| Presidenta/ director general/ consejera delegada/ | 5 |
| Director/a de Departamento (Dtor. comercial, Dtor. Administrativo, | 6 |
| Técnico medio (Aparejador, Ingeniera o Arquitecto Técnico, técnico informático o de sistemas) Estadístico/ Enfermera/o (ATS, diplomados en Ingeniería) maestros/ Jefes de oficina y despacho (jefe de contabilidad, de personal, de ventas.../ Otros empleados de oficinas y despachos (administrativos, auxiliares administrativos, contables, secretarias...). | 7 |
| Agentes Comerciales/ vendedoras/ Comisionistas/ Representantes/ Puericultores (niñeras) | 8 |
| Agricultor/ Pescador/ Ganadera/ Jornaleros del campo. | 9 |
| Artesanos, trabajadoras manuales cualificadas, obreros especializados (policía, camarero, Cocinero, conductora, fontanero,...) trabajadores no cualificados (peones, asistentes, mozos mensajeros,...) Subalternas/ conserjes/ Vigilantes/ Bedeles/ Otros no cualificados | 10 |
| Labores del hogar(*) | 11 |
| Estudiante | 12 |
| Parado/a (*) | 13 |
| Jubilado/ pensionista/ rentista (*) | 14 |

(*) Preguntar por la ocupación anterior

15. **Convive...**

| | |
|---|---|
| En familia | 1 |
| Solo | 2 |
| Con amigo/a | 3 |
| Otros (especificar) | 4 |

16. Lugar de residencia

| |
|---|
| |

17. Lugar de nacimiento

| |
|---|
| |

18. ¿Podría indicarme las lenguas y niveles que conoce?

| | Nivel bajo | Nivel medio | Nivel alto |
|---|---|---|---|
| Inglés | 1 | 2 | 3 |
| Alemán | 1 | 2 | 3 |
| Francés | 1 | 2 | 3 |
| Catalán | 1 | 2 | 3 |
| Gallego | 1 | 2 | 3 |
| Otras | 1 | 2 | 3 |

19. Partiendo de los resultados de las últimas encuestas realizadas por el INE,el salario medio neto mensual en la CAV es aproximadamente de 1.440 €, ¿dónde situaría sus ingresos en la actualidad?

| | |
|---|---|
| Por debajo a esta cantidad | 1 |
| En torno a esta cantidad | 2 |
| Por encima de esta cantidad | 3 |

20. ¿Podría Posicionarse en función de su ideología política? (marcar de 0 a 10, donde 0 es total izquierda y 10 totalmente de derecha, siendo el punto intermedio el 5) (Mostrar tarjeta)

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Izq. | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | Dcha. |

21. ¿En cuanto al nacionalismo vasco, como se posiciona? (Escala 0 a 10) (Mostrar tarjeta)

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |

22. ¿Cuál de las siguientes frases expresa mejor sus sentimientos?

| | |
|---|---|
| Me siento únicamente español | 1 |
| Me siento más español que vasco | 2 |
| Me siento tan vasco como español | 3 |
| Me siento más vasco que español | 4 |
| Me siento únicamente vasco | 5 |
| NC | 99 |

Le agradecemos, francamente, su colaboración en el estudio que estamos realizando.

# ERREFERENTZIAK


Alberdi, J. (1996) *Euskararen tratamenduak, erabilera*. Bilbao: Euskaltzaindia.

Amorrortu, E., Barreña, A, Idiazabal, I., Izagirre, E. Ortega, P. eta Uranga, B. (2005). *Munduko hizkuntzei buruzko laburpena / World Languages Review Synthesis.* Bilbao: Unesco-etxea.

Bailey, R. W. (1991) *Images of English.* Cambridge: Cambridge University Press.

Barreña, A., Amorrortu, E., Ortega, A., Uranga, B., Izagirre, E. eta Idiazabal, I. (2007). 'Does the number of speakers of a language determine its fate?' *International Journal of Sociology of the Language*, 186, 125-139.

Barreña, A., Uranga, B., Amorrortu, E., Idiazabal, I., Izagirre, E. eta Ortega, A. (2006). 'Hizkuntzen iraupenari begira: hiztun kopuruaren inguruan hainbat datu eta hausnarketa'. Laka, I. y Fernández, B. (arg.). *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Barreña, A., Uranga, B., Izagirre, E., Amorrortu, E., Idiazabal, I. eta Ortega, A. (2005). *Europako hizkuntzak*. Bilbao: Unesco-etxea.

Bauer, L. eta P. J. Trudgill (Eds.) (1998) *Language Myths*. London: Penguin Books.

Baxok, E., P. Etxegoin, T. Lekunberri, I. Martínez de Luna, L. Mendizabal, I. Ahedo, X. Itzaina, R. Jimeno (2007) *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Brown, R. eta A. Gilman (1960) "The Pronouns of Power and Solidarity," in T. A. Sebeok (Ed.) *Style in Language* (New York: The Technology Press of MIT), 253-276 or.

Cabrera, J.C. (2000) *Dignidad e igualdad de las lenguas: crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza.

De Rijk, R. P. (1998) "Familiarity or Solidarity: the Pronoun Hi in Basque," in *De Lingua Vasconum*. Bilbao: University of the Basque Country, 297-300 or.

Echeverria, B. (2000) *The Gendering of Basque Ethnic Identity.* UMI: University of California, San Diego.

Echeverria, B. (2003) “Language Ideologies and Practices in Gendering in the Basque Nation”, *Language in Society*, 32, 383-413 or.

Europako Kontseilua (2002). Europako Hizkuntzen Erreferentzi Marko Bateratua. Donostia: HABE.

Eusko Jaurlaritza (2008) IV. Inkesta Soziolinguistikoa, 2006. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Gardner, R. C. eta W. E. Lambert (1972) *Attitudes and Motivations in Second-Language Learning.* Rowley, Massachussets: Newbury House Publishers.

Lambert, W. E. (1967) “A Social Psychology of Bilingualism”, *Journal of Social Issues* 23, 91-109.

Lippi-Green, R. (1997) *English with an Accent: Language, Ideology, and Discrimination in the United States.* London: Routledge.

Martí, F., Ortega, P., Amorrortu, E., Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P. Junyent, C. eta Uranga, B. (2005). Words and worlds. World Languages Review. Multilingual Matters. [(2005) Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Preston, D. R. eta N. Niedzielski (2000) *Folk Linguistics.* Berlin/New York: Mouton de Gruyter.

Tejerina, B. (1992) *Nacionalismo y Lengua.* Madrid: Siglo XXI.

Trudgill, P. (1972) “Sex, Covert Prestige and Linguistic Change in the Urban British English of Norwich”, Language in Society 1, 179-195.

Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, Barreña, A. eta Ortega, A. (2008). *Hizkuntzak eta immigrazioa* / *Lenguas e inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia eta Amarauna, UNESCO-etxea.